


GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK

BIZI-ALTERNATIBAK ERAIKITZEKO GAKOAK

Jokin Alberdi, Isabel Casimiro, Teresa Cunha,
Alfonso Dubois, Gonzalo Fernández, Yolanda Jubeto,
Mertxe Larrañaga, María Oianguren eta Luísa de Pinho Valle



Gernika Gogoratuz

Gernika Gogoratuz, Bakearen Aldeko Aztertegia, bakearen aldeko ikerketa zentro bat da, Eusko Legebiltzarraren erabakiz 1987ko apirillean sortua Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrenarekin bat etorriz. 1995etik aurrera **Gernika Gogoratuz Fundazioak** babesten du, eta izen bereko elkarte bat du. Ez du irabazi-asmorik eta independentea da.

Gernikaren sinbologia sendotzea du helburu, atzera eta aurrera begira: atzera begira, bertako historia gogoratuz eta ohoratuz, eta aurrera begira, hausnarketa zientifikoan oinarrituta bakea lortzen lagunduz, hau da, bake askatzailea, bidezkoa eta adiskidetzaila lortzen lagunduz, hala Euskal Herrian nola mundu osoan.

Hau du bere ikuspegiaren ardatza: bai tokiko esparruan eta bai mundu mailan bakearen aldeko ikerketa eta ekintzaren erreferentziazko gune sortzailea izatea, sentsibilitate desberdinak bilduta, gizarte-eraldaketa eta aldaketak eragiten laguntzeko, bakearen kultura lortze aldera.

Bakea eraikitzeko esparruan dihardu lanean, ikerketaren bidez, prestakuntzaren bidez, eskuhartzeen bidez eta dibulgazioaren bidez, hartara lan-sareak sendotzeko eta Gernika munduko bakerako faktoreetako bat izan dadila lortzeko.

Jardunaldi akademikoak, sozialak, kulturalak eta artistikoak antolatzen ditu: Kultura eta Bakearen Jardunaldiak, Artearen eta Bakearen inguruko Topaketak, Antimilitarismo eta Memoria Historikoaren Jardunaldiak, eta Bakearen Ekonomiari buruzko Laborategiak.

Hainbat lan argitaratzen ditu **Gernika Sarea** proiektu editorialean (berradiskidetzearen aldeko prozesuetan laguntzeko nazioarteko sarea).

GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK

BIZI-ALTERNATIBAK ERAIKITZEKO GAKOAK

Liburu hau egitea posiblea izan da Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (AVCD-Elankidetzaz) eta Gernika Gogoratuz Bakearen Ikerketarako Elkartearen finantzaketari esker, Gernikatik Mundura elkartearen laguntzarekin.



GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK

BIZI-ALTERNATIBAK ERAIKITZEKO GAKOAK

Jokin Alberdi, Isabel Casimiro, Teresa Cunha,
Alfonso Dubois, Gonzalo Fernández,
Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga,
María Oianguren eta Luísa de Pinho Valle

Gernika Sarea Bilduma

Bildumaren zuzendaria: María Oianguren Idigoras

Itzulpena: Bakun, S. L.

Argitaratze-koordinazioa: Mercedes Esteban eta Blanca Pérez Fraile.

Diseinua eta maketazioa: eMeriel.

Azaleko irudia: goikipedia.

© Jokin Alberdi, Isabel Casimiro, Teresa Cunha, Alfonso Dubois,
Gonzalo Fernández, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga,
María Oianguren eta Luísa de Pinho Valle, 2019

© Bakearen Aldeko Ikerketarako Elkartea Gernika Gogoratuz, 2019

Artekalea, 1-1. solairua • 48300 Gernika-Lumo

Tel.: 946 25 35 58

Posta elektronikoa: info@gernikagogoratuz.org

<http://www.gernikagogoratuz.org>

ISBN: 978-84-09-17636-6

aurkibidea

| | | |
|----------|--|-----|
| 0 | SARRERA <i>Alfonso Dubois Migoya</i> | 9 |
| 1 | PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA KONTZEPTUAK ETA ANALISI-MARKOA <i>Alfonso Dubois Migoya</i> | 25 |
| 2 | HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK GURE MOZAMBIKEKO ERRAUSKINEK HITZ EGIN NAHI DUTE <i>Teresa Cunha eta Isabel Casimiro</i> | 71 |
| 3 | LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO ETA BIZITZA SAREAREN ALDEKO PROPOSAMEN FEMINISTAK <i>Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi eta Luísa de Pinho Valle</i> | 119 |
| 4 | GATAZKA ETA BIZI-ALTERNATIBAK BIZITZA EMANTZIPAZIO-PRAKTIKA GISA <i>María Oianguren Idigoras</i> | 157 |
| 5 | BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEETAKO IKASKETAK <i>Jokin Alberdi Bidaguren</i> | 183 |

6 BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA

MEGAPROIEKTUEI AURRE EGITEKO
HERRI-ERRESISTENTZIARAKO GAKOAK

Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate

221

O

SARRERA

Alfonso Dubois Migoya

Alfonso Dubois Migoya Nazioarteko Ekonomiako eta Garapenaren Ekonomiako irakasle erretiratu da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Hegoa, Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikasketen Institutuko lehendakaria izan da, 1996tik 2010era bitarte.

Bere jardueran garapenerako nazioarteko lankidetzarekin lotuta egon da. Honako gai hauek jorratu ditu bere ikerlan eta argitalpenetan: giza garapena, pobrezia, garapenerako lankidetzaren teoriak eta desberdintasuna. Eusko Jaurlaritzaren Euskal Lankidearentzako Saria, 2007.

«**G**atazka egoeran dauden lurraldeak: gaitasunak sendotzeko eta bizi-alternatibak eraikitzeko ikerketa, prestakuntza eta ekin-tza» proiektuaren parte da liburu hau. Xedea da faktore transnazio-nalek hiru lurraldetan duten eragina aztertzea. Lurralde horietan, be-ren etorkizuna autonomiaz erabakitzeko gaitasuna mehatxupean dago kanpo-eragileen jardueraren ondorioz. Horrez gain, horietan dauden gaitasunak nola indartu proposatzen du liburuak, alternatiba propioak definitzea eta eraikitzea posible izateko.

Gernika Gogoratuz eta Gernikatik Mundura-ren egitasmo baten emaitza da proiektu hau, eta Tolimako Unibertsitatea (Kolonbia), Coimbrako Unibertsitatearen Centro de Estudos Sociais (Portugal), WLSA Mozambique eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen lankidetzat du, hiru lurraldetako egoera aztertze-ko —Cabo Delgado (Mozambique), Tolima (Kolonbia) eta Urdaibai (Euskal Herria)—. Horietan gatazka-testuinguruak izan dira, modu ugari eta desberdinetan adieraziak, herri aldarrikapenen eta kanpoko interesen xedeen artean.

Hurrengo orrialdeetan, honako helburu hauek jorrazteko egokitza-tak diren planteamendu teorikoen azalpena emango da: a) tokiko gizarte bakoitzaren proiektuen eraikuntza-prozesuetan faktore transnazio-nalek duten eraginaren berri izatea, batik bat enpresek duten eraginarena; b) iraunkortasuna eta justizia soziala oinarri hartuta lurraldearentzako konponbide alternatiboak sustatzen dituzten prozesu kolektibo kriti-koak deskribatzea eta ebaluatzea.

Helburua ez da emaitza unibertsalera iristea, baizik eta testuin-guru bakoitzean egindako azterketetatik ondorio batzuk ateratzea. Era berean, esan behar da helburua ez dela konparaziozko analisi bat egi-tea, halako proiektuetan ohikoa izaten baita hori, baizik eta helburua dela egoera berezituak aztertu ostean ateratzen diren gogoetak jasotzea, guztien ezaugarri komuna beren tokiko autonomiak duen mehatxua izanik.

GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK

Analisirako modu jakin horrek ezinbesteko bihurtzen du erabili beharreko prozedurak edo ikerketa-metodoak adostea. Proiektu-proposamen honek lau ardatz jakin definitu ditu: 1) lurra izateko aukera, 2) genero-desberdintasunak, 3) iraunkortasuna, eta 4) kultura-identitate. Hori guztia gizarte bakoitzaren gaitasun kolektiboen erreferentzia izanez, proiektu propioak eta alternatiboak egiteko aukera bermatzeko.

Lantaldeek zenbait bilera egin zituzten jarrerak gerturatzeko eta azterketetan aplikatu beharreko ikuspegi teorikoak bateratzeko, eta honako ildo hauek adostu zituzten ikerketetarako:

- Enpresa transnazionalak (edo, modu orokorragoan, tokiko administrazioen aurrean interes transnazionalak defendatzen dituzten instantzia ezberdinek) lurraldearen gainean jokoan jartzen dituzten presio-modu espezifikoak aztertzea.
- Gizarte-mugimenduek eta publikoak ez diren erakundeek emandako erantzunak identifikatzea, eta haien indarguneak eta ahuleziak nahiz kritikarako eta alternatibak sortzeko duten gaitasuna aztertzea.
- Tokiko eta estatuko botere publikoen jokabidea ezagutzea, erabakiak hartzerakoan taldeek eta sektoreek izaten dituzten ordezkartza-arazoei arreta berezia jarritz.
- Faktore transnazionalen ekintzak biztanleen bizimoduetan dituen ondorioak azaltzea.

Horiek izan ziren hiru azterketetarako finkatutako helburuak; alabaina, horiez gain, bakoitzak helburu partikularrak izatea ere onartu zen, lurralde bakoitzaren ezaugarri bereziak eta kanpo-presentzia kontuan hartuta.

IKUSPEGI ETA ILDO METODOLOGIKO NAGUSIAK

Metodologia beharrezkoa da analisirako eta sistematizaziorako balio ez duen sakabanatutako informazio multzo bat ez izateko emaitzatzat. Gainera, erreferentzia metodologiko komun bat izatea ezinbestekoa da ikerketa-taldeen arteko harremanetarako. Beraz, funtsezkoa da esparru teorikoa eta metodologikoa aukeratzea. Gure kasuan, tokiko gizarteek talde gisa beren helburuak definitzen dituzten eta helburu horiek bete nahi dituzten tokiko faktoreei eta dinamikei heltzeko gaitasuna duen

esparru bat proposatuko dugu. Erabiliko diren tresna metodologikoei buruzko erabakiak eragin handia du; izan ere, erabiliko diren tresna horien arabera, ikerketen ondorioak oso ezberdinak izango dira. Esparru bat edo beste bat aukeratzea erabakigarria izango da arazo nagusitzat jotzen diren horiek identifikatzeko, emaitzak ebaluatzeko erabiliko diren irizpideak definitzeko, eragile nagusitzat edo protagonistatzat hartuko diren subjektuak edo eragileak nabarmentzeko, eta abar.

Gure ikerketaren kasuan, esparru hori izatea bereziki zaila da; izan ere, errealitate geografiko eta kultural oso ezberdinekin lan egiten da, eta, gainera, askotariko prestakuntza akademikoa duten pertsonen osatzen dituzte lantaldeak, eta profil aktibistagoa dute batzuek eta pragmatikoagoa besteek. Horregatik, ezinbestekoa da hizkera eta gogoeta partekatuekin konektatzeko aukera emango duen esparru bat izatea, nahiz eta horrek ez duen esan nahi esparru hori bakarrik dagoenik.

Erroka metodologiko horri aurre egiterakoan, oinarrizko bi argibide hartu behar ditugu kontuan. Alde batetik, ez dagoela metodologia neutrorik, ez behintzat gizarte-zientzietan. Aukera metodologiko ororen atzean, aurrez hartutako jarrera teoriko eta normatibo bat dago. Gure proposamenaren nahia da zer gertatzen den ulertzea, baina irakurketa hori gure ustez gizarteak izan behar duenari buruzko ikuspegi jakin batetik abiatuta egin nahi du; eta tresnak eman nahi ditu, norabide jakin batean doan aldaketan eragiteko. Ezin da metodologiari buruz eztabaidatu dimentsio normatibo horretatik abiatu gabe.

Bigarrenik, ezin da metodologiari buruz pentsatu izaera abstraktuko arazotzat hartuta, alegia, denbora eta tokia alde batera utzita. Izan ere, lotura zuzena eta estua du testuinguruarekin, errealitateak planteatzen dituen kontuei erantzuteko gai izan behar duelako. Errealitate horrek aurkezten dituen arazoen elikatzen dute metodologia, eta haiei aurre egiten die. Gauzatzen ari diren aldaketa-prozesu sakon eta askotarikoak dira gure garaiaren ezaugarrietako batzuk, eta horiek zailtasun jartzen dituzte analisirako erabiltzen diren kategoria teoriko eta metodologiko asko, ez baitute balio azaleratzen ari diren erroka berrientzat. Horregatik, iristen zaizkigun galdera berriak zehazteko gai izan behar du metodologiak, bai eta galdera horiek aztertzeke beharrezko kategoriak eta erantzunak proposatzeko gai ere.

Gogoeta horiek kontuan hartuta, proposatzen den metodologiaren ezaugarri nagusiek lau alderdi hartzen dituzte: a) dimentsio normatiboa; b) aldaketari dagokion dimentsioa; c) dimentsio kolektiboa; eta d) dimentsio kognitiboa edo ezagutzearen konplexutasunari lotutako dimentsioa. Lau alderdi horiek izango dira erreferentzia

edo ardatz nagusiak, eta gure ustez metodologiak izan behar duenari buruzko nortasun berezitua ematen dute. Proposamen alternatibo bat duen metodologia bat egin nahi dugu, eta horrek alderdi normatiboari heldzea eskatzen du; aldaketari erronka gisa aurre egiteko xedea izatea nahi dugu; lehenasuntzat jarduera kolektiboa hartzea; eta ezagutzari lotutako gaur egungo zailtasunen jakitun izatea, planteamendu lineal edo automatikoak saihestuz.

Planteamendu horrekin diseinatu da *Gatazka egoeran dauden lurraldeak. Bizi-alternatibak eraikitzeko gakoak* izeneko liburu hau. Egin nahi den ikerketarako funtsezko gaien panorama eskaini nahi du. Helburua ez da hainbeste erantzunen laburpen bat egitea, baizik eta galderak identifikatzea, gaiak sailkatu eta lehenasunak finkatzea eta ditugun arazoei buruz eztabaidatzeko espazio komunak aurkitzea.

ONGIZATEAREN EDO BIZITZA ONAREN DIMENTSIO NORMATIBOA

Dimentsio normatiboaren funtsa da ea lortu nahi den etorkizunaren definizioak erantzuten ote dion zuzenagoa, askotarikoa, bizigarria eta pertsona guztientzako duina izango den mundu bati. Gizarte bakoitzak bere bizitza onari buruzko proiektua nola ulertzen duen definitzeko premia bere izateko arrazoiaren parte da. Definizio hori gabe, ez dago gizarterik. Historian zehar, lehenasunezko helburuak zeinek izan behar duten erabakitzerakoan askotariko interesen artean egon diren liskarrak izan dira bizitza kolektiboaren ezaugarrietako bat. Alabaina, konfrontazio horrek aparteko konnotazioak izan ditu funtsezko zenbait une jakinetan. Gaur egungo testuinguruaren ezaugarria da irismen eta sakontasun handiko zenbait aldaketa-prozesu ari garela bizitzen, eta testuinguru horrek hainbat erronka planteatzen ditu, konplexutasun handiko erantzunak eskatzen dituztenak eta ziurgabetasun handia eragiten dutenak. Etorkizunari buruz galdetzea, beraz, ez da kontu abstraktu bat, baizik eta momentu historiko honetan sortzen da eta testuinguru honetan biltzen da, eta gertatzen ari dena ulertzeko eta konponbideak proposatzeko kategoria berriekin formulatzen da.

Hala, aldaketa disruptiboa eta jarraitua da erreferentzia berria. Nola aurre egin? Baztertu egingo ditugu arazoak «funtzionamendu txar» bati egoztearekin konformatzen diren erantzun epelak, eta «beste zer-bait» behar dela pentsatuz abiatuko gara, hau da, mundu bizigarri eta zuzen bat eraiki nahi bada, erantzun alternatibo bat behar dela pentsa-

tuz. Kontua ez da arazo zehatz batzuei besterik gabe konponbide jakin batzuk emango dizkieten erantzunak aurkitzea, baizik eta, munduaren errealitate berria kontuan hartuta, gizarte zuzenago bat eraikitzeko proposamenak egin behar dira. Marina Garcések esaten duen bezala, giza duintasunaren eta askatasunaren zentzua bera dago jokoan, horiek modu partekatuan eraiki beharreko elkarrekiko unibertsalak izanik.¹ Bilaketa hori ezin da modu neutroan egin, erreferentzia etikoa behar da.

Alternatibari buruz pentsatzea zeregin handizalea da, zaila eta testuinguruak markatutakoa. Alternatiboa ez da printzipio jakin batzuen garapen denboragabea, baizik eta koiuntura jakin horretan erantzunak aurkitzeko kezkatik abiatuta gizarte bakoitzak egiten duen orainaren eta etorkizunaren proposamena da. Alternatiboa ez da kasualitatez etortzen, baizik eta gizarte horrek definitzen, diseinatzen eta nahi badu bakarrik gauzatzen da. Gizarteak zein norabideri jarraitu nahi dion erabakitzea eskatzen du alternatiboari buruz pentsatzeak.

Gizarte bakoitzak bere balioetatik, historiatik, pertsonetatik, baliabi-deetatik eta instituzioetatik abiatuta aurre egin behar dio erabakitze- eta definizio-prozesu horri. Ez dago etorkizunari buruzko ikuspegi berdín eta bakar bat gizarte guztientzat, eta ezin du egon gainera. Are gehiago, ongizate eta bizitza on gisa ulertzen denaren ikusmolde ezberdinen arteko bizikidetzak baketsua eta sormenezkoa da desiragarritzat jotzen den testuingurua. Cabo Delgado, Tolima eta Urdaibaiko lurraldeetan, zehaztu egin beharko dira komunitatea elkartzeko baliagarritzat jotzen diren proposamenak.

Ikuspegi ezberdinak ez daude gizarte batzuetatik besteetara bakarrik, baizik eta gizarte bakoitzaren barruan ere askotariko proposamenak daude. Ez dago objektibitate neutro eta abstrakturik. Amartya Senek «objektibitate posizionala» proposatzen du, nabarmenduz posizio sozial partikularretatik egindako balio-iritziek esanahi epistemologikoa dutela. Hau da, objektibitate ezberdinak dira, eta horrek ez du esan nahi hainbeste erlatibismoa defendatzea eta zenbait balio modu zabalean parteka daitezkeela ukatzea, baizik eta objektibitatea ez dela modu zuzenean eta hertsian unibertsaltasunarekin lotu behar nabarmentzea. Ulertu behar da balio-iritzietan «objektibitate posizionalak» daudela edo «testuinguruaren araberrakoa», eta pertsonaren ikuspegitik baloratzen dutela erlazio bat. Horrek esan nahi du behar normatibo bat dagoela modu jakin batera sentitu, pentsatu eta desio duen pertsonan. Ebaluazio-ikuspegi bakoitza sentibera da ebaluatzen duen horretako informazio-mota jakin batekiko, eta batera

1. Marina Garcés, *Nueva ilustración radical*, 2018.

sentsibilitaterik ez du beste batzuekiko. Objektibitate jakin bat unibertsal gisa defendatzearen atzean, nagusi diren interesen objektibitate hori bakarrik legitimatzeko nahia dago. Aitzitik, «objektibitate posizionalak» daudela onartzeak posizio sozial partikularretatik egindako balio-iritzien esanahi epistemologikoa nabarmentzen du. Ezinbestean pertsonen ongizatearen parte izan behar duten edukiak nork eta nola erabakitzen dituen erabakigarria da, horrek baldintzatuko duelako pertsona guztiek izatea edo ez izatea benetan balioetsua iruditzen zaien ongizatea. Erabaki horretatik kanpo uzten badira pertsonak edo taldeak, mugatu egiten zaie nahi duten edo balioetsua iruditzen zaien ongizatea askatasunez aukeratzeko gaitasuna.

Baieztapen horrek ez du, dibertsitatearen barruan eta elkarriketa- eta erabakitze-prozesu baten ostean, xede bakoitza alternatibatzat eta/edo zuzentzat hartzen den ebaluatzeko kategoria komunak egon daitezkeela ukatzen. Hau da, guztiak ez du balio; beraz, ezin da saihestu ebaluazio normatiboaren gai garrantzitsua. Eta horretarako, esparru normatibo bat behar da. Ikuspegi benetan demokratiko batek funtsezko rola du horretan, jarrera ezberdinen informazioa helburu partekatuetarako erabili nahi duten ezarpenen multzotzat ulertuta ikuspegi demokratikoa. Hor kokatzen dira planteamendu feministak, ongizateari buruzko ikusmolde ezberdina baitute nagusi diren ikusmolde patriarkalekin alderatuta. Eta horrek talde guztiei ahotsa eta boterea emango dieten instituzioak izatea eskatzen du: gizarte-posizio guztietako herri-tarren tokiko ikuspegi interakzio kritikoetatik abiatzea.

IKUSPEGIEN BATERATASUNA

Esparru normatibo bat hartzea funtsezko elementua da proiektuan. Alabaina, etorkizun desiragarri eta posibleari buruzko ikuspegi bakar bat ez dagoen bezala, ez dago edozein denbora eta garaitarako balio duen ikuspegi unibertsal bakar bat ere. Dena den, erreferentzia normatibo bat izatera behartuta gaude. Hori izan da ikerketa-taldeen artean egindako gogoetaren gai nagusietako bat. Alde batetik, UPV/EHUren taldea gaitasunen ikuspegiarekin aritu da lanean duela urte batzuetatik, tokiko giza garapen iraunkorraren proposamenarekin. Bestetik, Centro de Estudios Sociales-en taldea Hegoaldeko epistemologiaren ikuspegitik abiatu da, eta elkarriketa horizontal eta solidarioak defendatzen ditu munduan eskuragarri dauden ezagutzen artean, justizia maximizatze-ko guztientzat, salbuespenik gabe, eta Ama Lurrarekin eta bizitzaren

gainerako adierazpen guztiekin harmonian egoteko. Hau da, itxaropen-narratiba bat onartzen da, konformagaitasunetik abiatzen dena, ariketa kritiko soil bat eginez eta alternatibak eraikitzeko xederik gabe.

Taldeek espazio komunak aurkitu behar dituzte, bakoitzaren proposamenek topo egiteko eta elkar aberasteko. Eztabaida bat hasi behar dute, ikusteko gaitasunen eta/edo giza garapen iraunkorraren ikuspegiaren zein analisi-elementu diren egokiak kategoriatan komun horien zati bat eraikitzen joateko. Galdera moduan adierazita, kontua da ikustea ea posible ote den proposamen kontzeptual bat planteatzea bizitza onaren eta bestelako ikusmoldeen korrontearekin bateragarria den giza garapeneko proposamenetik abiatuta.

Aurrez, garapen iraunkorraren izendapenaren erabilerari buruzko argibide terminologiko bat: abiapuntuan, garapenaren kontzeptuaren beraren berrikuspen kritikoa dago, jakintzat joz gizarte bakoitzak balioztatzen jo duen etorkizun desiragarri eta posible bat eraikitzeko abiatzen duen eraldaketa kolektiborako prozesua dela termino horrekin lortu nahi dena. Beraz, giza bizitzaren dimentsio guztiak hartzen ditu barnean, haren inguru naturala barne; ez da alderdi ekonomikora mugatzen, funtsezkotzat ditu dimentsio soziala, politikoa, kulturala, ekologikoa eta etikoa ere. Arreta berezia jartzen zaio prozesu horren ikuspegi kolektiboari, eta kontuan hartzen ditu lurralde-erlaketak eta lurralde horretan dauden eragile eta instituzioen gaitasunak ere.

Gainera, giza garapenari erreferentzia egiten zaionean, ez da pentsatu behar Nazio Batuen Garapen Programaren proposamenak hartzea esan nahi denik (erakundeak 1990etik urtero argitaratuko txostenetan ageri dira proposamen horiek). Aitzitik, jarrera ofizial horiekiko ikuspegi kritikoa dago, askotan, gaitasunen ikuspegiak eskaintzen dituen potentzialtasunei buruzko irakurketa partziala eratzten dutelako. Gainera, ezin da esan gaitasunen ikuspegiak bertsio kanoniko bat duenik ere, kontrakoa, hainbat norabidetan zabaldu da ikuspegi, eta beharrezkoa da hori kontuan hartzea.

Gure ikuspegiak jarrera kritikoa du gaitasun indibidualetara eta egiturak eta instituzio sozialak modu instrumentalean hartzera mugatzen diren gaitasun-ikuspegiaren ohiko bertsioekiko ere. Pertsonen agentzia ezin da bereizi gizarte-egituretatik, taldearen balio komunetatik nahiz inguruko akordio eta esparruetatik. Gaitasunen ikuspegiak, dimentsio kolektibo horrekin ulertuta, hizkuntza komun gisa funtziona dezake, gizarte bakoitza, oso ezberdina izanda ere, behar bezain eroso sentitzeko etorkizuneko bere helburu kolektiboak planteatzeko. Ideia nagusia hau da: pertsonen nahiz instituzioen eta erakun-

deei balioesten eta lortu nahi duten bizitzeko modu bat aukeratzeko eta modu aktiboan taxutzeko aukera emango dieten gaitasun zehatzak eskuratzea dela gizarteak ekitate- edo justizia-printzipioen arabera funtzionatzen duen ebaluatzeko erreferentzia.

Proposamen ezberdinak eduki unibertsal batzuk eskatuz berdindu gabe ebaluatzeko ikuspegiaren esparruak duen egokitasuna baieztatzeko bi argudio garrantzitsu ateratzen dira hortik. Alde batetik, baliotsutzat jotako bizimoduaren edukia edozein izanda ere, eduki multidimentsionala izango da, eta horrek esan nahi du gizakien bizitzeko askotariko eremuetan egin behar direla lorpenak. Bestetik, izandako lorpen zehatzetatik haratago, funtsezkoa da horiek definitzeko eta lortzeko jarraitutako prozesua. Beren bizitzen gainean modu aktiboan aukeratzeko, erabakitzeko eta parte hartzeko autonomia pertsonal eta kolektibotik abiatuta egin bada soilik balioko du prozesuak. Alde horretatik, ikuspegiaren funtsezko zatia da dibertsitatea; izan ere, gaitasunei buruz hitz egiteak erabaki-prozesu propioak gauzatzea esan nahi du.

Ondorioz, gaitasunen esparru normatiboa onartzeak ez du esan nahi lehentasunezkatzat jotzen diren gaitasunen eduki bakar bat defendatzea. Ez dago zer den baliotsua erabakitzeko erreferentziarik, baizik eta kultura bakoitzak zehaztu behar du zein irizpiderekin egin ebaluazio hori. Dimentsio kolektiboaren kontsiderazio horretatik abiatuta, gizarte bakoitzak bere etorkizuna definitzeko eta aurrera eramateko duen gaitasuna da gakoa, eta funtzionamendurako prozesu kolektibo bat dakar horrek. Laburbilduz, ongizateari buruz egiten den proposamena da gizartearen dimentsio kolektiboaren prozesua funtsezkoa dela; beste hitz batzuekin esanda, ez dago garapenik prozesu kolektibo bat martxan jartzeko gaitasunik ez badago. Ongizateari buruzko eta bizitza onari buruzko ikuspegi ezberdinak elkarrekin aurrez aurre izatera eta elkarrekin bizitzera kondenatuta gaude, bai eta bizikidetzara hori emankorra eta positiboa izateko plataforma komunak bilatzera ere.

Kasu-azterketek osagai sozialetan (kolektiboetan) zentratu behar dute, ongizate indibidualetik bereizezinak direnetan, bai eta lurraldeetan gertatzen diren harreman sozialen eta instituzionalen analisi dinamikoan ere, aurreikusitako plan desarrollista handien aurrean tokiko gizarte bakoitzak bere bizi-proposamenak aurrera eramateko duen gaitasuna ikusteko. Kontua ez da gaitasun batzuk modu abstraktuan hartzea kontuan, ikuspegi neutro eta tekniko batetik ulertuta, baizik eta jendeak baliotsutzat jotzen dituen gaitasun horiek zabaltzea da kontua;

hau da, helburu jakin batzuekin bat etorri baloratu behar dira giza ekintzak. Neutroa ez den xede normatibo bat da, kanpotik inposatu gabeko eta aurrez zehaztu gabeko «izan behar» bat biltzen duena; hau da, gaitasun baliotsuak zein diren definitzeko prozesu pertsonal eta kolektibo bat gauzatu behar da. Definizio hori ez da adierazpen pragmatiko huts bat, ekintzarako dei bat da, dimentsio politikoa du. Helburuak ezartzeko eta emaitzak ebaluatzeko irizpide gisa baliotsuak diren gaitasunak definitzeak berak kategoria «praktiko» gisa ulertzea esan nahi du, operatibo gisa.

ALTERNATIBARAKO PRAXI-PROPOSAMENAK

Esparru normatibo bat planteatze hutsak ez du balio, baizik eta praxi-proposamenak ere eskaini behar dira desio den eta posible den etorkizuna eraikitzeko. Horregatik, aurrera egin behar da, eta praxi hori gidatzeko gai diren oinarri teorikoak hedatu behar dira. Nola diseina daitezke ekintza eraldatzaileak jendeak zenbait gaitasun baliotsuz gozatzeko aukera izan dezan?

Jardunbide hori gidatzeko, Hegoaldeko epistemologietatik nahiz gaitasunen ikuspegitik ondorioztatutako norabide hauek identifikatu dira. Asmoa ez da zerrenda itxi bat ematea, baizik eta alternatiba eraitzeko oinarritzakoak direnak nabarmentzea.

1. Tokiko gizarte bakoitzak proiektu kolektibo integratzaile eta parte hartzaile bat diseinatzeko eta abiatzeko gaitasuna izateko gaitasun individual eta kolektiboen garapenari laguntzen dion inguru bat osatzen duten baldintzak sortzeko lan egitea.
2. Lurralde batean dauden ikuspegi ezberdinen arteko topaketarako espazioak sortzea, eta horietan talde batzuen eta besteen interesak aitortzea. Gizarteak benetan inklusiboak izateko, beharrezkoa da deliberaziorako gune sozialak eraikitzea; hau da, lurralde bakoitzean eztabaida kolektiborako aukera emango duten kanalak eta arauak martxan jartzea. Ezin da aldaketa-prozesurik ezarri zaurgarriak diren taldeen partaidetza aktiborik gabe, eta, horretarako, funtsezkoa da:
a) zergatik gertatu den bazterketa eta zergatik kendu zaizkien gaitasunak ulertzea; eta b) beren kabuz beren bizi-ibilbiderako onuragarrienak diren aldaketez jabetzeko aukera emango dieten aliantza sortzaile eta eraginkorrek identifikatzea eta aliantza

horiek sortzea sustatzea, eta eragiteko eta negoziazio sozialerako duten gaitasuna handitzea.

3. Modu berezian hartu behar dira erreferentziatzat botere harreman berriei eta ahalduntzeari buruzko proposamen feministak. Hainbat testuingurutan botere-harreman desberdinak sortzen dituzten joko-arauekiko ikuspegi kritikoa izan behar da. Zapaldutako taldeen benetako partaidetza egoteko, beharrezkoa da talde horiek ahotsa eta erabakitzeko gaitasuna izatea gizarte-arauen ebaluazioan, beren beharrak eta interesak kontuan hartuko dituzten irizpide zuzenagoen definizioan. Hiritargo androzentrikoaren alternatiba bat proposatzea esan nahi du horrek, zapaldutako talderik gabeko hiritargoetatik abiatuta, batik bat emakumeen gaitasunetatik, haiek subjektu politikotzat hartuta. Demokratizazio berriak ordezkatu gabe dauden ahotsak bildu behar ditu, eta emakumeak aukeraketa sozialeko prozesuetan sartzeko bideak eraiki behar ditu. Horretarako, instituzio berriak sortu behar dira, hau da, dagoeneko balio eta interes patriarkalen arabera zehaztutako espazioetako kooptazio hutsera mugatzeko ohiko proposamenetatik haratago joan behar da. Laburbilduz, emakumeei partaidetzarako eta erabakiak hartzeko testuinguru berri baten sorreran eragile sustatzaile eta sortzaile izateko aukera emango dien demokratizazio baten alde lan egin behar da, eta, horretarako, joko-arauak eta erabakiak hartzeko guneak aldatu behar dira.
4. Konplexutasunari aurre egitea eta ekintzarako ikasketa-esparru batean aritzea. Bat-batean halako berrikuntza teknologikoa sartu izanak harridura eragiten duten gizarte-errealitateak ireki ditu, eta ez da erraza zein erantzun den egokia jakitea. Lurraldeen kasu propioan, berria da testuingurua, eta, besteak beste, denbora eta espazio maila eta eskala ezberdinak daude, autonomo samarrak diren erabaki-zentro ugari, koherentziarik ez duten eta kontraesankorrak diren prozesuak eta globalizazio-prozesuen ageriko eta ezkutuko moduak. Horren ondorioa da gaur egungo dinamikak linealak ez diren prozesu konplexuen bidez adierazten direla, eta ustekabeak diren eta aurretik jakin ezin diren erreakzioak eragiten dituztela. Eragile indibidual eta kolektiboetara gerturatzea da aldaketan esku hartzeko eta eragiteko modua, ezinbestekoa da eragileekin interakzioa izatea eta egokien jotzen diren bideak ikusten joatea.

Toki bakoitzean, analisiaren eta ekintzaren arteko integrazio estuagoa egoteko modurik onena aurkitu behar da. Planteamendu hori onartzeak, ezinbestean, ekintzarako ikasketa-esparru batean aritzea esan nahi du. Aurrez ezarritako ideiak alde batera utzi behar dira, eta malgutasuna onartu behar da, erronka berriak eta ahalmen berriak hartzeko.

NARRATIBA BERRIEN PREMIA

Nola pentsatu eta nola jokatu behar den ulertzeko aukera emango digun metodologia bat behar dugu. Horregatik, esku-hartzea bera baino askoz garrantzitsuagoa da interakzio- eta aurkikuntza-prozesua bera. Analisiaren eta ekintzaren arteko integrazio estuagoa eskatzen du horrek, bai eta eredu mental alternatiboak izatea ere, garapen indibidualeko arazo bati heltzeko ez, baizik eta elkarrekin lotura duten arazo konplexu, zalantzak eta askotarikoen multzoei heltzeko. Planteamendu hori onartzeak ekintzarako ikasketa-esparru batean funtzionatzea eskatzen du derrigorrez, eta agerian jartzen du sormenaren eta beste kultura eta erritmo batzuk onartzearen eta haiekin komunikatzearen garrantzia, bai eta gogoetazaletasunaren eta bizkortasunaren garrantzia ere.

Aldaketa-prozesua bera zalantzas bete eta testuinguruaren mendea da. Arazo askorentzat ez dago konponbide argirik, eta are gutxiago orokortu daitekeen konponbiderik. Konplexutasunaren ikuspegi horretatik ondorioztatzen da ezagutzari eta esku-hartzeari aurre egiteko moduak arreta nagusia tokiko unitate kolektiboetan jartzea eskatzen duela. Kategoría berriak, konplexutasunari heltzeko aukera ematen dutenak, ikasketa-esparruak martxan jartzearen emaitza izango dira, eta esparru horietan lankidetzaz, beste mentalitate batzuetara hurbiltzea, eragileen arteko interakzioa eta adostasunak eta oinarritzko akordioak hedadura handiko prozesu baten parte izango dira, amaigabeak beti. Ezaugarri horiek gauzatzea errazagoa da helburu komun batzuen bueltan kohesionatutako gizarteentzako testuinguruetan. Aldaketa erradikal baten proposamenak gizarte osoaren funtzionamendua kontuan hartzea eskatzen du.

Xede horiek dituen metodologiak diskurtso bat behar du, narraitiba bat. Logika arrazionaletik haratago doan diseinu bat eskatzen du, eta esku-hartzei koherentzia emateko, eta, batez ere, eraldaketaren oinarritzko eragileak erakartzeko, konbentzitzeko, motibatuzeko eta lili-

ratzeko gai den diskurtso bat behar du. Hain zuzen, pertsonak dira eragile horiek. Honako hau esaten du Marina Garcesek: «Kontaktizunaren ausentzian bizi gara». Kontakizunik eta norabiderik gabeko oraina bizi dugu, beti hausturaren ideia, hondamendiaren, etenaren mehatxupean. Kontakizun berri eta alternatibo bat eraiki behar da eremu askotan, ez dago beste aukerarik. Kontua ez da diskurtso ideal bat egitea, baina ezberdina den horri aurrez itxura bat emateko eta aldaketarako motibazio izateko balio behar du. Besterik gabe aldaketari zentzia emango dion teoria itxi eta barneratzaile bat egitea ere ez da kontua: bizitzaren zentzia jardunbide bat da desio bat baino gehiago, bizimodu bat nolabait. Ez da arazo batentzako konponbidea, baizik eta modu jakin batera bizitzea. Ez da diskurtso metafisiko bat, diskurtso etiko bat da.

Mendebaldeko gizarteak bere «egia» nola eraikitzen duen jabetzeko modurik onenetako bat da ikustea nola oinarritzen den diskurtso zientifikoan eta diskurtso hori egiten duten instituzioetan. Agindu sozial horretan dagoen logika argitzeko, zientziaren eta ezaugarri duen boterearen logikaren artean zer harreman dagoen galdetu behar da. Gizartea ulertzeko modu murriztaile hori positibismo izenarekin ezagutzen dugu, eta giza emozioen alderdia kanpoan uzteaz gain, oro har unibertsoa osatzen duten interakzioen konplexutasuna ere hala uzten du.

Emozioak ezagutza-prozesuaren parte ez izateko nahiaren ondorioa da emozioak ez izatea proposatzen diren metodologietako parte ere, eta horrek harremanen izaera osoa eta giza portaeraren konplexutasuna aztertzea eragotzi du. Alabaina, bizitza sozialean eta indibidualean orokortuta dauden elementuak dira emozioak, indar politiko garrantzitsuak.

Ilustrazioak aurreikusitako etorkizuna norbanakoa komunitatetik aparte ere kontzebi daitekeen ustearekin diseinatu zen, eta arrazoiak emoziotik aparte ere existi daitekeen ustearekin; hau da, zenbat eta indibidualizatuago egon pertsona bat, orduan eta premia txikiagoa izango duela komunitate batekin erlazionatzeko seguru sentitu ahal izateko, eta zenbat eta gehiago erabili arrazoiak munduarekin erlazionatzeko, orduan eta gutxiago erabiliko dituela emozioak. Fantasia batean oinarritzen da uste hori: indibidualtasunaren fantasian.²

Interpretazio-ikuspegi feministek eta beste batzuek kritikatu egin dute ikuspegi hori, eta esaten dute ikerketek balio dezaketela eta sako-
nak izan daitezkeela behagarriak ez diren fenomenoak nahasiz gero ere,

2. Almudena Hernando, *La fantasía de la individualidad. Sobre la construcción sociohistórica del sujeto moderno*, Buenos Aires, Katz, 2012.

baita emaitzak ezin badira neurtu eta enpirikoki baliozkotu ere. Era berean, irudikapen-prozesuak aztertzeak duen garrantzia nabarmentzen dute, hala nola emozioen irudikapen bisualak eta pertzepzio politikoak eta dinamikak osatzeko moduak. Ezagutzaren modu alternatiboak kon-tuan izatea eskatzen du horrek.

Eraiki egin nahi dugu, gizarte berrien diseinuan eta betearazpe-nean parte hartu; alabaina, beti ez daukagu arazo berriei buruzko iritzi bat adierazteko hitz egokiak. Horregatik, egoera berria deskri-batzeko aukera emango digun hizkuntza aurkitu behar dugu. Esanahi berriak azalduko dizkigun hizkuntza bat behar dugu, eta horrek sor-tzaileak izatea eskatzen digu. Desiragarria den etorkizun hori eratzeko aukera ematen duten kategoria eta tresna berriak imajinatzen jarraitu behar dugu. Bestelako pentsamenduak integratzen jakin behar dugu, parametro partikular jakin batzuk eta aldaketaren liderrak izateko beharrezko hegemoniara iristeko nahitik urrun gaitzakeen hizkera era-biltzen dituen esfera txiki batean itxita geratu gabe.

Diskurtso eraginkorrak eta benetakoak egin behar dira, ez oport-unista eta errazak. Ez da zeregin eroso, ez eta erraza ere. Hannah Arendtek honako galdera hau egiten zuen: Zergatik da hain zaila mundua maitatzea? Ez hainbeste sentimendu aldetik, ulermen aldetik baizik. Ez da gauza indargarri bat, erronka bat da. Ez dago galdera hauentzako erantzunik nahiko genukeen moduan. Mundua maitatzeak herritar sentipentsalariak eta konprometituak izatea esan nahi du.

Eremu askotan, kontakizun berri eta alternatibo bat eraiki behar da, ez dago beste aukerarik. Zer gertatzen da, ordea, ebidentziak eta argudioak ez direnean aski? Diskurtsoa behar da, durundi egiten du-ten istorio boteretsuak behar ditugu, geure buruari buruz geure buru handiago baten parte gisa pentsaraziko digutenak. Kontakizuna egitea isiltasunari kontra egiteko modu bat da. Baztertutako taldeak batu egiten direnean kontakizunean, haien esperientziek esanak forma hartzen hasten dira; kontakizunaren eraikitzailetzat duten autoritatea baliatuz eta esperientziatik abiatuta beren etika propioa artikulatuz, nagusi diren narratiben hausturak erakuts ditzakete, eta horrek narratiba berri bat azaleratzeko aukera ematen du.

KAPITULUEN EGITURA

Aurkibidean ikus daitekeen bezala, liburuak sei kapitulu ditu. Bakoi-tzak bere nortasun propioa duen arren, antzeko egitura hartzen dute.

Edukia aurkezten duen sarrera batekin hasten dira, eta hiru atal dituzte: a) kontzeptuak edo kategoría teorikoak; b) analisi-esparruak; eta c) baliabideak.

Aurrenekoan, gaiari heltzeko proposatutako funtsezko kontzeptuak azaltzen dira: zein dira kontzeptu edo kategoría horiek? Nola definitzen da haietako bakoitza? Atzetik datorren ikerketaren garapena markatzen duen atal nagusia da. Era berean, hor zehazten da metodologiaren eduki normatiboa. Kontzeptu bakoitza ez da modu neutroan ulertzen, baizik eta aldaketa alternatiborako nahia eta justizia-exigentzia bildu behar ditu.

Bigarrean, analisi-esparruenean, aurreko kontzeptuak nola jartzen diren jokoan eta ekintza-eragileen errealitatea nola hartzen den azaltzen da. Ikuspegi dinamikoa dela esan daiteke. Haren helburua da etorkizuna eta errealitate berriak eraikitzeko prozesu kritikoak ulertzeko elementuak eskaintzea. Horregatik, oinarrizko harremanak zein diren finkatu behar da, etorkizuna markatzen dutenak, eta zein diren prozesu protagonistak ere bai. Era berean, harreman eta prozesu horiek gertatzen diren testuinguruaren deskribapena ere elementu garrantzitsua da. Botere-harremanen analisisa oinarrizko kontua da.

Hirugarrenean, baliabideenean, osatu egiten da informazioa, atal bakoitzeko edukiak hobetzeko edo zabaltzeko erreferentzien bidez. Bibliografiak gain (kasu batzuetan iruzkindua), oso interesgarriak diren webguneei buruzko informazioa ere ematen da.

PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA KONTZEPTUAK ETA ANALISI-MARKOIA

Alfonso Dubois Migoya

Alfonso Dubois Migoya Nazioarteko Ekonomiako eta Garapenaren Ekonomiako irakasle erretiratu da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko lehendakaria izan da, 1996tik 2010era bitarte. Bere jarduera garapenerako nazioarteko lankidetzarekin lotuta egon da. Honako gai hauek jorratu ditu bere ikerlan eta argitalpenetan: giza garapena, pobrezia, garapenerako lankidetzeta, garapenaren teoriak eta desberdintasuna. Eusko Jaurlaritzaren Euskal Lankidearentzako Saria, 2007.

Gizarte guztiak proiektu baten bueltan elkartzen dira. Konbentzi-
mendu handiagoarekin edo txikiagoarekin elkar daitezke, ados-
tasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, baina proiekturik gabe, ezin
esan gizarte bat denik. Proiektu horren izaeran, proposamen ezberdin
ugari egon daitezke errealitatean. Partaidetza-gizarteak dira batzuk, eta
hitza ematen diete gutxiengoei; beste batzuek, berriz, baztertu egiten
dituzte nagusi diren jarrerekin bat ez datozenak. Gizarte ekitatiboak
dira batzuk, eta justizia sozialaren helburuak gizarte-ordenaren parte-
tzat dituzte; beste batzuek, berriz, desberdintasunak faktore positibotzat
dituzte beren proiekturako. Era berean, adierazteko moduak esplizituak
izan daitezke, edota posible da balio, sinesmen eta portaera multzo in-
formal batean murgilduta egotea ere. Proposamena eta haren adieraz-
teko modua edozein izanda ere, guztiak diskurtso batean oinarritzen
dira, hau da, diskurtso horretan oinarritzen da nahi dutenari buruzko
ikuspegia. Diskurtso hori elementu giltzarria da kolektibo bat osatzeko
eta kolektibo horrek bere aurrean agertzen zaizkion erronkei modu era-
ginkorrean aurre egiteko.

Pentsamendu alternatiboari buruzko gure proposamenaren abia-
puntua hau da: gizarte bakoitzak desiragarria eta egingarria iruditzen
zaion etorkizuna definitzeko eta gauzatzeko duen gaitasuna hartzea
ebaluazio-erreferentziazat; hau da, gizarte batek baliotsuak iruditzen
zaizkion ongizate-helburu komunak zehazteko erabiltzen duen prozesu
kolektiboaren funtzionamendua aztertu behar da, eta, batik bat, ikusi
behar da ea talde batzuen eta besteen interesak jokoan jartzea eragoz-
ten duten kanpo-eragile edo -faktoreek baldintzatuta dagoen, bai eta
erabakiak hartzeko prozesuetan interes horiek zenbateraino hartzen
diren kontuan ere.

Posizio hori hartuta, argi geratzen da alderdi kolektiboak garrantzi
handia duela proposamen alternatiboan, eta horrek eskatzen du arre-
taz erreparatzea zer-nolako harremanak izaten diren eragile indibi-
dual nahiz sozialen artean, helburuak definitzean eta helburu horiek

lortzeko moduan. Beste hitz batzuekin esanda, ongizatea gauzatzeko, ezinbestekoa da gizarteak prozesu kolektibo propio bat martxan jartzeko gaitasuna izatea, eta interes ezberdinek benetako partaidetza izatea prozesu horretan, beren helburuak eta horiek lortzeko erabiliko diren bitartekoak definitu ahal izateko. Horrek berekin dakar proposamen batzuen eta besteen artean sortzen diren gatazkei aurre egitea, bai eta konpromiso eta/edo akordioetara iritsi beharra ere. Zein baldintza dira beharrezkoak, gizarteko parte guztien arteko interakzioa egoteko eta interakzio horren emaitzak kolektibo gisa funtzionatzeko aukera emateko? Helburu komunak definitzea funtsezkoa da; kezka komunik gabe, ahalegin kolektiboak ez du pizgarririk. Horrek ez du esan nahi helburu horiek gauzatzeko moduari buruzko ikuspegi ezberdinak egon ezin direnik.

Kapitulu honetan, alternatibaren helburuak definitzeko nahiz haiek martxan jartzeko prozesuak ezagutzeko oinarritzotzat jo diren analisi-markoak azaltzen dira. Bi atal daude: a) lehenak pentsamendu alternatiboaren erreferentzia teorikoak biltzen ditu, gaitasunen ikuspegi oinarrituak; b) bigarrenak analisi-marko bat proposatzen du, lurralde jakinetan eraldaketarako ekintza-estrategiak diseinatzeko aukera emateko. Azkenik, hirugarren atalean, erabilitako bibliografia ageri da, bai eta gai horietan sakontzeko baliabideen azalpen labur bat ere.

PROPOSAMEN ALTERNATIBOAREN OINARRIAK

Atal honetan, proposamen alternatiboari nola heldu planteatuko dugu; hau da, zenbait pauta emango ditugu, aldaketarako egitasmo bat alternatibatzat noiz sailka daitekeen identifikatzeko. Izaera alternatiboa definitzen duten hiru erreferentzia nagusi proposatuko ditugu: 1) dimentsio normatiboa; 2) aldaketaren dimentsioa; 3) aldaketaren operatibotasuna. Ezin esan daiteke proposamen alternatiborik dugunik, proposamen horrek eduki normatibo propio irmorik ez badu, aldaketa ezinbesteko eskaeratzat jotzen ez badu eta errealitatean benetako eraginik ez badu. Baina erreferentzia horiek aipatzea ez da aski; benetan pauta moduan balio izateko, zehaztu egin behar da zein kategoria teorikoren bidez zabalduko diren. Jarraian, bereizita azalduko dira erabiliko direnak. Honako hauek dira: ongizatearen kontzeptua gaitasunen ikuspegitik abiatuta, dimentsio normatiboa definitzeko; gaitasunen garapen-prozesua, aldaketaren dimentsioa ulertzeko eta azaltzeko; eta gaitasun kolektiboak, hori posible egiteko tresnatzat.

■ Ongizatea eta gaitasunen ikuspegia

Proposatu beharreko eredu ekonomikoa eta soziala definitzerakoan, funtsezkoa da galdera hau: «zer da ongizatea?». Erantzunaren arabera, gizarte-funtzionamenduari buruzko eredu oso ezberdinak aurkituko ditugu. *Ongizatearen* terminoari buruz ari garenean, ohikoa baino zabalagoa den ikuspegi bati buruz ari gara, ongizate materialera mugatzen baita ohiko ikuspegia. Ikuspegi honetan, gizartearentzat eta, noski, hango kide diren pertsonentzat desiragarriak diren helburuen identifikazioa ere hartzen du ongizate kontzeptuak. Gaur egun, ongizatea zer den galdetzeko premia gero eta ohikoagoa da, eztabaida zabaldu baita gaur egun nagusi den ereduari buruz, erreferentzia berriak proposatzea exijitzen duela eta. Hertsiki ekonomizista den definizio bati uko egitean eta alderdi askoko definizio bat proposatzean, ezinbestekoa bihurtu da definizio horren edukia zehazteko moduari buruz eztabaidatzea.

Lehenik eta behin, agerikoa izan arren ez baita utzi behar esan gabe, esan behar da ez dagoela ikusmolde bakarra ongizatea zer den definitzeko. Eta ezin da egon, gainera. Aitzitik, oso ikusmolde ezberdinak daude, gizarteak gorpuzten dituzten kultura eta balioen arabera. Gaur egungo panoraman, *ongizatearen* berrikuspen edo planteamendu berriek oso sorta zabala hartzen dute: eredia zalantzan jartzen ez duten egitasmo kritikoak dira batzuk; beste batzuek, berriz, garapen ekonomikoari lotuta nagusi diren ikuspegiak erabat hausten dituzten formulazioak proposatzen dituzte, ikusmolde erabat ezberdinak, hau da, alternatibak proposatzen dituzte. Proposamen kritiko hutsak diren horiek gehienek, orain arteko ikuspegi ekonomizista zabaltzeko beharra nabarmentzen duten arren, ez dute beti mahai gainean jartzen edukiei buruzko eztabaida normatiboa.¹ XXI. mendeak bestelako testuinguru

1. Nagusi den ereduko instituzioetatik ere sortu dira ongizatearen adierazle berrietarako egitasmoak, gero eta sendoago uste baita pertsonen ongizatea neurtzeko erreferentziatzat per capita errenta erabiltzeko hutsuneak dituela. Berrikuspen-prozesu horren baitan daude honako proposamen hauek: Europar Batasunarena (*BPGd-etik harago*); ELGArena (*Aurrerabidea neurtzen*) eta zenbait gobernuarena, adibidez frantziarrena eta britainiarrena. ELGAren (Ekonomia Lankidetzeta era Garapenerako Antolakundea) *Bizitza hobe baterako indizea* da gehien zabaldutakoa, ongizate materiala eta bizitza-kalitatea ebaluatzeko modu berriak garatzeko Stiglitz, Sen eta Fitoussiren (2013) gomendioetatik abiatuta eraikitakoa. Egitasmo horiek interesgarriak dira, ongizatea definitzeko orduan kontuan hartu beharreko dimentsioak zabaltzeko premia aitortzen dutelako eta orain arte instantzia ofizialek itxitako eztabaida bati espazio bat irekitzea dakarrelako horrek, baina oso eragin praktikoa mugatuak izan dituzte.

bat du, eta ongizateari eta bizitza onari buruzko beste ikuspegi batzuen aldarrikapenak sortu dira; ez dira kritikoak bakarrik, baizik eta modernizazioaren lehentasunen erabat kontrakoak dira. Birdefinizio-prozesu horretan gizarte-mugimenduek duten rola nabarmendu behar da, ez bakarrik ideia berriak ematen dituztelako, baizik eta baita haien formulazioa egiten duten eragileak direlako ere.

Ongizatearen ikuspegi alternatiboak pertsonen eta gizartearen bizitzako zenbait dimentsiotan lorpenak egiten saiatzea eskatzen du, eta ongizatea gauzatzea pertsonen eta taldeen egintza librearen emaitza izatea. Baliotsua zer den aukeratzeko autonomia izatea erabakigarria da, eta horrek beren bizitza pertsonal eta kolektiboaren diseinuan eta garapenean modu aktiboan parte hartzea eta erabakiak hartzea esan nahi du. Garrantzitsua da aipatzea kontuan hartu behar direla talde jakin batzuen zapalkuntza-egoerak, eta, beraz, erabakitze-prozesuan haiek ere partaidetza eraginkorra izateko baldintzak bete behar direla, haien espezifikotasunak ere sartzeko; izan ere, nabarmendu ezean, lausotuta geratuko dira helburu komun baten aterki azpian. Mugimendu feministak aldarrikapen hori azpimarratu du emakumeen aintzatespen espezifikoa eskatzeko eta haiek erabakitze-prozesuan protagonismoa izatea exijitzeko.

Labur esanda, proposamen alternatiboak honako hauek jotzen ditu galdera nagusizat: zer den «ondo egotea», zein den bizitzea merezi duen bizitza; hau da, zein diren pertsona batek bere bizitzarako ezartzen dituen helburuak, eta zein diren gizarte batek gizarte osoarentzat ezartzen dituenak. Gizarte bakoitzak definitu behar du zein den berarentzat ongizateari buruzko definizio baliotsua, eta toki bakoitzean modu ezberdinean gauzatuko da, deliberazio-prozesu kolektibo baten ondorioz. Horrek ez du esan nahi ez dakigunik edo ukatu egiten dugunik badirela elementu komun eta unibertsalak giza bizitza duintzat hartzeko baldintzei buruz, baizik eta esan nahi du alternatiba-proposamenean norberaren burua definitzeko partaidetza-prozesuak azpimarratzen direla, kanpoko baldintzatzailek eta inposiziorik gabekoak. Prozesu horiek proposamen alternatiboaren *sine qua non* baldintzak dira.

Ikuspegi alternatiboen formulazio-egitasmoak ez dira gehienbat arlo akademikitik etortzen, haiek ere parte hartzen badute ere egitasmo horietan, baizik eta antolatutako gizarteak aurrean dituen erronken erantzun gisa emandako erantzunetatik etortzen dira. Ezin dira alternatiba-izaera aitortzen zaien eta martxan dauden egitasmo guztiak xehatu, baina garrantzitsuenak zein espaziotan sortu diren aipa daiteke. Honako hauek dira:

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

- Naturari eta gizakiek naturarekin duten harremanari egiten zaion begirada berria, nagusi den ereduak gure planetan dituen eragin negatibo larri eta gero eta handiagoen ondorioz sortua (klima-aldaketa eta baliabide naturalak agortzea), eta hazkunde-eredua berrikustea eragin duena.
- *Ongi egotea* esaten zaionari buruz kulturen artean dauden ikuspegi ezberdinak, Mendebaldeak garapenari buruz duen ikusmoldearekiko kritikoak, hala nola Andeetako herriek duten ikuspegia, *sumak kawsay* edo *sumak qasaña* izenekoak.
- Feminismoaren proposamenak, nagusi den eredu ekonomiko zalantzan jartzen dutenak eta marko alternatibo bat proposatzen dutenak, emakumeen bazterketa eta diskriminazioa nahiz genero-ezberdintasunak kontuan hartzetik haratago joanez.

Ikuspegi alternatiboen iturri horiek bereizteak ez du esan nahi elkarren arteko lehia dagoenik. Bakoitzak proposamena eraikitzeko erreferentzia-ardatz bat ematen du, baina guztiak balio dute, eta elkar osatzen eta babesten dute ongizatearen ikuspegi ezberdinen mosaikoa osatzeko.

Alabaina, proposamen bat ekologikotzat edo feministatzat hartzea edo herri indigena batek egindakoa izatea ez da aski proposamen horrek eduki alternatiboa duela ziurtatzeko. Ekologismoaren etiketaren azpian, sistemaren aurrean amore ematen duten egitasmoak ere badaude; feminismoaren barruan, berriz, askotariko korranteak daude, eta horietako batzuek ez dute eredu patriarkala aldatzeko helbururik. Noiz esan daiteke adierazitakoak eduki normatibo alternatiboa duela? Defendatzen den ongizate-ikuspegia nola ebaluatu alternatibatzat? Gure proposamena hau da: gaitasunen ikuspegiak erreferentzia edo marko teoriko bat eskaintzen duela, auzi horri heltzeko.

Gaitasunen ikuspegia

Gaitasunen ikuspegiak irmotasunez sartzten du dimentsio normatiboa ongizatearen definizioan bertan, eta horrek, kontzeptua sakon berrikustea bakarrik ez, baizik eta beste kontzeptu berri bat formulatzea ere badakar. Proposamen horren originaltasuna, hau da, izaera alternatiboa ematen diona, honako hau da: pertsonen gaitasunen espazioa izatea ongizatea zehazten duena, eta ez merkatuak eta merkatutik neuritutako baliabide ekonomikoak.

Ongizatea gaitasunetatik baieztatzeko, bizitza duin baterako beharrezkoak diren gaitasunak zein diren definitu behar da. Zehazta-

pen hori gabe, kontsiderazio abstraktu huts batean geratuko ginateke. Ongizatea osatzen duten gaitasunak identifikatzea eta definitzea ezinbesteko zeregina da. Alabaina, definizio hori ezin da egin adituek edo espezializatutako erakundeek egindako proposamen tekniko hutsetatik abiatuta. Bizitza duina zerk izan behar duen jakiteko, hau da, hura posible egiten duten gaitasunak zein diren jakiteko, definizio-prozesu pertsonal eta kolektibo bat behar da, prozesu horretan adierazi behar da zer jotzen den baliotsutzat, eta baliotsutzat jotako hori lortu beharreko helburutzat hartu behar da. Ez da adierazpen programatikoa huts bat, haren aldarrikapenak konpromisoa eskatzen du, errealitate bihurtzeko ekintzarako dei bat da. Horregatik, bere barruan dimentsio politikoa ere baduela esan daiteke, eta horrek esan nahi du ongizatearen eratzaitzat hartutako gaitasunek operatiboak izan behar dutela, ekintza bideratu behar dutela eta ebaluaziorako erreferentziatzat balio behar dutela.

Gaitasunen ikuspegiari buruz hitz egiten denean, nabarmentzekoa da ikuspegi horren barruan ez dagoela korrante bakar bat, baizik eta hainbat daudela. Alde batetik, ikuspegi hertsia bat dago, funtzionamenduen ebaluazioari eta pertsona bakoitzaren gaitasunei buruz ari dena modu zurrunean; bestetik, ikuspegi zabal bat dago, pertsonen bizitzak ebaluatzen mugatzen ez dena, baizik eta politikak eta instituzio sozialak ebaluatzen eta diseinatzen marko normatibotzat proposatzen dena. Gaitasunen ikuspegia azken horretatik abiatuta ulertzea planteatzen dugu.

Horrek esan nahi du, ongizateari buruz hitz egiten denean, haren dimentsio indibiduala nahiz kolektiboa hartu behar direla kontuan. Hau da, aintzat hartu behar da ongizatearen kategoria orokorraren barruan ongizate indibiduala eta ongizate kolektiboa daudela, eta bien artean lotura sakonak dauden arren, oso eduki desberdinak ere badituztela. Esan beharra dugu ongizate kolektiboa balio intrintsekoztat hartzen dugula, eta ez bakarrik pertsonen ongizatea lortzeko tresnatzat, zenbait korrontek hala defendatzen baitute, baizik eta baita gaitasunen ikuspegiaren barruan ere. Aitortu behar da dimentsio hori ez dela beti presente egon, eta ez zaiola behar adinako arretarik jarri. Beraz, galdera hauek egin behar ditugu: Nondik eta nola planteatu behar da kolektiboaren dimentsioa? Zein da haren izateko arrazoia eta irismena?

Ongizatearen dimentsio kolektibora egiten den lehen hurbilketak honako hau eskatzen du: aitortzea harreman sozialek eta instituzioek baldintzatu egiten dutela, eta neurri handian gainera, pertsonak balo-

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

ratutako bitzita aurrera eramateko duten gaitasuna. Bizi duten marko orokorrak (klima fisikoa, arau sozialak, menderatze eta gutxiespen-giroa, edozein motatako arrazakeriarekiko indarkeria, erlijio-sinesmenak, eta abar) erabat baldintzatzen ditu pertsonen gaitasunak. Bigarren urratsa da planteatzea ongizate-helburua ez dela, inondik ere, aukeratzeko eta baloratzeko pertsonen dituzten gaitasun indibidualak sustatzera bakarrik mugatzen, baizik eta bitzita komunerako egitura batzuk ere sustatu behar direla: pertsonen loraldia ekartzen duten egiturak, hain zuzen.

Bitzita komunerako egitura horiek, izatez, pertsonen babestuta egon behar dute —hori ezinbestekoa da, izango badira—, baina erabaki eta ekintza indibidualetatik harago ere badute bitzita; hau da, bitzita autonomia dute, eta ezin dira han bizi diren pertsonen ezaugarrietara mugatu. Ongizate indibiduala ezin da ulertu ongizatearen dimentsio sozialaren prozesu zabalago baten barruan kokatu gabe. Aurrez aipatu bezala, ongizatearen prozesu kolektibo hori honela ulertzen da: a) tresnatzat, hura gabe pertsonen nekez lortuko baitute beren ongizatea; eta b) helburutzat, balio eta gaitasun kolektiboak ongizatearen partetzat hartzen baitira. Ikuspegi alternatiboan, irmotasunez txertatu behar da dimentsio kolektiboa ongizatearen definizioan eta estrategien formulazioan (Stewart eta Deneulin, 2002).

Alabaina, zein dira ongizatearen dimentsio soziala gauzatzeko, operatibo egiteko, aukera ematen diguten kategoria teorikoak? Denbora askoan, dimentsio kolektiboa izan da gaitasunen ikuspegiaren barruan gutxien nabarmendu den alderdia. Ongizate komuna osatzen duten espazio kolektiboak zein diren zehaztea da garrantzitsua. Horiek ulertzeko moduari eta gaitasunen ikuspegiarekin duten harremanari buruzko eztabaida erabat irekita dago.

Ongizatearen dimentsio soziala gauzatzeko aukera emango duten kategoria teorikoak zehaztu nahian bi lerro ari dira, eta, gaur egun, arreta berezia dago jarrita haietan: gaitasunen garapena eta gaitasun kolektiboak dira. Beste kontzeptu batzuk ere badaude —giza segurtasuna, ondasun publikoak eta kapital soziala— ongizate kolektiboaren trataera analitiko eta operatiborako kategoria egokitzen hartzen direnak, baina kapitulu honetan ez ditugu berariaz kontuan hartuko.

■ Gaitasunen garapenaren prozesua

Ongizatearen dimentsio kolektiboaren azterketak berekin dakar instituzioen eta haien harremanetarako moduen aldaketa-prozesuak ulertzea, eta hori da, hain zuzen, aldaketaren abentura nagusia. Gure

abiapuntua da aintzat hartzea gaitasunen garapenaren proposamena funtsezko tresna teorikoa eta politikoa izan daitekeela giza garapenaren analisirako eta alderdi kolektiboak gauzatzeko.

Denbora askoan, eta nazioarteko erakundeetan oraindik ere bai, gaitasunen garapena planteamendu nolabait tekniko eta neutral batetik ulertu izan da. Proposamen mugatu horrek prozesu kolektibo guztiei aplikatzeko aukerak ixten ditu. Adiera erreduktionistetatik harago, gure jarrerak defendatzen du gaitasunen garapenak plataforma teoriko baliotsua eskaintzen duela talde edo gizarte baten dinamikak aztertzeko.

Nazioarteko instituzioek proposatutako hainbat definizio daude, normalean nazioarteko garapenarekin lotutakoak, eta horrek hasieratik mugatzen du haien eraldaketarako ahalmena. Are gehiago, nagusi den ereduaren ikuspegi jakin bat indartzeko erabiltzen dira.

Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP, 2008b) emandako definizioarekin abiatuko gara, printzipioz, gainditu egiten duela muga hori, eta aberasteko eta aldaketa alternatibo baterako benetako tresna bihurtzeko aukera ematen duelako. Honela ulertzen du gaitasunen garapena: pertsonak, erakundeak eta gizarteak denboran zehar beren ongizate- nahiz garapen-helburu propioak zehazteko eta lortzeko gaitasunak eskuratzeko, indartzeko eta mantentzeko prozesutzat (ikus 1. irudia).

1. IRUDIA **GAITASUNEN GARAPENA NAZIO BATUEN GARAPEN PROGRAMAREN ARABERA**



Iturria: NBGP (2008b: 6).

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

Gaitasunen garapen-prozesuko hiru ezaugarri nagusi nabarmendu behar dira, berritzaileak direlako beste planteamendu batzuekin alderatuta.

1. Izaera endogeno sendoa dakar berekin, eta haren ezaugarri nagusia da gaitasunak pertsonetan, erakundeetan eta gizarteetan beren kabuz gauzatu behar direla, eta ez direla kanpotik edo beren borondatearen kontra inposatu behar.
2. Gaitasun indibidualak eta kolektiboak hartzen ditu kontuan, eta hiru mailatan bereizten ditu: pertsonak, instituzioak eta gizartea orokorrean. Horrek gaitasun kolektiboak aitortzea dakar, eta hiru mailen arteko loturen garrantzia adierazten du. Bereziki garrantzitsua da gizarte osoa hartzen duen marko horren maila onartzea.
3. Maila ezberdinen arteko interakzioei eta sistema osoaren funtzionamenduari ematen zaien garrantziak analisi dinamiko bat planteatzea dakar ezinbestean, eta horrek aurreko ikuspegien eskematismoa hausten du. Eragileek ingurunearekin edo testuinguruarekin dituzten harremanak —aurrenekoek bigarrenak nola aldatzen dituzten, eta, alderantziz, bigarrenak aurrenekoak nola baldintzatzen dituzten ikustea— analisiaren erdigunean daude. Era berean, ekintza kolektiboa nabarmentzen da aldaketarako eragiletzat, ekintza indibidualekin batera.

Proposamena ez da egiten mundu ideal batean pentsatuz; aitzitik, kontuan hartzen du prozesuaren kokalekuko baldintzak ez direla onuragarriak aldaketa alternatibo baterako. Alde batetik, prozesuak dinamikoak eta jarraituak dira, eta gero eta handiagoa den ekitate falta global baten eta merkatuek eta finantza-botereak menderatutako globalizazioaren testuinguruan gauzatzen dira. Bestetik, gaitasunen garapen-prozesuak gizartearen aldaketa eta eraldaketarekin du zerikusia, eta haien testuinguru propioak kontuan hartzen ditu. Horrek esan nahi prozesu konplexua dela eta ezinbestean politikoa; izan ere, aldaketei buruz ari da, eta aldaketak irabaziak ekartzen dizkie batzuei, eta galerak besteei, eta kudeatu egin behar dira horiek. Gatazka ezinbestean dago presente aldaketara bideratutako gaitasunen garapen-prozesu guztietan.

Gaitasunen garapen-proposamena ikuspegi alternatiboan aurre-eragiteko erreferentziazat hartu ahal izateko, eduki normatiboekin

aurrez aurre jarri behar dugu; hau da, bereizi egin behar da edozein proposamen murriztailetatik, ulertuz giza garapenaren ikuspegiak berezkoa duela justiziaren edo emantzipazioaren aldeko aldaketa lortzearen helburua.² Ez da gizarte bat aldatzeko proposatzen den edozein aldaketa-prozesu, baizik eta aldaketaren eta haren helburuen norabidea ebaluatzeko aukera emango duten irizpideak zehaztu behar dira. Ikuspegi murriztaileenetan, gaitasunen garapena arazo teknikoentzako konponbide teknikoetat hartzen da: aplikatutako politiken eraginkortasunik ezari erantzun bat aurkitzeko.

Proposamen alternatiboarentzat, aldaketa justizia-helburuetara bideratzen duten gaitasunak dira garatu beharrekoak, izan indibidualak nahiz kolektiboak. Beste era batera esanda, gaitasunen garapena, bere horretan, positiboa nahiz negatiboa izan daiteke aldaketa alternatiborako. Pertsona, erakunde edo gizarte baten gaitasunak handitzeak ez du beti eragin positiboa izaten giza garapenerako. Are gehiago, zenbait gaitasunen garapenak funtzionamendu kaltegarria ekar dezake. Kontsiderazio normatiboa, beraz, derrigorrezkoa da, eta prozesuaren bi ezaugarri hauetan islatzen da:

- *Balio propioa* duen prozesua da, ez da helburua lortzeko bidea bakarrik; hau da, izaera instrumental hori gainditu egiten du, eta ongizatearen elementu gisa duen garrantzia berresten du.
- Haren *izaera normatiboa* definitu behar da, eta horrek esan nahi du prozesu guztiak ez direla baliotsuak; hau da, beharrezkoa da giza garapenaren ongizate propioa eramateko gai zein diren eta zein ez diren ebaluatzea (helburu horiek lortzeko kaltegarriak ere izan baitaitezke).

Gaitasunen garapenaren printzipioak

Gaitasunen garapenaren prozesuak gizartearen errealitate konplexuei egin behar die aurre, eta aldaketa-prozesuak ez dira gertatzen erresistentziarik gabe eta gatazkak sortu gabe. Aipatu bezala, gatazkaren al-

2. Alde horretatik, nabarmentzekoak dira IDSn (Institute of Development Studies) egindako lanak. Izan ere, haien ekarpenak gaitasunen garapenaren ikuspegia berriz osatzera daude bideratuta justizia sozialeko edukia dituen aldaketa sozialerako prozesu bat bihurtzeko. Woodhillek (2010b: 47) komunitateetan, erakundeetan eta gizarteetan erresilientzia eta berrikuntza ahalbidetzen duten harremanak sendotzeko prozesuetzat proposatzen du gaitasunen garapena.

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

derdia berezkoa du aldaketa-prozesuak. Horregatik, prozesuaren edukiak definitu behar direnean, ezinbestekoa izango da aritu beharreko errealitate sozial horren dimentsio-aniztasuna eta konplexutasuna kontuan hartzea.

Aldaketari heltzen dion eta tresna tekniko huts bat bihurtuz hutsaltzen ez den gaitasunen garapen-prozesu batek zer printzipio bereizgarri dituen ikusteko, bi erakundek egiten dituzten proposamenak aipatuko ditugu. Nazio Batuen Garapen Programaren ustez (NBGP, 2006, 2008b), ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Epe luzeko prozesu bat da, eta ezin da modu artifizialean bizkortu.
- Erabakiak hartzeko gaitasunari eta erabaki informatuak izateari buruz ari da, hau da, tokiko jabekuntza behar da, prozesuan autonomia behar da.
- Ikasketa-prozesu bat da, aurrez zehaztutako planik gabea.
- Botere-harremanei, mentalitateei eta jarrera-aldaketari heltzen die; beraz, ez da neutrala boterearen aurrean, eta dauden pentsaerei eta botere-desberdintasunei aurre egiten die.
- Garapena sustatzen du, eta jasangarria da.
- Pizgarri positiboak ezartzen ditu.
- Lehentasunetan, prozesuetan eta sistema nazionaletan kanpo-inputak txertatzen ditu. Gaitasun berriak sortu beharrean, daudenetan oinarritzen da.
- Egoera zailetan konpromisoari eusten dio.
- Trebetasun indibidualetatik harago begiratzen du, eta aldaketa instituzionalari, lidergoari, ahalduentzeari eta partaidetza publikoari lotutako gai zabalagoei heltzeko gaikuntzan oinarritzen da, eta kontuen berri ematen die azken onuradunei.
- Ezusteko ondorioak sor ditzake, kontuan hartzekoak eta baloratu beharrekoak, jarraipena egin eta ebaluatu beharrekoak.

UNESCOren arabera, berriz, ez dago prozesuak nolakoa izan behar duen adierazten duen formula bat. Testuinguruak konplexuak eta askotarikoak direnez, ezinezkoa da formula hori egotea. Alabaina, haren ustez esperientziak erakutsi du beharrezkoa dela zenbait printzipio errespetatzea:

- Lidergo propioa eta barne-titulartasuna garatzea.
- Estrategiek testuinguru baten barruan izan behar dute garrantzitsuak, testuinguru horretarako espezifikokoak izan behar dute.

- Elkarren osagarri diren esku-hartzeen multzo integratu bat izan behar du prozesuak, nahiz eta, ezartzeko, posible izan urratsez urrats doan prozesu bat behar izatea.
- Epe luzera begirako inbertsioen konpromisoa behar du, eta, bien bitartean, epe motzean lorpenak eskuratzeko lan egitea.
- Kanpotik datorren esku-hartze bat onartu aurretik, maila indibidualen, erakundetan eta instituzioetan dituen ondorioak baloratu behar dira.

■ Gaitasun kolektiboak

Gaitasun kolektiboen proposamena berrikuntza teoriko garrantzitsua da gaitasunen garapen-prozesuen analisian; are gehiago, esan daiteke haren funtsezko elementua dela kontzeptu hori. Horregatik, prozesu hori operatiboa izatea nahi bada, erabakigarria da gaitasun kolektiboari buruz dagoen kontzeptua zehaztea, helburu argiak zehazteko eta politikak diseinatzeko aukera izateko.

Gaitasunak aintzakotzat hartzen direnean, topiko bat da oro har gaitasunaren kontzeptuak duen anbiguotasuna nabarmentzea. Izan ere, era askotara erabiltzen da kontzeptua, askotariko irismenak adieraziz. Gaitasunen garapenaren ikuspegiaren barruan ere gaitasuna definitzeko modu bat baino gehiago daude: zabalagoak dira definizio batzuk, eta estuagoak besteak. Batzuetan, haren gainean egiten den erabilera egokiari buruzko balio-iritziekin kalifikatzen da, eta besteetan, erabateko sinpletasunarekin.

Nola bihurtu operatibo kontzeptu hori? Lehen hurbilketa baten arabera, erakunde edo sistema batek sistemaren barruan edo kanpoan prozesu edo funtzio jakin bat gauzatzeko duen jarrera edo trebetasun kolektiboa da gaitasun kolektiboa. Gaitasun horiek ez dira abstraktuak, baizik eta bat datoz gizarte mota bakoitzaren ezaugarriekin. Testu honen erakusten du gaitasunen egituren dibertsitate hori:

Industrialak ez diren gizarteek, adibidez, instituzio formal gutxi dituzte, baina asko garatutako trebetasunak eta gizarte- eta kultura-sare konplexuak dituzte, askotan ulertzeko zailak direnak kanpoko norbaitentzat. Garrantzitsuena da gai izan direla, ikasketa-prozesu kooperatibo eta metatzaile baten bidez (normalean ahoz transmititutakoa), askotan zailak eta kontrakoak izan diren baldintzetan irauteko. Gizarte postindustrial modernoek gaitasun sorta

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

propioak dituzte, baina itxura batera, oso ezberdinak dira. Era berean, gizarte-egitura konplexuak dituzte, baina jarduera askotarikoagoak eta espezializatuagoak egiteko joera dute.

Oso kodifikatutako ezagutzak, kontaezinak diren erakundeen eta trebetasun espezializatu ugariaren mende daude, eta horietako asko zenbait urteko hezkuntza- eta gaikuntza-prozesuen bidez bakarrik eskuratu daitezke. Eraldatzen doazen heinean, askotariko gaitasunak garatu behar izaten dituzte herrialdeek. Gaitasun nazionalak ez dira gaitasun indibidualen guztizko batura bakarrik. Askoz aberatsagoa eta konplexuagoa da kontzeptua, eta indar indibidualak bilbe sendoago eta iraunkorrago batean korapilatzen ditu. (Fukuda, Lopes eta Malik, 2002)

Gai horri dagokionez, Baserren eta Morganen (2008) lanak ezinbesteko erreferentzia bihurtu dira. Ikerketa-prozesu baten barruan, kasu-azterketak egin zituzten zenbait testuingurutan, eta azterketa horietatik abiatuta, kontzeptua zehazteko ahalegin teorikoa egiten dute. Hortik sortutakoa da gaitasun kolektiboei buruzko haien ikuspegia. Sistemen ikuspegia kontuan hartzen duen ikuspegi baten barruan, ezaugarri hauek aipatzen dituzte, eta ezaugarri horiek gaitasunaren kontzeptu orokorra operatiboa izateko eta nebulosa batean ez gertatzeko aukera ematen dute:

- Ahalduntzea eta identitatea dakarte berekin: osagai horiek irauteko, hazteko, dibertsifikatzeko eta konplexuago bihurtzeko aukera ematen diote erakunde bati.
- Trebetasun edo ahalmen kolektiboa da: sistema bati funtzionatzeko, balioa emateko, harremanak ezartzeko eta bere burua berritzeko aukera ematen dion ezaugarrien konbinazioa.
- Sistemen fenomenoak berezkoa duen egoera edo baldintza bat da: ukigarriak nahiz ukiezinak diren jarrerren, baliabideen, estrategien eta trebetasunen konbinazio konplexu batek inguratutako dinamikatik sortzen da.
- Egoera potentzial bat da.
- Balio publikoa sortzen du: talde edo sistema batek bizitza publikoari ekarpen positiboa egiteko duen trebetasuna.

Ezaugarri horiek berezkoak dira gaitasun kolektibo guztietan, baina haien aplikazioa nabarmendu egiten da sistema osoaren gaitasuna ulertzeko. Kontua ez da mugatzen erakundeen eta instituzioen gaita-

sunetara, baizik eta gizartearen gaitasunak bere horretan hartzen dira kontuan; hau da, noiz eta nola garatzen dituen gaitasunak gizarte batek. Proposamen horretatik abiatuta, haren aplikagarritasuna ondorioztatzen da, ez bakarrik erakundeak eta instituzioak aztertzeko, bakoitza bere aldetik hartuta, baizik eta sistema edo kolektibo konplexuei aplikatzeko, horietan eragiten baitiote elkarri aurrekoek. Alderdi integral horretatik abiatuta, sistema batek balio publikoa sortzeko duen trebetasun global moduan definitzen da gaitasuna, edo giza sistema bati balioa sortzeko aukera ematen dion gaitasun kolektiboen eta indibidualen konbinazio moduan.

Labur esanda, gaitasunaren kontzeptu handizale batetik abiatzen gara, gaitasunaren garapen-prozesuari buruzko irakurketa sistemikoa goa egiteko aukera ematen duen kontzeptutik. Gaitasuna ez da pertsonen baliabide bat bakarrik, baizik eta gizartean misio edo zeregin bat izatearen kontzientzia duen edozein talde-instantziarena da, bai eta gizartearena berarena ere. Horrekin, gainditu egiten da gaitasunaren eta gaitasuna sustatzearen ikusmolde instrumental eta aseptikoa, eduki normatiboa emateko.

Funtzionamendu arrakastatsua izateko gizarte-erakundeek, instituzioek eta enpresek gaitasun jakin batzuk behar dituztela planteatzea ez da berrikuntza bat gaitasunaren garapen-ikuspegiarentzat. Horri buruzko proposamen ugari daude enpresa-ekonomiaren eta administrazio publikoen alorrean. Alabaina, izate kolektibo bakoitza oso helburu zehatzekin eta topikoekin hartzen dute gehienek, demokrazia formalaren ikusmolde jakin baten arabera funtzionatzeko pentsatuta, merkatu-ekonomiaren markoaren barruan, erakunde- eta instituzio-molde alternatiboak eta ingurunearekin bestelako erlazio bat bilatzeko xederik gabe. Ondorioz, ez dute esaten zein diren talde horiek giza garapen-prozesuak sustatzeko beharrezkoak diren gaitasunak.

Ikuspegi alternatiboarentzat erronka ez da edozein instantzia publiko edo pribatuk lortu beharreko funtzionamendu eraginkor bat aurkitzera mugatzen, baizik eta nagusi den ereduarekin kritiko den prozesu bat izateko duen helburuan autonomiaz funtzionatzea lortzea da erronka. Haren helburu estrategikoen funtzionamendua ziurtatzeko haren jardunaren muina zeinek izan behar duen ezagutzea da kontua. Horregatik, bakoitza modu independentean ulertutako gaitasunaren zerrenda itxi batean pentsatu beharrean, elkarri lotutako multzo gisa ulertu behar dira gaitasunak, eta guztiak dira beharrezkoak eta elkarri eragiten diote, elkar elikatuz eta baldintzatuz. Gaitasun kolektibo integral hori gaitasun kolektiboen sorta batek osatzen du, eta horiek ema-

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

ten dioten erakunde bati gauzak egiteko eta mantentzeko aukera. Zein dira sistemak eta erakundeak ezagutzeko eta ebaluatzeko kontuan izan beharreko gaitasun kolektibo horiek?

■ Gaitasun kolektiboen definizioa

Gaitasun kolektiboen zerrenda itxi eta unibertsal bat egiteak ez du zentzurik, baina ezinbestekoa da gizarteen funtzionamendua ulertzeko eta ebaluatzeko bereziki egokiak diren gaitasunak identifikatzea eta definitzea. Horregatik, eztabaidarako oinarritzat balioko duen eta gaitasunen definizioan eta eraginkortasunean aurrera egiteko aukera emango duen zerrenda bat diseinatzeko saiakerari ekingo diogu.

Ahalegin horretarako, zenbait ekarpenetatik abiatuko gara (Baser eta Morgan, Woodhill, Costamagna, FAO eta Nazio Batuen Garapen Programa). Emantzipazio-prozesuak helburu dituen erakunde batek zer gaitasun kolektibo behar dituen identifikatzeko helburua dute guztiek. Zerrenda gehiago ere badaude, baina hemen aurkeztutakoak aski izan daitezke kontzeptuaren eraginkortasuna erakusteko eta tes-tuinguru ezberdinetan beste gaitasun kolektibo batzuk identifikatzera animatzeko.

Gaitasun esanguratsuen izaera espezifikoa zein den agerian jar-tzeko lehen bereizketa garrantzitsua gaitasun teknikoen eta gaitasun funtzional transbertsalen arteko ezberdintasuna da.³ Gaitasun funtzio-nal transbertsalak edozein kolektibitate publiko eta pribatutan daude, edozein izanda ere haren konplexutasun-maila edo aritzen den lurral-dearen irismena. Horiek interesatzen zaizkigu; izan ere, kolektibo baten oraingo eta etorkizuneko funtzionamenduari eragiten dioten erabakiak markatzen dituzte. Gaitasun teknikoek, aldiz, helburu jakin batzuen araberrako jarduera jakin batzuei egiten diete erreferentzia. Beraz, ezin-bestekoak izango dira sektore edo espezialitate batzuetan, baina ez dira aplikagarriak haietatik kanpo.

Baserrek eta Morgane (2008: 104) bost gaitasun transbertsal pro-posatzen dituzte, eta ulertzen da talde bat osatzen dutela elkarrekin di-tuzten loturen bidez. Honako hauek dira gaitasun horiek:

3. LenCDek (Learning Network on Capacity Development) antzeko sailkapena egiten du, gaitasun gogorak —normalean teknikitzat, funtzionaltzat, ukiga-rritzat eta ikusgarritzat hartzen diren gaitasunak— eta gaitasun bigunak, nor-malean sozialtzat, harremai lotutakotzat, ukiezintzat eta ikusezintzat hartzen direnak, berezita (<http://www.lencd.org/learning/core-concept>).

GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK

- Konpromisoa eta erakarpena, konpromisoak hartzea eta parte hartzea eskatzen duena: bolizioa, ahalduntzea, motibazioa, jarrera, konfiantza.
- Zeregin teknikoak egitea eta zerbitzuak eta logistika eskaintzea, oinarriko zereginak baitira beren helburuak betetzeko.
- Erlazionatzea eta baliabideak eta babesa erakartzea.
- Egokitzea eta berritzea, eta horrek berekin dakar: ikastea, estrategia, berriz posizionatzea, aldaketa kudeatzea, eta abar.
- Koherentzia eta dibertsitatea orekatzea: berrikuntza eta egonkortasuna sustatzea, zatiketa kontrolatzea, konplexutasuna kudeatzea eta gaitasunen konbinazioa orekatzea.⁴

Konpromisorako eta erakarpenerako gaitasuna funtsezkoa da, eta esan nahi du erakundeek borondatea edukitzeko aukera izan behar dutela, aukeratzeko aukera, ahalduntzeko aukera eta beraientzako espazio bat sortzeko aukera. Gaitasun nuklear bat erakusten du, berekin dakarrena grina, uste osoa, erabakitasuna eta nortasun kolektiboa edukitzea (ikus 2. irudia).


Nazio Batuen Garapen Programak (2009), berriz, bost motatako gaitasun funtzional transbertsalak identifikatzen ditu:

- Interesdun guztien artean elkarrizketa bati ekitea
- Egoera aztertzea eta haren barruan eduki beharreko zereginari buruzko ikuspegia sortzea.
- Politikak eta estrategiak egitea.
- Aurrekontuak egitea, kudeatzea eta ezartzea.
- Kontrolatzea eta ebaluatzea.

Bostak diren arren erabakigarriak eta bakar bat ere ezin den utzi alde batera, egoera aztertzeke eta ikuspegi bat sortzeko gaitasuna nabarmentzen da. Gaitasun hori da prozesuaren estrategiaren oinarria, eta pieza bereziki garrantzitsua bihurtzen da edozein erakunde eta ko-

4. FAOk (2015) honako hauek aipatzen ditu gaitasun funtzional esanguratsutzat: a) politikoa eta normatiboa: politikak egiteko eta ezartzeko eta erreforma politikoak eta lege-erreformak zuzentzeko gaitasuna; b) ezagutza: informazioa eta ezagutza sortzeko, eskuratzeko eta trukatzeko gaitasuna; c) elkarketa: sareak, aliantzak eta elkarteak hasteko eta mantentzeko gaitasuna; d) ezarpena: proiektuak eta programak modu eraginkorrean kudeatzeko gaitasuna (plangintza egitea, ezartzea, kontrolatzea eta ebaluatzea). Aurrekoekin lotura estua du, baina Baserrena eta Morganena osoagoa iruditzen zaigu.

2. IRUDIA. **BASERREN ETA MORGANEN GAITASUN KOLEKTIBOAK**



Iturria: *Baser eta Morgan* (2008: 104).

munitaterentzat; izan ere, kolektiboaren etorkizunaren ikuspegi bat egiteko eta lortu beharreko helburuak definitzeko gai izatea esan nahi du. Gaitasun hori izateak berekin dakar aztertzea zer gaitasun dauden gaur egun eta zer gaitasun lortu nahi diren etorkizunerako, horrek aukera ematen baitu ulertzeko zein diren garatu beharreko gaitasunak eta premiak, gaitasunak garatu behar diren galderari erantzuten diotenak. Gaitasun horiek badute lotura Baserrek eta Morganek aipatutakoekin, eta biak integra daitezke.

Seguidan, beste ikuspegi batzuetatik egindako beste gaitasun kolektibo batzuk nabarmenduko ditugu:

■ LenCD, gaitasunaren garapenera buruzko ikaskuntza informalerako sare ireki bat da, eta gaitasun bigunak esaten zaienetatik (aurrez aipatutako gaitasun transbertsalen antza izan dezakete) bi multzo bereizten ditu:

- Gaitasun operatiboak: erakundearen kultura eta balioak; lidergoa, harreman politikoak eta funtzionamendua; ezagutza eta esperientzia inplizituak; harremanetarako trebetasunak (negoziazioa, taldeko lana, gatazken ebazpena, gauzak erraztea, eta abar); arazoak konpontzeko trebetasuna, eta kulturen arteko komunikazioa.

GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK

- Egokitzapen-gaitasunak: norberari buruz gogoeta egiteko eta esperientziatik ikasteko gaitasuna eta borondatea, azterketarako eta egokitzeko gaitasuna, aldaketaren prestaketa eta kudeaketa aldatzea, eta konfiantza, ahalduntzea eta partaidetza legitimitateak jarduteko.

Ikus daitekeen bezala, ez dira Baserrek eta Morganek proposatutakoetatik oso ezberdinak, baina zenbait ñabardura berritzaile sartzen dituzte.

■ Kezka politikoago eta operatiboagotik abiatuta, Costamagnak lurraldearen garapenari lotutako gaitasun kolektiboen zerrenda bat egiten du:

- Subjektu-lurralde gisa irudikatzeko gaitasuna, lurraldearen nortasun-zentzuarekin zerikusia duena, lurraldea modu sistemikoan ulertzeko gaitasunarekin batera, eragileen arteko interakzio konplexuak oinarri hartuta.
- Lurralde-elkarrizketarako gaitasuna, hau da, lurraldearen arazoei eta erronkei elkarrizketaren bidez aurre egiteko gaitasuna, lurralde-garapenaren prozesuari jasangarritasuna ematen diona.
- Praxi-gaitasuna, hau da, kolektibo batek bere marko teorikoak praktikaren bidez etengabe probatzeko duen gaitasuna, bai eta arazoak konpontzeko balio dutela edo ez dutela balio erakusten duten heinean horiek egokitzeko gaitasuna nahiz diskurtsoaren eta praktikaren arteko bereizketa etengabe murrizteko gaitasuna.
- Esaten denaren eta egiten denaren artean koherentzia aurkitzeko gaitasuna.
- Ekintza kolektiboaren gaitasuna elkarrizketak ez izateko eragina jokabide indibidualen aldaketan bakarrik, baizik eta ekintza partekatuak ere eragiteko.

■ Aldaketa instituzionalari buruzko kezka funtsezkoa da proposamen alternatiboan, eta horrek derrigorrezko bihurtzen du aldaketa instituzionalerako beharrezko gaitasunak zein diren modu espezifikoan planteatzea. Woodhillek ematen du gai horri heltzeko adibide bat (2010b: 49), gaitasun kolektibo hauek ere aipatzen dituenaz, aurrekoek baino ikuspegi handizaleagoa ematen baitu:

- Ingurumen-jasangarritasunaren eta justizia sozialaren erronkak azaltzeko eta ulertzeko gaitasuna.
- Oso konplexua den mundu global bat gobernatzeko gaitasuna, aurrean ingurumenaren kolapsorako arriskua, indarkeria nahiz

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

izua daudenean, berdintasunik ezak, pobreziak eta baliabide urrien gaineko lehiak eraginda.

- Berrikuntza teknologikoa gure garaiko erronketarantz bideratzeko gaitasuna.
- Aurrean dituzten arazoekiko sentsibilitate eta erresilientzia gehiago izateko komunitateek eta gizarteek behar dituzten aldaketa instituzional azkar eta funtsezkoak bideratzeko gaitasuna.
- Herritarren, haien liderren, enpresen, gobernuen eta gizarte zibilaren artean konpromiso-dinamika berriak martxan jartzeko gaitasuna.

Modu horretan azalduta, handizaleegiak eman dezakete, baina erronkak zein diren aipatzeak aukera ematen du aldaketarako motortzat behar diren gaitasunen izaera hobeto identifikatzeko.

■ Ziurgabetasuna eta aldakortasuna ezaugarri dituen ingurune konplexu batean garatu behar dute beren jarduera erakundeek, eta horrek esan nahi du are zailtasun gehiagori egin behar dietela aurre beren proiektuek. Errealitate horren aurrean zein gaitasun diren beharrezkoak planteatu behar da. Erresilientziaren kategoria erreferentzia bihurtu da edozein erakundek ingurune konplexuetan bere proiektua gauzatzeko behar duen gaitasuna adierazteko. Azaleratzen ari diren gaitasunen zerrenda, Woodhillek (2010b: 53) aipatutakoa, kontu horri ematen zaion erantzuna da, berrikuntza instituzionalean oinarrituta erresilientzia handiagoa eman dezaketen gaitasunak proposatzen baitira. Gaitasun hauek proposatzen dituzte:

- Konplexutasunean nabigatzeko gaitasuna: aurretik jakin ezin den horren aurrean eta gizarte-sistemek berezkoa duten konplexutasun horren barruan aritzeko gai izatea. Horrek aldaketa eta ziurgabetasunarekin bizitzen ikastea eskatzen du
- Lankidetzan ikasteko gaitasuna.
- Konpromiso politikorako gaitasuna: berrikuntza instituzionala proiektu politiko bat da.
- Auto-gogoetarako gaitasuna: aldaketa soziala prozesu emozionala da; eragileek barne-gogoetarako gaitasuna izatea eskatzen du, eta horrek norberaren usteak eta sinesmenak zalantzan jartzea eskatzen du.

Aurrez adierazitakoak oinarri hartuta, gaitasun kolektiboen proposamen integratu bat egin da 1. koadroan. Esanguratsuenak iruditutakoak dira, aldaketa-estrategietarako erabili beharrekoak definitzeko

eta kolektiboen eta komunitatearen portaera ebaluatzeko gidatzat erabiltzeko balio dezaketenak. Berriz nabarmenduko dugu egiten diren zerrenda guztiak orientagarriak direla, hau da, garrantzitsuena dela gizarte edo talde bakoitzak modu kolektiboan erabakitzea zein gaitasunek bermatuko dioten bere helburuak ahalik eta ondoen betetzea. Prozesu horren adibideetako bat da COMPARTE proiektuak egindako zerrenda (Alboan, 2016: 134-137).

1. KOADROA. GAITASUN KOLEKTIBOEN PROPOSAMEN INTEGRATUA

| Gaitasun nagusiak | Gaitasun bereziak |
|---|--|
| Analisirako gaitasuna eta etorkizun-sena | Erresilientzia |
| Konpromisorako eta erakarpenerako gaitasuna | Botere-harremanak aztertzea eta kritikatzeta Konpromisorako modu egokiei buruzko iritziak Eragin eta inzidentzia politikoa Komunikabideen erabilera |
| Harremanak izateko eta babesa lortzeko gaitasuna | |
| Koherentzia eta dibertsitatea elkarrekin orekatzeko gaitasuna | |
| Egokitzeko eta berritzeko gaitasuna | Ikasketa Auto-gogoeta eta autokritika Ezagutza motak konbinatzea, tokiko ezagutza kudeaketan eta erabakietan txertatzea Estrategian naturaren mugak txertatzeko gaitasuna |
| Arazo konplexuen gaineko erabakiak hartzeko gaitasuna | Konplexutasunean nabigatzea |
| Zereginak egiteko gaitasuna | |

Iturria: Lanketa propioa Baser eta Morganen (2008), NBGPen (2009) eta Woodhillen (2010b) oinarritua.

ANALISI-MARKOA

Bigarren atal honetan, identifikatuko da zein diren analisi-kategoria nagusiak lurralde jakinetan ekintza eraldatzaileko estrategiak diseinatze-ko, helburutzat hartuta instituzio bidegabeak kentzea eta pertonek beren gaitasun baliotsuez gozatzeko eremuak sortzea, non prozesu kritiko alternatiboak martxan jartzeko baldintzak izango dituzten. Kontua ez da aldaketari buruz teorizatzea, baizik eta lurralde jakinetako errealtateetatik abiatzea, aldagai soziala ardatz hartuta —lurralde horietako pertsonen eta instituzioen harreman sozialak—, ikusteko zer-nolako gaitasuna duen gizarte bakoitzak bere bizi-proposamen propioak gauzatzeko, ongizatearen kontzeptu zabala ezagutzen ez duten eta metaketaren eta hazkunde ekonomikoaren printzipioen arabera aritzen diren plan desarrollisten aurrean.

Proposamen horrek erreferentzia teoriko esanguratsuak behar ditu analisisa egiteko. Kapitulu honetan, kategoria nagusiak identifikatzera eta definitzera mugatuko gara, eta beste kapitulu batzuetan garatuko dira kategoria horiek.

■ Lurraldea analisi-markoaren oinarritzat

Markoari dagokionez, lehenik eta behin lurralde jakin bat hartu behar du analisirako xede nagusitzat. Beste era batera esanda, eduki eraldatzailea duten aldaketa-prozesuak eta haiek finkatzea sailhesten edo eragozten duten dinamikak aztertze-ko eremurik egokiena tokiko eremua dela esan nahi du horrek. Zehaztu behar da, «tokikoa» dimentsioa planteatzen denean, dimentsio hori irizpide administratiboetatik harago ulertzen dela (ikuspegi «munizipalista» dei dakiok horri); espazio jakin batzuetan funtzionatzen duten gizarte-azterketan oinarritzea da kontua, non pertonek partekatutako prozesu bat ulertzeko eta bizitzeko aukera izango duten.

Ez da, beraz, mugaketa geografiko edo politiko bat bakarrik, baizik eta lurralde bati buruz ari da, non izaera normatiboko eta dimentsio askoko proiektu bat gauzatzeko lehia dagoen, eta non han bizi den gizarte-azterketaren lehia horretako eragile kolektiboa. *Tokiko giza garapenaren kontzeptua* erabiltzen dugunean, honi buruz ari gara: lurralde jakin bateko gizartearen nahia, erreferentziatzat giza garapena hartuta giza ongizate indibidual eta kolektiboaren alde borroka egiteko; beste era batera esanda, hori gauzatzeko gaitasun indibidual eta kolektiboaren garapena.

Aitortu behar da gaitasunen ikuspegiak ez duela behar bezala aztertuta gertaera bat: pertsonak, familiak eta komunitateak, ezinbestean, esfera instituzionalean txertatuta daudela, bai eta beren lurralde-gizarteko alderdi kultural, sozial, geografiko eta ekonomikoetan ere.⁵ Baina ezinezkoa da ongizate kolektiboaren eraikuntza komunitatearen erreferentzia hori kontuan hartu gabe ulertzea. Hain zuzen, komunitatean dira hurbilekoenak eta errepikakorrenak autoritateen, instituzio formal/informalen, herritarren eta gizarte osoaren arteko interakzioak; han bizi dituzte pertsonak gertu-gertutik desberdintasunak, askotariko bazterketak, botere-desorekak eta zaugarritasuna; han hartzen dute forma aldaketa instituzionalek, eta bilakaera bat izaten dute; han oinarritzen dira eta han izaten dituzte azken emaitzak nazioarteko eta nazioko politikek. Beraz, tokiko komunitatetik abiatzea funtsezkoa da gaitasunen garapenerako, han zehazten direlako lehentasunak, eskubideak eta botere politikoa, eta, ondorioz, baita egintza indibidual eta kolektiboa ere.

Azken urteotan tokiko garapenari buruzko proposamen teoriko eta politiko ugari hedatu dira, baina ezberdintasun handiak dituzte elkarren artean. Batzuk ohiko ekonomiaren planteamenduak eskala txikiagoan kopiatzera mugatzen dira; beste batzuek, aldiz, sormenezko proposamenak egiten dituzte, bi ezaugarri nagusi oinarritzat hartuta: a) gizartearen garapena ikuspegi integral batetik ulertzea, hau da, dimentsio ekonomikoaz haragokoak ere kontuan hartuta; eta b) garapen-prozesuaren izaera endogenoa nabarmentzea, prozesu horren protagonismoa tokiko eragile eta baliabideei emanaz. Ikusmolde horren adibideetako bat ILPES/CEPALEk lurraldeko garapen ekonomikoari buruz egiten duen definizioa da: «Tokiko gizarte batek duen gaitasuna, helburu kolektiboak jartzeko —aurrerapen materiala, ekitatea, justizia eta jasangarritasuna— eta horiek lortzearen tokiko baliabide endogenoak mobilizatzeko». Lurraldearen ikuspegi dinamikoa izatea eskatzen du horrek, ikuspegi teknokratikotik harago doana. Lurraldea erakunde esanguratsutzat hartzen da, denboran eta espazioan kokatuta dago, eta eraikuntza politikorako espazioa da.

Labur esanda, gure analisi-markoa lurralde edo tokiko espazio jakinetan kokatzen da, eta horietan historiaren, kulturaren, geografiaren, baliabideen, ezagutzaren eta instituzioen konbinazio konplexuak daude. Uste da eremu egokiak osatzen dituztela giza garapenari lotutako edukiak dituzten aldaketa-prozesuak aztertzeko eta laguntzeko. Tokiko espazio horiei buruz hitz egiten denean eta esaten denean proiektu ko-

5. Komunitatearen ikusmolde horretan Biggeriren eta Ferranniniren eta Arcipreteren (2018) proposamenak biltzen dira.

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

munak eraikitzeko aukera ematen duten tokiak direla, ez da esan nahi erantzun isolatzaile bat eman nahi denik, baizik eta kontrakoa: estatuen edo eskualdeen barruan, goiko gainerako mailekin ere harremanak ezarri behar dira, eta bestelako globalizazio bat (bidezkoagoa eta gizatiarragoa) nola eraiki pentsatzeko leku egokiak ere badira, tokioak aukera ematen duelako lurraldearen eta komunitatearen zentzua birpentsatzeko.

Beraz, tokioa/lurraldekoa eztabaidarako eta konfrontaziorako espaziotzat hartuz abiatuko gara. Boterea dutenek isilarazi egiten dute alderdi hori, eta beren proposamena aurkezten dute aukera baliozko eta posible bakartzat. Azterketa-objektua, beraz, eragile kolektiboen arteko eztabaidarako agertoki dinamikoa da. Zereginaren konplexutasuna eta multidimentsionaltasuna onartzea eskatzen du horrek.

Tokiko giza garapenari buruzko gure proposamenak elementu horiek guztiak biltzen ditu definizio honetan: prozesu integral bat, edo prozesuen batura, zeinaren bidez gizarte bakoitzak modu autonomoan zehazten duen desio duen eta egingarria den etorkizuna, hau da, balio-tsua iruditzen zaion ongizatea, ongizateztat ulertuta eskala txikian eta ertainean lurraldeka antolatutako norbanakoen, gizarte-taldearen eta komunitatearen aukerak zabaltzea, bai eta onura komun zuzen bat lortzeko beren gaitasunak eta baliabideak mobilizatzea ere, genero-berdintasuna kontuan hartuz, giza garapenetik ebaluatutako alderdi ekonomikoari, sozialari eta politikoari erreparatuta.

Eztabaidarako elementuak ulertzeko, beharrezkoa da metodologია bat izatea: lurralde jakinen arazoen elikatua eta arazo horiei aurre egingo diena; ulertuko duena lurraldeetako errealtateak markatuta daudela hainbat denbora- eta espazio-mailaren nahiz eskalaren bidez, erabakigune autonomo samar ugariz eta koherentziarik gabeko prozesu kontraesankorrez; eta aukera emango duena ekintza kolektibo baterako ikuspegi partekatuak eratzeko.

Gizarte alternatibo baten emantzipazio- eta eraikuntza-prozesu hori gauzatzeko bi norabidetan lan egin behar da:

- Tokiko gizarte bakoitzak proiektu kolektibo integratzaile eta parte-hartzaile bat diseinatzeko eta abiarazteko gaitasuna izan dezan, gaitasun indibidualak eta kolektiboak garatzen lagunduko duten baldintzak —giroa— sortu behar dira.
- Lurralde bakoitzean dauden ikuspegi ezberdinek topo egiteko espazioak sortu behar dira, talde batzuen eta besteen interesak aitortzeko eta ekintza kolektiborako prozesu partekatuak gauzatzeko.

Honako hau eskatzen du prozesu horrek: a) botere publikoen jardunbide-prozesuen dekonstrukzioa egitea eta berriz eraikitzea; b) gobernu-mailen eta mugimendu eta erakunde sozialen arteko harremanak, itunak eta gatazkak aztertzea; c) gai kolektiboek buruzko erabaki-prozesuetan gobernuak eta tokiko eragileak dituzten gaitasunak sustatzea. Nabarmentzekoa da akordioetako edukiek adinako garrantzia dutela erabaki horiek hartzeko moduek, tokiko lehentasunen arreta non jarri behar den erabaki behar denean berdintasun-baldintzarik gabe aritzen baitira aurrez aurre negoziatzen alderdiak.

■ Markoaren puntu nagusiak

Prozesu kritiko alternatiboen azterketak, ezinbestean, irmotasunez aurre egin behar dio gizarte-aldaketari, baina ez dago argi nola; izan ere, gizarte-aldaketarako prozesuak ekintza indibidualen eta prozesu sozialen arteko dinamika konplexu baten emaitza dira. Ezinezkoa da giza garapenerako emaitzak edo ongizate alternatiboari lotutakoak lortzea instituzio berriak sortu gabe, baina instituzio horiek ezin dira sortu pertsonen balioak eta jarrerak aldatu gabe. Era berean, pertsonetan balio eta jarrera berriak agertzen direnean, aldaketak behar izaten dituzte instituzioek. Horrek esan nahi du erronka bat agertzen zaiela jada ezarritako interesei eta dauden botere-egiturei, eta, beraz, nagusi diren akordio instituzionalei (edo joko-arauei). Dimentsio politikoa funtsezkoa da aldaketa-prozesuak aztertzeko eta ulertzeko.

Nola aztertu hain konplexua eta dinamikoa den testuinguru bat? Marko bat behar da, eragileak, joko-dinamikak eta pertsonen, erakundeen eta instituzioen arteko harremanak ordenatzeko aukera emango duen gida bat. Horretarako, lehen azaldutako gaitasunen garapen-prozesutik abiatzea proposatzen da; izan ere, dinamika hori ikusteko aukera ematen du, eta, aldi beran, aldaketa du erreferentziatzat. Analisiaren muinean erreferentzia hirukoitz bat dago: gaitasunak, aldaketa eta emaitzak (Baser eta Morgan, 2008).

Muin horretatik abiatuta, proposatzen den markoak zeregin bikoi-tza gauzatu nahi du: a) maila eta eragile ezberdinen arteko interkonezioak aztertzea; eta b) analisiaren izaera dinamikoa barneratzea, zeinak esan nahi duen gaitasunen, aldaketaren eta emaitzen arteko loturak hartzea tokiko giza garapenaren prozesu kolektibo alternatiboaren motortzat. Garrantzitsua da nabarmentzea emaitzei egiten zaien erreferentziarekin ez dela eraginkortasuna bakarrik esan nahi, baizik eta kalitatea ere kontuan hartzen dela. Lorpen guztiek ez dute balio; zein

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

helburu lortu nahi diren zehaztea eta lortutakoa horien arabera ebaluatzea funtsezko elementua da analisisian.

Hiru mailak —indibiduala, erakundeena nahiz instituzionala eta testuingurua— erlazionatu eta ebaluatu egin behar dira, giza garapenak berezkoak dituen ongizate-emaizak lortzeko edo gizarte bakoitzak erabakitako emaizak lortzeko. Helburua ez da besterik gabe aztertzea haietako bakoitzean gertatzen diren prozesuak, baizik eta emaitza horiek lortzeari begira haiek duten egokitasuna eta eraginkortasuna kontuan hartuta egitea ebaluazioa. Horregatik, atal bakoitzak ongizate-emaizekin dituen lotura zuzenak funtsezko kontua dira markoaren erabileran.

Markoak ez du izan nahi tokiko giza garapena azaltzen duen eredu teoriko bat, baizik eta horretara bideratzen duten prozesuak hartzeko marko bat da, honetarako aukera ematen duena: a) prozesu horiek identifikatzea, eta artikulazio espezifiko baten parte diren heinean, kategoriatan sailkatzea; b) haien artean gertatzen diren harreman esanguratsuenak zehaztea; eta c) gizarte jakin bateko sistemaren funtzionamenduaren ikuspegi integral bat izatea. Kontua ez da xehetasunez azaltzea zein talde dauden, ez eta talde bakoitzeko eragileen deskribapen soziologiko bat egitea ere, baizik eta ebaluazio-analisi bat egitea, lortu nahi den aldaketari begira esanguratsuak diren eragileak eta prozesuak identifikatzeko, eta talde barruan dauden harremanak nahiz beste taldeekin eta ingurunearekin daudenak kontuan hartzea.

Esan nahi du sistema konplexu baten funtzionamendua ulertzeko ezinbestekoa dela ikuspegi pluralista bat onartzea, hau da, askotariko eragileen eta martxan dauden prozesuen arteko harremanak aztertu behar direnean ikuspegi metodologiko ezberdinak txertatuko dituen ikuspegi bat onartzea. Markoak gai izan behar du tokiko komunitateen esentzia eta konplexutasuna biltzeko, haien izaera multidimentsional eta ebolutiboarekin, eta, aldi berean, gaitasunen zabalkunde-/murrizte-prozesuekiko etengabeko erreferentzia izan behar du, maila indibidualean eta kolektiboan.

Aipatu behar da proposatzen diren marko askok ez dituztela behar adina nabarmentzen analisisa zeharkatu behar duten bi erreferentzia: generoaren ikuspegia eta naturarekiko harremanak. Generoaren eta ingurumenaren kategoriek zeharkakoak izan behar dute, eta analisiaren fase guztietan egon behar dute. Kapitulu honen espazio-mugak direla medio, ezin dira xehetasunez azaldu horien ondorioak, baina kapitulu espezifikoak eskaintzen zaizkie liburuan. Gure markoaren oinarri teorikoa gaitasunen garapen-prozesuan dago, eta hiru mailatatik eta haien arteko era guztietako harremanetatik abiatzen da: a) pertsona baten ongizatearen

dinamika indibiduala; b) egintzaren dinamika kolektiboa eta ahalduntzea; c) tokiko komunitatearen dinamika; eta d) maila anitzeko dinamika.⁶

Laburbilduz, aldaketa zein hiru mailatan gerta daitekeen zehazten du markoak: pertsonalean, harremanetan eta ingurumenean. Aldaketa-rako proposamen feminista oinarri hartuta, honako hau esan behar du:

- Maila pertsonaleko aldaketak pertsonaren barruan gertatzen dira; horrekin adierazi nahi dira, adibidez, emakume batek bere burua ikusteko moduan egiten dituen aldaketak, gizartean berak eta beste emakumeek duten rolari buruzko iritzian egiten dituenak, bere rol ekonomikoari buruzko ikuspegian egiten dituenak, eta bere buruari nahiz beste emakumeei eragiten dieten erabakiak hartzeko eta ekintzak egiteko duen konfiantzan egiten dituenak; eta era berean, gizonak beren rolari eta emakumeek dutenari buruz duten iritzia gaineko aldaketak ere adierazi nahi dira.
- Harremanetako aldaketak harremanetan eta emakumeen inguruko sare barruko botere-harremanetan gertatzen dira. Etxe barruko nahiz komunitateko aldaketak hartzen dira kontuan, eta, besteak beste, merkatuak, tokiko agintariak eta erabakiak hartzeko boterea dutenak biltzen ditu.
- Azkenik, ingurunekeko aldaketak testuinguru zabalago batean gertatzen dira. Aldaketa informalak izan daitezke, gizarte-arauetan eta oro har gizartearen jarrera eta sinesmenetan gertatzen direnak, edo formalak ere izan daitezke, marko politikoan eta legegilean gertatzen direnak.

Ez da maila bakoitzaren bereizitako azterketarik egin behar; izan ere, guztiek eragiten diete gainerakoei, eta gainerakoek eragin egiten diete guztiari. Hala, tokiko testuinguru sozioinstituzionalak eragina du pertsonen ongizatearen eraikuntzan, ondorioak dituelako baliabideak eskuratzeko mekanismoetan eta lor ditzaketen gaitasunetan (hala nola hezkuntza- eta osasun-sistemak); era berean, funtsezkoa da tokiko komunitatearen erabaki kolektiboen prozesuaren konfigurazioan. Eta alderantziz, pertsonen gaitasunetan gertatutako aldaketek harreman berriak eragiten dituzte testuinguruarekin, eta aldaketak sor ditzakete testuinguru horretan. Beraz, ikuspegi dinamiko bat du markoak, eta eragile eta maila ezberdinen arteko interakzioen eta elkar elikatzen du-

6. Marko hori xehatzeko, Mario Biggerik, Solava Ibrahimek eta Garapenerako Lidergo Programak (DLP, Developmental Leadership Program) egingandako ekarpenak hartzen ditugu abiapuntuaren oinarritzat.

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

ten faktoreen azterketaren bidez adierazi behar da hori. Erakusten du tokiko komunitatearen barruan gertatzen diren prozesuek taxutzen dituztela pertsonak baliatzen eta gauzatzen dituzten gaitasunen zabalkundeak edo murrizketak, eta, aldi berean, beren komunitateen barruan, prozesu horiek eragina dutela garapenaren eboluzio-ibilbideetan.

Alabaina, aldaketa inklusiboak lortzeko, palanka horiek konfiantzazare baten barruan garatu behar dira, tokiko komunitatearen barruko arau eta balio partekatuekin, norbanakoen eta taldeen arteko jardunbide kooperatiboek lagunduz. Garrantzitsua da nabarmentzea tokiko komunitatearen dinamikak ez dituztela beti erantzun positiboak eragiten; gatazken emaitzak eta taldeen eta identitateen arteko botere-desorekak kontuan hartuta, berdin-berdin eragin ditzakete desberdintasun dramatikoak, gizarte-bazterketa eta gaitasun indibidual eta kolektiboaren galarazpena ere. Partaidetza-espazioak sozialki eraikitzen dira, eta ez dira neutralak botere-harremanen aldetik. Beste hitz batzuekin esanda, tokiko komunitatearen barruko prozesuak gizarte-taldeen artean gatazkan dauden balioen, interesen, ideien eta diskurtsoen interakzio amaigabeak dira, eta erreproduzitu, betikotu edo eraldatu egiten dute testuinguru soziala eta instituzionala; halaber, garapen-estrategiak, jardunbideak eta ibilbideak bideratzen dituzte.

■ **Testuingurua: faktore baldintzatzaileak eta marko soziopolitikoa**

Gizarteen egitura sozialak, politikoak eta ekonomikoak funtsezko erreferentziak dira. Haietan daude hainbat eremutan aritzen diren indarrak eta indar horien arteko korrelazioak ezartzen dituzten loturak, baina, horrez gain, haietan daude balioen, jarrerren eta sinesmenen eredu tazitu edo esplizituak ere. Pertsonak beren egintza gauzatzeko duten gaitasuna mugatzen duten faktore sozial eta instituzionalen identifikazioa izango da funtsezko gaietako bat atal honetan. Honako hauek daude faktore horien artean: arau sozial bidegabeak, “klientelismo” moduak, bazterketa-jardunbideak, ideiak, eta abar. Deskribapen huts batetik harago joan behar da, eta ikuspegi dinamikoa eman behar da testuinguru instituzionalaren hiru espazio giltzarriak buruz, dimentsio sozialaren bereizgarriak diren aldetik: gizarte-egitura, joko-arauak eta instituzioak, eta kultura dira hiru espazio horiek (Bastiaensen et al., 2015). Helburua da kolektiboari eragiten dioten eta haren etorkizunaren determinazioan eragina duten erabakiak hartu behar direnean dinamika horren funtzionamendua zein izaten den ezagutzea.

Aipatutako hiru espazio horien azalpena hemen:

- Gizarte-egitura modu dinamikoan ulertzen da, gobernantza ekonomiko eta soziazat hartuta, hau da, gizarteak jarraitu beharreko jarraibideak erabakitzen dituzten instantziatzat. Hainbat gizarte-arlotan aritzen diren eta etengabeko interakzioan dauden eragile ugari biltzen ditu.
- Joko-arauetako edo instituzioetako dagokienez, alde batetik, kontuan hartu behar da zenbateko konplexutasuna dakarren hainbat arlotan hainbeste eragile egoteak, eta bestetik, aintzat hartu behar da marko erregulatuak eta normatibo ugari daudela, gehienetan osatugabeak direla eta etengabe ari direla bilakatzen, eta askotan kontraesankorrak ere badirela elkarren artean eta etengabeko interakzioan daudela.
- Kultura, berriz, ideien, pertzepzioen, ezagutzen eta esanahien multzo bat da, eta horrek eragiten, legitimatzen eta motibatzen ditu eragileen xedeak eta ekintzak nahiz antolatzeak eta harremanak izateko moduak eta negoziatzen eta erabiltzen dituzten joko-arauak. Elkarrekin interakzioan dauden eragileek beren errepertorio kulturaletik abiatuta muntatzen eta eraikitzen dute ezagutza, eta horiek inoiz ez dira amaituta egoten, eta inoiz ez dira koherenteak izaten, etengabeko bilakaeran daude. Garrantzitsua da nabarmentzea prozesu horiek elikatzen dituztela eragileek lortutako zenbait lorpen nahiz bizitzeko moduak balioesteko edo ez balioesteko eragileek dituzten arazoak, eta hala, beren ekintzen orientazio-iturri bihurtzen dira.⁷

Tokiko gizartearen gobernantzaren analisia, ikuspegi zabal horretatik hartuta, metodologiaren kapitulu espezifikoan xehatuko da.

*Kulturaren eta testuinguruaren garrantzia*⁸

Orokorrean begiratuta, herrialde bateko kultura haren gizartearen balioen, sinesmenen, arauen eta jardunbideen sistematzat uler daiteke, sinesmen erlijiosoak eta tradizionalak ere kontuan hartuta. Herrialde batzuetatik besteetara asko alda daiteke sistema hori, baita herrialde be-

7. Esferen osaketari buruzko xehetasun gehiago jakin nahi izanez gero, ikusi hau: Bastiaensen (2015: 47 [2. taula]).

8. Hemendik jasota: LenDC, *The Core Concept*: 13-15 or. Eskuragarri hemen: <<http://www.lened.org/learning/core-concept>>.

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

rean ere; esaterako, eskualde geografiko batzuetatik besteetara eta talde sozial batzuetatik besteetara. Sinesmen eta jardunbide horiek, askotan, eragin handia dute aldaketa-helburuetan eta aldaketa-erritmoetan nondik eta nola egin aurrera jakiteari begira. Askotan, kultura aldatzeko denbora gehiago behar da testuingurua aldatzeko baino, sinesmen sozialen eta iraganeko portaeren patroio sendoetan oinarritzen delako kultura. Alabaina, motelak eta lortzeko zailak izan daitezkeen arren, kulturaren oinarritutako sinesmenen aldaketak oso garrantzitsuak izan daitezke gaitasuna garatzeko.

Une jakin batean toki edo egoera bati aplikatzen zaizkion faktoreen konbinazioa deskribatzeko modu bat da testuingurua. Faktore horien artean sartzen dira honako hauek: sistema politiko eta instituzionalak, herrialdearen eta haren ondokoen arteko harremanak eskualdean eta munduan, botere politikoaren eta ekonomikoaren arteko harremanak sostengatzen dituen ekonomia politikoa, talde sozial eta ekonomikoaren arteko botere-dinamikak eta bestelako faktore ekonomiko, geografiko eta sozialak.

Gaitasuna beti da testuinguruaren araberakoa; izan ere, gaitasun hori kontuan hartzen deneko ingurumen- eta kultura-faktoreekin harremanetan bakarrik defini eta uler daiteke. Denborarekin eta mantso lortu edo modu bortitzean lortu, kulturaren, testuinguruaren, gaitasunaren eta aldaketaren arteko harremana oso konplexua da, eta aldaketa testuinguruan txertatuta dago; aldi berean, testuinguruak eskaintzen ditu aldaketarako palanka posibleak. Testuinguruak eragina du gaitasunaren garapen-prozesuan, eta prozesu horrek eragina du testuinguruan; beste arrazoitatu batzuegatik ere alda daiteke; esate baterako, hala gertatu zen munduko krisi ekonomikoaren garaian. Hondamendi naturalak, herri-mobilizazioak eta eskualdeko ezegonkortasuna ere garrantzitsuak izaten dira aldaketarako. Zalantzarik gabe, herrialde bateko egoera soziopolitikoa eta hark aldaketa sustatzeko, jarraitzeko edo blokeatzeko lidergoan duen eragina da faktorerik garrantzitsuenetakoa bat.

Testuingurua pentsatzean, oinarritzko kontuetako bat da dagoen ikuspegi nagusia zalantzan jartzea; ikuspegi nagusi hori balio uniberttsala balitz bezala aurkezten da, objektibotasun jakin batean oinarrituta balego bezala, eta haren helburua da nagusi diren interesak legitimatzea aukera posible bakartzat. Beharrezkoa da beste «objektibitate posizional» batzuk ere aurkitzea; hau da, aitortzea askotariko ikuspegiak daudela eta bakoitzak bere legitimitatea duela, eta elkarren artean ezberdintasun asko izan ditzaketela onartzea. Horrek ez du esan nahi balio jakin batzuk ezin direnik modu zabal batean partekatu, ez eta akordio-rako esferak egon ezin direnik ere. Horregatik, zeregin nagusietako bat

da lurralde bakoitzean dauden objektibitateak identifikatzea, eta, horretarako, funtsezkoa da elkarren arteko erlazioen markoaren analisia egitea. Ikusi behar da Cabo Delgado, Toliban nahiz Urdaibain zein instituzioek ematen dieten hitza eta boterea talde guztiei, eta interakzio kritiko horietatik abiatu behar da proposamen alternatiboak egiteko. Elkarren arteko erlazioen marko horiek aztertzeke, ez dago proposamen bakar bat, testuinguru sozialak eta instituzionalak oso ezberdinak baitira elkarren artean. Edonola ere, gizarte-egitura, instituzioak edo joko-arauak nahiz ideiak edo kultura kontuan hartu behar dira, ingurune ekologikoarekin duten interakzioan.

■ Aldaketa-prozesuak

Ezin gara geratu komunitateetan agertzen diren harremanen deskribapen hutsean, jatorriaren arabera sailkatzen baditugu ere ez baitute ezer esaten funtsezko gaiaz, hau da, aldaketaz. Nola gertatzen da aldaketa? Zein prozesuren bidez adierazten da?

Egintza kolektiboa aldaketaren eragile (lidergo kolektiboa)

Nola azaldu nola, noiz eta zergatik gertatzen den edo ez den gertatzen aldaketa? Pentsatzekoa da, une jakin batean, pertsona batzuek aldarrikapen bat sustatu, eta eskaera politikoko prozesu bat martxan jartzen dutela. Horregatik, galdera horri ematen zaion erantzuna da erabakia hartzeko arduradun nagusi direnen «borondate politikoan» dagoela aldaketaren jatorria, erreforma bat sustatzearen alde egiten dutelako. Garapenerako Lidergo Programak kritikatu egiten du ikuspegi sinplista hori, eta borondate politikoa ulertzeko moduari buruzko ideia zabalagoa proposatzen du (DLP, 2018a, 2018b).⁹

Borondate politikoa behar bezala ulertzeko Garapenerako Lidergo Programak bi ezaugarri aipatzen ditu. Lehenik eta behin, ahalegin kolektibo bat eskatzen du, eta kritikatu egiten du aldaketa motibazio

9. Garapenerako Lidergo Programa (DLP, Developmental Leadership Program) nazioarteko ikerketa-egitasmo bat da, eta aztertzen du lidergoak, botereak eta prozesu politikoez nola sustatzen edo oztapatzen dituzten garapen-prozesuak. Ardaztat hartzen du tokiko liderrek eta koalizioek funtsezko rola dutela instituzio legitimoak eratzeke eta horien bidez garapen-emaitzak (hala nola hazkunde jasangarria, egonkortasun politikoa eta garapen sozial inklusiboa) sustatzeko. Birminghamgo Unibertsitatean (Erresuma Batua) du egoitza, eta lankidetzat estuan aritzen da Melbourneko La Trobe Unibertsitatearekin (Australia).

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

eta asmo indibidualetan oinarritzen dutenen jarrera, ez dagoelako bere kabuz aldaketa eragin dezakeen lider indibidualik. Erreforma inoiz gutxitan da politikarien edo beren kabuz aritzen diren beste liderren emaitza, baizik eta aliantza estrategikoetan, sare politikoetan eta defentsan oinarritzen da. Borondate politikoaz hitz egiteak ez du zentzurik baldin eta ez badago hura ezartzeko gaitasun kolektiborik. Aldaketak esfortzu kolektibo eta kolaboratiboa eskatzen du, eta borondate politikoa saiakeraren indibidual gisa aurkezteak estali egiten du errealtate hori.

Bigarrenik, prozesu politiko bat da. Borondate politikoa ez da fenomeno psikologiko bat, baizik eta fenomeno politikoa da. Ez da modu magikoan agertzen, baizik eta inpugnazio-prozesu politiko baten bidez. Harekin, herritarrek nahiz interesa duten bestelako alderdi batzuek beren ordezkariak erantzule egiteko ahalegina egiten dute. Era berean, liderrak ez daude inoiz erabat aske, mugatzaile, sustatzaile edo baldintzatzaile dituzten arauetatik. Mundu errealean, norbanakoen eta bizi dituzten arauen arteko harreman konplexuen mende dago aldaketa: testuinguru instituzionalaren mende. Pertsonak instituzioetan daude txertatuta; modu indibidualetan edo kolektiboan marko instituzionaletan lan egin dezakete, marko horiek eten egin ditzakete, saihestu edo berriz idatzi, baina marko horiek mugatzen eta ahalduntzen dituzte pertsonak.

Borondate politikoak, beraz, galdera sakonagoak ezkututzen ditu: nondik dator borondate politikoa? Nola funtzionatzen du? Eta garrantzitsuenak: eraiki al daiteke? Azken hamar urteetan, ikerketa sakona egin du Garapenerako Lidergo Programak, eta ikusi du aldaketarako borondate politikoa garapenaren lidergoaren prozesu kolektibo eta politikoaren bidez azaleratzen dela. Aldaketa onak gertatzeko prozesu estrategiko, kolektibo eta politikoa hartzen du garapenaren lidergotzat. Gauza askoren ondorioz gerta daiteke aldaketa: zortea, istripua, aukera nahiz egitura-aldaketa (adibidez, aldaketa demografikoa eta aldaketa geopolitikoak) izan daitezke arrazoietako batzuk. Alabaina, garapenaren lidergoa planteatzen denean, nahita egindako ekintza bat dagoela ulertzen da. Egintza-prozesu estrategiko bat eskatzen du. Pertsonak eta balia bideak mobilizatzen dira helburu partekatuen bilaketan. Aldaketa bat behar da, eta hori gertatzeko botere sozialaren gaiari heldu behar zaio. Askotan, askotariko interesak dituzten liderren, eliteen eta erakundeen koalizioak osatzea eskatzen du. Instituzio «zurrune» sostengatutako ideiak inpugnatzeko eta deslegitimatzeko gaitasunaren araberakoa izango da koalizioen boterea eta eraginkortasuna. Hori egin badezakete, instituzioak berriz formulatu ditzakete tokiko legitimitatez, eta aldaketa jasangarriagoa izatea lor dezakete.

Politikak boterearen egiturak, instituzioak eta funtzionamendua jorratzen ditu, eta hura nola erabiltzen den ideiei, interesei, balioei eta lehenasunei buruzko lehian, gatazkan eta deliberazioan; horietan norbanakoak, taldeak, erakundeak eta koalizioak aurrez aurre edo lankidetzan aritzen dira baliabideei, eskubideei, arau publikoei nahiz betebeharrei eta berekoikeriari buruz; akordioak eta itunak egiten edo hausten dituzte; eta etengabeko prozesu batean, ezarri, mantendu edo eraldatu egiten dituzte politikak, instituzioak eta establezimendu politikoak.

Egitura ezin da ikusi aldaketarik baimentzen ez duen erreperitorio zurrun gisa. Aitzitik, egoeraren arabera berriz interpretatu eta sortu beharreko orientabide orokorren marko bat da, eta orientabide horiek beti uzten dute askatasun-maila bat, baita zapalduenentzat ere. Egintzaren bidez egitura aldatzeko aukerak sortzen ditu horrek. Alabaina, aldaketa hori eraginkorra eta sozialki bideragarria izateko, beharrezkoa da behar adina norbanako konbentzitzea eta biltzea, kantitate nahiz kalitate aldetik (hau da, norbanako esanguratsua biltzea, aldaketa lor dadin ingurune sozial eta instituzionalan, gaitasunen emaile eta mugatzaile horretan).

Ideiak aurkaratzeko eta botere-harremanak eraldatzeko prozesua ez da ez argia, ez lineala. Desordenatua izan ohi da; askotan, luzea; eta maiz, akatsez eta atzerapausoz josia. Mailaz mailakoa eta mugimendu geldokoa izan daiteke, denborarekin zabaltzen dena; edo modu dramatikagoan kataliza daiteke, krisien edo pertsonak mobilizatzen dituzten ezusteko talken eraginez.


Testuinguru sozialak eta sistema politikoak baldintzatzen ditu beti boterea eta pertsonen ekintza-gaitasuna. Alabaina, testuingurua gorabehera, garapenerako lidergoa, ezinbestean, funtsezko hiru elementuren mende dago:

- Aldaketa sustatzeko motibazioa: pizgarri, balio, interes eta aldaketa sustatzeko aukerekin motibatutako norbanako estrategikoak daude.
- Lankidetzaren prozesu kolektiboan: lidergoa funtsean prozesu kolektiboa da, norbanako motibatu horiek lankidetzaren aurkako hesiak gainditzen baitituzte, eta behar adinako boterea, zilegitasuna eta eragina duten koalizioak osatzen baitituzte.
- Nagusi diren ideiak zalantzan jartzea eta proposamen alternatibo bat legitimazioa: koalizioek ideien borroka batean parte hartzen dute, gizarteko arauak aldatzen laguntzeko. Koalizioen boterea eta

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

eraginkortasuna, neurri handi batean, ideia sorta bat zalantzan jartzeko eta sorta alternatibo bat legitimatzeko duten gaitasunaren araberakoak dira (ikus 3. irudia).

3. IRUDIA. GARAPENERAKO LIDERGOA



Iturria: Lanketa propioa DLPn (2018a) oinarritua.

Oinarritik sortutako aldaketa: Ibrahimen 3K eredu


Benetako emantzipazioa bilatzen duten aldaketa-prozesuek talderik babesgabeenen babesean sostengatu behar dutelako ideia sendotzeko, iradokitzailea da Ibrahimen (2017) proposamena. Hau du berrikuntza sozialtzat: eraketa sozialeko prozesu bat, abiapuntutzat oinarriak hartzen dituena, bai eta haiek *statu quo*-ari desafio eginez eta aldaketa instituzionala lortu nahian planteatutako konponbide berriak ere. Oinarrietan berrikuntza sozialak nola hasi, babestu eta sostengatu daitezkeen azaltzeko eredu bat ematen du. Gaitasunen garapen-prozesuaren proposamenari erantzuten dio ereduak, hiru prozesu nabarmenduta: a) kontzientziazio indibiduala; b) kontziliazio kolektiboa; eta c) kolaborazio instituzionala. Hiru prozesu horietako bakoitzean gertatzen diren dinamikak aztertzen ditu, eta nabarmentzen du arrakasta lortzeko, jasangarritasuna lortzeko eta oinarriko berrikuntzek gora egiteko zer-nolako garrantzia duten portaera-aldaketa indibidualak, egintza kolektiboak eta tokiko erreforma instituzionalak.

Testuingurua zein modutan eta zergatik den garrantzitsua azaldu nahi du ereduak. Erakusten du oinarritik sustatutako prozesuak sustatu eta mantendu egin daitezkeela portaera-aldaketa indibidual bat eraginez gero, egintza indibidual eta kolektiboa sustatuz eta instituzio mailako

tokiko erreformak babestuz. Nabarmentzen du portaera-aldaketak, egintza kolektiboa eta tokiko erreforma instituzionalak zeinen garrantzitsuak diren, oinarritik zuzendutako prozesu jasangarriagoak, gora egiteko aukera gehiago dutenak eta arrakastatsuagoak lortzeko. Berrikuntzek arrakasta edukitzeko, beharrezkoa da: pertsonengan portaera-aldaketa positiboak eragitea, egintza kolektiboko ekintzak babestea komunitatean, eta tokiko erreformak sustatzea instituzioetan. Elkarren mendekoak diren hiru prozesu horiek sustatzen dute aldaketa soziala.

Eredu horren sendotasunaren oinarriak dira, batetik, argitasuna; bestetik, arreta prozesuetan jartzea (eta ez emaitzetan); eta hirugarrenik, hiru prozesuen eta testuinguruari lotutako faktoreen izaera interaktiboa nabarmentzea. Garrantzi politikoari dagokionez, oinarriko berrikuntzek aldaketa soziala abiatzeko eta babesteko izan dezaketen funtsezko rola azpimarratzen du ereduak, eta azaltzen du garapeneko eragile ezberdinek nola babestu eta hobetu dezaketen rol hori (ikus 4. irudia).

4. IRUDIA. IBRAHIMEN 3K EREDUA



Iturria: Ibrahim (2017).

Ahalduntze indibiduala

Gaitasunen dimentsio indibiduala garrantzitsua da, baina hark dimentsio kolektiboarekin duen lotura ulertzeko modua, funtsezkoa. Aparteko bi dimentsio balira bezala ikusteko joera dago, hau da, berezita sortuko balira eta behin sortutakoan elkarrekin gurutzatuko balira bezala. Alabaina, egokiagoa da harremanen teoriak egiten duen bezala aztertzea lotura horiek. Gizakiak erlazioetan existitzen direla kontuan hartuta abiatzen da; hau da, kontuan hartuta mundura ez direla sartzten agente independente, autonomo eta buruaski gisa, nahiz eta teoriarari liberal tradizional askok hori uste izan. Feminismoak ikuspegi horren garrantzia azpimarratzen du; izan ere, pertsonen arteko harremanei arreta jartzen zaienean, arreta jartzen zaio boterearen funtzio-namenduari ere, eta ikusten da arrazak, generoak, desgaitasunen bat izateak eta beste hainbat faktorek, askotan, murriztu edo sailhestu egiten dutela pertsonen ahalduntzea, eta ondorioz, baita haien egintza ere. Norbanakoei buruzko ikuspegi hori aldatzen dugunean —hau da, norbanakoak bere horretan hartzeari utzi eta norbanakoak harremanetan direla kontuan hartzen dugunean—, aukera berriak sortzen dira teoriarako eta politikarako, eta horiek moralki egokia den modu batean erantzun behar diete errealitate eta behar korporalei.

Honako elementu hauek dira erlazio-ikuspegi feministaren ezau-garriak:

- Testuinguruari garrantzia ematea, horrek aukera ematen baitu erreparatzeko zer bizi-xehetasun dituzten pertsona askok, askotariko desberdintasun- eta zapalkuntza-harremanen ondorioz. Harreman horiek, era berean, jardunbide sozial partikularrek eta testuinguru politikoei eratuak dira.
- Azpimarratzea gobernuak zer arau eta jardunbidei sostengatzen dituzten babesgabeen eta baztertuen askotariko desberdintasunak.
- Nabarmentzea zeinen garrantzitsua den botere-harremanen ondorioz kaltetutakoen ikuspegiak aintzat hartzea, askotariko desberdintasun-motei eta desberdintasun horiek sostengatzen dituzten egiturei buruz ikasteko.

Botere sozialaren gaiari heldu gabe oinarrituz gero gaitasun indibidualetan, ongizatearen analisia osatu gabe geratzen da. Pertsonen ahalduntzeari ezin zaio heldu abentura indibidual eta abstraktu bat balitz bezala. Hau da planteatu beharreko kontua: pertsona eta talde batzuek

zergatik ez duten beren gaitasunak zabaltzeko aukerarik eta beste batzuek zergatik duten horretarako aukera. Gaitasun edo ezberdintasun hori ez da kasualitate huts baten ondorio, baizik eta batzuei beren gaitasunak garatzeko aukera ematen dieten eta beste batzuei ematen ez dieten botere-egituren emaitza da. Ikuspegi horretatik abiatuta planteatu behar da pertsona bakoitzaren gaitasunen hedapena, eta horrek ondorio politikoak ditu, gaitasun indibidualak handitzeko estrategiak aldaketa eskatzen duelako, eta aldaketa gauzatzeko botere sozialaren gaiari heldu behar zaiolako. Laburbilduz, harremanen teoriak prozesu gisa ulertzen du ahalduntzea, eta haren bidez eragileak aldaketa gauzatzeko gaitasunak eta baliabideak erabiltzeko gaituta daude, eta zapalkuntza-baldintzak kendu edo arindu egiten dituzte.

Bai ahalduntze indibiduala eta bai egintza handitzea funtsezkoak dira jarrera eta gaitasuna aldatu eta komunitatea aldatzearekin konprometitzeko, mugimenduak sortzeko edo haietan parte hartzeko. Pertsonak eta talde kolektiboek bizi diren ingurunea berregituratu eta eraldatu egiten dute pixkanaka, ukatzen zaizkien aukerak edukitzeko. Aldaketa-prozesu potentzial horien azpian dagoen motorrak komunitateko zenbait pertsonak bizitako gaitasun-gabeziak ditu eragile, hau da, baliotsuak diren baina eskuragarriak ez diren funtzionamenduak. Horiek aukera zabalitzen dute ahalduntze kolektiboaren bidez ekintza kolektiboak abiatzeko, eta hala, testuinguru sozio-instituzionalean eragiteko, erabaki-hartzeetan lehenetasun eta eragin sozialak eratzeko mekanismoak diren aldetik.

Gizarteak zer izan behar duen dioten zenbait ideia nagusi kaltegarriak dira baztertutako eragileentzat, helburuak edukitzeko gaitasuna mugatzen baitiete. Nagusi den pentsamenduak markatzen ditu indarrean dauden instituzioak, eta aldaketa gertatzen ez bada, baztertuek instituzionalitate hori onartzea hartzen da integraziotzat, eta alde batera uzten da gai nagusia: beren bazterketaren arrazoia. Moldaera-lehenetasunen arazoa kontuan hartzea eskatzen du horrek; hau da, lortu ezin den zerbait desio dutenean pertsonak jasaten duten frustrazioa, azkenean pertsonaren nahi eta lehenetasun guztiak eskura dauden baldintzetara moldatzea eragiten baitu. Horren ondorioa da gaur egungo egoera ontzat jotzea, eta, beraz, aldaketarako desio guztiak izoztea.

Gizarte askotan gertatzen da hori emakumeek familian eta gizartean duten rolaekin, bai eta pribilegio gutxien dituzten gizarte-geruzetan ere, gizarte-antolaketak, berez, *modu naturalean* agintaritza bertikal eta autoritario bat behar duela barneratzen baitute, eta horrek gardentasuna eta kontrola eskatzen dituzten uaxatzen baititu, bai eta erakundetan modu aktiboan eta demokratikoan parte hartzen ere.

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

Horregatik, ahalduntze-prozesu guztiek ez dute norberaren garapean eta autodeterminazioan aurrera egiteko aukerarik ematen; izan ere, gizarte-eraldaketarako marko bat behar da botere kolektiboaren potentzialtasun guztiak hedatzeko, maila teoriko-filosofikoan nahiz esku-hartze sozialaren mailan. Ahalduntzea hau dela ulertu behar da: prozesu bat, non pertsonak aldaketarako eragileztat hartzen diren, eta gai diren beren trebeziak eta gaitasunak erabiltzeko, beren bizitza eta baliabideei buruzko erabakiak kontrolatze aldera eta horiei buruzko iritziak emate aldera. Emakumeen ahalduntzea ezin da hartu prozesu indibidual bat balitz bezala, hau da, gaitasunen garapena sustatzen duen baina testuinguru sozial eta politikoetan dauden bidegabekeriak zalantzan jartzen ez dituen prozesu bat balitz bezala. Aitzitik, eraldaketa-proiektu sozial feministatzat ulertu behar da ahalduntzea, zeinaren helburua baita aldaketa indibidualak ekintza kolektiboarekin artikulatzea, eraldaketa sozial eta politikorako proiektuen bidez gizarteak eraikitzeko.

Ahalduntzea tresna kontzeptual eta metodologiko egokitzat har daiteke herritargo inklusiboagoa garatzeko, betiere talde feministen eta emakumeen ekintza kolektiboen antolaketa barnean hartzen baditu, emakumeen eta gizonen arteko baliabide-banaketaren logika gaindituz, bizitzaren eta ingurumenaren zaintzaren balio kultural femeninoak birbaloratzeko aurrerapausoak emateko, emakumeei subjektu politiko gisa erabateko partaidetza edukitzeko aukera emanez, emakumeen eta zapal dutako beste taldeen beharrak eta interesak txertatuz haien esperientzietatik abiatuta. Ondorio horiek aukera ematen dute eskubi-deen sustapenari begiratzeko, ikuspegi biktimistarik gabe eta emakumeen gaitasun indibidual eta kolektiboetan oinarrituta, zapalkuntzaren eta menderakuntzari erresistentzia egitearren eta aurre egitearren, botere-harremanak lotura kolaboratibo eta elkarren mendeko bihurtuz.

BIBLIOGRAFIA ETA BALIABIDEAK

ALBOAN (2016): *El desarrollo de capacidades como estrategia de cambio. Una experiencia colectiva de búsqueda de alternativas*. Eskuragarri hemen: <https://www.alboan.org/es/multimedia/publicaciones/investigaciones/el-desarrollo-de-capacidades-como-estrategia-de-cambio>.

BASER, Heather, eta Peter MORGAN (2008): *Capacity, Change and Performance: Study Report*, Maastricht, European Centre for

Development Policy Management (ECDPM). Eskuragarri hemen: <<http://ecdpm.org>>.

BASTIAENSEN, Johan, Pierre MERLET, Marc CRAPS, Tom DE HERDT, Selmira FLORES, Frédéric HUYBRECHS, René MENDOZA VIDAURRE, Griet STEEL eta Gert VAN HECKEN (2015): *Agencia en territorios humanos rurales: una perspectiva socio-constructivista*, in Johan BASTIAENSEN, Pierre MERLET eta Selmira FLORES (argtz.): *Rutas de desarrollo en territorios humanos. Las dinámicas de la vía láctea en Nicaragua*, Managua, UCA, 21-64. Eskuragarri hemen: <https://www.researchgate.net/publication/273687260_Agencia_en_territorios_humanos_rurales_una_perspectiva_socio-constructivista>; <<https://drive.google.com/file/d/1zDN3hRmP9FX9Qwi8gDNcVo82TC8cjkhF/view>>.

BIGGERI, Mario, Andrea FERRANNINI eta Caterina ARCIPRETE (2018): «Local Communities and Capability Evolution: The Core of Human Development Processes», *Journal of Human Development and Capabilities*, 19 (2), 126-146. DOI: 10.1080/19452829.2017.1411896.

COSTAMAGNA, Pablo (2015): *Política y formación en el desarrollo territorial. Aportes al enfoque pedagógico y a la investigación acción con casos de estudio en Argentina, Perú y País Vasco*, Bilbo, Orkestra (Lehiakortasunerako Euskal Institutua - Deustu Fundazioa)/Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak. Eskuragarri hemen: <<https://www.orkestra.deusto.es/images/investigacion/publicaciones/informes/politica-formacion-desarrollo-territorial.pdf>>.

DENEULIN, Séverine (2006): *The Capability Approach and the Praxis of Development*, Londres, Palgrave MacMillan.

DLP (GARAPENERAKO LIDERGO PROGRAMA) (2018a): *Inside the Black Box of Political Will: 10 Years of Findings from the Developmental Leadership Program*, Developmental Leadership Program/Australian Aid. Eskuragarri hemen: <www.dlprog.org>.

— (2018b): *Developmental Leadership: What It Is, Why It Matters, and How It Can Be Supported*, Developmental Leadership Program, International Development Department College of Social Sciences, University of Birmingham. Eskuragarri hemen: <www.dlprog.org>.

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

- DUBOIS, Alfonso (2014): *Marco teórico y metodológico del desarrollo humano local*, Bilbo, Hegoa (UPV/EHU). Eskuragarri hemen: <http://www.dhl.hegoa.ehu.es/ficheros/0000/0779/Marco_DHL_versi%C3%B3n_larga.pdf>.
- FAO (2015): *Enhancing FAO's Practices for Supporting Capacity Development of Member Countries. Learning Module 1*, FAO Capacity Development.
- FUKUDA PARR, Sakiko, Carlos LOPES eta Khalid MALIK (argtz.) (2002): *Capacity for Development. New Solutions to Old Problems*, Londres/Sterling, Earthscan/UNDP.
- IBRAHIM, Solava (2017): «How to Build Collective Capabilities: The 3C-Model for Grassroots-Led Development», *Journal of Human Development and Capabilities*, 18 (2), 197-222.
DOI: 10.1080/19452829.2016.1270918.
- LENCED (d. g.): *The Core Concept*. Eskuragarri hemen: <<http://www.lencd.org/learning/core-concept>>.
- NBGP (NAZIO BATUEN GARAPEN PROGRAMA) (2006): *UNDP Capacity Development Practice Note*, uztaila.
- (2008a): *El fomento de la capacidad. Empoderamiento de las personas y las instituciones*. Eskuragarri hemen: <https://www.undp.org/content/undp/es/home/librarypage/corporate/undp_in_action_2008.html>.
- (2008b): *UNDP Capacity Development Practice Note*, urria.
- (2009): *Supporting Capacity Development. The UNDP Approach*.
- NUSSBAUM, Martha C. (2012): *Crear capacidades. Propuesta para el desarrollo humano*, Bartzelona, Paidós.
- STEWART, Frances, eta Séverine DENEULIN (2002): «Amartya Sen's Contribution to Development Thinking Studies», *Comparative International Development*, 37 (2), 61-70.
- STIGLITZ, Joseph E., Amartya SEN eta Jean Paul FITOUSSI (2013): *Medir nuestras vidas. Las limitaciones del PIB como indicador de progreso*, Bartzelona, RBA.

- WOODHILL, Jim (2010a): «Capacity Lives Between Multiple Stakeholders», in *Capacity Development in Practice – Dimensions of Capacity*, 25-41.
- (2010b): «Capacities for Institutional Innovation: A Complexity Perspective», *IDS Bulletin*, 41 (3), 47-59.

■ Webguneak

Alboan, COMPARTE proiektua

COMPARTE proiektua gogoetarako eta sarean lan egiteko espazio bat da, eta 2011tik dago martxan. Alternatiba sozio-ekonomikoak eraitkitzea da haren helburua, kide diren erakundeek gauzatzen dituzten prozesu ekonomiko-produktiboen jardunbidetik ezagutza sortzearen bidez. ALBOANek (Euskadin dagoen gobernuz kanpoko erakundeak) eta Latinoamerikako hamabost erakunde sozialek osatzen dute (gehienek ekintzaitelza produktiboa garatzen dute landa-eremuetan).

Blog bat du (<http://desarrollo-alternativo.org/>), eta han, nagusi den ereduaren alternatibak eraitkitzeko eta garapen inklusibo eta jasangarri batekiko bizi-ohitura koherenteak hartzeko apustua egiten duten pertsonak eta erakundeek informazioa, ezagutza eta esperientziak partekatzen dituzte.

Sarearen jardunbidearen alderdi esanguratsuetako bat da gogoeta kolektiboko prozesu bat egin duela. Proiektu bakoitzaren esperientzie-tatik abiatuta, erreferentzia-marko bat eraiki dute, gaur egungo garapenaren alternatibak nolako izan behar duen aztertzeko. Argitalpenetan adierazten duten bezala, aldaketarekiko kezkak bultzatuta eta gaitasunen garapena oinarri hartuta osatzen dute beren pentsamoldea. Dokumentu hauek nabarmentzen dira bereziki:

El desarrollo de capacidades como estrategia de cambio. Una experiencia colectiva de búsqueda de alternativas (2016). <https://www.alboan.org/es/multimedia/publicaciones/investigaciones/el-desarrollo-de-capacidades-como-estrategia-de-cambio>

El desarrollo alternativo por el que trabajamos: aprendizajes desde la experiencia. <https://www.alboan.org/es/multimedia/publicaciones/investigaciones/el-desarrollo-alternativo-por-el-que-trabajamos>

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

Enfocando la participación desde lo local. <https://www.alboan.org/es/multimedia/publicaciones/investigaciones/enfocando-la-participacion-desde-lo-local>

Instituto de Investigación y Desarrollo (Nitlapan)

www.nitlapan.org.ni

Universidad Centroamericana de Managuaren institutu bat da, Nikaraguakoa, eta aukera gutxien dituzten pertonekin eta haientzat lan egiten du. Ezagutza sortu eta belaunaldi-aldaketak prestatzen ditu, gaitasunak sendotzen ditu, finantza-zerbitzuak eta finantzei lotutakoak ez diren zerbitzuak sortzen ditu, eta aldaketa sozioekonomikoaren, politikoen eta kulturalen prozesuetan autokudeaketa sustatzen du dagoen lekuetan. Honela definitzen du bere ikuspegia: ezagutzaren sorreran eta berrikuntzan liderrak izatea, landa-komunitateetan eta komunitate indigenetan emakumeen, gazteen eta sektore zaurgarrietako gizonen gaitasun indibidual eta kolektiboak garatzeko eta haien bizitzetan eta lurraldean aldaketak eragiteko, genero-berdintasuna, kultura-aniztasuna eta ingurumen-jasangarritasuna kon-tuan hartuz.

Teoria eratzen ahalegin handia egin dute, eta horren adibide dira argitalpen hauek:

ALEMÁN, Miguel, Johan BASTIAENSEN, Selmira FLORES, Griet STEEL, Carlos SOSA eta Silvia MARTÍNEZ (2011): *Territorio, actores y estrategias de desarrollo*, Managua, Nitlapan/UCA (Cuaderno de Investigación, 40).

BASTIAENSEN, Johan, Pierre MERLET, Marc CRAPS, Tom DE HERDT, Selmira FLORES, Frédéric HUYBRECHS, René MENDOZA VIDAURRE, Griet STEEL eta Gert VAN HECKEN (2015): *Agencia en territorios humanos rurales: una perspectiva socio-constructivista*, in Johan BASTIAENSEN, Pierre MERLET eta Selmira FLORES (argtz.): *Rutas de desarrollo en territorios humanos: las dinámicas de la vía láctea en Nicaragua*, Managua, UCA, 21-64. Eskuragarri hemen: <https://www.researchgate.net/publication/273687260_Agencia_en_territorios_humanos_rurales_una_perspectiva_socio-constructivista>; <<https://drive.google.com/file/d/1zDN3hRmP9FX9Qwi8gDNcVo82TC8cjkHf/view>>.

Tokiko giza garapen iraunkorrerako baliabideak

<http://www.dhl.hegoa.ehu.es/>

Euskal Herriko Unibertsitatearen Hegoa Institutuaren egitasmo bat da. Tokiko giza garapen iraunkorrak proposatzen duena da gizarte bakoitzetik abiatuta pentsatzea eta ekitea, proiektu kolektiboak eraikitzeko, erreferentziatzen hartuta pertsonak modu indibidualean eta kolektiboan hartu behar direla aintzat garapenean. Bereziki, planteatzen du tokiko gizarteek protagonismoa hartzea bai beren garapen propioaren bilaketan eta bai behetik hasita globalizazio bat sortzeko eragile aktibo gisa.

Tokiko giza garapenaren atariak ildo horretan gauzatu diren ekarpen teorikoen eta praktikoen aberastasuna bildu nahi du. Honako hauek eskaintzen ditu: dokumentuak (artikuluak, liburuak eta txostenak); prestakuntza-baliabideak (deskarga daitezkeen ikastaroak, trebatzeko gidaliburuak, hiztegia); webguneen baliabideak; eta ikus-entzunezko materiala. Eskura dauden elementu guztiek edukari buruzko azalpen-fitxa bat dute. Era berean, elementu bakoitza gako-hitzen arabera dago indexatuta, eta horrek aukera ematen du eskaera egin duen pertsonak bere interesen araberrako bilaketa egiteko.

LenCD

<http://lencd.org/home>

<http://lencd.org/learning/learning-package-capacity-development>

LenCD gaitasunen garapenari buruzko ikaskuntza informalerako sare ireki bat da, gaitasunen garapenaren praktika hobetzeko interes komuna duten norbanako eta erakundeek osatua. Helburutzat du gaitasunen garapenari buruzko ikasgaien eta ikasketaren trukea sustatzea eta erraztea, bai eta munduan, eskualdean eta tokian bertan praktika hobetzeko aldaketak sustatzea ere. Honako hauek ditu helburu estrategikoak: ebidentzia indartzea eta praktika egokien hedapena erraztea; egitasmo kolektiboak eta “ikasketa-loturak” ixteko beharrezko prozesuak erraztea eta aldaketa sustatzea; gaitasunen garapena garapen orokorrerako politikan txertatzea bultzatzea; eta eskualdeko eta tokiko egitasmoak babestea tokian bertan gaitasunen garapenaren praktika aldatzen laguntzeko.

Sarearen egitasmoek honako hauek txertatzen dituzte: gaikako eta eskualdekako lantaldeak, produktu espezifikoaren garapena, politiken ikerketa eta garapenerako ikerketa, ezagutzaren trukea egitea sareko

1. PROPOSAMEN ALTERNATIBOA GAITASUNEN IKUSPEGITIK ABIATUTA

baliabideen bidez, ezagutzen tarifak eta beste mekanismo batzuk. Sare honen prestakuntza-materialak oinarri ona dira ikuspegi horren edukiak modu sistematikoan ezagutzeko.

Alianza Latinoamericana de Estudios Críticos sobre el Desarrollo

<http://otrodesarrollo.com/>

Garapenari buruzko ikuspegi kritikoaren eztabaidarako, komunikaziorako eta sustapenerako espazio bat da, eta ikuspegi teoriko eta ekintza praktikoa ezberdinetatik abiatuta aritzen da. Sare honetan, garapenari buruzko ikuspegi kritikoak oso ikuspegi ezberdinetatik aztertzen dituzten pertsonak biltzen dira, eta garapen alternatiboa, endogenoa, jasangarria, iraunkorra, postgarapena eta beste hainbat izenez ezagutzen diren jarrerak biltzen ditu; alderdi askotatik lantzen ditu (soziala, ekonomikoa, ingurumena, generoa, eta abar), eta badaude garapenaren ideia bera arbuiautzen dutenak ere. Aldi berean, ekonomia heterodoxoarekin, ekonomia ekologikoarekin, ekonomia sozialarekin, sustapen sozialarekin eta abarrekin zerikusia duten eremuetara zabaltzen da. Ez du jarra bat lehenesten beste baten gainetik; helburutzat du haietako bakoitza zabaltzea eta haietako bakoitzean sakontzea, eta, aldi berean, alternatibak bilatzearen aldeko apustua egitea, batik batik Latinoamerikako ikuspegitik. Gai horiei buruzko artikuluen funts bat du.

2

HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK GURE MOZAMBIKEKO ERRAUSKINEK HITZ EGIN NAHI DUTE

Teresa Cunha eta Isabel Casimiro

Teresa Cunha Soziologian doktorea da Coimbrako Unibertsitatean. Ikerketa Sozialen Zentroko (CES) ikertzailea da Coimbrako Unibertsitatean, eta irakaslea hango hainbat doktoretza-ikastarotan. Hauek guztiak koordinatzen ariren da: *Oficina do CES* argitalpena, Gender Workshop sailak, Hegoaldeko epistemologiak Udako Eskola eta CESeko Hegoaldeko Epistemologiak Ikerketa Programa. Horrez gain, Jakintzen Ekologia Feminista Neguko Eskolako koordinatzaile zientifikoa da. Ikertzaile elkartua da CODESRIAn (Afrikan Gizarte Zientzien Ikerketa Garatzeko Kontzeilua) eta Eduardo Mondlane Unibertsitateko Afrikan Ikasketen Zentroan (Mozambike).

Isabel Casimiro Soziologian doktorea da Coimbrako Unibertsitatean, bai eta Historian eta Garapen Ikasketetan graduatua ere. Ikertzailea da Eduardo Mondlane Unibertsitateko Afrikar Ikasketen Zentroan (Mozambike), eta Garapenaren eta Genero Ikasketen Saileko koordinatzailea da zentro berean. CODESRIAko (Afrikan Gizarte Zientzien Ikerketa Garatzeko Kontzeilua) lehendakaria da 2018tik. Eskualde-mailako WLSAren (Women and Law in Southern Africa Research and Education Trust) (1988), Mozambikeko WLSAren sorreran parte hartu zuen (1990), eta azken horren koordinatzaile nazionala izan zen 1990 eta 1995 artean. Fórum Mulher foroaren sortzaileetako bat da, eta haren Zuzendaritza Kontseiluko lehendakaria ere izan da 1993-2000 eta 2006-2015 aldietan.

Argitalpen honek Fundação para a Ciência e a Tecnologia portuguesa fundazioaren babesa du, Projeto Estratégico UID/SOC/50012/2019 proiektuaren esparruaren barruan, eta Norma Transitoria/Empleo Individual-en finantzaketa du.

Hemen inork ez du lo egiten, lurrak eta fruta-arbolak uzteaz pentsatzean, eguzkiak kixkaliko gaituen leku berri batera joateko, han ez baitago ezer, ezta itzalik ere. Gure egoera oso konplikaturik da. Gure senarrak uhartetik bizirauteko baliabideen bila irteten direnean, beldurrak hartzen gaitu. Ez baitakigu onik itzuliko diren. (Velasco, 2018)

Gabelako lur hartan, kaferako lur gorri eta on hartan, lurraren kolore gorria are gorriago bihurtu zen, likatsuagoa, Sumbeseke eta Bailundoseko odolagatik. Seleseke, Ucoko, Condako, Hioveko lur hura, likatsuagoa, gorriagoa. Kafea indar handiagoz haziko da, lurretik datorren gorri indartsuagoaren indarrez. Gizon zuriaren odolak busti al zuen lurra? Apur batek soilik. Baina odol garestia da, tanta bakoitzagatik odol-ibaiak ordaindu behar baitira. Denek uniformatuta. Batzuek, soldaduen uniformearen daramate; beste batzuek, administratzaileena. (Pepetela, 2018)

Gizonez eta uniformeek jendeztatutako munduan, kapitulu hone-tako protagonismoa eman nahi diegu gizonek daramatzaten uniformeak desegiten dituzten emakumeei. Uniforme horien bidez gizonek mundua eta emakumeen gorputzak diziplinatu baitituzte.¹

-
1. Gure testuaren helburua ez da *emakumea* kontzeptu unibertsal gisa pentsatutako kontzeptuaren ahalmen kolonialari eta heteronormatiboari buruzko eztabaidan sartzea. Egile asko aritu dira gai horri buruz literaturan, hala nola Ifi Amadiume (1998), Catarina Martins (2016), Teresa Cunha (2014, 2015), Chandra Talpade Mohanty (1991), Linda Carty eta Chandra Talpade Mohanty (2015), María Lugones (2010), Karina Bidaseca eta Vanesa Laba (2011), Silvia Rivera Cusicanqui (2010), Judith Butler (2004), Oyèrónké Oyewùmí (2005), Casimiro (2014b, 2015), eta beste asko. Nolanahi ere, hemen honako hauek adierazi nahi ditugu: eztabaida hori egon badagoela, interesatzen zaigula, eta feminista horiek eta beste batzuek egindako kritikek gure babesa dutela.

Emakume horiek, gure Mozambikeko errauskinak,² berebiziko gauzak egiteko gai dira, biktimizaziora behin eta berriz zigortu nahi dituztenen aurka. Hegoalde ez-inperialean jaiotakoak eta hazitakoak dira, zapalkuntza guztien aurkako erresistentziaren eta sufrimenduen metafora den hegoalde horretan, eta Gayatri Spivak-en etengabeko erronkari erantzuten diote, hitz egiteko gai baitira, eta hitz egin eta ikusten dutena kontatu nahi baitute. Emakume horiek, egunez egun, jasanarazten dieten miseria eraldatzen dute, alternatiba zehatz eta bideragarriak lortze aldera. Emakume horiek beren existentzia desobedientzia bihurtzen dute, emakumeak suntsitu nahi dituen agindu orean aurka. Emakume horiek ausartzen dira historia beste modu batean kontatzea. Errausiak sua bezala tratatzen dituzte, eta itxaropena ahizpa bezala. Negar egiten dute, haserrea adierazten dute ematen dizkieten tratatu txarreatatik, baina ez dute zigorgabetasuna onartzen, ez dute amore ematen haren aurrean. Ez dira orainaren ebaneszentziak, etorkizunaren sortzaileak direlako.

Kapitulu honetan, elkarrekin abiatuko gara hegoaldeko epistemologiei eta bizitzarako alternatiba feministei buruz pentsatzeko, baina, horretarako, gure mundua nondik ikusten eta pentsatzen ari garen adierazi nahi dugu. Gure abiapuntua Ekialdeko Hego Afrika da; zehazki, Mozambike bustitzen duen Indiako Ozeanoaren kostaldea. Hortik jorratzen eta pentsatzen ditugu testu honetan lantzen diren gaiak eta alternatibak. Argi eta garbi azaldu behar da testu hau egilekidetzan egin dela, eta ez dutela soilik esku hartu testua idatzi dutenek. Hain zuzen ere, testuan beste emakume askoren jakinduria dago jasota, eta haiek ere testuaren egile dira, jakinduria hori baita orri hauetan idatzitako hitzen oinarria. Hori elkarrengandik ikasten dugu: inork ez du beste inoren eskua askatzen.

-
2. «Gure Mozambikeko errauskinak» Luisak erabilitako esamoldea da. Luísa feminista gazte baten ezizena da, Isabel Casimirok eta Withney Sabinok 2017ko ekainean elkarrizketatu zutena «"Diálogos em confronto". Trajetórias, construções e percursos emancipatórios das mulheres nos PALOP's: Guiné-Bissau, Cabo Verde e Moçambique» ikerketa-proiektuaren esparruan. Ikerketa-proiektu horrek CODESRIaren (Afrikan Gizarte Zientzien Ikerketa Garatzeko Kontzeilua) babesa izan zuen. Esamolde horrek 1962ko uztailaren 25etik 1974ko irailaren 7ra bitarte Mozambike Askapenerako Fronteak (FRELIMO) gidatutako nazio-askapenerako borroka armatuan parte hartu zuten emakumeak adierazten ditu, hala nola Josina Machel. Borroka armatu hori Lusakako Itunen bidez amaitu zen; 1974ko irailaren 7an sinatu zituzten itun horiek urte horretako apirilaren 25ean eratutako Portugalgo Gobernuak eta FRELIMOk agintariek.

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

Hegoaldeko epistemologietatik (Santos, 2018) abiatuko gara, munduko alde honetan eraikitzen ari garen feminismoaren ikuspegitik aztertzeko. Kapitulu hau idazteko, teoriak eta gure esperientzia enpirikoak hartuko ditugu kontuan. Gure buruari eta gure aurrean zabaltzen den munduari buruz hausnartzen dugu, arazoak eta guzti, eta kritika eginez, kritikak gu geldiarazi eta itsutu gabe, gizon-emakume guztiontzat bidezko eraldaketa erreala lortzeari dagokionez. Jada duela asko ikasi genuen emantzipazioa plurilogikoa eta pluribertsoa dela, eta modu polifonikoan pentsatzen dela, hitz egiten dela eta bizitzen dela. Eta hori da gurekin bide hau egin duten emakumeetako askok eta askok behin eta berriz esaten digutena: emakume bizidunak, jakitunak, erronkariak, agindu zaharren eta berrien objektu izateari aurre egiten diotenak.

Kapitulua bi atal nagusitan banatuta dago. Lehenbizikoan, hegoaldeko epistemologiaren hermeneutika feminista bat proposatzen dugu. Lerro abisalaren kontzeptuak ekonomia politiko garaikideari buruz analitikoki pentsatzeko balio digu. Ekonomia politiko hori, gure ustez, koloniala, androzentrikoa eta antropozentrikoa da. Bigarren atalean, gure esperientziak eta Mozambikeko emakumeen narratibak eta jardunbideak aztertuz, sufrimenduen balizko kausetako batzuk eta etorkizunerako erresistentziarako ideiak eta alternatibak ulertu nahi ditugu. Azkenik, ikasitako ikasgaietako batzuk nabarmendu nahi ditugu, Indiako Ozeanoaren alde honetatik; izan ere, ikasgai horiek jakintza garrantzitsu bihur daitezke, prestakuntza-politika publikoekin eta hegoalde-hegoaldeko eta hegoalde-iparraldeko lankidetzaren solidarioarekin lotutako gomendioak emateko.

LERRO ABISALAREN GAINEAN IBILTZEN: HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIEN HERMENEUTIKA FEMINISTA BAT

■ Zer dira hegoaldeko epistemologiak?

Hegoaldeko epistemologiak premisa nagusi hauek dituen eremu teorikoa da:

1. Mendebaldeko pentsamendu modernoa harrotputza eta axolagabea da. Harrotputza da pentsamendu hori hartzen duelako baliozko jakintza bakartzat; beraz, jakintza unibertsalgarri bakartzat. Zientifikoa dela aldarrikatzen du, eta zientzia egiteko modu hori jartzen du munduko arazoaren konponbideak bilatzeko erdigunean, eta hori

egitean, beren garrantzia eta ahalmen eraldatzaile positiboa kentzen dizkie gainerako jakintzei, eta sineskeria bihurtzen ditu, edo errealtatea eta egia irudikatzeko mendeko modu edo hipertrofia. Axolagabea da, munduaren ikuspegi metonimikoa duelako: zatia denaren ordezt hartzen du, eta ez du bere mugak zein diren jakiteko interesik. Jakintza guztiak herrenak direla aitortuta, Boaventurak dio mundua ezagutzeko Mendebaldearen modua askoren arteko bat baino ez dela, eta oparotasun kognitibo horri bizkar ematea edo hura kontuan ez hartzea esperientzia-xahutze tragi-koa dela (Santos, 2002, 2007, 2014a).

2. Europar iluminismoan eraikitako pentsamenduak ez ditu bere porrotak onartzen. Pentsamendu horrek inauguratu zituen interpretazio- eta eraldaketa-ereduen utopia handiak agortuta ageri dira gaur egun eta ez dira bakea, justizia eta ekitatea sustatzeko gai, ez herrialde-esparruan, ezta esparru globalean ere. Aldiz, demokrazia-
ren eta giza eskubideen izenean, gerrak deklaritzen dira, pertsonak eta kulturak desagerrarazten dira, lurraldeak eta Lurra suntsitzen dira, haien bizi-adierazpen guztiekin. Hala, uko egiten zaio justizia gorenari eta harmonia ekodependentea nagusi izango dituen beste mundu bat imajinatzen eta eraikitzen aukeraren itzaropenari.
3. Pentsamendu horri sostengatzeko, ezinbestekoa da lerro abisalak sortzea eta haiei eustea (Santos, 2014a, 2018). Lerro abisalek lerroen bidez banatzen diren izakien eta ez-izakien mundu bat sortzen dute. Lehenbizikoei (izakiei) duintasuna, historia, identitatea, memoria, kultura eta sormen-ahalmena esleitzen zaizkie; bigarrenak (ez-izakiak) ontologikoki huts egindako izakiak dira, eta, haietan, nagusi dira animaltasuna, irrazionaltasuna, izaera errepikakorra, mundua eta bizia bereak direla pentsatzeko ezintasuna. Santosek dio lerro abisalek pertsonak eta haien munduak eredu kolonial baten bidez bereizten dituztela. Batetik, metropoliak daude, eta haietan, negoziazioa eta araudiak dira nagusi; bestetik, koloniak ditugu, eta haietan indarkeria eta apropiazioa nagusitzen dira (Santos, 2018: 20-21). Baina lerro abisalak dira desberdintasun ontologiko, sozial eta epistemologikoa sustatu eta bermatzen dutenak. Horren atzean dagoen botere-logika inbasioaren, gerraren, konkistaren, okupazioaren logika da, okupatzailearen mundu- eta jakintza-idealekin bat ez datozen lurralde, gorpuz eta identitateen kontrola eta esplorazioa. Horregatik, aniztasuna ez da erronka edo arazo bat soilik, dibergentzia ere bada. Eta sistema homogeneo, unibertsal eta desberdin batean, dibergentzia arriskua da, eta dibergente direnak suntsitu behar diren

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

itu bihurtzen dira, munduan nagusi den ikuspegi kolonialaren ekin-tza «salbatzaile-zibilizatzaile»ren bitartez.

Hegoaldeko epistemologiek, beraz, beren inexistenzia dute helburu. Munduan dauden jakintzen arteko elkarriketa horizontalak eta solidarioak defendatzen dituzte, gizon-emakume guztientzat, salbuespenik gabe, justizia maximizatu nahian, harmonian Lurrarekin eta bi-ziaren gainerako adierazpenekin. Horrenbestez, horrek esan nahi du hegoaldeko eta iparraldeko edo beste edozein puntu kardinalen arteko dikotomiak ez lukeela jada zentzurik izango. Bestalde, hegoaldeko epistemologiek itxaropenerako alternatiba ere izan nahi dute; beraz, ez dute gogoko kritika egitea, alternatibak eraiki gabe. Nihilismoaren kontrako borroka aktiboa egiten dute, nihilismoak distopiak eta jarduteko eta gauzen egoera aldatzeko ezintasuna sorrarazten dituelakoan.

Alde horretatik, hegoaldeko epistemologiaren koadro teorikoak in-terpelazio bat egiten du eta bost prozedura proposatzen ditu. Hau da erronka: hegoalde bat dagoela aitortzea, hegoaldera joatea eta hegoal-dearekin batera ikastea (Santos, 2014a). Hegoalde hori metafora bat da, eta ez iparralde geografikotik alde honetara edo beste aldera dagoen leku bat. Hegoalde hori metafora bat da, eta kolonialismoaren, kapita-lismoaren eta heteropatriarkatuaren indarkeriaren ondorioz jasandako eta bizitako sufrimenduetan sortutako jakintzak adierazteko erabiltzen da. Nolanahi ere, hegoalde hori, halaber eta batez ere, borrokan eta eraldaketa askatzailearen alde egitean imajinatu eta sortu diren gizar-te-jardunbideetan txertatutako jakintzen indarra eta kemena da. Hala, zabalik geratzen da munduaren aniztasunean pentsatzeko eremu epis-temologikoa, esperientziarik baztertu gabe; batez ere, zientzia moder-noaren bahe baztertzaitetik ihes egitea lortu duten esperientziak.

Aipatu ditugun bost prozedurak adierazi eta labur azalduko ditugu jarraian.

1. Lehenbizikoa ausentzien soziologia da. Soziologia horrek aukera ematen du honako hau identifikatzeko: zer kendu den edo isilarazi den errealtatean zein jakintza sortzean; zer hartu zen garrantzi ga-bekotzat, edo zer utzi zen alde batera, besterik gabe, erokeriatzat, sineskeriatzat edo tradizioztat jo zelako, eta horregatik, zaharkitua edo desegokia zela pentsatu zelako. Ausentzien soziologiak auke-ra ematen digu egon beharko lukeenetik zer falta den galdetzeko; berak bakarrik okupatu eta kontrolatu dezakeen mundu episte-mologiko huts bat banda estuan pentsatzen duen eta imajinatzen

duen zientziaren barne-kolonialismoa etengabe zalantzan jartzera behartzen gaitu.

2. Bigarren prozedura emergentzien soziologia da. Soziologia horren bidez, aurre egiten zaio biktimizazioari, eta aurrera egiten da egon badauden eta pentsatzeko eta jarduteko erabil daitezkeen ahalmen kolektiboak eta alternatibak identifikatzeko. Emergentziak eskuratu edo kolonizatu gabe geratu zenaren seinaleak, arrastoak edo aztarnak dira, eta, horregatik, beste bizimodu batzuen edo norbera eta mundua irudikatzen beste modu batzuen adierazpen zehatzak dira. Etsipenaren aurkako borrokarako aurrerapausoa da, bai eta kapitalismoaren, kolonialismoaren eta patriarkatuaren hegemonia erabatekoa eta gaindiezina delako mitoaren aurka borroka egiteko aurrerapausoa ere. Emergentziak, halaber, beste jakintza batzuen adierazpen-, eraikitze- eta igartze-eremuak osatzen dituzten subjektibotasunak eta ekintza sortzaileak dira.
3. Hegoaldeko epistemologiaren hirugarren prozedura jakintzen ekologia da. Jakintzen ekologiaren helburua jakintza alternatiboen koprodukzioa da. Horretarako, ahalik eta pentsalari eta maisu-maistra gehien eta haien jakintza epistemologikoak mobilizatu behar ditu, horrek aukera emango baitu izateko eta bizitzeko modu alternatibo eta emantzipatzaileak antolatzen dituzten gaiak, sinboloak eta ekintza emergenteak identifikatzeko. Horrenbestez, jakintzen ekologia honela definitu daiteke: Mendebaldeko zientzia eta teknologia modernoan inperio kognitiboa (Santos, 2018) alde handiz gainditzen duten baliozko jakintza kontrahegemonikoak daudela aitortzea. Jakintza horiek koexistentzian daude eta emantzipazio-prozesuak pentsatzeko eta gauzatzeko baliozkotzat eta esanguratsutzat ulertu behar dira. Jakintzen ekologiak testuinguru espezifikoetan kokatutako eta haietara konektatutako jakintzak sortzea eskatzen du, jardunbide eraldatzaileetan murgildutako jakintzak sortzea, eta kopresentziako erregimenean. Jakintzen ekologia ezin da hizkuntza kontzeptualaren (teknikoa, filosofikoa edo zientifikoa) bitartez lortu. Hizkuntza pribilegiatua zenbait idazmen- eta ahozkotasan-moduekin (antzerkia, musika, dantza eta erritualak) bateragarria den narratiba da, kopresentziako berehalako zentzu zehatza sortzen baitute.
4. Kulturarteko itzulpena da hegoaldeko epistemologiaren laugarren prozedura. Jardunbide pluritopikoa eta elkarrekiko umiltasunekoa da, elkarneurgaiztasunei aurre egiten die, eta elkarrekiko jakintza eta ikaskuntza posibleak direla defendatzen du, bizitako borroken esperientziaren eta jakintza, jardunbide, gogoeta eta ideien truke so-

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

lidarioen arabera. Kulturarteko itzulpenaren helburua ez da ideien edo jardunbideen baliokide simetriko erretorikoak sortzea. Aldiz, hegoaldeko epistemologietan, kulturarteko itzulpena jakintzaren eta boterearen borroka antikoloniala da, ez dabil sintesiak prestatzearen atzetik, eta ez du despolitizatutako hibridotasunik eskatzen. Kulturarteko itzulpenak elkarrekin partekatutako ikaskuntzek sortutako kontraesanekin bizitzera eta elkarbizitzera interpelatzen gaitu (Rivera Cusicanqui, 2010). Kulturarteko itzulpenaren modu horrek aukera ematen du trukeetan eta haien emaitzetan dauden anbiguotasunari eta ziurtasunik ezari esanahi positiboa emateko (Cunha, 2008).

5. Azkenik, bosgarren prozedura jardunbideen artisautza da. Jardunbideen artisautzaren jatorria jakintzen ekologia da, eta hura gaintzen du, ezagutzak aplikatzeko baldintza-multzo bat sortzen duen neurrian, munduan esku-hartze eraldatzailea egitearen bitartez. Artisautza mundurako egiten den ekintza sortzailea eta imajinaziozkoa da. Jardunbide ez-segmentatuak dira, eta arazoak konpontzea edo testuinguru eta lekuak berrasmatea du helburu, bizitza gertatzen den tokietan. Artisautza ikasteko eta irakasteko modu konplexua da, non errepikapena eta berrikuntza dikotomia bat ez diren, baizik eta prozesuaren parte osoak. Errepikapenak fintzeko, zehaztasuna sortzeko balio du, baina sortzeko prozesu bakoitzak eskatzen dituen berezitasunak kendu gabe. Errepikapena zorrotzasunaren beste ekonomia bat da, honako hauen bidez gauzatzen dena: materialen kontingentziarekiko ardurua, errepikapena baliatzen duenaren bulkada sortzailea, testuingurua, eskura dauden denbora- eta espazio-baliabideak. Berrikuntza, berriz, ez da errepikapenaren beste aldea, errepikapenetik harago doa, irudimenak bermatzen dituen elementu preskribaezinak dira (Cunha, 2019). Artisautzak berekin dakar denbora bat, non protagonisten belaualdi batzuk, jakintzak eta teknologiak baterako sorkuntzako prozesu batean integratzen diren, eta non sustraiak onartzeak aukerak mugatzen ez dituen (Santos, 1996). Lan kapitalistaren, kolonialaren eta heteropatriarkalaren banaketa sexualean, denborak, espazioak eta eskalak bereizten dira, eta menderatze-eremuak sortzen dira; menderatze-eremu horietan, zaila da isolamenduari erresistentzia egitea, isolatuta egoten delako gainera. Baina jardunbideen artisautzaren kontzeptualizazioak logika horri aurre egiten dio, eta elkartzea, jarraitutasunak prestatzea du helburu, permanentziak ez diren jarraitutasunak, baizik eta testuinguruan jarritako eraldaketa esanguratsuak, non elkarrekikotasunak funtsezko osagaiak diren.

■ Hermeneutika feminista bat, lerro abisalak ustelarazteko, datozen lekutik datozela

Beraz, bat egiten dugu Boaventura de Sousa Santos-ek (2014a, 2018) teorizatutako hegoaldeko epistemologiaren ideia seminalarekin: justizia kognitiborik gabe, ez dago justizia sozialik. Hala ere, uste dugu premisa horrek ez duela behar adinako sakontasunez hautematen eta tematizatzen gizonen eta emakumeen arteko botere-erlazioen desberdintasunaren konplexutasuna. Bestalde, kontuan hartuta munduan dauden sexu- eta genero-identitateak sistema bitar nagusitik askoz harago doazela (Roseneil et al., 2013; Trujillo eta Burgaleta, 2014; Moreira, 2018), argudiatu nahi dugu hegoaldeko epistemologiaren hermeneutika feministak honako hau aldarrikatzen bultzatzen gaituela: justizia sexualik gabe, ez dago justizia sozial eta kognitiborik.

Hala, zalantzan jartzen dugu *single story*aren³ etengabeko arriskua argi eta garbi adierazten ez duen imajinario soziologiko oro, *single story*ak homogeneizatu eta bateratu egiten baitu emakume gisa irudikatzen diren izakien aniztasun handia eta potentzialki infinitua, bai eta haiek sortutako jakintzei, esperientziei eta alternatibei buruz dauden ezjakintasun ugariak ere.

Gauzatu nahi dugun hegoaldeko epistemologikoen hermeneutika feministak aukera ematen du honako hau nabarmentzeko: femininotzat irudikatzen denaren eta maskulinotzat irudikatzen denaren arteko oposizioaren oinarrituta sortu diren dikotomia ugarietan Mendebaldeko pentsamendu modernoaren egiturazko joera sexistari eutsi zaiola. Horrek esan nahi du botere-erlazio horiek, sexu oposatu desberdinen ideian oinarrituta (Mouffe, 1996; Butler, 2008), pentsamendu abisalaren sorkuntzak direla, eta modu askotan adierazten direla gizartearen bizitza materialeko eta sinbolikoko esparruetan. Bestela esanda, lerro abisalak direla sexismoan islatzen direnak, sexismoa femeniñoaren eta maskulinoaren arteko disjuntzio- eta hierarkizazio-sistematzat ulertuta. Hegoaldeko epistemologiaren hermeneutika feministari esker, posible da argiago bereiztea Mendebaldeko pentsamendu modernoak, logozentrikoa izateaz gain –pentsatzen duelako gainerako ezagutzak atzeratuta daudela, funts epistemologikorik ez dutela, edo Mendebaldeko pentsamendu modernoaren eratorpen ez-perfektuak direla–, kapitulu honetan tematizatu nahi ditugun beste bi ezaugarri dituela.

3. Chimamanda Adichieren *The Danger of the Single Story*-ri dagokionez. Ikusi <https://www.ted.com/talks/chimamanda_adichie_the_danger_of_a_single_story>. Euskaraz azpititulatuta ere badago; ikusi <<https://www.youtube.com/watch?v=6QHpkEUbxL4>>

Despatriarkalizatzea, androzentrismoari eta emakumeen ugalketa-lanaren asmakuntzari kritika eginez

Mendebaldeko modernitateak pentsamendu androzentrikoa sortu zuen, eta horrek esan nahi du gizonak eta gizonentzat sortutako pribilegioetan oinarritzen dela. Pentsamendu horretan, gizonak dira gauza guztien erdigunea eta neurria, eta hala ikusten dute beren burua. Maskulinitate erasokorra, autoritarioa eta menderatzailea sartzeaz gain, arrazionaltasun androzentriko horrek botere horiek legitimatzea eta botere horiei eustea zaintzen du, tentu handiz. Horretarako, besteak beste, emakumeek egindako lanak definitu zituen eta kontrolatu eta usiatzen ditu. Hala, kapitulu honetan, emakumeen lanaren gaiari buruz sakonago hausnartu nahi dugu, eta, zenbait alderdi azaleratuta, frogatu nahi dugu zenbateraino den funtsezkoa emakumeen lanaren gaia kapitalismo neoliberal garaikidearen logika estraktibistetarako.

Silvia Federici-k, *Caliban eta sorgina* (2010) liburuan, zehaztasun handiz aztertzen du Europako Erdi Aroko ekonomiaren porrota eta Europaren hedapen kolonialarekin sendotu zen ordena kapitalista berriaren sorrera. Egileak azaltzen du aldaketa paradigmatico hori posible izan zela ekoizpen-baliabideak eta emakumezko eta gizonezko langileak bereizi ahal izan zirelako, gorputzak lanerako makina bihurtu ahal izan zirelako, eta emakumeak lan-indarra ugaltzeko funtzioa egiteko menderatu ahal izan zirelako (Ibidem: 85 eta hurrengoak). Ordena berri horrek eta ekarri zuen kapital-metaketak indarkeria handiko prozesuak eragin zituen, eta, horren ondorioz, emakumeen botereak suntsitu ziren, emakume asko sarraskitu zituzten Europan eta Europatik kanpo, eta generoan, arrazan eta adinean oinarritutako hierarkia bat berrasmatu zen, eta horrela eratu zen klasearen araberrako nagusitasuna (Ibidem: 90). Egileak dio kapitalismoa ez zela izan sistemaren barruko bilakaera bat, baizik eta Erdi Aroko jaunek, merkatari aberatsek, apezpikuek eta aita santuek egindako kontrairaultza bat, gizon-emakume nekazari txikien, gizon-emakume artisauen eta garai hartako ekonomia politikorako beste lanbide garrantzitsu askotako emakumezko eta gizonezko langileen mende askoko borroka menderatzeko eta suntsitzeko (Ibidem: 33-34). Horrek esan nahi du paradigma garaileak emakume «etxeoandrea» asmatu zuela, ardura hau izan zezan: bizitzarako azpiegitura eta ekoizpenerako eta horrekin lotutako kapital-metaketarako behar diren baldintzak zaintzea eta sortzea.

Bestalde, lana saleros daitekeen salgai bihurtzeak aldaketa paradigmatico bat ekarri zuen lanaren eta ekonomiaren kontzeptuan. Denbora

luzez, ulertu zen lana «giza jardueren beste izena» zela (Polanyi, 1975 [1944]: 72),⁴ ez zela saltzeko egiten, eta ezin zela bizitzaren gainerako alderdietatik desartikulatu. Europan sortutako industria-iraultzarekin, lana merkatu kapitalistan truke-balioa izan dezaketen jarduerak izatera aldatu zen. Hala, emakumeen lanak, industriaren edo merkataritzaren esparrutik kanpo egiten direnak eta, gainera, ordaindu gabeak direnak (beraz, ez dute truke-baliorik merkatuan), lana izateari utzi zioten, edo, onenean, ugalketa-lantzat hartzen dira. Kapitalismoaren hegemoniarekin sortutako diru-erregimen berrian, merkaturako ekoizpena soilik hartzen da balioa sortzen duen ekintzatzat. Horrela, bizia sostengatzen duten gainerako jarduerak ez dira jada lantzat hartzen, esate baterako, elikagaiak ekoiztea eta janari bihurtzea, babesten duen eta bizitzeko baldintzak bermatzen dituen aterpea mantentzea, zainketei buruzko ezagutzak eta gizarte-harmoniarri familia-esparruan edo komunitate-esparruan eustearekin lotutako ezagutzak, emakumeek egindako beste lan eta ardura askoren artean. Eta testuinguru horretan sortzen da zainketa-lanak naturalizatzeko ideia, etxearen esparruan eta etxeko esparrurako araututako maitasunaren adierazpen gisa. Esparru horretan, etxeko buruak —arra normalean— hartzen ditu erabakiak, oraingorako baldintzak zehaztuta, nahi den etorkizuna irudikatuta, eta bere pribilegio guztiak legitimatzen dituen iragana berrasmatuta. Hor sortzen da eta ezartzen da lerro abisala, lanaren eta maitasuntzat eta dohaintzat ulertzen hasten denaren artean. Lehenbizikoa ordaindu egiten da, nahiz eta askotan esplotazio moduan izaten den, baina lantzat aitortzen da; bigarrenari truke-balio oro kentzen zaio, eta erabilera-balioa ere, eta esplotazio modu guztietan, ikusten direnetan eta ikusezinetan, gauzatuta ageri da, eta borondatezko atxikipen gisa pentsatuta dago, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun ontologikoan errotutako obligazio baterako atxikipen gisa, hain zuzen ere. Amaia Pérez Orozcok dioenez (2014), «zaintzaren etika erreakzionarioa»-ren sustapena gizarte-kontratu modernoaren oinarrian dago. Kontratu horrek emakumeen ezagutzak eta gorputzak konkistatzeko obsesioari eusten dio, haien bizimoduak, jarduerak... haien lanak, finen, berrantolatuta eta birberegantuta.

Lanari eta haren merkantilizazioari buruzko analisi hau mugatuta dago sistema kapitalistara eta sistema horrek XVIII. mendetik aurrera munduan izandako hedapenera, Europak sortu eta baliatu zuen eta baliatzen duen sistema kolonial konplexuaren bitartez. Hegoaldeko

4. Egileen itzulpena.

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

epistemologietan errotutako gure kritikak, berriz, ohartzen digu sistema horren existentzia eta hedapena ez dela erabat hegemonikoa. Soziabilitate eta jardunbide asko kapitalismoaren kanpotik geratu ziren, edo kapitalismoaren aurkako erresistentzia egiteko sortu eta gauzatu ziren. Izan ere, gizarte desberdin askotan, lanaz dagoen ikuspegia kapitalismoak sortutako ikuspegiaren desberdina da. Munduan dagoen aniztasun kontzeptualari arreta epistemologiko hori ematea funtsezkoa da alternatibak pentsatzeko, ahalmen kolektiboetatik abiatuta. Beraz, analisi hau existitzen duen testuinguru batean hartu behar da kontuan, osotasuna ez den testuinguru batean, zalantza nagusirik izan gabe. Hegoaldeko —sufirimenduen, erresistentzien eta alternatiben eremu hori— emakumeek gauzatutako esperientzia sozioekonomikoetako askok, lerro abisalen hegemonia totalitarioari aurre egin ez ezik, hegemonia hori irauli ere egiten dute.

Emakumeen ideiek eta esperientziek etengabe desartikulatzen dute lan produktiboaren edo ugalketa-lanaren, lan produktiboaren eta ez-produktiboaren, merkataritza formalaren edo informaldaren, emantzipazioaren eta zapalkuntzaren, pribatua denaren edo publikoa denaren, etxekoa denaren edo politikoa denaren, maitasunaren edo amorruren, ahotsaren edo isiltasunaren, espetxean egotearen edo ihes egitearen, genero femenoaren edo genero maskulinoaren, boterearen edo menderatzearen, landatarra denaren edo hiritarra denaren, tradizionalaren edo modernoaren, sufirimenduaren eta zorionaren arteko oposizio hierarkikoko erlazioa, eta, horrela, beste modu batean adierazitako pentsamendu sozioekonomiko subordinatua sortzen da. Emakume askorentzat beren eguneroko ekintza-errepertorioko parte dira janaria prestatzea, lurra lantzea, salerosotean aritzea, ehuntzea, irakastea, zaintzea, sendagaiak egitea, gauzak biltegitratzea, beren sormenaren eta artearen produktu izateagatik objektu baino zerbait gehiago diren objektuak sortzea, edo beren negozioerako helmugak zehaztea. Eta eremu fisikoak, denborak, behar diren trebetasun eta ezagutzak, edota jarduera horietakoren bat produktibotzat, ez-produktibotzat edo ugalketa-lantzat hartzea, horiek guztiak ez dira emakumeek mundua pentsatzeko eta egiteko duten modua.

Jardunbide eta esperientzia horietan nabaritzen dugu zer indarrez dabilzan emakumeak lerro abisalaren gainean, nola ustelazten dute, espazio-denborak sortuz, non lerro horrek inplosionatu egiten duen, jada zentzurik ez duelako. Beraz, beste testu batzuetan egin dugun moduan (Cunha, 2015, 2017), hau argudiatu nahi dugu: emakumeen lanak —historikoki esleitu zaizkienak barne— lan guztietatik produkti-

boenak direla, lan horiek sostengatu eta elikatzen dituztelako bizia eta haren adierazpen guztiak, duintasuna eta etorkizunaren eguneroko irudikapena. Eztabaida horren barruan, hegoaldeko epistemologiaren hermeneutika feminista bat lagungarria da lan produktiboaren eta ugalketa-lanaren arteko dikotomia desegiteko eta gainditzeko. Bestela esanda, gure ustez, emakumeek bizitzaren edozein esparrutan egiten duten edo egitea hautatzen duten ataza guztiak lan produktiboak dira.

Gure ustez, oso agerian geratzen da kapitalismoaren eta heteropatriarkatuaren arteko erlazio unibilikala. Pentsatzen dugu hegoaldeko epistemologiak, eta edozein pentsamendu feminista, honako egoera honetan soilik direla erradikalki feministak: zalantzan jartzen dituztenean hegoaldean eta iparraldean oraindik irauten duten inperio kolonialaren arrastoak, eta horiekin batera, interes menderatzaileak, zeinak, neurri handi batean, iparraldeko gizonen interesak dira.

Pentsamenduaren deskolonizazioa eta arrazoimen kapitalista antropozentrikoaren kritika

Mendebaldeko pentsamendu modernoaren ezaugarrietatik, antropozentrismoa da hausnartu nahi dugun bigarrena. Antropozentrikoa da bizi-forma guztien eta naturaren erauzketa eta ustiaketa intentsiboak sustatzen duelako, gainbalioak emango dituzten salgai bihurtzeko eta salgai horietatik etekinak lortzeko. Hala, kapitala eta pribilegioak metatzeko eta indarra eta hertsidura erabiltzeko modu mugagabeak asmatu eta ezartzen dira.

Antropozentrismoak eraikitako errealitatean, bi izaki-kategoria daude: duintasun ontologikoa dutenak eta ez dutenak. Bestela esanda, lerroaren alde batean, gizakiak daude, edo hobe esanda, gizatasun osoa esleitzen eta aitortzen zaien izakiak (*anthropos* [gizaki] kategorian subsumituta), eta beste aldean, unibertso maskulino horren bertsio subsidiario eta kontrolagarriak ez diren guztiak. Puntu horretan bermatzen da munduaren ideia koloniala, Lurra, lurraldeak, hor bizi diren pertsonak eta gainerako guztia natura bihurtzen dituenak. Eta hau hartzen du naturatzat: kanpoko entitate eratorri eta hutsak, konkistatu, okupatu, jabetzan hartu, menderatu eta ustiatu daitezkeenak. Indarkeria eta gerra izango dira autonomiaz existitzeko, pentsatzeko eta loratzeko ahalmena emango dien dentsitate ontologiko nahikoa ez duten entitate horiekin tratatzeko moduak (Sen, 2010).

Polanyi-k (1975 [1944]) defendatu zuen «Lurrarentzat beste izen bat» asmatzea dela. Hain zuzen ere, erakutsi zuen Lurraren —hau

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

da, naturaren— merkantilizazioak, eta haren osteko fetitxismo kapitalistak, entitate horrek gizarteentzat irudikatzen zuen eta irudikatzen duen aberastasun multidimentsionalaren, eta ez merkantilaren, pribatizazioa eragin zuela. Lurra-natura existentziarako bizi-baldintzak dituen matrizea dela ulertu beharrean, transakzio-xede izan daitekeen paisaia edo baliabidea izatera mugatuta geratu zen. Europar ziklo kolonial modernoak ideia hori gauzatu zuen, eta balio-merkatu duten baliabideen artean sartu zituen bai urrea, bai piperra, bai eta esklabo bihurtzen zituzten pertsonak ere. Den-dena saleros zitekeen *gauza* bihurtu zen. Horrek, batetik, erauzketa-ziklo gero eta bortitza-goak eta eskala handiagokoak ekarri zituen (Svampa, 2013) eta, bestetik, aukera eman zuen bizitza ekonomiatik, lana bizimoduetatik, eta emakumeak gizonengandik bereizteko. Amildegiak ugaritu ziren, bai eta indarkeriak ere.

Nolanahi ere, esperientziak eta literaturak erakusten duten moduan, ezagutza eta alternatiba ugari daude arrazionaltasun antropozentriko horretatik eratorritako gizarte-desberdintasun garaikideei aurre egiteko. Zenbait lan eta ikuspegi feminista aipatuko ditugu labor, non kritika dibisiboak egiten diren, eta alternatibak pentsatzen diren, honako hauei aurre egiteko: Lurraren merkantilizazioa, eta kapital-metaketa primitiboa, baliabideen erauzketa masiboaren eta lana bizimodutzat desagerraraztearen eta suntsitzearen bitartez lortutakoa. Zenbait korronteren eta beste obra batzuen artean, honako hauek azpimarratuko ditugu: ekofeminismoa (Shiva, 2018; Shiva eta Mies, 1993; Puleo, 2013); Afrikako kritika feministak garapenari (Annan-Yao, 2004; McFadden eta Twasiima, 2018), Afrikan sortutako eta kudeatutako alternatibak (Cunha, 2011, 2015; Casimiro eta Souto, 2010), eta zaintzaren etika eta dohainaren ekonomiak (Vaughan, 1997; Boff, 1999). Hausnarketa horiek guztiek eta haiekin lotutako jardunbideek bizia jartzen dute erdigunean, eta zalantzan jartzen dute etxeko kontuak ekonomiatik bereiz daitekeen zerbait denik. Zaintza-lana produktiboa dela pentsatzen dute, ezinezkoa iruditzen zaie Lurra jabetza kontu hutsa dela pentsatzea, eta biziaren forma guztien zentraltasuna —elkarrekikotasunak bermatuta— eta autoritate partekatua dira haien abiapuntuak. Beste erregistro batean, uBuntu filosofiak (Ramose, 1999; Praeg eta Magadla, 2014), «ni naiz, zu zarelako» aldarrikatzean, elkarrekiko betebeharren etika iragartzen du, indibidualismoa baztertzeko —indibidualismoa, hain zuzen, funtsezkoa da kapitalismoan eta kapitalismoak egindako esplotazioan—. Bestalde, Sumak Qawsay-en ideia, Atawallpa Oviedo-k (2011) erakusten digun

moduan, kosmobisio bat da, eta, hor, osagarritasun ez-hierarkikoak eta soiltasunak antolatzen dute bizitza sozial, politiko eta ekonomikoa, naturaz jabetu gabe, eta estutasunik gabe bizitzearen gizarte-baskularitate horizontalaren garrantzia adierazten da. Nekazarien, familien eta kostaldeetako eremuen ekonomiak (Silva, 2012; Fernandes, 2012; Casimiro, 2018b) autohornikuntzako zikloetan antolatzen dira. Ziklo horiek ingurumen-iraunkortasunaren matrizea dira, aseezintasun es-traktibista neoliberalaren guztiz kontrakoak. Matrize horrek elkarre-kiko babeserako sare kokatuak eta kontestualizatuak sortzen ditu, aurpegirik gabeko ekonomia globalaren makroeskalaren inposizioa ez bezalakoak. Moneta sozialeko ekonomia solidarioak, enpresa autoku-deatuak, ekoizpen- eta merkataritza-kate solidarioak, truke-merkatuak (Santos, 2011), elkarrekikotasun desberdinen inguruan antolatzen eta jarduten dutenak, oparotasuna enuntziatu ez-kapitalisten bi-dez bizitzen lortzeko bideak dira, eta, hor, prezioa eta balioa eten-gabe dekonstruitzen dira, ondasunak eta errendimendua eskuratze-ko aukera erabat demokratizatze-ko. Horiez guztiez gain, eztabaida akademiko handia dago desazkundera, postgarapena eta trantsizioa kontzeptuen bitartez jorratutako alternatiben inguruan. Alternatiba horien inguruko ekarpenak egin dituzte Arturo Escobarrek (2015) eta Sally Mathews-ek (2008) testuinguru, diziplina eta ikuspegi desber-dinetatik abiatuta. Garapen kapitalistari uko eginda beste ongizate-eta zorion-aukerak —hala nola «kontsumitu gutxiago eta partekatu gehiago»— lantzen dituzten kontzeptuak eta esperientziak lotu eta haien mugak erakusten dituzte.

Proposamen teoriko horietatik honako hauei buruzko eztabaida sakonak sortzen dira: monokultura kapitalistaren indarkeria episte-mikoa; taldearen eta elkarrekikotasunen garrantzia; soiltasunaren balio etiko eta politikoa; jabetza pribatuaren nagusitasunaren ideia —ondare-arrazionaltasuna— arriskuan jartzen duten loturen indarra —ezkontza-arrazionaltasunak—; oparotasunak, desiraren ekonomia politiko moduan, berehalakoaren ekoizpenean sortutako zaborraren aseezintasuna ordeztan du, gizarte-existentzia eta -aitortza modu gisa; aniztasun epistemologikoa eta jardunbideen aniztasuna; banakako emantzipazioaren eta emantzipazio kolektiboaren arteko inbrikazioa; ekonomia eta gizarte, eta gizarte eta bizia ez bereiztearen printzipioa; osagarritasunetik lilura; hurbiltasun-eskalen ahalmenak. Hegoaldeko epistemologiaren hermeneutika feministak erakusten du emakumeak ere-mu, jardun-esparru, denbora eta ekintzaitetza guztietan daudela, lan egiten, pentsatzen, kritikatzan, sortzen eta jarduten. Hala, bada, zen-

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

tzuzkoa izan daiteke esatea ezin dela alternatibei buruzko pentsamendu alternatiborik egon (Santos, 2001), erabat feminista izan gabe (Sow eta Guèye, 2011; Cunha eta Lauris, 2016; Cunha, 2017; Casimiro, 2014b, 2015).

Ikusten denez, androzentrismoa eta antropozentrismoa eskutik doaz, eta Mendebaldeko modernotasuna eratzten duten hiru sistema zapaltzaileen antolaketaren bi aurpegiak dira: kapitalismoa, kolonialismoa eta heteropatriarkatua. Arrazoimen abisalaren kritika feministak, beraz, arrazoimen horren izaera androzentrikoa eta antropozentrikoa ulertu eta gainditu behar du, errealitateari behatzeko eta errealitate horretan beste mundu posible baterako aukera ematen eta iragartzen duten emergentziak aurkitzeko. Arazoetarako aurkitzen diren konponbideak baliozkoak ez diren, eta, askotan, arriskutsuak diren mundu honetan (Randriamaro, 2018), mundua eta eskura ditugun ezagutzak beste modu batera ikusi eta aztertu behar ditugu. Hortik aurrera, hegoaldeko epistemologiaren hermeneutika feminista baten gure proposamenak pentsamendu post-abisalerako bidea irekitzen du. Pentsamendu horren helburua eremu kognitibo eta sozial bat sortzea da, jada dakiguna zailtzen jartzeko, bai eta desikasteko ere, berriz ikasi ahal izateko. Kwasi Wiredu (2003: 54) filosofo afrikarraren hitzetan, elkarrizketa epistemologikoak espiritu-irekitasuna eta desberdintasunekiko errespetu integrala eskatzen ditu, eta aldean arteko gaizkiulertuak eragozte soiletik harago doan helburua du. Elkarrizketak ikusmuga kognitibo bat behar du, non espero ez diren beste narratiba eta emaitza batzuk txertatu eta ustekabeen gertatu ahal izango diren, Mendebaldeko ereduaren modernotasunak eta post-modernotasunak bultzatzen ez dituen moduetan adierazita egon gabe.

EKONOMIA ESTRAKTIBISTA MOZAMBIKEKO EMAKUMEEN BIZITZAN: IKAS DEZAKEGUNA

Zo Randriamaro-k (2018: 2) dioenez, gaur egungo garapen globaleko ereduak era gutzietako baliabideen erauzketa intentsiboa eta bortitza inposatu dio Afrikari: baliabide mineralak, baliabide energetikoak, arrantza, zura, lana, nekazaritza, eta artea ere bai. Azken hamarkadetan, horrek honako hauek ekarri ditu: gerra gehiago, pobrezia handiagoa biztanle eta lurraldeentzat, eta aberastasun-transferentzia masiboa Iparralde globaleko herrialde aberatserantz. Eredu horrek, muturreko gizarte-desorekak eragiteaz gain, biodibertsitatearen hon-

damen konponezina eragin du, katastrofe naturalen eta humanitarioen larrialdiak areagotu ditu⁵, eta, horrekin batera, bizia forma ugaritan mantentzeko balio izan duten bizimodu, ezagutza eta teknologia asko desagertzeko arriskuan jarri ditu. Beraz, esan dezakegu beste kolonialismo-mota baten aurrean gaudela, xv. mendean munduaren banaketa ontologikoan oinarritutako desjabetzea abiatu zuen kolonialismo hura betikotzen duena. Orain, lehen bezala, bereiz dezakegu lerroaren alde batean daudela metropoli berriak, eta haietara bideratzen direla aberastasanak eta kapital-metaketa; lerroaren beste aldean, koloniak daude, pobreziaz eta beren lanaren esplotazio gorenaz azpiratutako gorputzak hornitzen dituztenak. Beraz, pentsatzen dugu Ekialdeko Hego Afrikako eta, batez ere, Mozambikeko ekonomian, gizartean eta politikan dagoen ekonomia garaikidea, estraktibismoan oinarritua, lerro abisal baten aurpegi zehatza dela. Lerro hori unformatutako gizonek —soldadu-uniformez edo administratzaile-uniformez unformatuta— zuzendu eta kontrolatzen dute, eta loa kentzen diote mundu guztiari; batez ere, emakumeei.

Orain, emakumeei, testu honetan defendatzen dugun moduan, beren mundua interpretatu ez ezik, hari buruz ere pentsatzen dute. Emakumeei jasan behar izaten dituzten indarkeriak ulertzen dituzte eta, beren hitz eta ekintzen bidez, existitzeko eta erresistentzia egiteko moduak iragartzen dituzte, indarkeria horiei aurre egiteko zer egin daitekeen iragartzen dute. Emakume horiek harremanetan jarraitu nahi dute beren senarrekin, seme-alabekin eta lagunekin, eta haiekin, zenbait gauza ikasi nahi ditugu. Hori da testuaren bigarren zati honetan egin nahi dugun ariketa: apala, dagokion lekuan kokatua, zehatza ez den pentsamendu feminista oro deskolonizatzea, eta pertsonen bizimoduan benetako eragina izatea, sufrimenduen eta borroken errelatu izatea, baina itxaropenen eta aukeren narratibak ere izatea (Carty eta Mohanty, 2015).

5. Testu hau idazten ari ginen aldian, bi hondamen klimatiko gertatu ziren Mozambiken: Idai zikloia eta Kenneth zikloia. Idai zikloiak eragin handia izan zuen Sofala, Manica, Tete eta Zambézia probintzietan (Mozambikeko erdialdean), Malawin eta Zimbabwen, 2019ko martxoaren 15ean. Kenneth zikloiak, berriz, ondorio larriak eragin zituen Cabo Delgado probintzian (Mozambikeko iparraldean) eta Tanzaniako hegoaldean, 2019ko apirilaren 25ean. Zikloi horiek oso suntsitzaileak izan ziren eta euri ugariko aldien ostean gertatu ziren, herrialde horietan jada kalte konponezinak eragin zituztenak. Horrelako gertaerek agerian uzten dute munduko biztanleria pobreenak daudela egoera ahulenean arazo horien aurrean, nahiz eta hazkundera eta estraktibismoan oinarritutako garapen-ereduak eragindako desoreken eta kalteen erantzule ez diren.

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

Ariketa deskolonizatzaile horrek berekin dakar emakumeen eza-gutzen aniztasuna tentsionatzen duen jardunbide bat. Jardunbide horrek, gainera, aztertzen du zer-nolako garrantzia, balioa eta esanahia dituen ezagutza horietako bakoitzak testuinguru bakoitzean aurkitu-tako arazoak konpontzeko, alde guztientzako konponbide zehatzak, egokiak eta bidezkoak imajinatu, sortu eta prestatu behar direla kon-tuan izanda.

Horregatik, lehenik eta behin, arazo horietako batzuk identifika-tuko ditugu, emakume jakin batzuen ikuspegiak eta hitzak entzunda, haiekin egindako elkarrizketan.

Gero, haien esperientziak eta bizimoduak abiapuntu hartua, haien proposamenetako batzuk agerian jarriko ditugu. Proposamen horiek, emakume horientzat baliagarriak izateaz gain, lerro abisalak desegiten irakasten digute; izan ere, lerro horiek munduan desberdintasunak eta mehatxuak izatea eragiten dute, adin guztietako emakumeentzat batez ere.

Gure enuntziazio-lekutik —hau da Mozambike, SADCren (Hego Afrikako Garapenerako Elkartea) azpieskualdean integratutako herrialdea—, sortzen diren hausnarketan bidez, heteropatriarkatuaren, kolonialismoaren eta kapitalismoaren inguruan egituratuko ekonomia politiko horretako zenbait forma zehatz aztertu nahi ditugu. Mozam-bike oso herrialde aberatsa da (kulturak, hizkuntzak, historia, baliabide mineral eta energetikoak, fauna, flora, oroimenak, ezagutzak...), bai-na pertsona gehienak pobreak dira, eta, pobre horietatik gehiegi mi-serian bizi dira. Halaber, hirietan, etxebizitzetarako edo turismorako bizitoki-eremu pribatuak eraikitzen dira, gero eta tamaina eta luxu han-diagoak, bai eta luxu handiko hotelak hirietan ere, baina, aldi berean, gero eta pertsona gehiagok irten behar dute beren auzoetatik, beren bi-zimodua suntsitu delako. Pertsona behartsuak kale nagusietan dabilta janari-hondarren bila, ongizatea babesteko eta aberastasunak birbanat-zeko politika publikoen arrastarik egon gabe. Herri-ekonomiaren oina-riak ekoizpen txikiak eta emakumeak gehiengo diren negozioak dira, eta ekonomia hori gizarte-bizitasun handikoa bada ere, garaiak gero eta zailagoak dira, eta familiek eta lurralde-komunitateek bizirauteko borrokan jarduten dute, baliabide publikoen pribatizazioak herrialde-ko pertsona gehienek etorkizuna blokeatzen duen giro politiko baten barruan. Formalki erregimen demokratikoa izan arren, beldurrak di-rau, eta iritzien eta bizi-estiloen arteko aldeak sufrimendu- eta diskri-minazio-markak dira, eta egunak eta herrialdeko herritarren bizitza iluntzen jarraitzen dute.

Gure Mozambikeko errauskinek hitz egin eta bizitza-alternatibak josten dituzte

Lehenik eta behin, eragiten diguten arazoei buruz pentsatuko dugu eta haiek identifikatu eta aztertuko ditugu

Kapital estraktibistak sortutako ondorio eta arazoen multzoa oso konplexua da, eta, besteak beste, garrantzi handiko tragedia pertsonal eta kolektiboak eragin ditu. Emakumeek eragin bikoitza pairatu dute eskala handiko meatzaritza-instalazioek jarduten duten lekuetan. Eskulan maskulinoa nagusi da leku horietan, eta egiaztatzen da ez direla aintzat hartzen emakumeek eta neska-mutilek egiten dituzten jardun informalak eta eskala txikiagokoak.

Ikerketa batzuen eta eskuragarri dagoen literaturaren arabera (Siteo, Bila eta Velasco, 2017), frogek erakusten dute ekonomia estraktibistak emakumeen eta nesken bizitzan duen eraginak 1. koadroan aipatutako arazo haiek sortzen dituela, sei kategoria nagusitan sailkatu ditugunok.

1. KOADROA. EKONOMIA ESTRAKTIBISTAK EMAKUMEEN ETA NESKEN BIZITZAN DUEN ERAGINEN ONDORIOZKO ARAZOAK

| | |
|--|--|
| <p>Lurra eta lurra eskuratzeko aukera</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Lurren usurpazioa eta herrien/ biztanleriaren deslokalizazio behartua. |
| <p>Sexuan eta/edo generoan oinarritutako desberdintasuna</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Dibortzioak, banantzeak eta ezkontza goiztiarrak. • Sexu-bortxaketak, prostituzioa, eta GIBaren (HIESa) hedapena. • Emakumeak eta gizonak, baina batez ere emakumeak, alde batera uzten dituzte kontsulta komunitarioetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan. • Emakumeen parte-hartze urria erauzketa-jardueretako ekoizpen-ekimenetan. • Meatzaritzari buruzko legediak ez ditu batere kontuan hartzen emakumeen arazo espezifikoak. |

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

| | |
|--|--|
| Jasangarritasunak / Jasanezintasunak | <ul style="list-style-type: none"> • Gizonek menderatutako merkataritza. • Ez da enpresen gizarte-erantzukizuna betetzen. • Muturreko gertakarien eragina, hala nola lehorteena eta enbatena. |
| Kultura-identitateak | <ul style="list-style-type: none"> • Gazteen giza eskubideak urratzen dituzten kultura-jardunbideen gorakada. |
| Estatuaren eta gizartearen arteko harremanak | <ul style="list-style-type: none"> • Kontratuen sekretismoa eta informazioa eskuratzeko zailtasunak. • Ez da legedia betetzen (Abuztuaren 8ko 31/2012 Dekretua, eta irailaren 19ko 156/2014 Ministro Agindua). |
| Militarizazioa eta indarkeriazko gatazkak | <ul style="list-style-type: none"> • Meatzaritza-jarduerak dituzten eremuen apurka-apurkako militarizazioa. |

Iturria: Lanketa propioa, Siteo, Bila eta Velascon (2017) oinarrituta.

Ikerketa horiek erakusten dutenez, arazo horiek eragin handia dute emakumeengan eta neska gazteengan, kontuan hartuta areagotzen ari direla lanaren banaketa sexuala —menpeko rola esleitzen die emakumei— eta emakumei zenbait jarduera egitea edo ekonomia-bizitzan parte hartzea eragozten dizkieten kultura-arauak berrasmatzeko prozesuak. Hala ikusten da adierazpen hauetan:

Merkataritza gizonen mendean dago. Gizonak joaten dira Montepuez edo Pemba hirietara, tokiko merkatuan salduko dituzten produktuak erostera. Negozioan sartzan diren emakume gutxiak, batez ere ura saltzen diete artisaу-meatzariei, arraunki «garimpeiros» ezagutzen direnei. (Velasco, 2017: 11)

Sekelekani erakundeko taldeak Namanhumbirren, Montepuez barrutiko (Cabo Delgado probintzia) errubi-meategietan, egindako ikerketa berean, honako hau jaso dute:

[...] Mozambikoko iparraldeko herri pobre bat hainbat nazionalitatetako gizon-emakume asko eta askoren jomuga bihurtu da, eta, hor, diru «biziko» kopuru handi samarren zirkulazioak eraginda, tokiko komunitateko gizartea desegonkortu da, familiak suntsitu dira,

GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK

eta dibortzioak, ezkontza goiztiarrak eta prostituzioa areagotu dira, eta sexu-transmisioko infekzioen hedatze-mailak larriagotu.

(Ibidem: 11)

Namanhumbirreko emakume batzuk lurra eskuratzeko aukerarik gabe geratu dira, eta horrek arriskuan jartzen du haien elikadura-segurtasuna eta -burujabetasuna. Hori dela eta, meataritzako jarduera osagarri batzuetan jardun behar izan dute, hala nola ura saltzen edo janaria prestatzen. Nolanahi ere, gauza jakina da Montepuez barrutia Mozambikeko eskualde emankorrenetako bat dela. Tenperatura leuneko eskualdea da, eta nekazaritza da jarduera nagusia: artoa, babarrunak, sesamoa, tuberkuluak, mapira eta arroza ekoizten dituzte. Horregatik, eskualde hori probintziako bihitegitzat hartzen da. Merkataritza-balio handiko lehengaiak ere ekoizten dituzte, hala nola kotoia eta anakardoak. Ogibide-eredu horrek emakumea jartzen du erdigunean, eta botereak eta autoritatea legitimatzen ditu haientzat, baina etengabeko arriskuan egon da, adierazpen hauetan azaltzen den moduan:

Namanhumbirreko emakumeek diote ezin dutela ordaindutako lanik lortu Montepuez Ruby Mining enpresan. Kontsulta komunitarioetan iragarri ziren enplegu-aukerek beren bizimodua hobetzeko itxaropena dute, baina MRM enpresak orain arte kontratatutako emakume gehienak Nampulakoak eta Montepuezekoak dira, eta sukalde-lanekin, lehen laguntzekin eta segurtasun-zerbitzuekin lotutako lanak egiten jarri dituzte. (Ibidem: 13)

Gizon-emakumeei beren lurrak kentzen dizkiete eta beste leku batzuetara joan behar izaten dute. Leku horietan, lurrak lugorriak izan ohi dira, eta ez dago ez urik, ez garraiorik, ez merkaturik. Hori dela eta, familiek bereizi egin behar izaten dute, emakumeen bakardadea areagotu egiten da, emakumeek familia-eginkizun gehiago hartu behar izaten dituzte beren gain, eta, egoera horretan, emakumeen aurka baliatutako indarkeria gero eta zigorgabeago bihurtzen da (Osório eta Silva, 2017: 153-160).

Emakumeei eragiten dizkieten tragedia guztiez gain, badago kapital estraktibistak eta haren industriek sortutako egungo egoeran arreta berezia merezi duen ezaugarri bat: lurraldeen militarizazioa eta Estatuko segurtasun-indarren agresibitatea gero eta handiagoak direla. Horrek, besteak beste, esan nahi du militarren presentzia da-

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

goela, eta gatazkak konpontzeko kultura honako hauetan oinarritzen dela: indarkeria, etengabeko mehatxuak, beldurra, hitz egiteko eta salatzeke ezintasuna, garapenaren aurkakotzat, gobernuaren etsaitzat edo terroristatzat ere hartua izatea nahi ez bada. Pasarte hauetatik ondoriozta daiteke garrantzi handiko gaia dela hori:

Olinda uharte txiki bat da (Mucupia administrazio-entitatea, Inhassunge barrutia, Zambézia probintzia). Bertako emakumeak ikaratuta bizi dira, uhartera Esku-hartze Bizkorreko Unitateko (UIR) destakamentu iraunkor bat bidali zutenetik. Pasa den uztailean, poliziek tiro egin zieten herritar babesgabe batzuei, eta hildako bat eta zenbait zauritu izan ziren. Horrez gain, beste batzuk atxilotu zituzten, herrixkako liderra haien artean. Nekazariak manifestazio baketsu bat egiten ari ziren, gobernuak nekazariak lur haietatik bidaltzeko egindako planaren aurka. Izan ere, gobernuak lur horiek Txinako enpresa bati laga dizkio, harea astunak ustiatzeko. [...] Cherrimanera joateko esaten digute, baina han, ez dago nahikoa lur, bertakoek ere gure uhartera etortzen baitira lurra lantzeraz. (Velasco, 2018: 3)

Larderia-giro bera erakusten dute kontsulta-prozesuak egin diren (edo ez) moduei buruzko adierazpenek. Legearen arabera, kontsulta komunitarioak derrigorrezkoak dira, baina, gehienetan, ez dira egiten. Hori dela eta, komunitateek sentitzen dute Estatuak abandonatuta utzi dituela, eta Estatuak berak egiten diela eraso, enpresa inbertitzaileen defendatzaile bihurtzen baita, herritarren eskubideak eta bizitza babestu gabe.

Komunitatekoek esandakoaren arabera, ez da inoiz kontsulta komunitariorik egin; besterik gabe, bertako biztanleei Olindatik joateko agindu zieten. Poliziak biztanleriaren aurka tiro egin zueneko gertakariaren ostean, gobernuko eta enpresako ordezkariak uhartera etorri ziren, komunitateari kontsulta egitearen aitzakiaz. «Gobernuak guri kontsulta egitearen plantak egin zituen, poliziak gu eraso ondoren», diote Olindako biztanleek. Topaketa hartan, gobernuak galdetu zuen zer arazo zituen komunitateak eta zer konpontzea nahi zuten. Baina komunitateko inork ez zuen bilera hartan ezer esan edo komentatu. Denok isilik geratu ginen. Azkenik, komunitateak bileratik alde egin zuen. Hala esan zuen elkarrizketatuak, eta hauxe gehitu zuen: «Oso triste gaude hemen Olindan bizitzen ari garenekin. Erabakiak goitik hartuta iristen dira. Batzuetan, administrazioek ere ez dakite zer

erabakitzen ari diren goikoak. Zer da gobernuaren eta Vale⁶ enpresaren arteko akordioa, esparru militarreko akordio bat ala meatzaritza-ustiaketako akordio bat? Komunitate gisa, ezin dugu erreakzionatu, beti dago beldurtzen gaituen, muturrera eramaten gaituen indarren bat».

(Velasco, 2018: 6)

Barrutietako edo udaletako agintariek proiekturen batek eragindako komunitateekin egindako bilera gutxietan, gobernuaren ordezkariak⁷ hau esan ohi dio normalean biztanleriari: «Eskola bat, osasun-zentro bat, lana izango duzue». Edo «aberatsagoak izango zarete, bapo jan eta gizenduko zarete», halaxe esan zuen Quitupo herririkako (Milamba 1, Palma barrutia, Cabo Delgado probintzia) herritar batek, Erauzketa-industriak Berriz Finkatutako eta Kaltetutako Elkartearen Lehen Biltzarrean, 2019ko urtarrilaren 13an eta 14an ospatuta. Ongizate-espektatibak sortzeak areagotu egiten du prozesuekin batera izaten diren indarkeriagatiko eta bete gabeko promesen zigorgabetasunagatiko ezintasun-sentimendua.

Gure azterketan nabarmentzen diren hiru gai azpimarratu nahi ditugu. Lehenbizikoa da metaketa kapitalistako eredu intentsiboko erauzketa-jarduerak egiten diren lekuetako pertsona eta lurraldeentzako eragin negatiboen agerikotasuna. Identifikatutako ondorioek erakusten dute ez dela ongizatea handitzen, ez dela inor «bapo gizentzen», ez direla hezkuntza eta osasuna eskuratzen; aldiz, pobrezia gora egiten du, kalteberatasuna gero eta handiagoa da, etengabe, eta 1975eko independentzia politikoarekin batera adierazitako herri-subiranotasuneko promesak zalantzak jartzen dira egunero. Bestela esanda, badirudi lerro abisal koloniala itzuli dela, eta ez hori bakarrik, baizik eta, gainera, gero eta agerikoagoa eta bortitzaagoa dela.

Bigarrenak neskek eta emakumeek bizitako egoera bereziarekin du zerikusia. Gure ustez, logika kapitalista horren androzentrismoak arazo berriak ekarri dizkie adin guztietako emakumeei, eta jada zaharkituta edo gaingiduta ziruditen beste arazo batzuk berrindartu ditu. Berrindartu egin dira emakumeen gorputz eta subjektibitateentzako jardunbide kaltegarriak, haien mendekotasuna areagotu egin da, bai eta jasandako indarkeriagatiko zigorgabetasuna ere. Emakumeen lanak eta ardurak subsidiariotzat jotzen dira, duintasunik aitortu gabe, eta esplotazio intentsiboko harreman bihurtzen dira, bai fami-

6. Vale Moçambique, meatzaritzaren sektoreko Brasilgo multinazionala. (Itzle. oh.)

7. Lina Portugal, Cabo Delgadoko idazkari iraunkorra.

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

lien eta komunitateen esparruan, bai enpleguaren esparruan. Eredu estraktibista horretako antropozentrismoak aktibatutako desartikulazioak are gehiago nabarmentzen du ekonomiaren eta biziaren arteko segmentazioa, eta horrek emakumeek beren gizarteetan dituzten lekua eta funtzioak etengabeko betebeharretara mugatzen ditu, mozkinen eta ongizatearen usufukturik jaso gabe. Kapitalismo estraktibistaren muinean dagoen heteropatriarkatuaren indar suntsitzailearen adierazpen zehatzak dira.

Hirugarrena prozesu guztietan baliatzen den muturreko indarkeria da. Honako indarkeria hauez ari gara: militarren eta poliziaren indarkeria gatazken konponketan; emakumeen gorputzen aurkako indarkeria, haien gorputzen merkantilizazio gero eta handiagoagatik, bizirik iraun ahal izateko ahalegina dela eta; abandonuaren indarkeria; erakundeen indarkeria, arauak eta legeak betetzen ez direlako, eta hori zigor gabe geratzen delako; subjektibotasunen aurkako indarkeria, oroimenak eta autoestimua kentzen dizkietenean, haien lurraldeak eta emakumeek mundua beren erara irudikatzeko duten ahalmena suntsitzearen bidez. «Indarkeria» eta «agresioa» dira gaur egungo ekonomia politiko globalak eratzen duen arrazionaltasun kapitalistarako beste izen batzuk, eta haren aurpegia agerikoa da Mozambikenean. Garrantzitsua da ulertzea errealitate horrek kapitalaren eta biziaren arteko kontraesana erakusten duela; hau da, hemen erabilitako terminologia feministaren arabera, arrazionaltasun politiko-ekonomiko estraktibista garaikidearen androzentrismoa, kalte-egileen eta biktimen artean indarkeriazko maskulinitate autokratikak sustatu eta elikatzen dituen.

Gure ustez, honako hau adierazteko moduan gaude: Mozambikenean, emakumeak eta neskek behin eta berriz biktimizatzen ari direla, bai ekonomia politiko globalaren eraginaren ondorioz, bai babeserako eta gizarte-segurantzarako estatu-politika publikoak apurka-apurka desagertzen ari direlako. Gure ikuspuntutik, esan dezakegu Mozambikeko emakumeak, eta gizon asko, kosifikazio-prozesu bat jasaten ari direla, gizon-emakume horiek baliabide naturalak balira bezala, amaierarik gabe ustiatzeko modukoak, haien lanaren, abusuen eta haien gizatasuna eta aberastasunak kentzeko modu berrien eta zaharren bitartez. Emakumeak eta neska gazteak oso modu zehatzetan behartzen dituzte, eta informaltasunera eta pobrezia botatzen dituzte, multzo (azpi) humanoa eta indarkeria-mota ororen mende egotekoa balitz bezala (Kabeer, 2008; Wilska, 2008; Osório eta Silva, 2017, 2018). Muturreko etsaitasuneko testuinguru hori eta zailtasun asko eta asko izan arren,

Mozambikeko emakumeek eta neska gazteek haien giza duintasuna eta haientzako eta beren seme-alabentzako etorkizuna nolabait bermatzen duten gogoeta alternatiboak eraiki dituzte (Cunha, 2014, 2015, 2018; Casimiro, 2014a, 2014b, 2015; Casimiro eta Trindade, 2019).

■ **Errauskinek kristalezko oinetako estuak hausten dituzte**

Ziur gaude errealitatea oso konplexua dela, eta erresistentzia dagoela zapalkuntza ororen aurka. Horrelako biktimizazioa izanda ere, emakumeek ez dute geldirik eta erabat isilik sufritzen. Emakumeekin ikasi dugu ez dagoela erresistentzia eragiten ez duen zapalkuntzarik.

Halaber, hegoaldeko epistemologiaren hermeneutika feministaren bidez, ikasi dugu emakumeen ezagutzak, beren sufrimendu-esperientziatik sortuak, erresistentzia-moduak direla, baina izateko moduak ere badirela, indarkeriari, desjabetzeari eta doluari aurre egiteko alternatibak bilatzen dituztenak. Uste dugu ez daudela biktimak, baizik eta biktimizatutako pertsonak; ez daudela isiltasunak, baizik eta isilarazteak. Izanburuan eta gure sarreran esan dugun moduan, errauskinek hitz egiten dute eta badakite zer ikusten duten; hitz egin eta beharrezkotzat jotzen dutena esan nahi dute. Hitz egiten dute eta, hala behar izanez gero, oihi egiten dute. Ez soilik salatzeke, baizik eta honako hauek eraikitzeke ere: subjektibotasun desberdin eta positiboak; ahalmen pertsonal eta kolektiboak; liberazio- eta zorion-eremuak, beren bizitzetan dauden arriskuak eta gabezia ugari ahaztu eta mozarrotu gabe. Hori landu nahi dugu atal honetan: erresistentziak erakutsi nahi ditugu, baina alternatiben sorrera ere bai. Agian, ez dira alternatiba osoak, baizik eta seinaleak eta osatu gabeko konponbideak, baina iraunkorrak dira; zaintzeko ekintzak dira, beren burua, beren lurra eta duintasuna, errespetua eta zoriona sortzeko beren moduan parte hartzen duten pertsonak zaintzeko ekintzak, alegia.

Horretarako, komunitate zientifikoan zein gizarte-mugimenduetan, prentsan eta sare sozialetan zirkulatu diren zenbait informazio-iturri erabiliko ditugu. Erresistentzia horien eraketarako, esperientziarik baztertzen ez duen arrazionaltasuna behar da, esperientzia horiek itxaropena kategoria epistemologiko gisa berrezartzeko aukera ematen duten elkarriketa bertuosetan kokatuta.

Antolakundeak, sareak eta elkarteak

Emakumeek eta neska gazteek modu askotan egiten dute erresistentzia haien lurren, bizimoduen, gorputzen eta bizitza komunita-

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

rioaren aurkako mehatxuei aurre egiteko, bizi-ikuspegi desberdinak eraikiz. Sarritan, emakumeen borrokek ez dira kontuan hartzen, eta ikertzaileek eta kazetariak ez dituzte dokumentatzen, kapitalismo heteropatriarkal eta kolonialistako eredu menderatzailearen testuinguruan. Erroka asko daude aurre egiteko, era askotakoak: alderdi politikoetara afiliatutako emakumeen erakundeen menderakuntza; borroken despolitizazioa, bizitza alternatibo bat lortzeko borrokari eduki eraldatzailea kentzen dioten genero-diskurtsoen eta -estrategien bidez; bidegabekerien aurka ahotsa altxatzen duten eta sisteman aldaketa globalak eskatzen dituzten erakunde feministen kriminalizazioa.⁸

2000. urtetik, Mozambikeko erakundeetako kideek, Fórum Mulher forora afiliatutako emakumeek batez ere, parte hartu dute herrialde-eta eskualde-esparruan eta nazioartean erauzketa-industriari eta industria horrek herrialdeetan duen eraginari buruz egindako topaketetan, emakumeengan eta neska gazteengan duten eragina bereziki aztertzen dela. Eskualde-esparruko topaketa horiek garrantzitsuak izan dira informazio-trukerako, ikaskuntzarako, herrialdeetan gertatzen denari buruz ohartarazteko, eta emakumeen erakundeen erresistentzia sendotzeko. Emakumeak, hain zuzen ere, antolatuta egin dira eta beren gobernuak presionatu dituzte, legediak bete dezaten eta erauzketa-industrian generoko eta giza eskubideen aldeko ikuspegia sar dezaten, Ikuspegi afrikarretik abiatuta. Ikuspegi horrek helburu hau du:

Maila gorenean eragitea, erauzketa-industriaren eta industria horrek emakumeengan duen eraginaren gaia esparru globalean jorrazteko, hala nola martxoaren 8a ospatzeko ekitaldietan, arazoari buruzko kontzientzia globala indartzeko eta erabaki-hartzeen gaineko ardura gobernuari egotzeko.
(Samo, 2013)

Mozambikeko gizarte zibileko erakundeek eskualdeko sareetan izandako parte-hartzea, ekonomia estraktibistari eta ekonomia mota horrek emakumeen eta gizonen bizitzan duen eraginari buruzko baterako ikerketak, epe luzerako egiturazko aldaketak lortzeko erreformen aldeko defentsa-lanak eta kanpainak, eta kontinenteko eta munduko aliantza-ereduak, horiek guztiak erresistentziako, elkartasuneko eta

8. Ikusi <<http://womin.org.za/who-we-are/what-is-womin.html>>.

ikuspegi alternatibo ekologiko afrikar postestraktibista eraikitzeke formak izan dira. Aliantza horiek aukera eman dute garapen estraktibistaren kontzeptuaren aurkako ahaleginak elkartzeko, kolonialismo maltzur baten eta egiturazko doikuntzarako programei esker moztutako faxismo baten testuinguruan.

WoMin⁹ sarea, 2013an sortua, Afrikako eskualde-esparruko sare bat da, eta aktibismorako eta Saharaz hegoaldeko Afrikako emakumeei, generoari eta estraktibismoari buruzko ikerketarako programa bat du. Hasieran, Afrikako Baliabide Naturalei buruzko Nazioarteko Itunean (IANRA, International Alliance on Natural Resources in Africa) integratuta zegoen, eta sare bat osatzen zuen beste 29 erakunderekin —28 Afrikan, eta 1 Europan— eta IANRAko Afrikako 10 sare nazionalekin. Denak baliabide naturalei buruzko gaietan ari dira lanean.

2016ko urtariletik, WoMin sarea sare independente bat da, eta *trust* gisa dago erregistratuta Hego Afrikan, eta aliantzan egiten du lan Hego Afrikako, Ekialdeko Afrikako eta Mendebaldeko Afrikako 14 herrialdeetako dozenaka erakunderekin, eskualde-esparruan eta nazioartean, honako jarduera hauen bidez: ikerketa, ikaskuntza-trukeak, kanpainak, hezkuntza politikoa eta proiektu espezifikoak. Mozambike sare horretako organo sozialetako kidea da, Nekazarien Batasun Nazionala (UNAC) elkarteko ordezkari baten bitartez.

2018ko bigarren seihilekoan, WoMin-ek eta Mozambikeko Justiça Ambiental (JA) erakundeak bideratutako ikerketa bat egin zen, Mozambikeko meatzaritza-erazketako eremuetako emakumeen aurkako indarkeriari buruz. Ikerketa honetan, honako hau proposatu zen:

Estraktibismoaren, meatzaritza-eremuen segurtasunaren edo militarizazioaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko loturak mapatzea, eta, horretarako, eskura dagoen literatura eta dokumentazioa

9. WoMin sarea (African Women Unite Against Destructive Resource Extraction., Emakume Afrikarrak batzen dira Baliabideen Erazketa Suntsitzailaren aurka), 2013ko urrian abiatutako aliantza da, generoarekin eta erazketa-industriekin lotutako gaietarako, eta emakumeen, meatzaritzak eragindako komunitateen eta nekazarien herrialdeko eta eskualdeko mugimenduekin eta herri-erakundeekin egiten du lan, bai eta lankidetzan ere, aldeko beste erakunde batzuekin (<http://womin.org.za/index.php/who-we-are>).

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

berrikustea eta gaiari buruz ezagutzak izan ditzaketen pertsona giltzarriei elkarrizketak egitea.¹⁰

Gu geu antolatzea, bakarrik eta banatuta ez geratzeko: ahotsak eta proposamenak

Quitupo herrixkan, 2013ko abuztuaren 10ean, Cabo Delgado probintziako gobernuko administratzailearekin eta idazkari iraunkor-
rrearekin egindako bilera batean, biztanleriak topaketa eragotzi zuen,
gobernuko ordezkariari txistu egin baitzien eta topaketako lekutik alde
egin baitzuen. Honela gertatu omen zen:¹¹

Topaketa hartan, Anadarko petrolio-sektoreko multinazionalako talde
batek, Gobernuko bi ordezkariarekin batera, honako hau jakinarazi zien
tokiko komunitateei, bat-batean: 1) haien lurren gaineko DUAT¹² bat
igorri zela, Anadarko AMI1 eta ENH Logistics enpresen alde; eta, horren
ondorioz, 2) jendea handik atera eta beste eskualde batean kokatuko
zutela. Besterik gabe! Informazio hori inolako prestatze- eta
informazio-prozesurik gabe jasotzean, biztanleriak azalpenak eskatu
zituena, eta azalpenik eman ez ziotenez, jendeak aretotik alde egin zuen,
agintarien ordezkariak han utzita.

Gertakari horrek balio digu erakusteko bizitako eta inposatutako
egoeraren aurkako erresistentzia- eta kontrapuntu-giroak ahots eta
estrategia propioak dituela, eta gure arreta izan behar dutela, lekuan
bertan gauzak nola gertatzen ari diren hobeto uler dezagun. Gure
kasuan «Gatazka egoeran dauden lurraldeak: gaitasunak sendotze-
ko eta bizi-alternatibak eraikitzeke ikerketa, prestakuntza eta ekin-
tza» proiektuaren esparruan egindako ikerketa-/ekintza-jardueretako
batetik sortu diren ahots eta proposamenei eman nahi diegu arreta.
2019ko otsailaren 6an, gure taldeak topaketa bat antolatu zuen Pem-
ban (Cabo Delgado probintziako hiriburua, Mozambiqueko iparraldean),
Mozambiqueko Unibertsitate Katolikoko Gizarte eta Politika
Zientzietako Fakultateko Etika, Herritartasuna eta Garapena Saila-
rekin lankidetzan arituta. Topaketaren leloa «Visões, perspectivas e

10. Áurea Mouzinho-ren arabera, Isabel Casimiroarekin trukaturako korrespon-
dentzia elektronikoan.

11. Ikusi <http://www.sekelekani.org.mz/docs/Industria_Extrativa.pdf>.

12. Lurra erabiltzeko eta ustiatzeko eskubidea. (Itzle. oh.)

iniciativas sobre o desenvolvimento humano local em Cabo Delgado» izan zen. Probintzia horretan 2017ko urritik¹³ dagoen egoera zaila dela eta (etengabeko erasoak herri eta herrixken aurka, militarizazioa, ikara-giroa), barrutietako liderrak hiriburuan elkartzea erabaki zen, prestakuntza- eta informazio-mintegi batean parte hartu ahal izan zezaten, segurtasuna izanda. Mintegia elkarrekiko ikaskuntzarako eta ezagutzen eta ikuspegien arteko elkarriketarako eremu seguru bat izateko prestatu zen, helburu hau lortzeko: zenbait eragile, akademiko, aktibista eta komunitateko liderrekin jada abiatutako prozesu bat sendotzea, eta beste urrats bat ematea, Cabo Delgado probintziari eta tokiko alternatibak eraikitzeke prozesuei eragiten dieten arazo nagusiei buruzko hausnarketa-sare bat eratzeke.

Mintegiaren helburuak honako hauek ziren: Cabo Delgado probintziako arazo sozial, politiko, ekonomiko, ekologiko eta kultural nagusiak eztabaidatzea eta aztertzea eragindako biztanleriarekin, eta erresistentzia-esperientziak eta alternatibak babesteko aukera eman zezaketen informazioa eta ezagutzak sortzea. Alde horretatik, batzuen eta besteen ikuspegiak eta interesak gaingintzeko ahalegina eginez, kezka komunak identifikatzen, jada bazeuden ekimenen aberastasuna hedatzen, eta bisioak, ikuspegiak eta iradokizunak partekatzen saiatu zen.

Mintegiaren lehen zatian, ekonomia-, gizarte-, ingurumen- eta kultura-arazo eta -erronka nagusiak identifikatu ziren, bai eta gaur egungo eredu estruktibista-desarrollistaren aurkako erresistentzia-esperientzia nagusiak ere; hau da, proposamen alternatiboak eskaintzako sortzen ari diren ekimenak, gizarte-inklusioa eta -justizia lortzeko kezka abiapuntu izanik. Mintegiaren bigarren zatian, ekimen horien norainokoak laburbildu eta aztertu ziren. Mintegiaren metodologian, osoko saioak eta lan-taldeak baliatu ziren. Hiru lan-talde osatu ziren, gai hauek jorratzeko: 1) Lurra eskuratzeko aukera, azpiegitura handiak eta ingurumena; 2) Gizarte-esklusioa eta -desberdintasunak; 3) Gobernantza eta parte-hartzeko eremuak (prozesu kolektibo alternatibo zahar eta berriak). Talde bakoitzean, hiru analisi-maila landu ziren: a) arazoak eta erronkak mapatzea; b) ekimen alternatiboak mapatzea; eta c) sintesi bat prestatzea osoko saiorako.

13. Cabo Delgado probintzian 2017ko amaieratik gertatzen ari diren erasoei buruz literatura ugari dago eskuragarri, dela literatura zientifikoa dela kazetaritzakoa, eta gizarte zibileko erakundeen txostenetan ere ageri da. Kapitulu honen xede ez denez, ez dugu gai horretan sakonduko, baina aipatu, aipatu nahi dugu, garrantzitsua baita herrialdeko eta eskualdeko egoeraren analisi sakonagoa eta konplexuagoa egiteko.

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

2. koadroan, arazo eta erronken eta ekimen eta emaitzen sistemati- zazioa aurkeztuko dugu, mintegiko parte-hartzaileek partekatutako ana- lisiaren arabera. Jarraitu aurretik, azaldu behar dugu aurkezten dugun taulak ez duela identifikatutako arazo eta erronkak erresistentzia-eki- menekin eta haien emaitzekin simetrikoki lotzeko helburua; Cabo Del- gadon egindako elkarrizketen irakurketa- eta analisi-tresna baino ez du nahi izan. Taula hau ez da jendearen ahotsa, eta ez da hori gure hel- burua. Aktibistek, irakasleek, nekazariek, gizarte-liderrek, artistek, kaze- tariak eta gizarte-zientzialariek ezagutza partekatua eraikitzen izandako baterako presentzia islatzen duen tresna bat da. Partekatutako ezagutza hori ikasgai eta ikaskuntza izango dugu, gatazkan dauden lurraldeetan bizi-alternatiba feministak pentsatzeko.

2. KOADROA. CABO DELGADOKO ARASOEI, ERRONKEI ETA EKIMEN KOLEKTIBOEI BURUZKO MINTEGIA

| Lurra eskuratzeko aukera, azpiegitura handiak eta ingurumena | |
|---|--|
| Arazoak eta erronkak | Ekimenak eta emaitzak |
| Higiene eta garbitasun falta Pemban. | Lurren birbanaketagatik eta beste baliabide batzuk eskuratzeko aukera dela-eta deslokalizatutako biztanleria hartzen duten komunitateen eskubideen aldarrikapen publikoa. Fórum Urbano Permanente (PLATIP). |
| Gizarte-esklusioa eta -desberdintasunak | |
| Arazoak eta erronkak | Ekimenak eta emaitzak |
| Gizarte-esklusioa; enplegu- eta etxebizitza-aukeren falta. | (jarraitzen) |
| Eskuragarri dauden lanpostuetarako tokiko jendea ez hartzea. | |
| Enplegu-aukeren falta prestakuntza duten gazteentzat. | |
| Immigratzaileekin lotutako arazo etnikoak eta tribalismoa. | |
| Emakumeak senarren menpe egotea familietan, eta analfabetismoa. | |
| Emakume gazteek erabakiak hartzeko boteretik ez izatea. | |

GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK

| Behartutako ezkontzen eta nerabezeroan ezkontutakoen kopuruaren gorakada. | <i>(jarraipena)</i> |
|---|---|
| Eskola-uztea, ezkontza goiztiarren ondorioz. | |
| Sexu-jazarpenera eskoletan eta familietan. | |
| Irakasleen ustelkeria eta sexu-jazarpenera. | |
| Gobernantza eta parte-hartzeko eremuak | |
| Arazoak eta erronkak | Ekimenak eta emaitzak |
| Ustelkeria; zintzotasun falta. | Komunitateak ahalduntzea, kontsulta komunitarioei dagokienez. |
| Gardentasun falta; gobernantza monitorizatzeko ekimen gutxi. | Lege-laguntzaileak prestatzea eta haiek barruti guztietan parte hartzea (Centro Terra Viva, CTV). |
| Mesfidantza eta herritarrek parte hartzeko eremuen falta. | Tokiko irriti komunitarioak erabiltzea. |
| Kontu-emateko mekanismoak ikusteko aukerarik ez. | Biztanleriari honako hauen berri eta hauei buruzko prestakuntza ematea: lurzoruaren Legea, Birkokatzei buruzko Legea, Ingurumen Legea, Meategien Legea, Basoari eta Basafaunari buruzko Legea, deslokalizatutako jendearen eskubideak eta betebeharrak, eta informazioa jasotzeko eskubidea (Fórum Terra, Nekazarien Batasun Probintziala). |
| Pertsonen manipulazioa. | Birkokatzei buruzko legeen berri ematea eragindako komunitatei. |
| Legeak ez aplikatzea. | Giza eskubideei eta deontologiari buruzko ikastaro laburrak (Ikerketa Zentroa eta Gizarte Behatokia). |
| Informazio-asimetria gobernatzaileen eta herritarren artean. | Lidergo femeninoei buruzko eta ebidentzietan oinarritutako defentsa horizontalari buruzko trebatzea. |

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

| Komunitateak eta tokiko liderrak ez dira kontsulta komunitarioetan sartzen. | Liderrren Kontseilua sortzea; kideek kontuak emateko eta plangintza egiteko urteko biltzarra (Nekazarien Batasun Probintziala; gizarte zibileko erakundeen arteko eztabaidak egiteko plataforma komunak; Udal Behatokiaren Programak eta Partaidetzazko Aurrekontu Programak [SAMCOM]). |
|---|---|
| | Eztabaida publikoak (Fórum Terraço Aberto). |
| | Komunitateei zor zaien errespetua aldarrikatzeko manifestazio baketsuak. |
| | Gizarte zibilaren, Gobernuaren eta herritarren arteko elkarriketarako esparruak sortzea. |
| | Tokiko elkarteak sendotzeko planak. |
| | Batzorde independente batek Gobernuaren jarduerak auditatzea. |
| | Herritar informatuagoak eta konprometituagoak ongizate komunitarioarekin. |
| | Joko tradizionalen lehiaketa auzoen artean. |
| | Arte Macua elkartearen legezkatzea. |
| Hezkuntza | |
| Arazoak eta erronkak | Ekimenak eta emaitzak |
| Irakasleen absentismoa. | Helduen Alfabetatzeari eta Hezkuntzari (AEA) atxikitzeko sensibilizazioa, eta eskola-materiala hornitzea. |
| Irakaskuntzaren kalitate kaskarra. | Herritarrek politikan parte hartzeko gizarte-hezkuntza (Elizbarrutiko Justizia eta Bake Batzordea). |
| Prestakuntza zenbait mailatan erreplikatzearekin lotutako gaiak. | |

GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK

| Erlijioa eta ohiturak | |
|---|---|
| Arazoak eta erronkak | Ekimenak eta emaitzak |
| Iniziazio-errituak oso indar handikoak eta kostuak handiak. | |
| Erlijio-identitatea nahastea. | |
| Indarkeria | |
| Arazoak eta erronkak | Ekimenak eta emaitzak |
| Indarkeria, oro har. | Komunitateek bortxakeria-kasuak salatzea. Komunitateak, apurka-apurka, isiltasuna hausten ari dira, eta salaketak eta aldarrikapenak egiten dituzte, eta demokrazian parte hartzen dute. Salaketak egiteko linea berde bat dago ia sektore guztietan. |
| Prostituzioarekin eta sexu-esplotazioarekin lotutako indarkeria meataritza-ustaketako eremuetan. | Komunitateei zor zaien errespetua aldarrikatzeke manifestazio baketsuak. |
| Gizonen aurkako indarkeria, jaiegunak adierazten dituzten capulanak (oihal mota bat) ez erosteagatik, apirilaren 7an batez ere. | |
| Osasuna | |
| Arazoak eta erronkak | Ekimenak eta emaitzak |
| Sendagaien lapurreta Pembako ospitale probintzialean. | |
| Arreta kaskarra gaixoei Pembako ospitale probintzialean. | |
| Osasun-arlorako lanpostuen falta Cabo Delgado probintzian. | |

Iturria: Lanketa propioa, Vasco Coelhok prestatutako mintegiari buruzko txostenaren oinarrituta.

Gure proposamen teorikora itzuliko gara taula hau ikusteko, aztertzeko eta hari buruz pentsatzeko, bere axolagabetasunean eta harrokerian itxita dagoen zientzia baten indarkeria epistemikoaren aurka egiteko ezagutzak lantzeko. Jarraian adieraziko dugun analisi la-

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

burraren bidez, ikaskuntza pluritopikoak ahalbidetu nahi ditugu, bizia ekonomiatik eta banakako emantzipazioa emantzipazio kolektibotik be-reiziko ez dituztenak. Elkarrizketa horien bidez eraiki eta ikasi egiten du-gun gizon-emakume guztion elkarrekotasun ez-simetrikoa nabarmen-du nahi dugu, eta elkarrizketa horietan emakumeen ahotsak, ekimenak eta ezagutzak funtsezkoak direla aldarrikatu. Testu baten idazketa forma osatugabea bada ere, ikusmuga kognitibo hau jaso nahi dugu hemen: munduaren oparotasun kognitibo, sozial eta imajinatiboa berez erakus-ten duten narratibak sortzen diren ikusmuga kognitiboa. Jarraian ageri diren ohar analitikoak, beraz, jakintzen ekologiaren ariketa bat dira, non subjektibitate feministak —hori gara gu— parte integral diren, baina ez normatiboa edo preskriptiboa.

Gure ustez, taularen lehenbiziko irakurketak aukera ematen du Cabo Delgado probintzian bizitzen ari diren zailtasun handiak egiaz-tatzeko. Hamarkada batean, gutxi gorabehera, Cabo Delgadoko bizi-modua erabat aldatu da pertsona gehienentzat. Atzerriko korporazioen presentziak eta haien erauzketa-jarduerek, kanpotik jende asko etorri izanak («vientes»¹⁴ esaten zaie), eta, duela gutxiago, biztanleriari jasa-narazitako indarkeriak, harridura eragin dute, bai eta egunetik egunera larriagotzen den kalteberatasuna ere, eta segurtasun faltaren eta txun-dimenaren sentipena sortu da biztanlerian. Arazo-kopurua eta arazo horiek sortzen diren arlo-kopurua izugarria denez, jendeak egoera hori arrisku eta konplexutasun handiko egoeratzat hautematen duela sen-titzen dugu, eta bizitza pertsonal eta komunitarioko ia esparru guztiei eragiten diela. Lehenago aurkeztutako taularekin —eskuragarri dagoen literaturan etengabeko ikerketak egitearen ondorio da— alderatzeko ahalegina egitean, berehala nabarmentzen da identifikatutako arazoan hedadura eta ugaritasun handiagoa. Hala ere, badago hausnartarazi behar gaituen ausentzia nabarmen bat: ez da identifikatu lurra eskura-tzeko aukerarekin edo aukera hori ez izatearekin lotutako arazorik. Au-sentzia horrek zenbait esanahi izan ditzake. Hiru azpimarratuko ditugu. Lehenik eta behin, ikerketa honetan sakondu behar dela, horri buruz zer gertatzen den hobeto ulertzeko; bigarrena izan daiteke jendeak, probintzian bizi den gizarte-, erakunde-, politika- eta ekonomia-indar-keriatik oso presio handia jasaten duenez, indarkeria hori hartzen duela arazo nagusitzat; eta hirugarrena, berriz, lurra eskuratzeko aukerarekin lotutako indarkeria- eta hertsidura-maila hain handia dela, non inor ez baita horri buruz hitz egitera ausartzen. Nolanahi ere, hipotesi horiek

14. «Etorritakoak». (Itzle. oh.)

berretsi ahal izateko, ikerketa sakonagoa eta elkarrizketak egin beharko lirateke, denentzako giro seguruetan.

Gure ustez, taula horrek, halaber, erakusten du nolabaiteko desartikulazioa dagoela identifikatutako arazoan eta lurraldean sortzen ari diren ekimenen eta erantzunen artean. Esate baterako, gizarte-desberdintasunak eta esklusioa aztertzen baditugu, badirudi ez dela egoera horri aurre egiteko edo hura alderantzikatzeko modu praktikoan eta zehatzean gai den ekintza bakar bat bera ere identifikatu. Gaur egungo egoera aldatzeko, gobernantza onean eta hezkuntzan jartzen dira itxaropenak. Garrantziatsua da azpimarratzea elkarrizketa horietan irmo sinesten dela Legeak, Estatuak, Eskolak..., hau da, erakundeak, funtsezkoak direla egoerak eragiten dituen arazoak konpontzeko. Horrek pentsarazten gaitu gizarte-funtzioak eta herrialdeko estatua arautzekoak gure kezken artean sartu egin direla, bizi- eta emantzipazio-alternatibak imajinatze-ko orduan. Mozambikien pluralismo juridikoa dagoela agerikoa da, eta ohituretan eta kulturalki kontestualizatutako beste jardunbide batzuk ere badaude, baina hala ere, oso interesgarria da ikustea horrek ez duela galarazten bakea, segurtasuna eta justizia soziala eta sexuala bermatuko duten erakundeak egoteko eta elkar indartzeko gogoia.

Alde horretatik ere, nabarmena da pertsonen analisisiek emakumeek eta neskatok jasandako indarkeriei buruz erakusten duten pertzepzio-eta xehetasun-maila. Indarkeria horiek zenbait forma hartzen dituzte: prostituzioa, ezkontzak, inposatutako analfabetismoa, jazarpena, parte hartzeko eta erabakitzeke botererik ez izatea. Eztabaidagai diren indarkeria fisikoen, egiturazkoen eta kulturalen ia katalogo oso bat da. Horrek erakusten du kontzientzia kolektiboa dagoela arazoaren hedadurari eta intentsitateari buruz, bai eta benetako kezka ere, egoeragatik eta egoerak emakumeengan eta haien komunitateetan dituen eraginengatik. Nolanahi ere, egiaztatu dugu identifikatutako ekimenen artean ez dagoela gai horiekin zuzenean lotutako ekimenik. Pentsa dezakegu emakumeen eta neskatok aurkako indarkeria izango zela proposatzen diren prestakuntza-jardueretan edota salaketa-eremu edo -tresnetan jorratu zitekeen gai bat, baina ez da ezer zehazki aipatu kultura-babeseko edo -eraldaketako forma zehatzei buruz. Gure ustez, horrek erakusten du, lurraldearen kasuan bezala, sentsibilitate handia dagoela gai horren inguruan, eta gizarterako gai sakona dela, eta ia entitate ukiezina bihurtu dela. Arazoa aitortzen da, baina arazoari aurre egiteko erantzunek, zailak izateaz gain, emakumeen gutxiagotasun ontologikoa ziurtat jotzen duten premisa guztiak desegin beharko lituzkete. Eta badirudi gizartea ez dagoela horretarako prestatuta oraindik.

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

Ohartzen gara hemen lantzen ari garen hipotesietarako ikerketa, elkarriketa, eta ezagutza- eta ideia-truke gehiago behar direla. Hala ere, analisi labur hau amaitzeko, gure ustez hipotesi nagusia dena adierazi nahi dugu: lurra eskuratzeko aukerari eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka egiteari buruzko erantzun eta ekintza faltak erakusten du gai horiek funtsezkoak eta benetan garrantzitsuak direla bizirako alternatiba kolektiboak eta feministak pentsatzeko eta prestatzeko. Une honetan, gure hegoaldeko epistemologiaren hermeneutika feministaren bidez lehenago zehaztu ditugun bi ideia gogoratuko ditugu. Lehenbizikoak Mendebaldeko arrazionaltasun modernoaren izaera androzentrikoarekin du zerikusia. Androzentrismo horrek emakumeak eta emakumeen gorpuzak eta lanak mespretxatu egiten ditu eta maskulinitate jakin baten ideia-aren mende jartzen ditu, hori hartzen baitu gauza guztien neurritzat. Alde horretatik, garrantzitsua iruditzen zaigu zuhurtzia analitikoko elementu bat sartzea. Zenbait feministak diote Mozambiqueko emakumeen eta neskatoen aurkako indarkerietako asko tokiko ohituretan oinarritzen direla, baina hala ere, gogoan izan behar da kultura eta ohiturak kartsuak eta dinamikoak direla, eta etengabe berrasmatzen direla. Horregatik, tradizioztat edo kulturaztat izendatzen dena era guztietako eragin eta testuinguruekiko esposizioetik sortzen da. Hala, zentzuzkoa da pentsatzea mendeetan izandako kolonialismoak eta kolonialismoak ekarritako indarkeria sexual, sozial eta epistemikoak ez dutela rol aktiborik izan, ez lehen ez orain, jator eta tradizionalizat aurkezten denaren birkonfigurazioan. Horrekin argudiatu nahi dugu ganorazko arrazoiak ditugula pentsatzeko emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria horiek eta lurrarekiko harreman problematikoak zerikusi handia dutela kolonialismoarekin, eta oraindik kendu gabe daudela arazo horiek eratzen dituen Mendebaldeko arrazionaltasunak ekarritako kontraesantetik.

Bigarren ideia, berriz, honako hau da: Mozambiqueko gure errauskinek presentzia aktiboa dute gizarteetan, eta haietan ari dira, gauzak egiten, pentsatzen eta kristalezko oinetako estuak apurtzen, baina hala eta guztiz ere, edozein gizon edo mutil baino gehiago ahalegindu behar dute, borroka eta prozesu kolektiboetan beren ahotsa entzunarazteko eta ulertarazteko, bai eta partekatze ere zer baldintzatan bizi nahi duten hertsidurarik eta indarkeriarik gabeko bizitza bat. Elkarrekin egiten jarraitu behar dugun bidea da hori, modu pedagogikoan eta intentsitate handiz nabarmenduta ezinezkoa dela bizi-alternatibak aurkitzea, alternatiba horiek oso feministak ez badira, errauskinek alternatiba horiek adierazteko eta gauzatzeko izen eta forma hori (feminista) erabiltzen ez badute.

Amaitzeko, azken ohar bat. Cabo Delgado probintzian identifikatutako erronken aurrean, emakumeek, neskek eta gizonek adierazi zuten erresistentzia egiten eta bizi-alternatibak eraikitzen jarraitzen dutela, etengabeko biktimizazio iraunkorra egon arren. Emakumeek azpimarratu zuten beren erresistentzien eta alternatiben gakoetako bat «bakarrik eta banatuta ez geratzeko» (hitzez hitz) antolaketa zen. Hori da, emakumeen esanetan, «Gobernuaren eta enpresen estrategia banatzaileen» aurka egiteko beren modua, eta emakumeek eta gizonek lurraldeetatik eta beren bizi-bitartekoetatik eta bizimoduetatik elkartzeko eta bat egiteko forma berriak berrasmatzera bultzatzen gaitu. Beraz, funtsezkoa da ulertzea zenbateko garrantzia duen tokiko, eskualdeetako eta herrialdeko sareetan egiten den lana, lan horren bidez antolatzen eta indartzen baitira alternatibak eta erresistentziak. Hona hemen sare horietako batzuk: CCIE sare nazionala (Erauzketa-industriari buruzko Koalizio Zibikoa), honako hauek osatzen dute: Centro Terra Viva, o Conselho Cristão de Moçambique, Sekelekani, Juventude Desenvolvimento, Advocacia Ambiental eta Kuwuka, eta lehen aipatutako WoMin eskualde-esparruko sare afrikarra. Adibide gisa, CCIE sareak aukera eman du probintzian gertatzen dena nazioartean zabaltzeko, eta, horrela, nazioarteko elkartasuna mobilizatzeko.

ONDORIOA

Egin dugun ikerketak aukera eman digu emakumeek, neskek eta gizonek eguneroko bizitzan pairatzen dituzten sufrimenduen kausak ulertzeko, eguneroko bizitzako narratibak eta jardunbideak abiapuntu hartuta. Halaber, aukera izan digu egiaztatzeko zer-nolako formak baliatzen dituzten erresistentziek ustiaketa estruktibistako eremuetan. Forma horiek emergentzia askatzaileak eta emantzipatzaileak adierazten dituzte.

Baliabideen ustiaketa indarkeria handiz egiten da; deslokalizazioak eta Konstituzioan xedatutako giza eskubideen urraketak daude; emakumeek bakardadea sufritzen dute eta emakumeen gorputzaren aurkako indarkeria dago; ustelkeria dago; eta eragindako pertsonen bizi-baldintzak okerrera egin dute, baina hala eta guztiz ere, gaur egun, ezagutza gehiago daude, bai eta informazio-truke handiagoa ere parte hartzen dutenen artean, eta gardentasun-eskakizun handiagoak daude kontratuetan eta haien aplikazioan.

Arazoen konplexutasunerako eta larritasunerako, emaitzek urriak dirudite, baina arreta epistemologiko areagotu batek aukera ematen

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

digu ulertzeko nola ari diren gizonak eta emakumeak estraktibismoak sortutako eta elikatutako lerro abisalak apurtzen eta bultzatzen, eten-gabe, arrisku eta etsaitasun handiko egoeran. Horrek gure analisisetan eta lankidetzan solidarioko ekintzetan inbisibilizatu eta gutxietsi ezin diren indarra eta jakinduria ekartzen ditu.

Frogatuta geratzen da gainera loturen garrantzia, eta arrazionaltasunen garrantzia, honako hauetan bilduta: batetik, elkarrekiko bete-beharrak daudela, eta, bestetik, pertsona bakoitzaren gizatasunaren aitortzarako ezinbestekoa dela gizon-emakume guztien gizatasuna aitortzea.

Eta, azkenik, azpimarratu nahi dugu ez dagoela banakako emantzipaziorik emantzipazio kolektiborik gabe. Jakintzen hermenetika feminista batek eta haien ezagutzen ekologiek ahalmena dute Indiako Ozeanoaren hegoaldeko itsasertzeko hegoalde ez-inperial honen elkarriketak eta ekintza-sareak eta bizi-alternatibak azalertzeko.

BIBLIOGRAFIA

- AMADIUME, Ifi (1998): *Male Daughters, Female Husbands: Gender and Sex in African Society*, Londres/New York, Zed Books.
- ANNAN-YAO, Elizabeth (argtz.) (2004): *Gender, Economies and Entitlements in Africa*, Dakar, CODESRIA.
- ASF (MUGARIK GABEKO ABOKATUAK) (2019): *Impacto dos conflitos armados na vida das mulheres e raparigas em Moçambique*, Maputo, ASF Canada.
- BIDASECA, Karina, eta Vanesa VÁZQUEZ LABA (biltz.) (2011): *Feminismos y poscolonialidad. Descolonizando el feminismo desde y en América Latina*, Buenos Aires, Godot.
- BOFF, Leonardo (1999): *Saber cuidar. Ética do mundo. Compaixão pela terra*, Petrópolis (RJ), Vozes.
- BUTLER, Judith (2004): *Precarious Life. The Powers of Mourning and Violence*, Londres/New York, Verso.
- (2008): «Sexual Politics, Torture, and Secular Time», *British Journal of Sociology*, 59 (1), 1-23.

- CARTY, Linda, eta Chandra Talpade MOHANTY (2015): «Mapping Transnational Feminist Engagements: Neoliberalism and the Politics of Solidarity», in Rawwida BAKSH eta Wendy HARCOURT (argtz.): *The Oxford Handbook of Transnational Feminist Movements*, Oxford, Oxford University Press, 82-115.
- CASIMIRO, Isabel (2014a): «A nova situação sócio-económica no norte de Moçambique e o seu impacto sobre as desigualdades das mulheres», in Jokín ALBERDI eta Eduardo BIDAURRATZAGA (koord.): *Desarrollo Humano Local em Mozambique*, Bilbo, Hegoa (UPV/EHU), 57-74.
- (2014b): *Paz na Terra, Guerra em Casa?: Feminismo e Organizações de Mulheres em Moçambique*, Recife, UFPE.
- (2015): «Movimentos Sociais e Movimentos de Mulheres em Moçambique», in Teresa CRUZ E SILVA eta Isabel CASIMIRO (ant.): *A Ciência ao Serviço do Desenvolvimento? Experiências de Países Africanos Falantes de Língua Oficial Portuguesa*, 1. atala, Dakar, CODESRIA, 51-66.
- (2018a): «Género e Indústria Extractiva». SADC-Parliamentary eta OXFAM International-eko Foroan aurkeztutako komunikazioa «Enhancing Parliamentary and Governmental Mineral Resource Policy and Implementation», Maputo, 2018ko uztailak 18.
- (2018b): «Relatório da investigação sobre o PROGRAMA AGRI MULHERES», in *Programa para o Aumento dos Rendimentos gerados e geridos pelas Mulheres Camponesas - 2017-2021MOZDG 167*, Maputo, WLSA Mozambique.
- eta Ximena ANDRADE (2009): «Critical Feminism in Mozambique. Situated in the Context of our Experiences as Women, Academics and Activists», in Akosua Adomako AMPOFO eta Signa ARNFRED (argtz.): *African Feminist Politics of Knowledge. Tensions, Challenges, Possibilities*, s. 1., Nordic Africa Institute, 137-156.
- eta Amélia de SOUTO (2010): *Empoderamento económico da mulher, movimento associativo e acesso a fundos de desenvolvimento local*, Maputo, Eduardo Mondlane Unibertsitateko Afrikar Ikasketen Zentroa.
- eta Catarina TRINDADE (2019): «Mozambican Feminisms, Between the Local and the Global», in Ashwini TAMBE eta Millie THAYER (argtz.), *Transnational Feminist Itineraries*, Duke University Press, 309-344 (prentsan).
- CCIE (ERAUZKETA-INDUSTRIARI BURUZKO KOALIZIO ZIBIKOA) (2018): «Coligação Cívica sobre Indústria Extractiva

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

trabalha em Namanhumbir», 18/07/06. Eskuragarri hemen: <http://www.civilinfo.org.mz/coligacao-civica-sobre-industria-extractiva-trabalha-em-namanhumbir/?utm_source=CIVILINFO&utm_campaign=94baca5b0f-EMAIL_CAMPAIGN_2018_07_06_12_19&utm_medium=email&utm_term=0_4c3240febe-94baca5b0f-183298517>.

- (2019): «Primeiro Congresso Nacional de Comunidades Reassentadas e Afectadas pela Indústria Extractiva. As comunidades são integradas por seres humanos», Maputo.

- CUNHA, Teresa (2008): «A New Impetus to Intercultural Learning: Questioning Concepts and Practices», in Susana GONÇALVES (ant.): *Identity, Diversity and Intercultural Dialogue*, Coimbra, FCT/ESEC, 87-100.
- (ant.) (2011): *Ensaio pela democracia. Justiça, dignidade e bem-viver*, Porto, Afrontamento.
- (2014): *Never Trust Sindarella. Feminismos, Pós-colonialismos, Moçambique e Timor-Leste*, Coimbra, Almedina.
- (2015): *Women in Power Women: outras economias geradas e lideradas por mulheres no Sul não-imperial*, Buenos Aires, CLACSO/CODESRIA/IDEAS.
- (2017): «Todo o trabalho é produtivo: economias de abundância e da sobriedade», in Xoán HERMIDA GONZÁLEZ (koord.): *[Re]Pensar a democracia*, Compostela, Foro ObenComún, 101-134.
- (2018): «Mulheres em maxi-saias: Justiça Cognitiva, Identidades e Emancipação», in Beleni GRANDO, Lisanil PEREIRA, Tereza CUNHA eta Waldineia FERREIRA (ant.): *Mulheres, Território e Identidades: despatriarcalizando e descolonizando conceitos*, II. libk, Curitiba, CRV.
- (2019): «Outras economias e uma hermenêutica feminista das Epistemologias do Sul», in Boaventura de Sousa SANTOS eta Teresa CUNHA (ant.): *Economias de Bem-Viver. Contra o desperdício das experiências*, Coimbra, Almedina (prentsan).
- eta Élide LAURIS (2016): «À procura de um outro constitucionalismo econômico: construindo a cidadania a partir de iniciativas de economia solidária e popular lideradas por mulheres do Sul», *Sociologias*, 18 (43), 150-175.

DELOITTE (2016): *Mozambique's Economic Outlook. Governance Challenges Holding Back Economic Potential*, Deloitte Touche Tohmatsu Limited. Eskuragarri hemen: <<https://www2.deloitte.com/content/dam/>

Deloitte/za/Documents/africa/ZA_Mozambique%20country_report_25012017.pdf>.

ESCOBAR, Arturo (2015): «Degrowth, Postdevelopment: A Preliminary Conversation», *Sustainability Science*, 10, 451-462.

FEDERICI, Silvia (2010): *Calibán y la bruja: mujeres, cuerpo y acumulación originaria*, Madril, Traficantes de Sueños. Eusk. itzulp.: *Caliban eta sorgina. Emakumeak, gorputza eta jatorrizko metaketa*, Donostia, Elkar.).

FERNANDES, Raul (2012): *O Informal e o Artesanal: Pescadores e Revendedeiras de peixe da Guiné-Bissau. Fronteiras pós-coloniais: rigidez, heterogeneidade e mobilidade*. Soziologiako Doktoretza-tesia, Ekonomia Fakultatea, Coimbrako Unibertsitatea. Eskuragarri hemen: <<http://hdl.handle.net/10316/23327>>.

KABEER, Naila (2008): *Mainstreaming Gender in Social Protection for the Informal Economy*, Londres, Commonwealth Secretariat.

LUGONES, María (2010): «Toward a Decolonial Feminism», *Hypatia*, 25 (4), 742-759.

McFADDEN, Patricia, eta Patricia TWASHIMA (2018): *A Feminist Conversation: Situating our Radical Ideas and Energies in the Contemporary African Context*, Maputo, Friedrich-Ebert-Stiftung Mozambique (Feminist Reflections, 1).

MAMA, Amina (1995): «Feminism or Femocracy? State Feminism and Democratisation in Nigeria», *Africa Development*, 20 (1), 37-58.

MARTINS, Catarina (2016): «Nós e as Mulheres dos Outros. Feminismos entre o Norte e a África», in António SOUSA RIBEIRO eta Margarida CALAFATE RIBEIRO (ant.): *Geometrias da Memória: configurações pós-coloniais*, Porto, Afrontamento, 251-277.

MATHEWS, Sally (2008): «The Role of the Privileged in Responding to Poverty: Perspectives Emerging from the Post-Development Debate», *Third World Quarterly*, 29 (6), 1035-1049.

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

- MOHANTY, Chandra Talpade (1991): «Under Western Eyes – Feminist Scholarship and Colonial Discourses», in Chandra Talpade MOHANTY et al. (argtz.): *Third World Women and the Politics of Feminism*, Bloomington, Indiana University Press, 462-487.
- MOREIRA SILVA, Luciana (2018): «Living Lesbian Relationships in Madrid: Queering Life and Families in Times of Straight Living Fossils», in Michael W. YARBROUGH, Angela JONES eta Joseph Nicholas DEFILIPPIS (ant.): *Queer Families and Relationships After Marriage Equality*, Londres/New York, Routledge, 17-30.
- MOSCA, João, eta Rabia AIUBA (2017): *Conjuntura económica da crise das dividas ocultas*, Maputo (Fórum de Monitoria do Orçamento, 2). Eskuragarri hemen: <<https://omrmz.org/omrweb/wp-content/uploads/Comunicado-09-Conjuntura-economica-da-crise-das-d%C3%ADvidas-ocultas.pdf>>.
- MOUFFE, Chantal (1996): *O Regresso do político*, Lisboa, Gradiva.
- MUNDUKO BANKUA (2014): *Mozambique Economic Update*, Maputo, Munduko Bankua.
- NBGP (NAZIO BATUEN GARAPEN PROGRAMA) (2015): *Human Development for Everyone. Briefing Note for Countries on the 2016*, Mozambique.
- OSÓRIO, Conceição, eta Teresa Cruz e SILVA (2008): *Buscando sentidos. Género e sexualidade entre jovens estudantes do ensino secundário, Moçambique*, Maputo, WLSA Mozambique.
- eta Teresa Cruz e SILVA (2016): *Entre a denúncia e o silêncio. Análise da aplicação da Lei contra a Violência Doméstica (2009-2015)*, Maputo, WLSA Mozambique.
- eta Teresa Cruz e SILVA (2017): *Corporações económicas e expropriação: raparigas, mulheres e comunidades reassentadas no distrito de Moatize*, Maputo, WLSA Mozambique.
- eta Teresa Cruz e SILVA (2018): *Silenciando a discriminação. Conflitos entre fontes de poder e os direitos humanos das mulheres em Pemba*, Maputo, WLSA Mozambique.
- OVIEDO, Atawallpa (2011): *Qué es el Sumakawsay. Más allá del capitalismo y el socialismo. Camino alternativo al desarrollo. Una propuesta para los «indignados» y demás desencantados de todo el mundo*, Quito, Sumak Editores.

- OYEWÙMÍ, Oyèrónké (ed.) (2005): *African Gender Studies: A Reader*, New York, Palgrave Macmillan.
- PEPETELA (2018): *Yaka*, Alfragide, Edições D. Quixote, 140 eta 174.
- PÉREZ OROZCO, Amaia (2014): *Subversión feminista de la economía*, Madril, Traficantes de Sueños.
- POLANYI, Karl (1957) [1944]: *The Great Transformation. The Political and Economic Origins of our Time*, Boston, Beacon Press.
- PRAEG, Leonhard, eta Siphokazi MAGADLA (argtz.) (2014): *Ubuntu. Curating the Archive*, Natal, Universidad de KwalaZulu/Natal Press.
- PULEO, Alicia H. (2013): *Ecofeminismo para otro mundo posible*, Madril, Cátedra (Colección Feminismos).
- RAMOSE, Mogobe B. (1999): *African Philosophy Through Ubuntu*, Harare, Mond Books.
- RANDRIAMARO, Zo (2018): *Beyond Extractivism: Feminist Alternatives for a Socially and Gender Just Development in Africa*, Maputo, Friedrich-Ebert-Stiftung Mozambique (Feminist Reflections, 2).
- RIVERA CUSICANQUI, Silvia (2010): *Chi'ixinakax utxiwa. Una reflexión sobre prácticas y discursos descolonizadores*, Buenos Aires, Tinta Limón Ediciones.
- ROSENEIL, Sasha, Isabel CROWHURST, Tone HELLESUND, Ana Cristina SANTOS eta Mariya STOILOVA (2013): «Changing Landscapes of Heteronormativity: The Regulation and Normalization of Same-Sex Sexualities in Europe», *Social Politics*, 20 (2), 165-199.
- SAMO, Graça (2013): «Relatório sobre a participação no seminário “A Gender Extractive Industry in Africa”», NBEko Eskualde Bulegoa Emakumeak, Genero Berdintasunerako Nazio Batuen Agentzia eta Publish What you Pay (PWYP), Dar es-Salam, 2013ko apirilak 4-5.

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

- SANTOS, Boaventura de Sousa (1996): «A queda do Angelus Novus: para além da equação moderna entre raízes e opções», *Revista Crítica de Ciências Sociais*, 45, 5-34.
- (ant.) (2001): *Globalização: Fatalidade ou Utopia?*, Porto, Afrontamento.
- (2002): «Para uma sociologia das ausências e uma sociologia das emergências», *Revista Crítica de Ciências Sociais*, 63, 237-280.
- (2007): *Renovar a teoria crítica e reinventar a emancipação social*, São Paulo, Boitempo.
- (2014a): *The Epistemologies of the South, Justice against Epistemicide*, Boulder/Londres, Paradigm Publishers.
- (2014b): «El neoextractivismo está acabando con América Latina». Eskuragarri hemen: <<http://www.elespectador.com/noticias/el-mundo/el-neoextractivismo-esta-acabando-america-latina-articulo-524282>>.
- (2018): *The End of the Cognitive Empire. The Coming of Age of Epistemologies of the South*, Durham/Londres, Duke University Press.
- SANTOS, Luciane Lucas dos (2011): «Os clubes de troca na economia solidária: por um modelo crítico e emancipatório de consumo», in Pedro HESPAÑA eta Aline MENDONÇA (ant.): *Economia Solidária: questões teóricas e epistemológicas*, Coimbra, Almedina.
- SEKELEKANI (2015): *A MINHA VOZ – Narração de Sofrimento de Comunidades reassentadas em Tete*, Maputo, Sekelekani.
- (2016): *A MINHA VOZ – Narração de Sofrimento 2016 ou como se incubam novos conflitos em Moçambique*, Maputo, Sekelekani.
- SEN, Amartya (2010): *A ideia de justiça*, Coimbra, Almedina.
- SHIVA, Vandana (2018): *¿Quién alimenta realmente el mundo? El fracaso de la agricultura industrial y la promesa de la agroecología*, Madril, Capitán Swing.
- eta Maria MIES (1993): *Ecofeminismo*, Lisboa, Instituto Piaget.
- SILVA, Teresa Cruz e (2012): «Fecharam o mar e o mato: apontamentos sobre luta pelo acesso a recursos». Nazioarteko III. Biltzarra Baliabide Mineralak era Naturalak Kudeaketa eta Herrialdearen Garapenerako duen Ekarpema, Maputo, MASC eta IBIS, 2012ko azaroak 5-7.

- Manuel ARAÚJO eta Amélia Neves de SOUTO (2015): *Comunidades costeiras: perspectivas e realidades*, Maputo, Friedrich Ebert Stiftung.
- SITOE, Célia (2017a): «Ritos de iniciação obrigam raparigas a manterem relações sexuais com homens desconhecidos em Meconta», in *Ligações de género 2017*, Maputo, Sekelekani, 28-29.
- (2017b): «Nhamapaza ou a guerra como incentivo à prostituição», in *Ligações de género 2017*, Maputo, Sekelekani, 30-33.
- Iracema BILA eta Palmira VELASCO (2017): *Ligações de género*, Maputo, Sekelekani. Eskuragarri hemen: <<http://www.civilinfo.org.mz/files/Ligacoes%20de%20Genero%202017.pdf>>.
- Jessemusse CACINDA eta Palmira VELASCO (2018): «Ilha de Olinda: onde as mulheres não têm sono», in *Ligações de género*, Maputo, Sekelekani, 3-7.
- SOW, Fatou, eta Ndèye Sokhna GUËYE (2011): *Genre et dynamiques socio-économiques et politiques en Afrique*, Dakar, CODESRIA.
- SPIVAK, Gayatri C. (1999): *A Critique of Postcolonial Reason. Toward a History of the Vanishing Present*, Cambridge (Massachusetts), Harvard University Press.
- SVAMPA, Maristella (2013): «Consenso de los Commodities y lenguages de valoración en América Latina», *Nueva Sociedad*, 244, 30-46.
- TRINDADE, João Carlos, Lucinda CRUZ eta André Cristiano JOSÉ (2015): *Avaliação Jurídica Independente aos Processos de Licenciamento dos Projectos Minerais e de Hidrocarbonetos*, Maputo, Centro Terra Viva.
- TRUJILLO, Gracia, eta Elena BURGALETA (2014): «¿Queerizando la institución familiar? Entre los discursos bio-sociales y las múltiples resistencias», *Feminismo/s*, 23, 159-179.
- VAUGHAN, Genevieve (1997): *For-Giving. A Feminist Criticism of Exchange*, Austin, Plain View Press.
- VELASCO, Palmira (2016): «Urgente incluir a mulher na Indústria Extractiva – defendem participantes de um seminário sobre o tema em Maputo». Eskuragarri hemen: <<http://www.civilinfo.org>>.

2. HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIAK ETA BIZI-ALTERNATIBA FEMINISTAK

mz/urgente-incluir-a-mulher-na-industria-extractiva-defendem-participantes-de-um-seminario-sobre-o-tema-em-maputo/>.

- (2017): «Impactos da extração de rubi sobre a mulher e a rapariga em Namanhumbir», in *Ligações de género 2017*, Maputo, Sekelekani, 10-19.
- (2018): «Ilha de Olinda: onde as mulheres não têm sono». Eskuragarri hemen: <<http://www.civilinfo.org.mz/ilha-de-olinda-onde-as-mulheres-nao-tem-sono/>>.

WILSKA, Kent (2008): *Os empobrecidos*, Maputo, Kepa.

WIREDU, Kwasi (2003): «L'ancrage de la pensée africaine et les conditions du dialogue interculturel», *Revue Alternatives Sud: Pour une Pensée Africaine Émancipatrice*, 10 (4), 49-60.

■ Legegintza (Mozambique)

Lurzoruaren Legea, urriaren leku 19/1997 Legea.

Meategien Legea, abuztuaren 18ko 20/2014 Legea.

Ekonomia Jardueretatik eratorritako Berriz finkatze Prozesuari buruzko Araudia, abuztuaren 8ko 31/2012 Dekretua.

Mozambiqueko Kode Penal. Abenduaren 31ko 2014ko 35. Legeak onartuta.

■ Bestelako baliabideak

CANTALAPIEDRA, Santiago Álvarez (2018): «Extractivismos, modo de vida imperial y violencia», *Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global*, 143, 5-10.

GLOBAL VOICES (2018): «Riquezas naturais cercadas pelo terror: o que explica os ataques no norte de Moçambique?». Eskuragarri hemen: <<https://pt.globalvoices.org/2018/07/06/riquezas-naturais-cercadas-pelo-terror-o-que-explica-os-ataques-no-norte-de-mocambique/>>.

HUMAN RIGHTS WATCH (2013): «*O Que É Uma Casa Sem Comida?*». *O Boom da Mineração de Carvão e o Reassentamento*, Human Rights Watch.

LAHIRI-DUTT, Kuntala (2011): *Gendering the Field: Towards Sustainable Livelihoods for Mining Communities*, Canberra, ANU Press.

MÁRIO, Tomás Vieira (2018): «Involuntary Resettlement and its Impact in Livelihoods. The Role of Legislature». SADC-Parliamentary eta OXFAM International-eko foroan aurkeztutako komunikazioa «Enhancing Parliamentary and Governmental Mineral Resource Policy and Implementation», Maputo, 2018ko uztaiak 18.

— (2013): «Já ninguém bate palmas... em Palma». Eskuragarri hemen: <http://www.sekelekani.org.mz/docs/Industria_Extrativa.pdf>.

MOYO, Theresa (2016): «Extractive Industries and Women in Southern Africa», *BUWA – A Journal on African Women's Experiences*. Eskuragarri hemen: <http://genderandsecurity.org/sites/default/files/Moyo_-_Extractives_W_in_S_Africa.pdf>.

TRINDADE, João Carlos, Lucinda CRUZ eta André Cristiano JOSÉ (2015): *Avaliação Jurídica Independente aos Processos de Licenciamento dos Projectos Minerais e de Hidrocarbonetos*, Maputo, Centro Terra Viva.

VAN DER PLOEG, Frederick (2010): *Natural Resources: Curse or Blessing?* (CESIFO Working Paper, 3125). Eskuragarri hemen: <<https://www.econstor.eu/bitstream/10419/38934/1/631864989.pdf>>.

LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIO- RAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO ETA BIZITZA SAREAREN ALDEKO PROPOSAMEN FEMINISTAK

**Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi
eta Luísa de Pinho Valle**

Yolanda Jubeto Ruiz Ekonomia Aplikatua I Saileko irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, eta ikertzailea da bai HEGOA Institutuan eta bai Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareko (REAS) ekonomia feministako taldean (Ekosolfem). International Association for Feminist Economics (IAFFE) elkarteko eta Aurrekontuetan Genero-ikuspegia txertatzea aztertzen duen Europar Sareko (European Gender Budgeting Network) kidea da. *Revista de Economía Crítica* aldizkariko erredakzio-kontseiluko

kidea da. Bi urteik behingo Ekonomia Kritikoaren Jardunaldien eta Espainiako estatuko Ekonomia Feministaren Jardunaldien antolatzaile aktiboak da. Ekonomia feminista, ekonomia solidarioa eta tokiko giza garapenean espezializatuta dago.

Mertxe Larrañaga Sarriegi Ekonomian doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), eta irakasle titularra Ekonomia Aplikatua I Sailean. Nazioarteko ekonomiako irakaslea da Ekonomia eta Enpresa Fakultatean. HEGOA Institutuko ikertzailea da. Ekonomia feministan eta tokiko giza garapenean espezializatuta dago, eta hainbat master ematen ditu gai horiei buruz. Bereziki lanen gaiaren inguruan ardatzu ditu bere argitalpenak. UPV/EHUko Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren masterraren arduraduna da gaur egun. Euskal Herriko Unibertsitateko lehen Berdintasunerako Zuzendaria izan zen.

Lúisa de Pinho Valle doktorego-ikaslea da Coimbrako Unibertsitateko Ikerketa Sozialen Zentroko «Democracia en el siglo xxi» izendako programan. Zuzenbidean lizentziatua da, Santa Urtsula Unibertsitatean (Rio de Janeiro, Brasil); eta Zuzenbide Publikoan eta Kudeaketa Publikoan espezializatu da Brasiliako Unibertsitate Zentroan (Brasilia-DF, Brasil). Gizarte eta Zuzenbide Zientzietako masterduna da, Pablo de Olavide Unibertsitatean (Sevilla, Espainia). Bere ikerketetan aztertzen eta sakontzen dituen gaietan ekofeminismoen ikuspegia hartzen du abiapuntutzat, Hegoaldeko epistemologiek bat.

Proiektu honetan aztertutako testuinguruetakoko genero-desberdintasunak aztertzea ezinbesteko osagaitzat jo da, proiektuaren formulaziotik, lurraldeetan dauden gatazkak ezagutzeko nahiz haiek ebazteko balizko bideak ezagutzeko.

Munduko desberdintasunei buruzko azterketek erakusten dute, aztertutako lurralde guztietan, askotariko diskriminazio eta indarkeriek eragindako errealitatea direla genero-desberdintasunak, eta horiek pertsonen sexuan, arrazan eta klase sozialean oinarritzen direla batik bat. Hala ere, testuinguru bakoitzaren arabera izaten dira diskriminazio horien ezaugarriak eta intentsitatea. Gainera, orain arte aztertutako munduko herrialde bakar batean ere ez da erakutsi emakumeen eta gizonen arteko ekitatezko erlaziozko ondaren gaineko sarbidean eta kontrolean, erabakietan nahiz partaidetza soziopolitikoan.

Alde horretatik, uste dugu ekarpen feministak funtsezkoak direla munduan dauden menderatze-harreman patriarkalei heldu ahal izateko. Analisisian, abiapuntuetakoko bat egitura sozioekonomikoetan emakumeei eta gizonen esleitutako rola aztertzea da, horiek lotura estua baitute feminitatearen eta maskulinitatearen eraikuntza sozialarekin nahiz hortik eratorritako botere-harremanekin. Hierarkizazio horrek baldintzatu egiten du beren bizitza-zikloan emakumeek eta gizonen egiten dituzten jardueren emandako balio soziala, eta emakumeen gaitasun potentzialak feminitatearen hartutako jardueren multzo batera mugatzeko ahalegina egin ohi du. Era berean, emakumei zenbait espazio esleitzen zaizkie jardueren horiek garatzeko, etxeko eremu pribatuan kokatuta dauden espazioak; aldiz, gizonen eremu publikoa esleitzen zaie, jardueren soziopolitikoak eta merkataritza-jardueren lotutakoak. Laburbilduz, menderakuntza patriarkalari buruzko analisi feministek kontuan izaten dituzte gizarte bateko lan-banaketa sexualaren oinarrian dauden genero-mandatuak.

Mendebaldean, azken hamarkadetan, feminismo eraldatzaileak menderakuntza patriarkal kapitalistaren egiturazko kritikan zentratu ditu bere analisiak, eta genero-harremanak kontuan izango dituen justizi-

ziaren berrikuspen bat proposatu du. Gainerako kontinenteetan, Mendebaldeak XVI. mendetik aurrera inposatutako harreman kolonialen eta haiek komunitateetako harreman patriarkaletan izandako eraginaren gaineko kritikek gauza batera bultzatu ditu mugimendu eta pentsalari feministak: beren herrien despatriarkalizazioa eta deskolonizazioa lehenasuntzat txertatzera emantzipaziorako ezinbesteko estrategia bateratu gisa.

Kapitulu honetan, gaur egungo menderatze-harremanak ulertzeko balio diguten marko analitikoetako zenbait gako aterako ditugu (feminismo dekoloniala, komunitarioa eta ekologista). Zenbait esperientzia eta analisitatik abiatzen diren begirada eta ikuspegi horien bidez, garrantzia eman nahi zaio askotariko errealitateen ezagutzaren eraikuntza kolektiboari eta egiten diren emantzipazio-proposamenei.

Marko honetan, gaitasunen ikuspegia ere txertatuko dugu; izan ere, pertsonen funtsezko askatasunaren alde egiten duen apustua herrietara ere zabal daiteke, gaitasun kolektiboen bidez, eta bizitza desiragarri baten oinarriei buruzko analisi-tresna batzuk erabiltzeko aukera ematen digu.

Sarrera labor honen ostean, kapitulu hau lau ataletan dago egituratuta. Hurrengo atalean, feminismoek aztertutako oinarrizko kontzeptuetako batzuk laburbilduko ditugu, gaur egungo menderakuntza patriarkal kapitalistaren ardatzak non dauden hobeto kokatzeko eta hark ezkututzen dituen giza bizitzako zenbait gako agerian jartzeko. Gizarte-errealitatearen kontakizun kapitalista patriarkal eta kolonialak unibertsal bihurtu nahi ditu mundua ulertzeko moduak. Alabaina, kontakizun hori partziala da, estereotipatua, eta ez ditu errealitate guztiak hartzen; batzuetan, pentsamendu feministak agerian jarri duen bezala, ezta mendebaldeko errealitateak ere.

Ondoren, hirugarren atalean, zein menderatze-harreman patriarkal, kolonial eta kapitalistatan bizi garen ulertzeko balio diguten analisi-markoak laburbilduko ditugu. Horri lotuta, teoria dekolonialen, komunitarioen eta ekofeministen zenbait gako aipatuko ditugu. Horiek guztiak puntu komun asko dituzte, eta harreman kapitalisten gaineko ikuspegi oso kritikoa dute. Era berean, gaitasunen ikuspegiarekin gurutzatzen baditugu, errealitate poliedriko baten analisisa aberasteko aukera ematen digute.

Hurrengo atala emakume askoren bizitzetan funtsezkoa den eta haien eskubideak gauzatzea eta haien gaitasunak garatzea baldintzatzen duen eremu batean zentratzen da. Gizarte patriarkal baten muturreko ondorioen adierazpena da, eta presaz aurre egin behar

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

zaio gizarte guztietan. Emakumeen aurkako biolentzia matxistei buruz ari gara, eta haren adierazpen muturrekoenari femi(ni)zidio esaten zaio.

Gero, bosgarren atalean, erresistentziako eta menderatze-harreman horiek gainditzeko zenbait estrategia aipatuko ditugu, “beren eskubideen defentsan indartutako emakumeen mugimenduak” esan izan zaien bidez, edo ahalduntze indibidual eta kolektiboaren bidez. Hori guztia, kontuan izanda bizitzako baldintza materialetan dauden aldaketak ez ezik aldaketa sinbolikoak eta emozionalak ere funtsezkoak direla gizarte-eraldaketarako proposamenetan. Horregatik da beharrezkoa birbanaketa eta aitortza helburu duten strategiak ere txertatzea.

Amaitzeko, atal labur bat ere sartuko dugu: iruzkindutako baliabide bibliografikoen eta telematikoen sorta bat, testuan aipatutako kontzeptuetan, teorietan, politiketan eta jardunbideetan sakontzen lagutzeko.

PENTSAMENDU FEMINISTAREN OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Generoaren kontzeptuarekin hasiko gara. Bere garaian, iraultza semantiko moduko bat eragin zuen, eta gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunen eraikuntza sozialari buruz aritzeko erabiltzen da. Beste era batera esanda, honetarako balio du: «Gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasun errealean edo sumatutakoen oinarriaren gainean kultura batek eraikitako patroikognitiboak buruz aritzeko. Fenomeno ez-biologikoen eta gorputz-bereizkuntzako esperientzia baten arteko konexio metaforikoa da generoa» (Nelson, 1996).

Genero-harremanak dualismo hierarkiko baten erakusle dira: maskulinotzat hartzen den guztiari balio handiagoa ematen zaio, eta femininotzat hartzen denari, txikiagoa. Kategorizazio hori oso errotuta eta zabaldua dago gure gizartearen pentsatzeko moduetan, eta sexismoa eta femininotzat hartutako horren aurkako sexu-diskriminazioa elikatzen dituen iruditeria bati bide ematen dio. Alabaina, kontuan hartu behar dugu hau ere: «Generoa modu ezberdinean bizi da toki, gorputz eta kokapen ezberdinetan» (Harcourt, 2011), eta gizarteak eboluzionatu eta aldatu ahala, aldaketak izaten dituen eraikuntza moldakorra da.

Kontzeptu horren aldaketarako ahala ezin da ukatu; izan ere, genero-harremanak biologikoki zehaztuak izan beharrean sozialki eraikiak direla ulertzeak haien eraldaketarako aukera eragiten du. Era berean, generoaren eduki erlazionalak ez du emakumeen sinonimo-

tzat erabiltzeko aukerarik ematen, ikuspegi horrek ez lituzkeelako kontuan hartuko gizonak gizarte-eragiletzat, ez eta bi kategoriek (gizonenak eta emakumeenak) elkarri eragiteko eta bata bestearen araberatik erabiltzeko duten modua ere.

Interdependentzia da funtsezko beste kontzeptuetako bat. Abiapuntzat hartuko dugu gizakiok, izatez, jaio garen eta bizi garen kolektibo sozialarekiko mendekoak garela. Beraz, elkarren mendeko izakiak gara, baina lotura hori minimizatu eta batzuetan baztertu egin dute teoria ekonomikoek, indibidualismo metodologikoan oinarritu baitira eta bereizi egin baitituzte pertsonak beren ingurune sozialetik. Hala, ez dute kontuan hartu gure portaeraren zati oso garrantzitsu bat erakuntza soziala dela, eta, beraz, ezinbestekoa dela zein testuingurutan garatzen garen ezagutzeari, bai joko-arau sozialak aztertzeke eta bai aztertzeke ere zer arauk duten eragina hala akordio sozialetan eta gatazketan nola askotariko interesetan (horietako batzuk ikusteko erraza-koak dira eta beste batzuk sotilagoak edo ezkutukoagoak).

Alabaina, ez gara elkarren mendekoak arlo sozialean bakarrik, baizik eta bizitza naturaren mende ere badago, eta hala egon izan da beti (Carrasco, 2017). Bizitzari eustekak gure gizarteek naturarekin duten interdependentzia-harreman hori mantentzea esan nahi du. Beraz, izaki erabat *ekomendekoak* gara, gure bizitzako jarduera guztietarako erabiltzen ditugun ondasun eta baliabide guztiak naturatik ateratzen direlako, gu ere parte garen naturatik. Natura gara. Eta horrek esan nahi du onartu egin behar dugula mugak dituen ingurune biofisiko baten parte garela. Laburbilduz, naturan eta naturatik bizi gara, eta espezie gisa irautea nahi badugu, zaindu egin behar dugu.

Gainera, gure gorputzean bizi gara, zahartu eta gaixotu egiten den eta zaindu egin behar den gorputz batean. Alde horretatik, *zaintza-lanek* gure bizitza-zikloan duten rolaren analisiaren premia asko azpimarratu izan du ekonomia feministak, batik bat ordaindu gabeko lanena, baina ez horiena bakarrik. Lan horiek gure bizitza-kalitatean duten garrantziari buruzko gogoeta egin du. Hala, gaur egungo sistema ekonomikoaren oinarrian dauden bi zutabeak natura eta etxeko lana nahiz zaintza-lana direla defendatzen du, horiek gabe sistema amildu egingo litzatekeelako.

Ekonomia feministak ikusi du etxeko lanak eta zaintza-lanak normalean emakumeei esleitzen zaizkiela, naturalizatu egiten dela harreman hori eta balioa kentzen zaiola komunitateen erreproduktzio sozialerako egiten duten ekarpenari. Lan horiek ordaindutakoak direnean, emakume etorkinen edo arrazializatuen kontratazioa dago «zaintzaren kate globalak» esaten zaionaren jatorrian. Gaur egungo globaliza-

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

zioaren beste adierazpen bat dela jo daiteke, kasu horretan, zaintzarena, azterketa ekonomikoetan sistematikoki alde batera utzi izan dena. Emakumeek egiten dituzte kate-begi lanak, batik bat pobretutako herrialdeetatik etorritako emakumeek. Emakume horiek Iparaldeko familiak zaintzera eta artatzera etortzen dira, askotan, beren seme-alabak beste emakume batzuen zaintzapean utzita; batzuetan, familiako emakumeen zaintzapean uzten dituzte, eta, beste batzuetan, modu prekarioan kontratatutako emakumeen zaintzapean, emakume horiek ere lanerako aukera bila lekualdatu ostean (Orozco, 2010).

Zaintzaren kate global horien sorreran bi krisik izan dute eragina: alde batetik, pobretutako herrialdeetako gizarte-erreprodukzioko krisiek, migratzera behartzen baitituzte gizon-emakume asko, baldintza material hobegotan bizi ahal izateko; bestetik, zenbait Hego eta Ipar globaletako zaintza-krisiak deiturikoez —izan ere, Hego bakoitzean Ipar bat dago, eta Ipar bakoitzean Hego bat, eta elkarrekin erlazionatzen dira botere hegemoniko garaikidearen egituretan—.

Hori bai, Hego globalean fenomeno horrek ez du loturarik nazioarteko migrazioekin, baizik eta barne-migrazioen ziklo jarraituekin du zerikusia, eta horiek oso arrazializatuak izan ohi dira. Garrantzitsua da argitzea *Hego eta Ipar globalei* buruzko analisi politiko eta sozioekonomiko kreatibo bat egin behar dugula, marrazki kartografikoak ez datozelako bat munduko errealitateekin. Hau da, hegoak eta iparrak elkarrekin erlazionatzen dira botere-dinamiketan; eta aipatutako hego horietan beste ezagutza batzuk jorratzen dira, giza bazterkeria eta sufrimendutik nahiz sexismoaren, arrazakeriaren, kolonialismoen eta kapitalismoaren aurkako erresistentziatik abiatuta.

Hainbat desberdintasun (etnizitatea, klase soziala, sexu-orientazioa, dibertsitate funtzionala, adina, landa/hiri-eremua, eta abar) bizi dituzten askotariko emakumeen esperientzietatik eta gogoetetatik sortutako beste kontzeptu garrantzitsu bat *interseksionalitatea* da (Davis, 2005). Emakumeen Eskubideen eta Garapenaren aldeko Elkartearentzat (AWID ingelesez) kontzeptu hori genero-justiziarako eta justizia ekonomikorako tresna analitiko da; izan ere, «generoa beste identitate batzuekin nola gurutzatzen den eta gurutzaketa horiek zapalkuntza- eta pribilegio-esperientzia bakunak sortzen nola laguntzen duten aztertze, ulertze eta erantzuteko balio du» (AWID, 2004). Interseksionalitatea identitate sinpleko politiken alternatiba bat da, talde barruko ezberdintasunen eta gizarte-kategorien arteko erlazioen berri ematen duena. Era berean, diskriminazio asko jasaten dituzten subjektuen bazterketa-jardunbideak bistaratzeko eta salatzekeo tresna politikoa da, subjektu horiek, norma-

lean, bazterrean uzten baitira eta pasibotzat, biktimatzat eta gabeziaz betetakotzat hartzen baitira (Gandarias, 2016).

Ekonomia feministak egindako proposamenei dagokienez, analisi sozioekonomikoaren erdigunean *bizitzaren jasangarritasuna* jarri izana nabarmentzen da, eta bizitzaren erreproduktzio zabalduaren prozesua esan nahi da horrekin, hau da, baliabide materialak nahiz zaintza- eta afektu-testuinguruak eta harremanak behar dituen (Picchio, 2001). Bizitzaren jasangarritasuna bilatzeak erreproduktzioa, produktzioa eta trukeak antolatzea esan nahi du, bizitzeko modu guztiak ahalik eta baldintzarik onenetan bizitzen jarraitzeko aukera izan dezaten, justizian eta berdintasunean. Prozesu horretan, giza beharrak asetzea sartzen da, behar materialak nahiz afektiboak, sozialki eta ingurumenari dagokionez jasangarria den ingurune batean, eta, horretarako, beharrezkoa da giza harremanen kalitatea nahiz hurrengo belaunaldi planetan nola utziko diegun kontuan hartzea. Bizitzaren jasangarritasunaren nozioa kapital-metaketa- eta amaierarik gabeko irabazien antitesi moduan erabiltzen da, eta giza bizitzari aipamena egiten dion arren, bizitza-modu guztiei aplikatu dakieke. Bizitzaren jasangarritasuna analisi ekonomikoaren erdigunean jartzeak merkatu kapitalisten eta kapitalaren metaketaren ardatza desbideratzea esan nahi du, tradizionalki horiek egon baitira egitura sozioekonomikoari buruzko analisisen epizentroan.

Kapitalaren metaketak eta bizitzaren jasangarritasunak logika kontrajarririk dituzte, erritmo eta eskaera ezberdinak; elkarrekin uztartu ezin diren helburuak dira; aurrenaren alde egiten bada, bigarrena haren mende eta haren zerbitzura geratzen da. Hala, Marxen kapitala/ lana gatazkatik abiatuta, feminismoak *kapitala/bizitza gatazka* planteatzen du. Bizitzari eusteak kapitala/bizitza gatazka gainditzea eskatzen du, hau da, kapital-metaketa- helburuaren ordez, bizitzaren zentralitatea jartzea helburutzat. Pertsonen eremu jakinean, helburutzat bizitzaren jasangarritasuna jartzeak guztiok bizitza duina eta gogobetegarria garatzeko aukera izatea esan nahi du, bizi-baldintza onak izatea, bizitza ona izatea pertsonen eta parte garen naturaren arteko harmonian, hau da, andetar tradizioan *bizitze ona* esaten zaiona izatea. Bizitze onaren eraikuntzaren oinarrian, kulturartekotasuna eta harreman partekatua eta horizontalak errespetatzen dituzten bizikidetzakomunitarioak balioak daude. Era berean, bizitze onak aurre egiten die eredu kapitalistak bizitza antolatzerakoan eragiten dituen eragin negatiboak; izan ere, besteak beste, baliabide naturalen esplotazioan, espoliazioan eta giza gorputzen eta giza gorputzak ez diren menderakuntzan oinarritzen den kontsumoa bultzatzen du hark. Horren ordez, gizakien eta natu-

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

raren artean erlazio harmoniatsu eta orekatuak proposatzen ditu. Gainera, Latinoamerikako indigenen antzinatiko filosofiak eta ezagutzak ez diote jarraitzen arrazoimen instrumental modernoaren logikari, eta ez dute horrekin loturarik ere. Sentitzea, pentsatzea, ekitea, ekoiztea, esperimentatzea, bizitzea... mundu fisikoan dago ulertuta, egunerokotasun komunitarioan esperimentatzen diren kontuetan, eta existentziaren beste munduekin erlazionatzen da, hau da, bizitza-sarea osatzen dutenekin. Pentsamendu feministaren zenbait gakoek laburbildu gisa, ikusi 1. irudia.

1. IRUDIA. EKONOMIA FEMINISTAREN ZENBAIT GAKO



Iturria: Lanketa propioa.

MENDERATZE-HARREMANAK ULERTZEKO ESPARRU ANALITIKOAK¹

■ Feminismo dekoloniala legatu kolonial patriarkal kapitalistaren aurrean

Feminista postkolonial, dekolonial eta mugetakoen ekarpenak inspiratzaileak dira gaur egungo eredu kolonial kapitalistaren haus-turaren alde egiten duten apustuan. Bizitzaren baldintza material eta sinbolikoei buruz egiten dituzten analisisen abiapuntuan kontakizun historikoei buruzko irakurketa propioak daude —diziplinarteko

1. Atal honetan, Hegoa Institutuan argitaratutako zenbait lan erabili dira erreferentziatzat (Jubeto eta Larrañaga, 2014; Larrañaga eta Jubeto, 2011).

zentzu zabal eta osoan—, bai eta beren bizipen propioekiko alde-raketa ere. Horietan, genero-harremanak arrazarekin, klasearekin, etniarekin eta sexu-orientazioarekin gurutzatzen dira, bizi dituzten menderatze-sistemen konfigurazioko beste oinarritzko ardatz batzuekin batera; askotan, sistema arrazistak izaten dira, eta oso hierarkizatuak.

Liliana Suárez Navaz eta Rosalva Aída Hernández Castillo parafraseatuz, esan daiteke *feminismo postkoloniala* menderatze-herentziak eztabaidatuko dituen espazio politiko bat sortzeko premiatik sortu dela, eta bestelako erresistentzia posibleen kartografiak irudikatu nahi dituela. Feminista haien nahia da «komunikazio-zubiak eraikitzea literatura feminista akademikoan behar adina ordezkatuta egon ez diren tradizio feministen artean, Estatu Batuetako eta Europako ekoizpen teorikoaren hegemonia egon baita literaturan. Ekarpene horiek eztabaidatu egiten dituzte ikuspegi feminista etnozentrikoak, generoaren eta arrazaren arteko artikulazioa ez baitute kontuan hartu izan, ez eta identitate kulturalen eta genero-identitateen artekoa ere, eta arrazakeriaren, inperialismoaren eta jardunbide eta ideologia patriarkalen arteko lotura estua ere ez» (Suárez eta Hernández, 2004).

Iparraldeko pentsamenduak, bai eta feminismo liberalak ere, Hegoaldeko emakumeei buruz duen ikuspegi desitxuratua nabarmentzen da haien kritiken artean. Esate baterako, Mohanty (1987) honako hau esaten du: «“Hirugarren munduko emakume” konposatu eta berezi bat ekoiztera mugatu izan da Mendebaldeko feminismoa; irudi hori modu arbitrarioan eraikita dagoela dirudi, baina, hala eta guztiz ere, Mendebaldeko diskurtso humanistaren sinadura baimentzailea darma». Era berean, Mendebaldeko mundu akademikoak «Hirugarren Munduko» emakumearen estereotipo bat sortu du, eta desberdintzen ez den «beste» da harentzat, aldi berean bere generoak eta azpigarapenak zapaltzen duena. *Establishment* akademikoaren mendebaldeko hegemonia lotuta dago mendeko emakumeen ahotsa entzutea eragozten duten praxi ekonomiko eta ideologikoekin (Spivak, 2006). *Can the subaltern speak?* galderari erantzutean, Gayatri Spivakek argitzen du ez dela posible mendean jarritako kontzientziaren ahotsa berreskuratzea —izan ere, askotan, memoriak menderakuntza erregistratzea esan nahi dute—, eta, gainera, mendean jarritako pertsonaren diskurtso propio hori ere ez dela baliozkotzat jotzen ikerketaren/ezagutzaren askotariko espazioetan.

Mendebaldeko hegemonia hori ulertzeko, Anibal Quijano (2000) aztertu bezala, kontuan izan behar dugu Amerika mundu-bokazioa zuen botere-patroi berri bateko lehen espazio/denbora gisa eraikia izan

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

zela. Modernitatearen lehen *id*-entitatea bi zutaberen gainean zabaldu zen munduan: arrazaren eraikuntza mentalaren eta kapitalismoaren ortziaren gainean (Valle, 2017). Enrique Dusselek (1993) garatutako ikuspegi teorikoaren arabera, 1492. urtea izan zen modernitatea jaino zen unea: urte hartan, bestea *aurkitu* ez, baizik eta *ezkutatu* edo *estali* egin zen, European eraikitakoaren proiektzioa eginez. Emakumeen gorputzen eta bizitzen aurkako eraso erreproduzitu egin zen Ameriketako «konkistatutako» lurraldeetan, indarkeria gordineko esperientzietatik hasi eta izaera erotikoa, pedagogikoa, kulturala eta ekonomikoa eraldaketa praktikoa koartaraino.

Hamarkadetan Europako egileek (edo metropolian hezitako Europako kolonietako ondorengoei) eta Ipar Amerikako egileek garapen-prozesuei buruz egindako analisi askok ezaugarri bat zuten: Hegoaldeko herrialdeak «azpiko izatetzat» hartzen zituztela, hau da, haien ikuspegia zen Iparraldearen «aurrerapen» eta «garapen» bide berbera egin behar zutela, pauso eta prozesu berberak egin behar zituztela. Gizarte-mugimenduek, nazioarteko garapen-erakundeek nahiz unibertsitateek ikuspegi hori duela hamarkada batzuetatik kritikatu izan duten arren, oraindik ere sentitzen da Iparraldeak garatutako ezagutza hobea dela —garai kolonialeko pentsamendu-patroiak islatuz—, eta «besteei» buruz egiten dituzten balorazioetan ere gauzatzen da hori. Horregatik, Hegoalde globaleko gero eta egile gehiagok aipatzen dute «*boterearen kolonialitate*», hau da, «konkistaz» geroztik ezarritako botere-eredu hegemoniko globala. Arraza eta egitekoak, espazioa eta jendea artikulatzen ditu hark, kapitalaren beharrak kontuan hartuta eta Europako zuriaren mesederako (Quijano, 1992). Kritika horrek kolonietan mende luzez nagusi izandako arrazakeriarekin lotzen du ekoizpen-modu kapitalista. Iraun egin du estatu independenteen barruko elite menderatzaileetan, eta gainerako geruza sozialetara zabaldu da, gizarte-ehuna blaitzen duen pentsamendu hegemonikoa izateagatik.

Halako gogoetek elikatzen dute pentsamendu postkoloniala eta dekoloniala, eta herrien konkistatzaile europarrek munduko beste kontinenteetan egindako inbasioen ostean sortutako menderatze-harremanak salatzen ditu. Konkista horietan, menderatze-harreman sozialak joan ziren eratzen, eta Anibal Quijanoren esanetan, horiek pixkanaka bide eman zioten «hierarkiei, tokiei eta rol sozialei lotutako identitateen sorrerari, haien osagarri gisa, eta, ondorioz, inposatzen zen menderatze kolonialaren patroiori. [...] Arraza eta *arraz-identitatea* herritarren oinarritzko sailkapen sozialerako tresnatzat ezarri ziren», eta konkistek inposatutako menderatze-harremani zilegitasuna emateko balio izan zuten.

Amerikaren kolonizaziotik eta gainerako kontinenteetan izandako zabalkundetik abiatuta, *ezagutzaren ikuspegi eurozentrikoa* eratu zen, eta harekin, arrazaren ideia eraiki zen europarren eta ez-europarren arteko menderatze-harreman kolonial horien naturalizazio gisa. Eraikuntza teoriko horien bidez, menderatzaileen eta menderatuen arteko nagusitasun- eta gutxiagotasun-harremanen ideia eta praktika zaharrak legitimatzeko ahalegina egin zen. Askotariko kulturen arteko giza harremanen ikuspegi hierarkizatu horrek lotura sendoa du beste menderatze-tresna zaharrago batekin: sexuen artekoarekin edo generoarekin (Quijano, 2000). Ikusmolde horretan, modernitatea eta arrazionaltasun modernoa esperientzia eta produktu europartzat bakarrik hartu ziren; Europaren (mendebaldekoa) eta munduko gainerakoen arteko subjektuarterko harremanak eta harreman kulturalak kategoría-sorta berri batean kodetu ziren: Ekialdea/Mendebaldea, primitiboa/zibilizatua, mistikoa/zientifikoa, irrazionala/arrazionala, tradizionala/moderno. «Kategoria berriak» esaten dugu menderatze-harremanetan zaharrena —patriarkala— ez baitu alde batera uzten Quijanok (2009), eta esaten du arrazaren ideiarekin eraikuntza mentala funtsezkoa izan zela munduko botere kapitalista-kolonial-eurozentrikoaren patroia osatzeko. Era berean, iruditzen zaio menderatze patriarkala asko larriagotu zela pertsonen arrazializazio hierarkikoa hasi zenetik. Horrez gain, nabarmentzen du gizon oro emakumea baino gehiago dela dioen ideologiaren konfigurazioa aldatu egin zela harreman sozialen gauzatzearekin, eta «gehiago» den arrazako emakume oro, definizioz, «gutxiago» den arrazako gizon oro baino gehiago dela boterearen kolonialitateetik (Valle, 2017).

Horri lotuta, garrantzitsua da nabarmentzea boterearen kolonialitatea ez dela indar homogeen bat, mendeko talde zapaldu eta esploratu guztiek ez dutela modu berean jasan mundu moderno osoan azken bost mendeetan (Walsh, 2007). Catherine Walshek nabarmentzen du Ekuadorko erresistentzia-talde indigenen eta afro-ekuatortarren artean, esate baterako, ezberdintasun etnikoek eta arrazialek, tokiko historia konplexuen barruan, argi eta garbi mugatzen dutela harreman soziopolitikoetan dagoen boterearen kolonialitate-patroia. Eta hori gertatzen da kolonialitatea (kolonialismo modernotik azaleratu zen botere-patroia gisa ulertuta) ez zelako mugatu kolonizatuaren eta kolonizatzailearen arteko botere-harreman formaletara (edo herrien/nazioen eta inperioen/Estatuen artekora), baizik eta botere-forma guztien artean eta forma guztien barruan ere badu eragina, bai eta munduko merkatu kapitalista garaikideak lanaren, ezagutzaren, izatearen eta autoritatearen ikusmoldeko emandako eta garatutako eta elkarren ar-

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

tean egituratutako eraikuntza sozio-politiko-ekonomiko-kulturalean ere (Maldonado-Torres, 2007).

Emakume *afroamerikar feministek*, berriz, xx. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetatik aurrera Estatu Batuen zabaltzen ari zen feminismo liberala aztertzean, *pentsamendu kolonialaren eragin arrazistei* buruzko analisi propioak egiten dituzte. Emakume horiek ez ziren identifikatuta sentitzen Ipar Amerikako emakume zuri burgesen (beren bizimoduarekin asebeteta ez zeudenen) feminismoarekin; izan ere, azken horiek, beren idatzietan, ez zituzten salatzen emakume estatubatuar beltzek jasaten zituzten askotariko zapalkuntzak, eta, aitzitik, analisi global homogenizatzailea izan nahi zuena egiten zuten, beste errealitate eta arazo batzuk bazterrean utzita. Gogoeta horiek bultzatuta, defendatzen hasi ziren genero-zapalkuntzaren barruan emakume guztiak ezin zirela berdindu, emakumeen kolektibo jakin batzuen aurkako zapalkuntza espezifikoak zeudelako, haiekin batera aztertu beharrekoak. Hala, 80ko hamarkadaren hasieran, bai Angela Davisek (2005), eta bai bell hooksek,² beste zenbait egileen artean, uko egin zieten bi ideari: arazo guztien erroa patriarkatua zela zioelako ideari eta zapalkuntza sexista errotik mozteak ezinbestean zapalkuntza mota guztien desagertzea ekarriko zuelako ideari. Bien ustez, patriarkatuari buruz hitz egiteak eta arrazakeriari buruz ez hitz egiteak esplotatzaile eta zapaltzaile gisa aritzen jarraitzeko aukera ematen die feminista zuriei. *Sexismoak, arrazakeriak eta klase-esplotazioak* elkarrekin lotutako menderatze-sistemak osatzen dituzte; arrazaren, sexuaren eta klasearen «paradigmak» zehazten du identitate femeninoaren estatusa, ez sexuak bakarrik.

Afroamerikarrekin batera beste jatorri etniko batzuetako emakumeak daude, mestizoak, txikanak eta latinoak, oro har, eta haientzat ere presazkoa da «mugetatiko eta mugek zeharkatutako feminismoak» egitea, zuriak, burgesak, heterosexuak eta hirikoak ez diren emakumeek aurre egin beharreko menderakuntza-harremanen osagai diren intersekzio konplexuengatik. *Mugetako feminismo* horiek, genero-harremanekin batera, klase-harremanak, arrazakeria, lesbofobia, kolonizazioaren eraginak, deskolonizazioa, nazioz haraindiko migrazioak eta beste hainbat gai ere aztertzen dituzte.

Maria Lugonesek gogoratzen du modernitatean hasitako eraldaketa zibilizatorioak memoriaren kolonizazioa eragin zuela, eta ondorioz, pertsonak beren buruari buruz zuten ideiaarena; subjektuarterko harrema-

2. Gloria Watkinsek izengoiti hori erabili zuen eta *Aint I a Woman?* idatzi zuen 1983an, Sejourney Truth abolizionistak 1851n Ohion emandako diskurtso batean inspiratuta.

narena; mundu espiritualarekiko harremanarena; lurrarekiko harremanarena; errealtatearen ikusmoldearena; eta erakunde sozial, ekologiko eta kosmologikoena. Hala, generoa dekolonizatzeak zapalkuntza *versus* erresistentzia harreman historikoa ulertzea esan nahi du, bai eta jakitearen eta izatearen arrazializazioaren aurkako jardunbideak, kolonialismoak, heterosexualitatea, patriarkatua eta kapitalismoa ulertzea ere, esperientzia soziala eraldatzeko helburuarekin (Lugones, 2014). Lugonesek esaten du genero-kolonialitateari ezin zaiola bakarrik aurre egin, baizik eta barrutik egin behar zaiola aurre, munduko bizitzeko modu partekatua ulertuz, eta, hala, berriz ere kide izateko aukera emateko.

Korronte feminista horietako egile askoren zeregin deskolonizatzaileak ez du Mendebaldean ekoiztako ezagutza bakarrik hartzen, «baizik eta baita haietako batzuk kide diren mugimendu politikoaren barrua ere, horiek ere kolonizatzailearen irudikapenak eta bazterketak erreproduzitzeko joera izan baitute» (Suárez eta Hernández, 2004). Beraz, *barne-kolonizazioa* salatzen dute, hau da, kultura batek beste batekiko duen nagusitasuna; arrazionaltasun batek, instituzionalitate batek, eta oro har sistema sozial batek beste arrazionaltasun batzuen gainean eta bizitza soziala erreproduzitzeko beste sistemen gainean duen gailentasuna.

Agenda feministan diskurtso hertsia batzuk zabaldu beharra sartzea izan zen «koloreko emakumeen feminismoaren» lorpenetako bat: «bereizkuntza-ardatz batzuek —klaseak eta generoak, esate baterako— gaine-rako bereizkuntza-ardatzekin alderatuta zuten lehentasunari buruzko diskurtsoak», hain zuzen (Quiroz, 2011). Alde horretatik, muga-identitateei buruzko beren gogoetekinek, kolonialismoari buruzko pentsamoldea aldatzeko proposamenak (ez dadin hartu etapa historikotzat, baizik eta ezagutza mota ezberdinen arteko botere-harremantzat) eta gure feminismoak dibertsitatearen aitortzatik abiatuta berriz planteatzeko deiak (kontuan hartuz ezberdintasun batzuk emakumeek emakumeen aurrean izandako menderatze-harremanen emaitza izan direla eta direla oraindik), feminismoa aberastu dute, baina ez hori bakarrik, analisi sozialak eta gizarte-eraldaketarako aukerak ere aberastu dituzte. Arraza-, sexu- eta gizarte-ezberdintasunak esparru politikoaren eta ideologikoaren barruan kontzeptualizatu behar dira, ez kontzientzia indibidualarenean bakarrik.

■ Feminismo komunitario/indigenaren irakaspenak

Mendebaldean ere asko dugu ikasteko munduko jatorrizko herrien eta Hego ez-inperialetako herrien feminismoek emandako irakaspenetatik. Hego ez-inperialetako herriak esaten zaie aldi berean beste Ipar

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

eta Hego batzuekin batera existitzen direnei, non kolonialitateak eta kolonialismoak iraun egiten duten, baina ez diren guztia. Hala, berdin dio zer izen erabiltzen den munduko hegoetan emakume asko eta askoren borrokak eta erresistentzia-praktikak izendatzeko (feminismo popularra, feminismo indigena nahiz feminismo komunitarioa): zapalkuntza mota guztiek aurrera egitea saihesteko erresistentzia egiten duten gorputzak dira guztiak, eta ezinbestean kolonialismoaren eta kapitalismoaren aurkakoak dira. Beraz, beren gorputzetatik hitz egiten dute erresistentziei eta borrokei buruz, handik aritzen dira, beren bizitza-historietatik; plura-lean hitz egiten dute, bai eta ondo kokatuta ere, barruan hartzen dutelako emakumeen, trabestien, indigenen, transen, pobreen, nekazarien, mestizoen eta abarren aurkako zapalkuntza-egitura osatzen duen katramila.

Emakume indigena askok beren izate femeninotik aztertzen dituzte arrazakeriaren, lan-esplotazioaren, bazterketaren eta jasaten duten indarkeriaren historikotasuna, beren herrien unibertso sinbolikoari aurre egiten ausartu gabe. Izan ere, gertaera traumatikoei eta etengabeko indarkeriei aurre egin behar izan diete bizitzan: erasotako etxeak; legez kanpo atxilotutako senideak; soldadu-taldeek eta paramilitarrek bortxatutako emakumeak; herritarrek aukeratuta kargu politikoak onartzen dituzten emakumeei agintari tradizionalak egindako erasoak; basoak botatzen dituztenek ekologista komunitarioei egindako mehatxuak; lurren inbasioak; lesbianen aurkako lintxamenduak; eskoletako, ospitaleetako eta espetxeetako diskriminazioak; eta abar. Emakumeen giza eskubideen aldeko aktibista diren feminista indigenei askotan ez zaie denborarik geratzen beren kulturaren emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna zeinen egiturazkoa den hausnartzeko.

Alabaina, badira hainbat herritan gogoeta garrantzitsuak egin izan dituzte feministak ere: nagusitasun maskulinoa nondik pentsatzen den eta horren bidez emakumeak botere politikotik eta ekonomikotik nola baztertzen diren hausnartu dute. «Zenbait “barrutara” itzularazten dira emakumeak, funtzio sozial gisa esleitu izan zaiena betetzera: etxe barrura, etxeko langile izateko eta ahaidetasunaren sare afektiboak sostengatzeko; eta komunitate barrura, non kulturaren defendatzaile izateko rola esleitzen zaien, eta, beraz, kanpoko munduarekin harremana izatea ukatzen zaien» (Gargallo, 2016).

«Eta testuinguru horretan taxutzen dira eta elkarri lagun egiten diote askotariko feminismoek bazterretatik, eta izen ezberdinak badi-tuzte ere, gorputz kolektibo aktibo baten barruan elkar aurkitzen dute, beren lurraldeen aurkako aurrerakadari aurre egiteko» (Parodi eta Canteros, 2016). Hori gertatzen da, esate baterako, Guatemalako eta Boli-

viako feminismo komunitarioetan. Sustatutako feminismoa ez zen teoriatik abiatu han, baizik eta sumindutako gorputzek egunerokotasunean jasandako biolentzietatik eta bazterketatik. Eta feminismoa emakume indigenen autonomia aldarrikatzeko modu bat bihurtu da arbasoen jatorrizko patriarkatuaren aurrean, hau da, beren komunitateetan azpiratzen dituen zapalkuntza-sistemaren aurrean. Emakume horiek «gorputzaren lurraldea» nahiz «lurraren lurraldea» defendatzeko borroka egiten dute. Ez dute ulertzen beren lurren harrapaketaen aurka beren herriek egiten duten borroka bereizita egotea haietan hain ugaria den biolentzia matxistaren aurkako borrokatik (Cabnal, 2016).

K'che' herrien kasuan, herriek berek erabakitako baldintzetan bizitzeko duten eskubidea defendatzen duten erakundeek beren borrokaren bidez erakusten digute zein gogorra den herri indigenen erresistentzia baliabide naturalen suntsiketaren aurrean. Kosmologia maiak naturarekin eta izaki guztiek bizitza duina izateko duten eskubidearekin lotzen du bizitza. Guatemalako indigenek emakumeen eskubideen defentsarekin lotuz eguneratu egin duten ikuspegi bat da. Gure planetako toki askotan gertatzen ari den bezala, mehatze- eta hidroelektrika-enpresa transnationalei ez ezik, «komunitate indigenek beren lurraldeen beste militarizazio bati, eta beren eskubideak eta kultura suntsitzen dituen garapen ekonomikorako estrategia bati egin behar diete aurre. Emakumeen partaidetza eta lidergoa funtsezkoak dira mugimenduaren erresistentziarako» (ACSUR, 2014).

Lorena Cabnalen esanetan, feminismo komunitarioa «pentsamendu ideologiko feminista eta kosmogonikoaren birsorkuntza eta sorkuntza bat da, emakume indigenen bizitza historikoko eta eguneroko bizitzako errealitateak berriz interpretatzeko sortu dena, mundu indigenaren barruan». Emakume indigenek (batik bat Boliviako aimarek eta Guatemalako xinkek) pentsatutakotik eta sentitutakotik egindako proposamena da, «munduko hainbat txokotan eraikitako feminismoen aniztasunari ekarpen bat egiteko, emakumeen erresistentziaren, hausturaren eta continuum epistemologikoaren parte izateko espazioetan eta denborazkotasunetan, arbasoen jatorrizko patriarkatua eta mendealdekoa ezeztatzeko» (Cabnal, 2016).

Emakume indigenek *bizitzaren sarearen* partetzat dute beren burua, eta horrek bizitzaren ehunarekin du lotura. Sare horrek espezieen barruko harremanak hartzen ditu kontuan, espezieen eta bizi diren hainbat espazioren artekoak, eta planeta osatzen duten eta unibertsoarekin elkarreragina duten elementuen eta energiaren artekoak. Uste dute naturak erakusten duela ezin dela bizitzaren marrazki lineal bat egin,

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

eta analisiak dimentsio bakarrekoak izango direla, gizartetik eta naturatik bereizten badira (AC SUR, 2014). Emakumeen bizitzaren erreproduktzio-lana sozializatzekeo estrategiak egiten dituen feminismo indigenak ez luke existitzeko aukerarik izango, komunitatea desagertuko balitz eta irauteko sistema indibidualista eta soldatapeko bat eta familia nuklearra inposatuko balira.

■ Ekarpen ekofeministak

Ingurumenaren degradazioari lotutako arazoak hasieran naturaren zikloekin lotura zuzenean bizi diren komunitateen kezka izan ziren arren, feminismo komunitarioaren eta indigenaren gogoetetan eta praktiketan ikusi dugun bezala, sentsibilizazio hori handitzen joan da industrializazio-prozesuetan erabilitako produktu askoren eragin kaltegarriak hauteman ahala, hiri-eremuan nahiz landa-eremuan. Ondorio kaltegarri horien lehen analistetako bat Rachel Carson izan zen, *Primavera silenciosa* lanarekin (orig. 1962; 2005).

Gaur egun, ikusten dugu nazioarteko erakundeek eta munduko gobernu askok eta askok ez dutela ezer egiten gure planetaren krisi ekologikoaren areagotzeari aurre egiteko, ez baitira gai izan lehentasun ekonomikoaren eta ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-patroien norabide-aldaketa bat aktibatzekeo. Kezka eragiten du gaiak maila globalean; hala, kontzientziak pizten ari dira, eta mobilizazio sozialak handitzen, batik bat belaunaldi gazteetan.³ Era berean, egoera horren ondorioz, proposamen feministen eta ekologisten arteko hurbilketa bat ari da sustatzen.

Ekofeminismoa, nagusi den sistema ekonomikoa kritikatzan duen mugimendu sozial gisa, XX. mendeko 70eko hamarkadaren erdialdera sortu zen, 60ko hamarkadan berragertutako olatu feministaren eta garai hartako mugimendu ekologistaren barruan. Mary Mellorrek (2000) honela azaltzen du ekofeminismoa: «mundu naturalaren esplotazioaren eta degradazioaren eta emakumeen menderakuntzaren eta zapalkuntzaren arteko lotura bilatzen duen mugimendu bat da». Hala izanik, mugimendu ekologistako eta feministako elementuak hartu ditu, eta erronka bat bihurtu da bientzat. Vandana Shivarentzat *ekofeminismoa filosofia eta praktika feminista bat da* uste honetatik sortua: «Emakumeen menderakuntzaren, “atzerriko herrien” nahiz haien lurren, eta

3. Lerro hauek idazteko unean, klima-aldaketaren aurkako ekintza falta salatzeko Ipar globalean gazteek egindako protestek dimentsio luzeagoa hartu dute. Fridays for Future izeneko mugimenduak berotze globala geldiarazteko neurri eraginkorrak har ditzatela eskatzen die klase politikoei.

naturaren kolonizazioaren bidez eratu zela sistema, eratu izan dela eta mantentzen dela». Emakumeen menderakuntza eta naturaren esplotazioa txanpon beraren bi aurpegi direla uste du: bizitza etekin ekonomiakoaren lehentasunaren mende jartzearena.

Hala, natura deitzea adostu den horren eta beren burua emakumetzat hartzen duten eta erakusten duten horien esplotazioa ulertzea eta elkarrekiko dituzten artikulazioak eta simetriak nabarmentzea nahi dute egile ekofeministek. Mundu naturala, gizateria barne, elkarrekin lotuta eta elkarren mendeko ikusteko joera dute, eta krisi ekologikoari buruzko beren analisisetan genero-desberdintasunak duen rola txertatzen dute, gizonak eta emakumeek harreman ezberdina izan ohi dutelako mundu naturalarekin.

Gaur egun, ekofeminismoa askotarikoa da, munduko errealitatei buruzko askotariko ikuspegiak dituzten ahots kritikoak eta askotarikoak biltzen ditu. Alabaina, askotariko ikuspegi teoriko horiek bat datoz gauza batean: giza bizitza eta gizakiena ez den bizitza partekatzeko premia dagoela planetan. Ekofeministek defendatzen dute bizitzaren zatiezintasuna eta interdependentzia patriarkatuaren aurkako borroka politikoari lotuta dagoela, bai eta justizia kognitiboa eta etika sozioekonomikoa eta politikoa ere. Garrantzitsua da nabarmentzea ekofeministek jatorritzat hartzen dutela lurra, hau da, uste dutela han daudela finkatuta existentziaren bizi-baldintzak, ez dela paisaiara eta merkataritza-transakzioetarako baliabide bat izatera mugatzen.

Askotariko ekofeminismoek nagusi den izaera androzentrikoa eta antropozentrikoa ikusten dute arrazionalismo instrumentalean. Sexismo epistemikoak ezarritako kultura bakarraren pentsaera lurrera zabaldu zen, eta naturaren kategoriara murriztu zuen hura, hau da, kanpoko zerbait balitz bezala hartu zuen, arlo sozialetik eta giza komunitateetatik bereizita (Shiva, 2013). Eraikitako funtsezko desberdintasun horrek mundua bereiztea eragin du (Santos, 2018): alde batetik, espazio metropolitarra, esplotatzailea eta menderatzailea; bestetik, ingurune koloniala, menderatua eta bipildu nahiz suntsitu daitekeena. Emakumeei ere bigarren sexuaren estatusa esleitu zitzairen: pasiboak, gizonen eskura zeudenak, gauza guztien neurri gisa pentsatuak. Kolonialismo modernoaren oinarrian dagoen patriarkatu kapitalistak arrazionaltasun bat asmatu zuen, eta harentzat natura ere baliabide bat da, aberastasuna metatzeko ustia daitekeen baliabide bat, alegia.

Gaur egun, gero eta bortitzagoak diren eskala handiko menderatze-zikloek eta erauzketa-esplotazioek markatzen dute munduaren espe-rientzia (Svampa, 2019). Errealitate horrek bizitzaren eta ekonomiaren,

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

lanaren eta bizitzeko moduen eta emakumeen eta gizonen artean sortutako amildegiak handitu egiten ditu. Ekonomia korporatibo transnazionalak, mugarik gabeko hazkundearen eta kosta ahala kosta kapitala metatzearen ideian oinarrituta sortu zenak, planetaren eta herrien aurka etengabeko gerran zegoen ekonomia bihurtu zuen kultura modernoa. Horregatik guztiagatik, Vandana Shivaren (2013) esanetan, etengabeko eko-apartheidan bizi gara. XXI. mendean aurrera eginda, eredu hori beste dimentsio batzuetara ere iritsi da, historikoki erauzketa-jarduerak izan direnek honako hauek ere txertatzen dituztelako jada: «Aire zabal-leko meategi erraldoiak; petrolio- eta energia-mugaren zabalpena; zentral hidroelektriko handien eraikuntza eta azpiegitura-obrak» (Svampa, 2019). Horrez gain, ugaritu egin dira honako hauek ere: «Monolaborantzaren eta ekoizpen bakarraren askotariko formak, orokortu egin direlako nekazaritzako negozio-eredua, arrantzaren gehiegizko ustiapena eta baso-monolaborantza». Hau da, neoerauzketa garaikidea ondasun naturalen gehiegizko ustiapenean oinarritzen da (eta ondasun horietako asko ez dira berriztagarriak), bai eta lurraldearen/itsasaldearen hedapen nahian ere, espazio horietan dauden behar adina gorputz, kultura, identitate eta bizitzeko moduen kontura.

Oro har, Hego ez-inperialeko ekofeministek eztabaidatu izan dute gehien Ipar inperialek esportatutako garapen txarrari buruz, eredu horrek milioika emakumeren egunerokotasunean dituen ondorio zuzenengatik. Shivak, esate baterako, uste du bere ekofeminismoa honetan oinarritzen dela: «Hegoaldeko landa-eremuetako emakume pobreentzat mundu naturalarekiko beren loturak beren eguneroko bizitzako errealitatean daudela behatzean: borroka oro borroka ekologikoa da», izan ere, emakume horiek ingurumena adina ari dira jasaten prozesu desarrollisten kostuak. Gainera, arazo ekologikoak larritu izanarekin kezkatuta dauden emakumeek prozesu horien, arrazakeriaren eta emakumeen ordezkaritzarik ezaren artean dauden gurutzaketak ere eztabaidatzen eta kontuan hartzen dituzte.

Ekofeministen artean ezberdintasunak badauden arren,⁴ bat datoz feminismo-mota honi kritika egitean: *sistema kapitalistaren barruan hazkun-*

4. Ekofeminismoaren lehen hamarkadetan, jarrera batzuk zalantzan jarri ziren, unibertsalismo esentzialera jotzeko joera zutelako; izan ere, emakumeak direnez bizitza ematen dutenak, defendatzen zuten harreman berezi bat zutela haiek –eta haiek bakarrik– mundu naturalarekin. Horrek arbuioa eta emakumeak nahiz natura esentzializatzeko beldurra eragin ditu. Baina erresistentzia horiek ez dituzte kontuan hartu ekofeminismoaren barruan dauden askotariko korronteak eta ikuspegiak.

de ekonomikoaren eta emakumeen «garapenaren» bidez berdintasuna eskatzen duen feminismoari kritika, izan ere, hori ez da posible ikuspegi ekologistatik. Era berean, ekofeministek partekatzen duten beste ideia bat da gizateria parte den mundu naturalak dinamika propioa duela, «eraikitakotik» eta giza kontrolatik haratago.

Sistema ekonomiko kapitalistari egiten dizkioten kritiken artean, Hegoaldean egindako aldarrikapenak nabarmentzen dira. Batik bat ur garbia, elikagai osasungarriak eta zuhaitz eta basoak eskuragarriak izatea eskatu dute, bai eta beste ondasun komun batzuk ere, haien pribatizazioa, eta batzuetan suntsiketa, pobrezia-prozesuak eta gaixotasunak azkartzen ari baitzen komunitate osoetan. Horri lotuta, badu zentzua Hego ez-inperial bat aipatzea, beste ipar eta hego batzuekin batera eta aldi berean existitzen dena, non kolonialitateak eta kolonialismoak irauten duten, baina ez diren guztia (Cunha, 2015). Iparrari buruzko iruditeria kartografikoan, borroka ekofeministek beste auzi batzuei ere heldu diete: produktu eta hondakin industrial toxikoei osasunean eta bizitzan dituzten ondorioei (pestizida agrokimikoak, hondakin nuklearrak, industria militarra...), bai eta energia-iturriei eta ondasun komunen pribatizazioari ere.

Hala, askotariko pentsamendu eta defentsa ekofeministek ez dute ahazten gizon-emakumeok garatu ditugun harremanek eragina izan dutela planetako gainerako izakiekin ditugun harremanetan. Oraindik, ageriko pentsamendu hegemonikotik haratago, jardunbide ekofeministek berekin dakarte pedagogia bat, baieztatzen duena munduan dauden esperientziek askogatik gaingiditzen dutela munduko esperientzia patriarkal-kapitalista-koloniala (Cunha, 2011). Gure mundua konplexua eta askotarikoa da, eta bizitzaren interdependentzia askoz haratago doa gaur egun nagusi den arrazionaltasun patriarkal-kapitalista-kolonialak formateatutako harreman sozial, politiko eta ekonomikoetatik. Horregatik, beharrezkoa da testuinguru geografiko bakoitzean errealitate sozial eta ekonomikoaren analisi kokatuak egitea, kontuan hartuz bai taldeetako emakumeen eta gizonen subjektibitateen askotariko alderdien interseksioak eta bai haien barruan dauden botere-harremanak. Elementu horiek guztiak oso garrantzitsuak dira, batetik, ingurunean nola kokatzen diren jakiteko, eta bestetik, haien ahotsak eta eskaerak kontuan hartzeko, eta jakiteko zer aukera dauden gaur egun aurrean ditugun arazo ekologiko larriak eraldatzea lortzeko. Horregatik guztiagatik, ia ezagutza guztiak bezala, begirada ekofeministak ere askotarikoak eta kokatuak dira (ikus 2. irudia).

2. IRUDIA. EKOFEMINISMOAREN GAKOAK



Iturria: Lanketa propioa.

■ Gaitasunen ikuspegia eta bizitzaren jasangarritasuna

Gaitasunen ikuspegiak uste du pertsonak izan behar dutela garapenaren helburua, hau da, pertsonak ez dutela bitarteko huts izan behar; eta pertsonak balioetsua iruditzen zaien bizitza gauzatzeko dituzten aukerak handitzeko prozesutzat hartzen du garapena. «Giza garapena» deitutako kontzeptu hori asko zabaldu da azken urteotan, batik bat Mahbub ul Haqek, Amartya Senek eta Martha Nussbaumek formulatu zutenetik.

Ikuspegi hori bizi-kalitatearen ebaluaketara eta oinarrizko justizia sozialari buruzko teorizaziora egindako hurbilpen gisa uler daiteke. Gaitasunak galdera honi emandako erantzuna baino ez dira: «zer egiteko eta izateko gai da pertsona?» Beste era batera esanda, Senek «funtsezko askatasunak» deitzen diena dira gaitasunak, aukeratzeko eta jarduteko aukera (normalean erlazionatuen) sorta bat (Nussbaum, 2012), eta lotura estua du eskubideen ikuspegiarekin, zeinak adierazten baituen pertsonak beren bizitzari buruz zer esparrutan duten erabakitze eskubidea.

Aukera gehiago egoteko, giza gaitasunak garatzea da funtsezkoa, hau da, pertsonak beren bizitza berentzat sakonekoa eta garrantzitsua zer den kontuan hartuta antolatze duten gaitasuna sustatzea (Nussbaum, 2012). Oro har, eta laburbilduz, giza garapenerako funtsezkoenak diren gaitasuntzat honako hauek hartzen dira: bizitza luzea eta osasuntsua izatea, kalitate oneko hezkuntza izateko aukera izatea, bizi-maila duina

izateko baliabideak izatea eta komunitateko bizitzan parte hartzeko aukera izatea. Alabaina, giza garapena askoz haratagoa doa, eta pertsonen bizi-kalitatean funtsezkoak diren beste aukera-sorta batzuk ere biltzen dituzte, besteak beste honako hauek: giza eskubideen bermea, giza segurtasuna eta bizitzaren eta planetaren zaintza; guztiak dira beharrezkoak pertsona bat sortzailea izan dadin, produktiboa izan dadin, bere buruarikiko errespetua izan dezan, bere barne-potentziala gara dezan eta komunitate bateko kide izatearen sentipena izan dezan. Nussbaumek oinarritzko hamar gaitasun unibertsalen zerrenda bat egin zuen, kapitulu honetan planteatutako gaiekin zuzenean lotuak (ikus 1. koadroa). Gaitasun horiek ezin dira elkarrengandik bereizita ulertu, agerikoa baita lotura estua dutela.

1. KOADROA. MARTHA NUSSBAUMEN GAITASUN NAGUSIAK

1. **Bizitza.** Iraupen normaleko giza bizitza bat bizitzeko gai izatea amaierara arte, behar baino lehen hil gabe edo bizitza bitztea merezi ez duen zerbait bihurtu aurretik hil gabe.
2. **Gorputz-osasuna.** Gai izatea osasun ona izateko, ugalketa-osasuna barne, bai eta behar bezala elikatuta egoteko eta etxebizitza egoki bat edukitzeko gai izatea ere.
3. **Integritate fisikoa.** Leku batetik bestera askatasunez eta modu seguruan mugitzeko gai izatea.
4. **Zentzumenak, irudimena eta pentsamendua.** Zentzumenak erabiltzeko, imajinatzeko, pentsatzeko eta arrazoitzeko gai izatea, bai eta gauza horiek benetan modu humanoan egiteko gai izatea ere, hau da, eta hezkuntza egoki baten bidez informazioa izanda eta landuta.
5. **Emoziokoak.** Geureak ez diren gauzekin eta pertsonekin lotura afektiboak izateko gai izatea.
6. **Arrazoimen praktikoa.** Ongiari buruzko kontzeptu bat osatzeko eta bizitzaren plangintzari buruzko gogoeta kritiko bati ekiteko gai izatea.
7. **Afiliazioa.** Beste pertsona batzuekin bizitzeko eta haien aldeko ahalegina egiteko gai izatea, eta izaki duin gisa tratatuak izateko gai izatea, guztiak gainerako balio berbera dutela kontuan hartuta.
8. **Beste espezieak.** Animalien, landareen eta naturaren munduarekin interesa eta lotura izanez bizitzeko gai izatea.

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

9. **Jolasa.** Barre egiteko, jolasteko eta aisialdiko jardueraz gozatzeko gai izatea.
10. **Ingurunearen gaineko kontrola (politikoa eta materiala).** Erabaki politikoetan eraginkortasunez parte hartzeko gai izatea, jabetzak izateko gai izatea.

Iturria: Nussbaum (2012).

Pertsonek beren patua lantzeko duten trebetasunari buruzko jakinmina, Amartya Senek pertsonen «*agentzia*» esaten diona, funtsezkoa da gaitasunen ikuspegian, eta lotura estua du askatasunarekin. Genero-analisia ere funtsezkoa da gaitasunen ikuspegian, bi arrazoiengatik. Alde batetik, genero-harremanek izugarritzko garrantzi intrintsekoa dutelako, eremu askotan eta mundu osoan emakumeek jasaten dituzten desberdintasunek desoreka handia eragiten dutelako justiziaren eremuan. Gainera, garapen-arazo bat ere eragiten du horrek, emakumeei aukerak ukatzeak herrialde askoren aurrerapena geldiarazten baitu. Bigarrenik, arazo horiek «proba teoriko erabakigarriak» direlako, oso ondo erakusten baitute garapenaren arloko ohiko ikuspegiak desegokiak direla eta gaitasunen ikuspegiak askoz hobeto funtzionatzen duela (Nussbaum, 2012). Ekonomia feministak nabarmentzen duenez, zaintzeko eta zainduak izateko pertsonak duten eskubidea gauzatzeko, gaitasun guztiak dira garrantzitsuak, eta ez bakarrik merkataritza-esparrutik kanpoko zaintzakoak; hau da, zaintza zentzu zabalean hartzen du (ordainduak eta ez ordainduak, zuzenak eta instrumentalak, eta abar).

Atal honetan aurrez laburbildutako esparru analitikoak gaitasunen ikuspegian txerta daitezke. Adibidez, ekologikoki arriskuan dagoen mundu batean beren eraldaketarako gaitasuna zabaltzeko ekarpenak egiten dituzte gogoeta ekofeministek. Ikaskuntza horiek garrantzi handikoak izan daitezke gaitasunen ikuspegian sakontzeko; izan ere, emakume asko ari dira beren ahotsak altxatzen munduan, askotariko formak hartzen dituen desarrollismoak sustatuta beren habitataren eta bizitzeko moduen suntsiketa eragiten duten prozesuen aurka (neoerauzketak, basoen, lurren, uraren pribatizazioa...). Testuinguru horretan, kontuan izan behar dugu *garapen* hitza kontu handiz hartu behar dela, oso joera handia baitago garapen txarrarekin eta mundu naturala suntsitzen eta gizon-emakumeak esplotatzen dituen desarrollismoarekin identifikatzeko, eta haiek jasaten baitituzte gero eta indar handiagoz eztabaidatzen den menderatze-sistema kapitalista, patriarkal eta kolonial horren ondorioak.

Gaitasunen ikuspegiak ez ditu bizitzaren ezinbesteko osagai materialak bakarrik kontuan hartzen, immaterialak ere hartzen ditu, horietan arlo emozionalak eta gainerako izaki bizidunekiko loturak, gizakiekiko eta gizaki ez direnekiko loturak aukera ematen baitigute proposamen baliotsuekin lotura egiteko: ekofeminismoen eta jatorrizko herrien herri-feminismo komunitarioen proposamenekin, analisisen eta konponbideen erdigunean jartzen baitute bizitza-sarearen jasangarritasuna.

Instituzio edo erakunde mailako *gaitasun kolektibo*ei dagokienez, garrantzitsua iruditzen zaigu nabarmentzea «instantzia kolektiboak», edozein motatakoak izanda ere, ez direla instantzia bizidunak, ez dutela bizitza propiorik kide diren pertsonengandik bereizita, baizik eta pertsonak osatzen dituztela. Alde horretatik, lehenik eta behin, garrantzitsua da berrikustea, besteak beste, etnia, klase, dibertsitate funtzional eta sexu-aukera bakoitzeko gizon-emakumeek nolako rola duten erakundee-tan, eta batik bat erabakiak hartu behar direnean. Bigarrenik, aldaketaren aldeko apustuari lotuta, eta zehazki garapen-ereduaren aldaketari lotuta, genero-ikuspegiak zehar-lerroa izan behar luke beti. Noski, gogoeta interesgarriagoa izango da tokiko giza garapenerako oinarritzaileak diren instantzia kolektiboak eta erakundeak identifikatuz gero. Gure ustez, gizarte-mugimenduak izan daitezke horietako bat, eta, kasu horretan, genero-ikuspegiatik aztertu behar lirateke, eta mugimendu feministen eta erakunde mistoen eta emakume-erakundeen eraldaketarako proposamenak ikusi behar lirateke. Gainera, zapalkuntza-harremanak gainditzeko eta ekonomia sozial eta solidarioko praktikak garatzeko joera duten egitura ekonomikoak aztertzeak ere laguntzen du aztertutako errealitateak eta haien eraldaketarako ahalmena modu sakonagoan aztertzen.

EMAKUMEEN AURKAKO BIOLENTZIEN ASKOTARIKO DIMENTSIOAK

Gaitasunen ikuspegiari, politika publikoek pertsonen eta kolektibitateen bizi-kalitatean duten rola azpimarratzen da. Gainera, pertsonen gaitasunen garapena ziurtatzen laguntzen duten politikek denboran irautearen garrantzia balioesten da. Alde horretatik, garrantzitsuak dira Jonathan Wolffen eta Avner De-Shaliten ekarpenak, izan ere, *gaitasunaren segurtasuna* kontzeptua txertatu dute. Esaten dute politika publikoek ez dutela mugatu behar pertsonen gaitasun bat ematera, baizik eta etorkizunean ere gaitasun hori edukitzeko modua ere eman behar dietela. Segurta-

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

sunaren ikuspegi horrek galdera bat sortzen du: gaitasun bakoitza zenbateraino dago babestuta merkatuaren edo interes politikoen apeta eta gorabeheretatik? Era berean, segurtasun hori bermatzeko antolaketa politiko, administratibo eta bestelako antolaketa egokienei buruzko go-goeta ere eragiten du (Nussbaum, 2012).

Wolffek eta De-Shalitek «funtzionamendu emankorra» eta «desabantaila korrosiboa» kontzeptuak ere txertatzen dituzte. Atxikitako beste gaitasun batzuk ere ahalbidetzen dituena da *funtzionamendu emankorra*. Testuinguru askotan, hezkuntza izan daiteke adibide bat, aukera asko zabaltzen dizkielako pertsoneri. *Desabantaila korrosiboa*, berriz, «funtzionamendu emankorra» deitutakoaren aurkakoa da, hau da, bizitzaren beste arlo batzuetan eragin handia duten gabeziak. Emakume askorentzat biolentzia desabantaila korrosibo bat da, zalantzarik gabe. Balizko gaitasun/funtzionamendu emankorrak eta desabantaila korrosiboak ikertzea garrantzitsua izan daiteke, modu egokiagoan detektatzeko politika publikoek zein puntutan esku hartu behar duten (Nussbaum, 2012).

Emakumeen aurkako biolentziak diskriminazioaren eta gizonen eta emakumeen arteko botere-harreman desberdinen muturreko adierazpena dira. Biolentziak, eta biolentziarako mehatxuak, emakumeen bizitzako espazio ia guztietan gertatzen dira: kalean, lantokian, eskolan, festarako eta aisialdirako guneeetan, komunikabideetan, komunitatean, sare sozialetan eta etxeko espazio intimoan. Hainbat kulturatan oso txertatuta daude, eta tolerantzia sozialaren eta instituzioen konplizitatearen eraginez erreproduzitzen dira. Emakumeen aurkako biolentziak —duten hedapen, ezaugarri eta izaeraren ondorioz— gutxitu egiten dituzte emakumeek gainerako gaitasunak gauzatzeko dituzten aukerak.

Biolentzia horiek *askotariko dimentsioak* dituzte, eta analisi labur honetan emakumeen salerosketaren arazoa ere aipatu nahi dugu, nahiko ezkutu dagoen errealitatea baita, baina pobretutako hainbat eta hainbat emakumeren bizitzak suntsitzen baititu. Agerian ari da geratzen arazo horiei aurre egitea benetan zaila dela, gaur egungo botere-sistemeekin lotuta daudelako, eta lurralde askotan elite politiko eta ekonomikoek babestu egin ditzaketelako biktimgileak. Biolentzia horiek gorputzak zeharkatzen dituzte, batik bat emakumeenak, gerra irekiko garaietan nahiz ustezko bake-garaietan, eta heriotza- eta beldur-arrastoak nahiz trauma kolektiboak uzten joaten dira gizarte guztietan, baina modu ankeragoan pobretutakoetan eta esplotatutakoetan.

Emakumeen aurkako biolentzia-adierazpenak modu krudelagoan agertzen dira *gatazka armatuko garaietan*; izan ere, haietan, bortxaketak gerra-arma bihurtzen dira, emakumeen gorputzak herri baten iraupe-

naren sinbolo baitira, eta haien aurkako indarkeria erabiltzeak arriskuan jartzen baitu herria, eta, gainera, menderatze-boterearen adierazpen gorena dira. Hala, besteak beste Kolonbiako, Guatemalako eta Kongoko Errepublikak Demokratikoko gatazketan, hala esperientziak nola horiek gainditzeko estrategiak gaur egun ari dira aztertzen, eta azterketa horiek agerian ari dira uzten nolako zigorgabetasunarekin egiten diren eta nolako ondorioak dituzten.

Gainera, gatazka armatuko egoera askotan, emakumeen aurkako indarkeria ez da amaitzen bake-akordioak sinatzen direnean, jarraitu egiten baitu. Emakume askorentzat, binomioa ez da gerra edo bakea, baizik eta indarkeria edo bakea da.

Adibidetzat Kolonbiako gatazka armatua hartuz gero, ikusten da emakumeen aurkako *biolentzien continuumak* forma espezifikoak hartzen dituela, eta han elkarren aurka dauden interesekin zerikusia dutela forma horiek. Gatazka horretan, interes ekonomikoak, sozialak eta politikoak lurrari lotuta daude, eta lurraldearen gaineko kontrolaren bidez jokutzen dira: enpresa transnazional handien interesen araberrako erazketa-jarduerak eta esportaziora bideratutako eskala handiko laborantza; jarduera horiek errazteko azpiegituren eraikuntza; lurraldearen okupazioa Estatuaren eta gerrilla-indar matxinatuen arteko borrokan.

Hori guztia, oinarrian lurraren eta aberastasunaren banaketan desberdintasun soziala egonik. Kolonbiako lurraldeko gatazka ia guztietan, biztanleak lurretik bereiztea da gakoa. Hala egiaztatu dute biolentzia basati baten biktima izan diren emakume nekazari, indigena eta afrikar jatorrikoen lekukotzek, behartuta lekualdatu eta beren familiengandik aldendu behar izan baitute. Biztanleak lekuz aldatzera bultzatzeaz gain, haiek berriz itzultzeko eta komunitateak berriz eraikitzeko aukerak ere kendu nahi ditu biolentziak. Biolentzia horren helburua da biztanleek beren ingurunearekin dituzten sustraiak suntsitzea eta bidea aske uztea baliabide naturalak ustiatzeko, etekin handiak ematen baititu.

Gizarte zibila lurretik bereizi nahi duen biolentzia horrek nahita egiten du emakumeen aurka, haiek funtsezkoak baitira bizitza humanitate-baldintzetan gauzatzeko, hau da, bizi-kaliterako gutxieneko baldintzetan (aterpea, elikadura, higiena, hezkuntza, eta abar). Eta bizi-baldintza materialetatik haratago, baina ez haietatik bereizita, batik bat emakumeek sortzen eta birsortzen dituzte gizatiartzen eta zibilizatzen duten harremanak, pertsonen nortasuna, aitortza eta balioa emanaz, gizarte-ehuna osatzen duten harreman familiar eta komunitarioak korapilatuz.

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

Horregatik guztiagatik, Kolonbiako gatazka armatuaren kasuan, esan daiteke badela politika sexual bat, zenbait jardunbide etengabe ahultzeko: biztanleen bizitza indibidualaren eta kolektiboaren sostengurako harremanak eta baldintzak egiten eta berregiten dituzten jardunbideak ahultzeko, hain zuen. Politika sexual bat da, emakumeen egitekoaren aurkako jardunbide sistematiko eta aurrez prestatutako bat delako eta basakeriaz aritzen delako haien gorputzen aurka, nagusitze-arrasto iraunkor bat uzteko. Gorputz femininoei eraso eginez, haiek ehunten eta zaintzen duten harreman-sareari eraso eginez, eta beren bizimodu eta bizibiderako espazioen aurka eraso eginez, amaiarazi egin nahi dute haien sorkuntza soziala, egunez egun bizitza kolektiboa lotzen duena eta biztanleriaren eta komunitateen bizitzari jarraipena ematen diona (Gallego, 2013).

Militarismoak balio eta portaerarik erasokorrenak sustatzen ditu, eta hipermaskulinitatea esan izan zaionari bide ematen dio. Gizonezko eredu horrek inork baino hobeto irudikatzen du menderatze patriarkala. Heroi hipermaskulinoaren eredu horren ezaugarriak honako hauek dira: femininoa mespretxatzea, ezberdina dena kriminalizatzea, norberaren eta besteen bizitzak gutxiestea, botere-hierarkiak sustatzea, eta obediencia itsua, autonomia nahiz pentsamendu propioak izatea ezinezko egiten duena. Hain zuzen, hierarkia patriarkalean mendekoak diren gizonek hartzen dituzte balio eta portaera hipermaskulinoak, eta erabiliak izaten dira botere-eremuetan dauden eta maskulinitateen menderakuntza-kateei probetxua ateratzen dieten gizon hegemonikoek agindutako basakeriak gauzatzeko (Leatherman, 2011).

Alabaina, gatazka armatua aparte utzita ere Kolonbiako emakumeen bizitzetan presente dagoen biolentzia gogortu eta zabaldu baino ez du egiten gerrako biolentziak. Eremu guztietan eta bizitza osoan izaten den biolentzia horrek jazarpenarekin, gehiegikeriekin, tratu txarrekin eta bortxaketekin du zerikusia, eta etxeko, lantokiko, herriko nahiz komunitateko harremanetan dago presente.

Hain zuzen, biolentzien *continuumaren* ideiak aukera ematen du biolentzia fisikoen, ekonomikoen, sozialen eta politikoen arteko interakzioak bistartzeko, bai eta deskribatzeko ere haiek emakumeen bizitzetan aldi berean edo modu sekuentzialean nola agertzen diren, arlo publikoko eta pribatuko harremanetan. Alabaina, biolentzia-kapilaritate horrek —biolentziak nonahi egotea dakarren horrek— baditu erresistentziak ere: gizakiekiko errespetuaren eta zaintzaren logikan murgilduta dabilzan emakume eta gizonek geldiarazten dute, beren jardunbide eta espazioekin, eta politika publi-

ko integralak eskatuz, pertsonen bizitzako askotariko dimentsioak kontuan har daitezten.

ERRESISTENTZIA- ETA GAINDITZE-ESTRATEGIAK: GOGOETA BATZUK

Pertsonen eta herrien gaitasunen garapenari lotutako analisiek eta proposamenek oso aintzat hartu behar dituzte hainbat emakumeren eta gizonen askotariko jardunbide ugariak, zenbait gauza aldarrikatzen eginak: beren lurraldeak eta espazio komunak, biolentziarik gabeko beren gorputzak, beren baliabideak, bizitzeko beren bitartekoak, beren askatasunak, beren duintasuna, beren identitateak eta beren bakea aldarrikatzen, hain zuzen. Jardunbide horiek adierazten dute kultura horiek bizirik daudela munduan, eta gakoak ematen dizkigute, beren bizitzak arlo politikoan, ekonomikoan nahiz kulturean nola antolatu nahi dituzten jakiteko.

Amartya Senen agentzia kontzeptuak (egintza) lotura estua du Hegoaldeko mugimendu feministek sustatutako *ahalduntze* estrategiarekin. Horren helburua da menderakuntza-egiturak gainditzea, horretarako errotiko aldaketak eginez legetan, jabetza-eskubideetan eta menderatze maskulinoan indartzen eta betikitzen duten instituzioetan. Hau da, Marcela Lagarderen definizioaren arabera, ahalduntzea: botereak eskuratzeko edo asmatzeko eta barneratzeko bizi-prozesuen multzo bat, emakume bakoitzari edo emakumeen kolektibo bakoitzari aukera ematen diona bere bizitzako zapalkuntza-moduei aurre egiteko (bazterketari, diskriminazioari, gehiegikeriari, jazarpenari, gutxiagotzeari, leialtasun faltari edo traizioari, zerbaitetarako gaitasunik ezari, depresioari, norberaren gutxiespenari, aukerarik, bitartekorik, baliabiderik edo ondasunik ezak eragindako estutasunari, osasun-arazoei, muturreko beldurrari, eta abar).

Esaten da emakume bat edo emakumeen talde bat ahaldunduta dagoela botere horiek jada ez zaizkionean kanpokoak egiten, gorputz eta subjektibitate bihurtzen zaizkionean, izateko eta bizitzeko modu bihurtzen zaizkionean. Emakume bakoitzak eta emakume talde bakoitzak gauza guztien gainetik bere gorputza, bere baliabideak, bere gaitasunak, bere ondasunak, bere aukerak, bere ondoko eta hurbileko mundua defendatzen dituenen. Isolamendua gainditzeko informazio-trebetasunak baino zerbait gehiago behar da, pertsona batek bere

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

burua eta mundua ikusteko duen moduarekin lotuta dago. Kontzientzia politikoaren garapena alderdi garrantzitsua da, nahiz eta askotan alde batera uzten den. (Lagarde, d.g.)

Ahalduntzea, beraz, eraldaketa-prozesu bat da, eta haren bidez, emakume bakoitzak, pixkanaka-pixkanaka eta batzuetan urrats handiak eginez, historiako, politikako eta kulturako objektu izateari uzten dio, besteen objektu izateari uzten dio, hau da, besterentzat izateari uzten dio, eta bere bizitzaren subjektu bihurtzen da, beretzat izaten hasten da, historiako, kulturako, politikako eta bizitza sozialeko protagonista.

Prozesu kolektiboetan, ahalduntzeak berekin dakar emakumeek munduaren beste erdia izateari uztea, edo gizonen (munduaren erdi menderatzailea, androzentrikoa eta goren) menderatutako apendizetako bat izateari uztea, eta gizateriaren, gizartearen, komunitatearen eta taldearen erdi bihurtzea, genero-baliokidetasunez protagonista izanez gizartearen, kulturaren, politikan eta harreman ekonomikoetan. Emakume bakoitzarentzat eta emakumeentzat, beren erabaki sexual, sozial, ekonomiko, juridiko, judicial eta politikoen protagonista izatea da ahalduntzea. Era berean, kulturaren subjektu izatea ere bada ahalduntzea, pentsatzeko eta esateko, komunikatzeko, ekiteko, esperimentatzeko eta sortzeko zilegitasuna sentitzearen aldetik.

Subjektuen, eskubideen eta aukeren ikuspegi hori erraz lotzen da gaitasunen ikuspegiarekin. Ikuspegi hori normatiboa da, eta justizian du abiapuntua, gizarte-eraldaketarako gakoak eman nahi dituen planteamendu orotan bezala. Eztabaida horietan, oso garrantzitsua da diskriminazioak gainditzeko politika publikoek duten rola, eta hor, nabarmentzekoa da Nancy Fraserrek egindako ekarpena, zapalkuntzen intersekzioak hautemateko birbanaketa-politikak eta aitortza-politikak konbinatu beharrari buruzkoa (1996). Proposamen horrek erakusten du politika publikoen analisisetan ikuspegi feminista txertatzea komeni dela.

Birbanaketa-politikak sozioekonomikotzat definitutako bidegabekeriei aurre egitera bideratzen dira, eta bidegabekeria horien artean honako hauek nabarmentzen dira: esplotazioa, kolektibo baten lanaren emaitzen jabe beste kolektibo bat egitearen ondorioz; marjinazio ekonomikoa, gaizki ordaindutako lanak nahiz behartutako langabezia hartzen dituen; eta gabezia, bizi-maila material egoki bat izatea ukatzen duena. Horiek guztiak zerikusi zuzena dute aurrez aipatutako gaitasun nagusiekin.

Aitortza-politikek, berriz, kulturaltzat hartzen diren eta ordezkari-tza-, interpretazio- eta komunikazio-eredu sozialean errotuta dauden bidegabekeriei egiten diete aurre. Bidegabekeria horien artean ho-

nako hauek nabarmentzen dira: menderatze kulturala, norberarenaz bestelakoak eta/edo norberarenaren kontrakoak diren kultura batzuei atxikitako interpretazio- eta komunikazio-ereduekiko menderakuntza; besteak ikusezin egiten dituen irudikapen autoritarioaren bidez kultura batek inposatzen duen aitortzarik eza; eta errespeturik eza, irudikapen kultural estereotipatueta eguneroko interakzioak gutxiesteak eragina.

Nancy Fraserren (2016) esanetan, generoa balio biko komunitate-modu bat da. Adar ekonomiko-politiko bat du, birbanaketaren eremuan txertatzen duena, baina balioespen kulturalaren arlo bat ere badu, aitortzaren eremuan txertatzen duena. Bi aurpegi horiek elkarrekin lotzen dira, eta elkar indartzen dute. Eraitza menderakuntza kultural eta ekonomikoaren gurpil zoro bat da. Beraz, genero-bidegabekeriari aurre egiteko, beharrezkoa da ekonomia-politika nahiz kultura aldatzea.

Baina generoaren balio biko izaera hori dilema-iturri da. Emakumeek gutxienez analitikoki bereizitako bi bidegabekeria-mota jasaten dituztenez, gutxienez analitikoki bereizitako bi konponbide-mota behar dituzte: birbanaketa behar dute, eta aitortza ere bai. Alabaina, konponbide horiek kontrako bi norabidetan egiten dute presio. Birbanaketaren logikak generoa jokotik at uzten du, eta aitortzarenak baloratu egiten du generoaren espezifikotasuna. Horren aurrean, dilema arintzeko ahalegina egin beharko litzateke, birbanaketaren eta aitortzaren arteko gatazkak minimizatzeko ikuspegiak bilatuz, biak aldi berean lortu behar direnean.

BIBLIOGRAFIA

- ACOSTA, Alberto (2016): *O bem-viver: uma oportunidade para imaginar outros mundos* (itz. Tadeu Breda), São Paulo, Autonomia Literária, Elefante.
- ACSUR (2014): *Mujeres indígenas: cuerpos, territorios y vida en común*, ACSUR Las Segovias eta Agència Catalana de Cooperación al Desenvolupament.
- AWID (EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ETA GARAPENAREN ALDEKO ELKARTEA) (2004): «Interseccionalidad: una herramienta para la justicia de género y la justicia económica», *Derechos de las Mujeres y Cambio Económico*, 9 (Género y derechos).

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

- CABNAL, Lorena (2016): *Feminismos diversos: el feminismo comunitario*, ACSUR Las Segovias.
- CARRASCO, Cristina (2017): «La economía feminista. Un recorrido a través del concepto de reproducción», *Ekonomiaz*, 91.
- CARSON, Rachel (2005): *Primavera silenciosa*, Bartzelona, Crítica.
- CUNHA, Teresa (2011): «A arte de xiticar num mundo de circunstâncias não ideais. Feminismo e descolonização das teorias econômicas contemporâneas», in Teresa AMAL (ant.): *Ensaio pela democracia. Justiça, dignidade e bem-viver*, Porto (Portugal), Afrontamento.
- (2015): *Women InPower Women. Outras economias criadas e lideradas por mulheres no Sul não-imperial*, Buenos Aires, CLACSO.
- eta LUÍSA de Pinho VALLE (2018): «Pedagogias ecofeministas e o respeito à economia da vida. Reflexões sobre a agroecologia e o Hamutuk», in *IV Congreso de Estudios Poscoloniales 2018*, Buenos Aires.
- DAVIS, Angela (2005): *Mujeres, raza y clase*, Madril, Akal.
- DUSSEL, Enrique (1993): *1492 O encobrimento do outro: a origem do mito da modernidade* (itz. Jaime A. Classen), Petrópolis, RJ: Vozes.
- ESCOBAR, Arturo (2007): *La invención del tercer mundo. Construcción y deconstrucción del desarrollo*, Caracas, Editorial el perro y la rana Fundazioa.
- FRASER, Nancy (1996): «Redistribución y reconocimiento: hacia una visión integrada de justicia de género», *RIFP*, 8.
- (2016): «¿De la redistribución al reconocimiento? Dilemas de la justicia en la era postsocialista», in Judith BUTLER eta Nancy FRASER: *¿Reconocimiento y redistribución? Un debate entre marxismo y feminismo*, Madril, Traficantes de Sueños. Eskuragarri hemen: <https://www.traficantes.net/sites/default/files/pdfs/documentos_nlr_3_web_0.pdf>.
- GALLEGO ZAPATA, Marina (koord.) (2013): *Comisión de Verdad y Memoria de Mujeres Colombianas*, I. liburukia: *La verdad de las mujeres. Víctimas del conflicto armado en Colombia*, Bogotá, Ruta Pacífica de las Mujeres.

- GANDARIAS, Itziar (2016): *Hasta que todas seamos libres. Encuentros, tensiones y retos en la construcción de articulaciones entre colectivos de mujeres migradas y feministas en Euskal Herria*.
Doktore-tesia.
- GARGALLO CELENTANI, Francesca (2016): «La transformación feminista como revolución social. Una mirada desde los feminismos de los pueblos», *Viento Sur*, 145, 5-15.
- HARCOURT, Wendy (2011): *Desarrollo y políticas corporales. Debates críticos en género y desarrollo*, Bartzelona, Bellaterra/SGU.
- JUBETO, Yolanda, eta Mertxe LARRAÑAGA (2014): *El Desarrollo Humano Local desde la equidad de género: un proceso en construcción*, Bilbo, Hegoa (UPV/EHU).
- LAGARDE, Marcela (d.g.): «Intercambio y desarrollo humano en América Latina», CIDHAL.
- LARRAÑAGA, Mertxe, eta Yolanda JUBETO (2011): *El Desarrollo Humano Local: aportes desde la equidad de género*, Bilbo, Hegoa (UPV/EHU) (Cuadernos de Hegoa, 56).
- LEATHERMAN, Janie (2011): *Sexual Violence*, Cambridge, Malden, Polity Press.
- LUGONES, María (2014): «Rumo a um feminismo descolonial» (itz. Juliana Watson eta Tatiana Nascimento), *Revista Estudos Feministas*, 22 (3), 320, 935-952.
- MALDONADO-TORRES, Nelson (2007): «Sobre la colonialidad del ser: contribuciones al desarrollo de un concepto», in S. CASTRO-GÓMEZ eta R. GROSFOGUEL (argtz.): *El giro decolonial. Reflexiones para una diversidad epistémica más allá del capitalismo global*, Bogotá, Siglo del Hombre Editores.
- MELLOR, Mary (2000): *Feminismo y ecología*, Madril, Siglo XXI.
- MOHANTY, Chandra Talpade (1987): *Feminism without Borders*, Durham, Duke University Press.

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

- NELSON, Julie A. (1996): *Feminism, Objectivity & Economics*, Londres/New York, Routledge.
- NUSSBAUM, Martha C. (2012): *Crear capacidades. Propuesta para el desarrollo humano*, Bartzelona, Paidós.
- OROZCO, Amaia (2010): *Cadenas globales de cuidados. ¿Qué derechos para un régimen global de cuidados justos?*, INSTRAW.
- PARODI, Camila, eta Laura Salomé CANTEROS (2016): «Reina Maraz: cuando ser pobre, migrante, indígena y víctima de violencias es sinónimo de condena», in Claudia KOROL (biltz.): *Feminismos populares: pedagogías y políticas*, Buenos Aires, El Colectivo/Editorial Chirimbote/América Libre.
- PICCHIO, Antonella (2001): «Un enfoque macroeconómico “ampliado” de las condiciones de vida», in Cristina CARRASCO (argtz.): *Tiempos, trabajos y género*, Bartzelona, UB.
- QUIJANO, Aníbal (1992): «Colonialidad y modernidad/razionalidad», in H. BONILLA (biltz.): *Los Conquistados: 1492 y la población indígena de las Américas*, Bogotá, FLACSO.
- (2000): «Colonialidad del poder, eurocentrismo y América Latina», in E. LANDER (biltz.): *La colonialidad del saber. Eurocentrismo y ciencias sociales*, Buenos Aires, CLACSO.
- (2009): «Colonialidad del poder y des/colonialidad del poder». Latinoamerikako Soziologia Elkartearen XXVII. Biltzarrean emandako hitzaldia, Buenos Aires, 1-15.
- QUIROZ, Tania (2011): «Descolonizando el sujeto mujer», in Patricia CHÁVEZ et al.: *Despatriarcalizar para descolonizar la gestión pública*, La Paz, Boliviako Estatu Plurinazionalen Lehendakari-tzaordetza-Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza.
- SANTOS, Boaventura de Sousa (2014): *Epistemologies of the South. Justice against Epistemicide*, Boulder/Londres, Paradigm Publishers.
- (2018): *The End of the Cognitive Empire. The Coming of Age of Epistemologies of the South*, Durham/Londres, Duke University Press.

- SHIVA, Vandana (2006): *Manifiesto para una democracia de la tierra: justicia, sostenibilidad y paz*, Bartzelona, Paidós.
- (2013): *Making Peace with the Earth*, Londres, Pluto Press.
- SPIVAK, Gayatri C. (2006): «Nuevas ropas para el esclavo. Manuel Asensi entrevista a Gayatri Spivak», *Revista Ñ, Clarín*. Eskuragarri hemen: <<http://edant.clarin.com/suplementos/cultura/2006/04/08/u-01173250.htm>> (16/07/28an kontsultatua).
- SUÁREZ NAVAZ, Liliana, eta Aída HERNÁNDEZ CASTILLO (2004) (argtz.): *Descolonizar el feminismo. Teorías y prácticas desde los márgenes*, Madril, Cátedra.
- SVAMPA, Maristella (2019): *Las fronteras del Neoextractivismo en América Latina. Conflictos socioambientales, giro ecoterritorial y nuevas dependencias*, Guadalajara (Mexiko), Guadalajarako Unibertsitatea/CALAS.
- VALLE, Luísa de Pinho (2017): «El ecofeminismo como propulsor de la expansión de la racionalidad ambiental», *Ecología Política*, 54.
- (2019): «Ecofeminismo», in *Dicionário Alice*. Eskuragarri hemen: <https://alice.ces.uc.pt/dictionary/?id=23838&pag=23918&id_lingua=1&entry=24270> (19/04/28an kontsultatua).
- VALS-LLOBET, Carme (2018): *Medio ambiente y salud. Mujeres y hombres en un mundo de nuevos riesgos*, Madril, Cátedra.
- WALSH, Catherine (2007): «Interculturalidad y colonialidad del poder. Un pensamiento y posicionamiento “otro” desde la diferencia colonial», in Santiago CASTRO-GÓMEZ eta Ramón GROSFUGUEL (biltz.): *El giro decolonial. Reflexiones para una diversidad epistémica más allá del capitalismo global*, Bogotá, Siglo del Hombre Editores.

EZAGUTZA SENDOTZEKO ETA GATAZKAK GAINDITZEKO BALIABIDEAK

«Pertsonala politikoa da» dute abiapuntutzat proposamen feministek; hala, jardunbide eraldatzaileek ematen dizkiguten ikasbideak funtsezkoak dira, errealitatea hobeto jasotzen lagunduko diguten teoriak eraikitzeke, ezagutza kokatu baten bidez. Prozesu honetan, diziplinar-

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIORAKO ETA DESKOLONIZAZIORAKO...

tekotasuna erabakigarria da gure gizarteetan bizi diren bidegabekeriak sakon ezagutzeko eta horiei aurre egiteko. Horregatik, epistemologia feministan funtsezkoak diren zenbait erreferentzia inspiratzaile bilduko ditugu orain. Baliagarriak dira gure herrietako aldaketa- eta eraldaketa-prozesuak modu osoagoan aztertzeko. Lurraldeak begirada feminista batetik despatriarkalizatzeko eta deskolonizatzeko proposamenei lotutako erreferentziak ere bilduko ditugu. Horiek ekitatearen aldeko apustua egiten dute giza harremanetan, eta bizitza-sarearen erdigunean jasangarritasuna kokatzea proposatzen dute. Amaitzeko, gogoetarako balio duten bi bideo sartuko ditugu.

■ Ikerketa-metodologia feministak

Jarraian aipatzen diren erreferentziek ikerketa-metodologia feministei buruzko gogoeta interesgarri batzuk ematen dituzte. Espero dugu talde guztiari balio izatea bidaia konplexu eta zirrargarri honetan.

BIGLIA, Barbara (2014): «Avances, dilemas y retos de las epistemologías feministas en la investigación social», in Irantzu MENDIA AZKUE et al. (koord.): *Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*, Bilbao, Hegoa (UPV/EHU)/SinRef.

Barbara Bigliaren esanetan, «ikerketa-metodologia feminista, esku hartzeko eta gizarte-eraldaketarako proposamen gisa ulertuta. Kontua ez da panoramari ikusle pasibo moduan begiratzea, baizik eta ezagutzaren ekoizpenaren hurbilketa feminista kritiko bat zer izatea nahi dugun, zer izaten ari den eta zer izan daitekeen jakiteko eztabaidak ehuntzea. Hala, gure egintza feminista onartzeko aukerei buruz difraktatu nahi da, jakintza eraldatzaileak sortzeko, modu eraikitzailean eta errespetuzkoan interakzioak izanez ikertzen ditugun errealitate sozialekin eta ikertzerakoan ditugun errealitate sozialekin».

<http://biblioteca.hegoa.ehu.es/registros/19986>

BLÁZQUEZ, Norma, Fátima FLORES eta Maribel RÍOS (2012) (koord.): *Investigación feminista: epistemología, metodología y representaciones sociales*, Mexiko, UNAM.

Liburu honetan bildutako analisiak koordinatzaile eta egileek egindako gogoeta kolektibo baten emaitza dira, eta haien helburua da ikerketa feministetako ikuspegi teoriko eta metodologikoetan sakontzea. Hiru atal ditu liburuak: 1) Ikerketa feministaren epistemologia eta kri-

tika; 2) Ikerketa feministaren metodologia; 3) Errepresentazio sozialak eta generoa.

MARCOS, Silvia (2010): *Cruzando fronteras: mujeres indígenas y feminismos abajo y a la izquierda*, Chiapas (Mexiko), SCLC.

Liburu ez-liburu honetan jasotako lanek erakusten dute zer-nolako boterea duen elkarrizketak ezberdintasunez gaindi, eta justiziari eta aldaketa sozialari buruzko ezagutza feminista berri bat sortzearen aldeko apustua egiten dute, globalizazio-modu zapaltzaileak zalantzan jartzeko baliabideak emanez.

MARTÍNEZ-PALACIOS, Jone (2017): *Participar desde los feminismos. Ausencias, expulsiones y resistencias*, Bartzelona, Icaria.

Ale honen koordinatzaileak jasotzen duen bezala, partaidetzari buruzko gogoeta ikuspegi feminista batetik egiten duten egileak teoria feministaren balio politiko kritikoaren aitortzatik abiatzen dira, lehenik eta behin, menderatzea hautemateko helburuarekin, eta bigarrenik, pixkanaka haiek desaktibatzen proposamenak bilatzeko. Egileek demokratizazioa gako feministetan pentsatzen laguntzen digute, eta demokratizazio-jardunbide inklusiboak eskatzen dizkigute ikuspuntu feminista batetik, gatazka armatuko testuinguruak ere sartuz.

TUHIWAI SMITH, Linda (2017 [1999]): *A descolonizar las metodologías. Investigación y pueblos indígenas*, Tafalla, Txalaparta.

Aurkezpenean azaltzen den bezala, liburu hau oinarritzko klasiko horietako bat bihurtu da herri eta komunitate indigenen jardunbide politikorako eta hezkuntza-jardunbiderako. Egileak xehetasunez azaltzen digu zer mekanismo ideologiko inperialista dauden bai mundua ezagutzeko ditugun moduen atzean bai beste herri batzuetara gerturatzeko ditugun mekanismo kultural, hezkuntzazko eta antropologiko eta etiko-politikoaren atzean. Eta ideia eta ezagutza zaharrak ordezkatzeko laguntzeko estrategiak proposatzen ditu, metodologia zapaltzaileen erabateko deskolonizazioa gauzatzeko.

■ **Despatriarkalizatorako eta deskolonizatorako estrategiak**

ACSUR LAS SEGOVIAS (2015): *Descolonización y despatriarcalización de y desde los feminismos de Abya Yala*.

3. LURRALDEEN DESPATRIARKALIZAZIOAKO ETA DESKOLONIZAZIOAKO...

Dokumentu honetan, Latinoamerikako bi feministaren ekarpenak biltzen dira, Ochy Curielenak eta Maria Galindorenak, erreferentziazkoak baitira Atlantikoaz bestaldeko feminismoen zenbait ikuspegi teoriko eta jardun ulertzeko. Haien eskutik, feminismo dekolonialaren eta deskolonizazioaren proposamenera gerturatuko gara, bai eta gizartearen despatriarikalizazioa eta feminismoetara ere.

<https://suds.cat/wp-content/uploads/2016/01/Descolonizacion-y-despatriarcalizacion.pdf>

GUTIÉRREZ AGUILAR, Raquel (2015): *Desandar el laberinto. Introspección en la feminidad contemporánea*, Tinta Limón.

Liburu honen laburpenean, egileak zer nahi duen eta zer ez duen nahi azaltzen digu: «Ez dut, inolaz ere, emakumeen liberazioari buruzko teoria orokor bat egin nahi. Jarraibide batzuk baino ez ditut eman nahi, sozialki modu jakin batean nola eraiki gaituzten kontatzeko —kontuan hartuta horrek alderdi askotan atsekabez betetzen gaituela—, eta hortik abiatuta, munduaren ulerkuntza ekoizteko dugun modua ikusteko —hau da, sinbolikoaren unibertsoan begiztatzeko—, bai eta kokatzeko ere, eta ondoren desmuntatzeko, zapalkuntzarako eta geure burua aske gobernatzea eragozteko tresna eta konfigurazio sozialak, geure gorputzetan erregistratuta eta gure psikean grabatuta ere badaude-eta, eta hala baitaude batez ere».

OLIVA PORTOLÉS, Asunción (2016): *Miradas feministas: del postcolonialismo a la globalización*, Madril, Fundamentos.

Liburu honetan, pentsamendu postkolonialaren irakurketa kritiko bat egiten du egileak, eta,aldi berean, gaur egungo ekarpen teorikoak biltzen ditu. Ondorioztatzen du ezinbestekoa dela munduko txoko bakoitzean eta une historiko bakoitzean patriarkatua nola aritzen den aztertzea, eta hark zabaltzen dituen biolentzia-modu berri guztiak aztertzea.

■ Gogoetarako bideoak

Volar

Volar (2017) Bertha Gaztelumendik zuzendua film bat da, eta genero-indarkeria jasan duten bederatzik emakumek lehen pertsona kontatzen dituzte beren esperientziak eta bizi-ibilbidea. Emakundek kopia bat ematen die lana proiektatu nahi duten instituzio eta erakundeei. <http://www.emakunde.euskadi.eus/sensibilizacion/-/informacion/pelicula-volar/>

Fabricando mujeres

2018ko dokumental horretan, agerian jartzen dira Mendebaldeko gaur egungo ekonomia- eta bizitza-sistemaren barruan kontsumoari lotuta dauden askotariko indarkeriak. SETEMek eta Al Borde Filmsek hori bistartzeko egindako ahaleginen emaitza da dokumentala. SETEMek egindako *¿Consumimos violencia?* ikerketan oinarritzen da, eta gogoetaz eta elkarrizketaz dago osatuta, etxeko, elikadurako, estetikako eta espazio publikoko produktuen kontsumoan indarkeria matxistak nola sortzen diren bistaritzen saiatzeko.

<https://factoriadevalores.es/fabricando-mujeres-el-documental-que-denuncia-las-violencias-machistas-en-el-consumo/>

Los cuidados

La Sandunga Transmediako (2019) filmontan, Silvia Vallecasera iritsiko da, Madrilgo auzo herriko batera, familia-medikuntzako erresidentzia egitera. Osasun-etxe oso berezi batean jardungo du, eta, besteak beste, Irene, Marta, Juan Luis eta Mari Jose aurkituko ditu han: osasuntsuago egoteko modurik onena auzoa egitea dela eta halakoak esaten ditu jende horrek.

<https://vimeo.com/lasandungatransmedia/loscuidados> (oraingoz *teaserra* bakarrik dago eskura)

Filma liburu honekin lotuta dago: PÉREZ ALONSO, Edith, Antonio GIRÓN eta Juan Luis RUIZ-GIMÉNEZ (koord.) (2019): *Los cuidados: saberes y experiencias para cuidar los barrios que habitamos*, Madril, La Sandunga Transmedia/Libros en Acción (Ecologistas en Acción).

4

GATAZKA ETA BIZI-ALTERNATIBAK BIZITZA EMANTZIPAZIO- PRAKTIKA GISA

María Oianguren Idigoras

María Oianguren Idigoras Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV-EHU). Enpresen eta Kultur Erakundeen Kudeaketa goi-mailako ikastaroa egin du, Xabide Taldeak (Kultura-kudeaketa eta Komunikazioa) eta Madrilgo Complutense Unibertsitateak elkarrekin antolatutakoa. Gernika Gogoratuz Bakearen Aldeko Aztertegiaren eta Gernika Sarearen zuzendaria da. Eusko Jaurlaritzako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Aholku Batzordearen lehendakaria da (2018-2020). Ondorengo elkarte eta kontseiluen zuzendaritza-batzordeetako kidea ere bada: AIPAZ (Bakearen Ikerketarako Espainiako Elkarte); EUROBASQUE (Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua) eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren Lankidetzaren Kontseilua. Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarten Foroaren lehendakaria ere izan da (2007-2011). Eusko Jaurlaritzaren René Cassin Giza Eskubideen Saria jaso zuen 2010ean.

Gure borroka nagusia zentzurik gabeko bizitzaren aurkakoa da. Kontra egiten diogu dena absurdua denaren ideari, egiten duguna egiten dugula ere, zentzurik ez izateari. Ez dugu onartuko bizitzako gertaerak aldaezinak direla. Horregatik, gizarte-aldaketaren alde egiten dugu lan, eta bizitza emantzipazio-praktika modura ulertzen laguntzen diguten alternatibak bilatzen ditugu.

Humanitateak eta gizarte-zientziak —bereziki, filosofia— jakintza praktikoak dira, eta zentzuzko markoak osatzen dituzte. Marko horiek justizia eskatzen dute botere zapaltzaile batek gizabanakoaren autonomia pertsonala mugatu edota lotura sozialak eragozten dituen edozein egoeratan.

Atal honen abiapuntua gatazka da. Alfonso Dubois-ek dioen gisan (2019), «Gatazka nahitaezkoa da aldaketa helburu duten gaitasunen garapen-prozesu guztietan». Baieztapen horretan oinarrituta, eta marko analitikotzat bake- eta gatazka-ikasketak hartuta, ikasketa horietara eta eredu nagusitik aldentzen diren proposamenetara hurbilduko gara, bizitza emantzipazio-praktika gisa ulertzeko.

Ezer baino lehen, gogorarazi nahi genuke proposamen hau nazio-arteko lankidetzaproiektu baten barnean kokatzen dela, «Gatazka egoeran dauden lurraldeak: gaitasunak sendotzeko eta bizi-alternatibak eraikitzeko ikerketa, prestakuntza eta ekintza», Gernikatik Mundura eta Gernika Gogoratuz elkarteek antolatu dutena bi helburu argiekin. Batetik, ohartaraztea eragile transnazionalen inpaktuaz eta tokian tokiko ekimenetan duten eraginaz eta, bestetik, aztertutako hiru lurralde hauetan martxan dauden eredu hegemonikoaren alternatibak azaltzea: Cabo Delgado, Mozambiken; Cajamarca, Kolonbiako Tolima departamenduan; eta Urdaibai, Euskal Herrian.

Proiektu horren markoan bat egiten dute ikuspegi eta proposamen teoriko ugari; esaterako, gaitasun kolektiboen eta tokiko giza-garapen iraunkorraren ikuspuntua, Hegoaldeko epistemologiak eta jakintzaren trukearen horizontaltasuna, eta boterea eta ekonomia perspektiba femi-

nistatik. Metodologiak, berriz, dimentsio ugari elkartzen ditu: normati-boa, gizarte-aldaketarena, kolektiboa eta konplexutasunarena.

Atalaren hasieran laburki landuko ditugu bake- eta gatazka-ikasketak, egoera bidezkoago eta jasangarriagoak sortzen lagundu duten gakoak nabarmentze aldera. Aipamen historikoa egingo diogu bakearen ikerketari, eta ikusiko dugu zer testuingurutan instituzionalizatu zen arlo hori: ikerketa-zentro eta unibertsitateko departamenduen zabalkundearen bidez, eta saiakera akademikoak eta espezializatutako aldizkariak ugaritzearen ondorioz. Instituzionalizatzeko-prozesu hori, batik bat, bake liberalaren ardatz positibistan oinarritutako diskurtsoaren inguruan eraiki da. Hortaz, bakearen eraikuntzaren eta gatazken eraldaketaren diskurtso kritikoan eragin handiena izan duten hiru hurbiltze-moduak azalduko ditugu.

Ondoren, bakearen agenda kritikoa osatzeko ikaskuntzak landuko ditugu. Hiru giza-gaitasunetan jarriko dugu arreta, zaintzari eta bizitzaren jasangarritasunari buruz gogoeta egiten laguntzen diguten heinean: lekuei lotutako jakintza oinarri hartuta gogoratzeko gaitasuna, munduko espazioetan bizitzeko; dimentsio sortzaile batetik imajinatzeko eta alternatibak osatzen dituzten narratibak sortzeko gaitasuna; eta maila sinbolikoan, ekologikoan eta sozialean uko egiteko gaitasuna, aldaketa-prozesu emantzipatzaileak sustatzeko eta horietan parte hartzeko. Horrela, marko normatibo baterantz jo ahal izango dugu, zeinak ez baituen ulertzen jakintza informazio-pilaketa gisa, baizik eta subjektuen arteko prozesu bezala, gure munduan egotearekin harremanetan jartzen gaituena.

Finean, uste dugu beharrezkoa dela begirada zabaldu eta ongizate kontzeptuan murgiltzea, bizitza on edo osoaren ideia gure bizi-ingurunean errotuta baitago; pentsamendu moderno liberalak oinarritzat dituen identitate eta ondasun kategoriak zabaldu behar genituzke. Horrela, hausnarketa berri bat egin genezake, balio leza-keena gure burua eta gure harremanak zaintzeko, baita ingurua ere; alegia, bizi garen ingurunekeo baliabideak zaintzeko.

Azkenik, erreferentzia bibliografikoak eta webguneak zerrendatuko ditugu, ikasketa-eremua arakatzen jarraitzeko.

BAKE- ETA GATAZKA-IKASKETETARAKO HURBILKETA LABURRA

Liburu honen sarrerako atalean garapen kontzeptuaren erabilerari buruzko oinarritzko argibideetan esandakoen antzera, gogorarazi nahi

4. GATAZKA ETA BIZI-ALTERNATIBAK

genuke bake kategoriari ere berdin gertatzen zaiola: inoiz ere ez da neutroa eta edukirik gabea; kontrara, une historiko bakoitzean indarrean egon den proiektu zibilizataileari lotuta egon da, sozialki, ekonomikoki eta politikoki. Gure egungo testuingurua modernitatean eta kapitalismoaren epistemologia neoliberalaren markoan kokatzen da.¹

Gizadiaren hasieratik gaur arte era askotara irudikatu dira bakea, gerra, elkarbizitza eta gatazka. Kontrakoa pentsa genezakeen arren, hurbilketa historiko labur bat eginda ikus genezake, azken ebidentzia antropologiko, arkeologiko eta paleontologikoei esker, hominidoen eboluzioaren zatirik handienean lankidetzak eragin handia izan zuela giza espeziearen biziraupenean, eta, are, funtsezko ezaugarri antropologikotzat hartzen dela (Jiménez Arenas, 2011). Garrantzitsua iruditzen zaigu hau, bereziki, bakearen epistemologiaren arloari buruz ari garelako, eta, beraz, ikuspegi hau berreskuratu nahi genuke mendebaldeko kultura-tradizioaren nagusitasunaren aurkako puntu bezala. Mendebaldeko tradizio eurozentrikoaren oinarrian dauden narratibek agerian uzten dutenez (Genesia, Itun Zaharra, Hobbes-en *Leviatan* [1651], eta Darwinen *Espezieen jatorriaz* [1859]), tradizionalki gizadiari buruzko irudi indibidualista, egoista eta lehiakorra gailendu da.

Mendebaldeko pentsamenduaren markoan, Westfaliako Bakearen (1648) ondoren hartu zuen garrantzia epistemikoa bakeak, modernitate liberalaren ereduaren baitan. Itun horiek feudalismoa eten eta Europan ordena berria ezarri zuten, burujabetza nazionalean eta Estatuaren lurralde-batasunean oinarritzen zena. Kantek *Betiereko bakeaz* (1795) obran proposatu zuen arrazoi praktikotik abiatuta ulertzea, helburu eta betebeharrak bezala, Estatuaren arteko bakea eraikitzea bideratuta. Bake hori, merkataritzari esker, mundu mailako bake-egitura baten oinarria izango litzateke. Interesgarria litzateke Kanten obra kritikoki berrikustea, eta merkataritzaren egiazko zentzua berreskuratzea; hau da, merkantilizaziotik eta beste pertsonen pobretzearen ondorioz ateratako irabazi ekonomikotik haratago zabaltzea haren esanahia, barne har dezan, baita ere, hizkuntzen eta sinesmenen elkartrukea bakearen aldeko gobernantza baten oinarri eta babes gisa (Martínez Guzmán, 2018: 114).

Mendecetan zehar, gerra instituzio militar gisa finkatu da, eta makropolitika eta konfrontazio belikoa egituratu ditu patriarkatu kolonial kapitalistan oinarritutako sistema hegemonikoan. XX. mendeararen hasieran, bakearen ikerketa (ireneologia) ez zen alferrik agertu gerraren

1. Interesgarria litzateke argitalpen honetako Gonzalo Fernándezen (2019) atalean dagoen «XXI. mendeko kapitalismoa: enpresa transnazionalak, lurraldeak, megaproiektuak» puntua irakurtzea.

ikerketaren (polemologia) osagarri gisa; haren formak, kausak eta eraginak aztertzen hasi zen fenomeno ekonomiko eta sozial gisa.

Geroxeago, 1950.eko hamarkadan bake- eta gatazka-ikasketen diziplina indarrean sartu zenean (Ramsbotham, Woodhouse eta Miall, 2011: 47-48), gatazken konponbidearen eremu analitiko eta normatiboa definitu zen, eta bereziki indarkeriazko gatazketan jarri zen fokua, horien izaera, ondorioen trataera eta kausak aztertzean, alegia. Gizarte-zientzien munduan errezelo apur batekin hartu zuten arlo berri horren iritsiera, bai teoria errealistek, baita marxistek ere. Horren arrazoia, batez ere, indarkeria saihetsezina delako ideiak eragiten duen mesfidantza da; korrante horiek onartu egiten baitute, izan *statu quo*-a eta sistema baten zilegitasuna mantentzeko, edo hura deuseztatzeko.

Gatazken konponketaren arloa 60ko eta 70eko hamarkadetan espezializatu zen, eta anbizioz zehaztu ziren haren hiru erronka nagusiak. Lehenik eta behin, proposatu zen etorkizuneko konfrontazio belikoak ekiditeko lan egitea, nazioarteko segurtasuna bermatze aldera. Era berean, sistema globalak dituen despaketotasunak eta injustiziak ezabatzea zuen helburu, eta, hirugarrenik, planeta-mailako oreka eta kontrol ekologikoa lortzea.

70eko eta 80ko hamarkadetan, berriz, mugimendu antinuklear, bakezale eta feministaren mobilizazioek indarra hartu zuten kalean eta ikasgeletan, eta eragin handia izan zuten bakearen ikerketaren corpus teorikoan. Ikasketa kritikoez, batez ere post-estrukturalistek eta postkolonialek, diziplina arteko elkarrizketa iradoki zuten; horrek ikerketa-arloa aberastu eta haren agenda hurbilketa epistemologiko berriengana ireki zuen. Aldi berean, bakearen ikerketa gatazken analisirekin lotutako ikasketa- eta interbentzio-eremu berrietan espezializatu zen. Espezializazio horren ondoren, ikuspegi eta esku-hartze desberdinak landu ziren. Esaterako, gatazken kudeaketa, konponketa eta eraldaketarekin lotutako ikuspuntuak azaleratu ziren, esku-hartze praktika eta eremu berriak zabaldu ziren, hala nola, erraztea, bitartekaritza eta negoziaketa, eta eremu desberdinetan aplikatzen hasi ziren: politikan, enpreetan, komunitateetan, eskoletan, familietan...

90eko hamarkadan, Gerra Hotzaren ondorengo garaian, nazioarteko harremanetan errealismoaren korrante klasikoek hartu zuten indarra, baita liberalismo ekonomiko eta politikoak ere. Ondorioz, 1992. urtean bakearen aldeko dokumentu bat (*Agenda for Peace*) argitaratu zuen Boutros Boutros-Ghali-k, orduko Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiak. Bakearen agenda horrek operazio instituzional sorta bat proposatu zuen (*peacemaking*, *peacekeeping*, *peacebuilding*) gatazka armatuak

4. GATAZKA ETA BIZI-ALTERNATIBAK

egon ziren lurraldeetan, baita esku-hartzeko eredu berri bat ere, bake- eta segurtasun-politikak ahalbidetuko zituen estatuen gobernagarritasunaren eta demokraziaren, garapenaren eta giza eskubideen aldeko lanaren markoan; aldiz, ez zituen kontuan hartzen mundua ulertzeko beste hur-bilketa epistemiko batzuk, bake liberalaren eredutik urrun zeudenak.²

Garai horretan, gainera, berrikuspen kritiko bat egin zen gatazken eraldaketaren markoan, eta proposatu zen bake liberalaren paradigma hegemonikoaren arabera ezarritako bakearen eraikuntza-prozesuak deskolonizatzea (Fontan, 2012; Jaime-Salas, 2018).

Feminismoa, ekologismoa, bakea «behetik» eraikitzea, dimentsio globala eta tokikoa eta kulturartekotasuna izan ziren proposamen horietan eragin zuten mugimendu batzuk, diziplina anitzeko ikuspegia finkatuz, eta ekintza-eremua zabaltzea eragin zuten: ekintza humanitarioa, garapenaren ikasketa kritikoak, gizakien segurtasuna, aldaketa postkoloniala, bakearen deskolonizazio epistemikoa eta metodologikoa, trantsizioko justizia, biktimen eskubidea egia, justizia eta konponketa jasotzeko, bakearen aldeko pedagogia kritikoak, desobedientzia zibila eta indarkeriarik gabeko erresistentzia.

Hemen, bakearen eraikuntza epistemologia kritiko baten ikuspegitik ulertzen duten proposamenetako batzuk soilik aipatuko ditugu, zeinak balio baitezakeen, batez ere, bizi-eredu justuak, baketsuak eta emantzipatzaileak indartzeko funtsezko elementu gisa. Hau da, nabarmendu nahi ditugu, batetik, gatazkak lantzeko garaian alderdi zibizitzaileak azpimarratzen dituzten analisiak, eta, bestetik, bakea armen eremutik haratago eta garapena ekonomiatik haratago definitzen dituzten analisiak; horrela, fokua bake positiboaren eremu analitikora zabalduko dugu, hau da, ez dugu bakea ulertuko soilik gerrarik edo indarkeria zuzenik ezaren baliokide bezala, hori bake negatiboaren paradigmatik eragindako ikuspegi mugatua baita (Galtung, 1998, 2003).

Bestalde, beste epistemologiak (feminismoarena eta indigenena, esaterako) barne hartzen dituzten analisi-markoak proposatzen eta zabaltzen hasi dira. Memoriaren dimentsio kolektiboak, identitateak eta adierazpenaren tokiak garrantzi epistemikoa hartu dute, espazioaren eta denboraren ikuspegi zirkularrarekin bat eginez, zeinak giza izaerari lotutako funtsezko gaiak erantzuna eman nahi baitie: nor gara?, zein da gure tokia?, nola egin bidea elkarrekin? Galdera horiek rol garran-

2. Eredu neoliberalaren aurrerapenari buruz analisi zehatzagoa egiten du Jokin Alberdik (2019) liburu honetan bertan, bere ataleko lehen puntuan (XXI. mendeko demokrazia, partaidetza eta gobernantzaaren atzerakadaren berrikuste kritikoak).

tzitsua hartu dute bakearen eraikuntzaren arloan, eta modernitatearen eta bakearen zientziaren marko zurrunen esku-hartzeko logikak, gutxietsi gabe, zalantzan jarri dituzte, epe laburreko emaitzak bakarrik hartzen baitituzte kontuan (Lederach, 2007; Lederach eta Lederach, 2014).

Era berean, bake- eta gatazka-ikasketen arloari filosofiaren eremuko ekarpenak egiten dizkion esparrua garatzen hasi da, bakearen eraldaketa epistemologikoaren (Martínez Guzmán, 2001, 2005) eta bake inperfektuaren (Muñoz, 2001; Muñoz eta Bolaños, 2011) proposamenei jarraiki. Proposamen horiek ulertzen dira gizakiek bakeak egiteko dugun adostasunerako gaitasun bezala, hausnarketa anitzetatik abiatuta, eta helburu hartuta giza gaitasunak berreraikitzea, gatazkek metodo bake-suekin ordezkatzeko.


Ondoren azalduko ditugun hurbilketa teoriko-praktikoek ahalbidetu dute bakearen eta gatazkaren kategoriak ulertzeko modua zabaltea. Bakearen eraikuntza, gaur egun, bake ideal abstraktutik urruntzen da, eta helburu eraldatzaile batera bideratuta dago; hala, kritikak jasotzeko prest dago, eta defendatzen du epistemologia liberalaren paradigma ez dela gure munduan egotea ulertzeko modu bakarra.

Argi dago honakoak ez direla proposamen guztiak, ez eta eremu osoaren isla ere; besterik gabe, gehien eragin duten hiru ekarpen jaso ditugu hemen, bakearen eraikuntzari dagokionez emantzipatzearen alde, eta gatazkaren arloari dagokionez, eraldatzearen alde.

■ Bakearen geometriak: gatazken triangelua

Johan Galtung-ek (2003: 109) indarkerien triangeluaren irudi bereizgarri eta ezaguterrazaren bidez islatzen du indarkeriaren, gatazkaren eta bake-irudien arteko lotura, geometria analitikoaren erabiliz (ikus 1. irudia). Horrela, argudiatzen du gatazka bizitzari lotuta dagoela, eta kontraesanak azaltzen ditu bizitza suntsitzen edo ematen duten faktore bezala.

Galtungek bakearen ikasketen arloa zabaldu egin zuen, eta gatazken kausetara bideratu zuen elkarrizketa, azpimarratuz horiek modu baketsuan eraldatzearen garrantzia, justizia sozialaren premisa argi eta inplizitu batekin. Haren ustez beharrezkoa da gatazkaren errora jo eta aztertzea, eta barnean eduki dezakeen indarkeria ezabatzea, horretarako hiru erpinak desberdinduta. Gatazken triangelu ezagunaz ari gara: indarkeria zuzenaren erpinak erasoak eta erailketak islatzen ditu; indarkeria estrukturalarenak, esplotatzea, zapaltzea eta menderatzea; eta indarkeria kulturalarenak, berriz, indarkeriazko jarrera eta portae-rei zilegitasuna ematea.

1. IRUDIA. **INDARKERIEN TRIANGELUA**

Iturria: Galtung (1998: 18).

Formula horretan, paraleloki, gatazka konpontzeko bertutezko zirkuluak proposatzen ditu; gerra amaitutakoan, liskarrak bukatzean edo akordioak sinatu ondoren ekintza desberdinak proposatzen ditu gatazka horiek eraldatzeko. Xede horrekin, ekintza sinkronikoak proposatzen ditu, honako metodoa erabiliz: indarkeria zuzenaren ondoren beharrezkoa da berreraikitze materialaren prozesuei heltzea, baita liskarrean zeuden alderdiak elkarrengana hurbiltzea ere, adiskidetzea lortzeko, eta, azkenik, arazoaren erroa jotzea, oinarri-oinarrian da-goen gatazka konpontzeko.

Gatazka triangelu modura aurkezteak laguntzen digu ulertzen ha-rremanei eta egiturari lotuta dagoela, hau da, ustez bateraezinak diren helburuak dituzten pertsonen edo taldeen artean interesak, beharrak, portaerak eta balioak daudela, eta horrek eragin dezakeela indarkeria, kasu batzuetan. Bakearen eraikuntzaren paradigmari berreraikitzearen, adiskidetzearen eta konponbidearen proposamenak (*3 R* izenekoak: *reconstruction*, *reconciliation*, *resolution*), gehitzen dizkio hiru helbururekin: batetik, bakea ezartzea bermatuko duen jarrera-aldaketa erraztea; bestetik, indarkeriarik gabeko ekintzak bultzatzea, portaera suntsitzaileak murrizteko; eta, azkenik, gatazkaren erroan dauden kontraesanen analisia ahalbidetzea, eraldatzeko.

Horrela, bake- eta gatazka-ikasketen sortzaile garrantzitsuenetako batek bakearen definizio berria eraiki zuen: «gatazkek enpatiaz, indarkeriarik gabe eta sormenez kudeatzeko gaitasuna» (Galtung, 1998: 18), eta, esan bezala, ez ditu albo batera uzten indarkeriaren erro kultural eta estrukturalak, baizik eta haren konplexutasuna adierazten du, bakea gerra-ezarekin edo indarkeriarik ezarekin definitzen duten ikuspegiak, hau da, bake negatiboaren markoak, gaindituz.

Bakea, hala, zuzenean bizitzari lotzen zaio, indartze-espazio bihurtzen da. Hori da bake positiboaren markoa, eta esku-hartzeko gatazka-aren espazioak barne hartzen ditu: natura, pertsona, gizartea, mundua, kultura eta denbora. Zentzu horretan, Galtungek bakearen kontzeptua zabaltu eta sakondu egiten du, bizitzaren zabaltze gisa azaltzen du. Honela dio Juan Gutiérrezrek *Paz por medios pacíficos* obraren hitzaurrean:

Zabala da, bere buruarentzako bakarrik bizi ez den heinean, beste bizitza batzuekin elkartzen baita laguntza emanaz eta jasoz, eta horrela ehun bat sortzen du, ekintzazko hari eta korapiloekin, sostengua ematen dioten egiturekin eta arnasa ematen dion kulturarekin. [...] bake positiboa bizi-ehun gisa gailentzen zaio indarkeriari.

Sakona da, zeren bizitzaren bake positiboa ez dago gerraren eta indarkeriaren ondoren, horiek gainditutakoan, bake negatiboa bezala; haien azpian dago, indarkeria eta gerrak jasaten dituen bizitzazko ehun soziala osatzen du, eta bertatik ateratzen da horiek gaindi ditzakeen erresistentzia. Azpian, eta sakon, zeren egunerokotasunaren bihotzean, publiko egiten ez den horretan, sormenez, gatz eta piperrez, enpatiaz, grinaz eta emozioz mugitzen baita gizakien gehiengoa, oharkabean, aldi berean apoliniar eta dionisiako, biziraupen- eta lorpen-estrategiekin, zera pribatu eta intimoan errotuta, eremu publikoaren azpian. (Galtung, 2003: 11-12)

■ Bakearen poetika: memoria eta sendatze kolektiboa

Feminismoak, 60ko eta 70eko hamarkadetako bigarren olatuan, «pertsonala politikoa da» lemarekin adierazi zuen bizipen pertsonalen eta egitura sozial eta politikoen arteko lotura sendoa. Hala ere, bakearen ikasketek denbora gehiago behar izan zuten sormenaren dimentsioa eta subjektu arteko praktikak ekarpen epistemologiko baliagarritzat hartzeko eremu teoriko-praktikoan, objektibitate eta neutraltasuneko parametroetara mugatzen zituzten exijentzia zientifikoaren menpe baitzeuden. Feminismoak egindako behaketa hori baliagarria

4. GATAZKA ETA BIZI-ALTERNATIBAK

zaigu botere-harremanen eta erresistentzia-estrategien analisiaren ekarpen garrantzitsuaz aritzeko, liburu honetan bertan ongi jasota daude-nak (Jubeto, Larrañaga eta Valle, 2019; Cunha eta Casimiro, 2019).


Aipatu bezala, bakearen zientziak, hasiera batean, ez zuen ulertzen erlazio-kategoria batzuek (gorputza, memoria, lurraldea) gatazka-egoeren analisi eta esku-hartzerako ekarpenak egin zitzaizketela. Hala ere, zenbait proposamenek zientziaren adierazpen-tokiari buruzko fokua zabaltzen dute; esaterako, Donna Harawayren ezagutza kokatuaren proposamenaren arabera, zehaztasun zientifikoa eta ikertzailearen neutraltasun-eza baliozko aukera gehigarritzat har litezke ikerketa-prozesuan. Zalantzarik gabe, gaur egun subjektibotasunak, emozioek eta sentimenduek espazio garrantzitsua dute gizarte-aldaketako prozesuetan, baita balore sakonekiko konpromisoak eta gizakien kezken inguruko hausnarketa-grinak ere. Gizakien kezkekin esan nahi da gizakiaren betierekotasunaz dihardutenak, izan lan filosofikoaren konpromiso publiko bezala (Martínez Guzmán, 2001, 2005), edo bokazio gisa (Lederach, 2007).

Hain zuzen ere, bakearen eraikuntzaren arloan hogeita hamar urte-tik gora lanean aritu den John Paul Lederach-ek (1998, 2007; Lederach eta Lederach, 2014) azaldu zuen gorputz, memoria eta lurralde kategoriak —Amerikako, Afrikako eta Ozeaniako indigenen kosmobisioetan inspiraturik— eraldaketa sozial konstruktiboaren prozesuetako osagaiak direla, bereziki indarkeria luzaroan jasan duten egoeretako eta erro-tutako gatazken sendatze sozialaren kasuetan.

Prozesu horietan ikusi ahal izan da indarkeria jasan duten komunitateek erabiltzen dituzten metafora espazialek lotura dutela haiek etxetzat duten lekuarekin, eta kontakizunek iragana eta etorkizuna lotzen dituztela orainaren esanahia ulertze aldera. Lederach-en obrak indukziozko ikasketa aztertzen du ustekabeko aurkikuntzen, narratiba eta soinu-paisaien bidez, eta gerraren eta indarkeria-epe luzeen biktimen justizia-aldarrikapenaren eta konponketaren osagaitzat hartzen du.

Haren argitalpenetako batek imajinazio morala lantzen du. Gaitasun bezala ulertzen du hori: gure burua harreman-sare batean imajinatze eta konplexutasuna polaritate dualetik haratago ulertzeko, ekintza sortzailean konfiantza izateko eta aldaketa sozial konstruktibo baterantz igarotzeak dakartzan arriskuak onartzeko gaitasuna. Ikuspegi horrek irudi desberdin bat eskatzen du estrategiatzat, bizitzari buruz pentsatzen uzten duen *focus* bat, memoria kolektiboari, identitateari eta adierazpenaren lekuari buruzko gogoetazko ikuspuntu batetik aldaketarako ahalmenaren *locus*-a aintzatezteko eta eraikitze-ko (ikus 2. irudia).

2. IRUDIA. **BAKEAREN ERAIKUNTZARAKO MARKO ZABALDUA**



Iturria: Lederach (2007: 209).

Hortik aurrera, are nabarmenago egiten da bizitzari eta unean uneko harreman-sareari zentzua emango dion narratiba bat aurkitze-ko gaitasuna, indarkeria jasan duten komunitateen memoria kolektibo osatuko duena etorkizunaren bila ari direla, historia berriz kontatu ahal izateko. Zentzu horretan, dimensio narratiboak arreta berezia ematen

4. GATAZKA ETA BIZI-ALTERNATIBAK

dio aldiberekotasun espazialaren eta denboraren sekuentzialtasunaren egitura metaforikoari, ulertu ahal izateko indarkeriazko egoeretako sendatze kolektibo³ prozesuen izaera zirkularra.

Hurbilketa horiek aldaketa garrantzitsuak ekarri dizkie bakeikasketen nondik norakoei; urruntzen joan dira logika dikotomiko baztertzailengandik eta helburuak eraldaketa sozialaren marko zabalagoetan errotu dituzte.

■ **Bakearen filosofia: eraldaketa epistemologikoa eta bake inperfektua**

Bakearen filosofien eta praktiken markoan (Comins Mingol eta Muñoz, 2013), bakearen eraldaketa epistemologikoak (Martínez Guzmán, 2001) eta bake inperfektuak (Muñoz, 2001) garrantzi handia hartu dute. Horien oinarrian dagoen filosofia konprometitzen da, batetik, gizakiak pentsatzeko, sentitzeko eta bakea egiteko (eta, beraz, indarkeriaren ezinbestekotasuna zalantzan jartzeko) duen gaitasuna berreskuratzearekin, eta, bestetik, bizikidetzarako, zaintzarako eta gatazkak eraldatzeko giza gaitasunen garapenarekin, zeinak indarkeria murrizten laguntzen baitute. Gainera, lankidetzeta eta elkartasuna sustatzen duten erreferentzia- eta ikaskuntza-markoak sustatzearekin konprometitzen da, indarkeria zuzena eta estrukturala zilegi egiten duen egitura sinbolikoa desegite aldera.

Bakeak egitearen filosofia, beraz, giza gaitasunen berreraikitze normatiboa da: forma desberdin ugarietatik eta kultura desberdinetatik abiatuta, bakeak era baketsuan egiteko. Hala, «baketik bakea pentsatzea» proposatzen duen eraldaketa epistemologikoak azpimarratzen du proposamen epistemologikoen aniztasunean sakontzearen garrantzia, ikusgarri egiteko baztertutako kolektiboak nahiz jakintza menperatuak. Jakintza eta praktika kooperatibo, enpatiko eta solidario gisa aurkezten dira, eta bakearen ikerketaren oinarritzko ardatz bihurtzen dituzte genero-ikuspegia, kultura, ekologia eta errealitatea ulertzeko modu holistikoa. Hortaz, bake inperfektuaren kategoria analitikoa deskribatu genezake corpus teorikoan giza gaitasunen garapena eta kon-

3. «[...] sendatze kolektiboak komunitateen eta horien parte diren pertsonen gaitasuna islatzen du: indarkeria areagotua eta estrukturala jasan bitartean eta ondoren bizirauteko, ahotsa aurkitzeko, eta modu erresilientean elkarriketa adierazgarriak eta ekintza deliberatuak sustatzen dituzten espazioak berritzeko gaitasuna» (Lederach eta Lederach, 2014: 221).

plexutasuna sartzen dituen ideia gisa, bake- eta gatazka-ikasketen interpretazio-marko modura.⁴

Amaitzeko, jakintza hegemonikoak baino ikuspegi zabalagoak eta alternatiboagoak hartzen dituzten hurbilketa epistemiko desberdinek elkarren artean dituzten antzekotasun teorikoak seinalatu nahi genituzke; esaterako, bakearen eraldaketa epistemologikoa eta Hegoaldeko epistemologiak (Santos eta Aguiló, 2019), eta, batez ere, gabezien eta larrialdien soziologiak (Cunha eta Casimiro, 2019).

BAKEAREN AGENDA KRITIKORAKO IKASKUNTZAK

Bake- eta gatazka-ikasketen agendak erronka berriak ditu, aurreko mendearen 50eko hamarkadan izan zituenez gain. Erronka horiek gerrak eta indarkeria murriztea, desparekotasun eta bidegabekeriak mundu mailan ezabatzea eta planeta osoan oreka eta kontrol ekologikoa lortzea besterik ez ziren.

Ezin dugu ukatu munduak aldaketa politiko, ekonomiko eta sozial handiak jasan dituela azken garaiotan. Azken hamarkadan, faktore askoren ondorioz (energiaren eta uraren krisia, biodibertsitatearen eta baliabide materialen galera, larrialdi klimatikoa, *big data* eta iraultza digitala...) izugarri eta inoiz ikusi gabeko abiaduran aldatzen ari da ekonomia eta demokrazia sostengatzen dituen oinarri material eta epistemikoa, zeinak gure egunerokoan ere eragin zuzena baitu.

Era berean, ukaezina da azken hamarkadetan bake- eta gatazka-ikasketetan aurrerapen normatiboak eta analitikoak egin direla. Bakearen normatibotasunak, desira eta balio gisa hartuta, adierazten digu nola eraldatu gatazkak, nola ase pertsonen eta kolektiboen beharrak bidezko eta bakezko modu batean. Bakeak, kategoria analitiko gisa, batetik aztertzen du gizakien esperientzien eremua garai historiko, kultura eta kosmobisio desberdinetan. Bestetik, gatazkak lankidetzan eta baketik kudeatu dituzten egoera eta testuinguruak aztertzen ditu, etorkizunerako erreferentzia gisa balio dezaketen adierazleak sortzeko.

4. Bake inperfektuaren kategoria analitikoari eta horrek ahalmenei egiten dien erreferentziari dagokionez, liburu honetako Alfonso Duboisen (2019) atala irakurtzea gomendatzen da. Bertan ezartzen dira aldaketa sozialaren oinarriak, ongizatearen eta giza gaitasunen ikuspegitik, eta kolektibotasuna azpimarratuz, konplexutasunari aurre egiteko eta, ekintza helburu, ikaskuntza-marko baterantz aurrera egiteko.

4. GATAZKA ETA BIZI-ALTERNATIBAK

Gaur egun, bakearen eraikuntzak egindako ekarpenei esker, gatazken eraldaketaren markoa berritzen duten hurbilketa epistemologiko eta metodologikoak posible dira. Bakea ez da ulertzen ekintza ongile, salbatzaile eta zibilizatzaile bezala; alderantziz, ekintza eraldatzaileztat hartzen da. Hau da, esaterako, «Gatazka egoeran dauden lurraldeak» proiektuan egindako ikerketaren kasua: hark laguntzen digu bake kategoria eta haren analisi-markoa ulertzen justizia sozialaren ikuspegitik bizitza zaintzeko giza-gaitasunen garapenarekin alderatuta.

Ikerketaren abiapuntua etorkizuneko proiektu desiragarri eta posible bat zehaztu eta aurrera eramateko gaitasuna da, eredu nagusiari baliozko alternatibak bilatzen saiatuz, eta hazkunde ekonomikoan eta horren ondorio zibilizatzaileetan sostengatuz. Horretarako, elementu sozialen eta harremanen garrantzia azpimarratzen dugu, gaitasunen ikuspuntutik abiatuta, eta, batez ere, horien dimentsio kolektiboa kontuan hartuz, bizi-egitura jasangarriak sustatzeko. Era berean, ikuspuntuaren osagarritasuna nabarmentzen dugu, hurbilketa epistemologiko alternatiboetatik edanez (batik bat, Hegoaldekoa eta feminista) eta baliozko analisi-markotzat hartzen ditugu botere-harremanak eta eredu ekonomiko eta politiko hegemonikoa zalantzan jartzeko.

Horregatik, proiektuan zehar ateratako ondorioak azaldu nahi genituzke, ikaskuntza gisa edo hausnarketa egiteko iradokizun gisa. Hiru ikaskuntza azalduko ditugu labur-labur. Edozein modutan, hurrak elkarren mendekoak dira eta ezin dira guztiz bereizi. Espero dugu balioko dutela aldaketa sozialerako marko estrategiko bat sortzeko gomendio bezala.

Lehen ikaskuntza, batik bat, feminismoak, ekologia politikoak eta geografia kritikoak proposatutako ideietatik dator. Horiek lurralde kategoria zabaldu egin dute, tokiko testuinguru bakoitzean (globalari lotuta dagoena) zera materialen eta sinbolikoen arteko bitartekaritazatik abiatuta. Hemen mikropolitikaren gogoetekin egiten dugu topo: memoria eta gorputza ezinbesteko kontzeptuak dira irauteko, eztabaidatzeko eta alternatiba jasangarriak lortzeko, egunerokotasunari, hurbiltasunari eta bizitzaren zaintzari dagokionez. Munduko espazioen bizigarritasunaz ari gara, ongizateari, bizitza onari edo antzeko kontzeptuei dagokionez. Hemen ongizateari lotutako identitate kategoria zalantzan jartzen da, hau da, «nor naiz ni?» galderari subjektu burujabearen jabe-izaeratik erantzuten diona, bere eskubideak eskatuz («zer dagokit niri?»). Ongi bizitzearen eta bizitza osoaren kategoriek

erradikalki aldatzen dute ulertzeko modu hori, eta beste galdera bat proposatzen dute: «nongoak gara?».⁵ Horrela, munduko espazioen bizigarritasunaren pertinentzia-dimentsioa aldatzen da, eta harremanen interdependentzia sartzen da jokoan.

Bigarren ikaskuntzak, berriz, narratiba eta metafora espazialak (ekialdea/mendebaldea, iparraldea/hegoaldea, tokikoa/globala, barruan/kanpoan, goian/behean, hurbil/urrun...) aztertzearen garrantzia azpimarratzen du, horietan oinarritzen baitira botere-harremanak eta zapalkuntza, menderakuntza eta sumisio sistema binarioak (patriarkatua, kolonialismoa eta kapitalismoa). Zibilizatzeko-garai honetan, denbora zatikatua eta *big data* nagusi diren honetan, subjektuen arteko harremanek forma ematen diete erresistentzia-esperientziei eta bazterretik erantzuten duten narratibei, azaleratzen ari diren alternatibei ikusgarritasuna emateko. Hau da, nola kontatu desberdina den hori aniztasuna ukatzen eta konplexutasuna albo batera uzten duten kontakizun hegemonikoen aurrean, zeinak erantzun bat eta bakarra onartzen baitute baliozkotzat.

Hirugarren ikaskuntza arlo epistemikoari dagokio. Jakintza zilegi egitearen logika (subjektua/objektua) lantzen du, eta ezagutza kokatuaren ideia, zehaztasun zientifikotik eta neutraltasun-ez objektibotik abiatuta, munduan izateko eta egoteko moduei buruz. Marko ontologiko eta epistemologiko hegemonikoen emaitzak dira, batetik, balio unibertsaleko hautu indibidualistak (banakoa/eskubideak/jabetza) eta, bestetik, egitura alternatiboak edo ikuspuntu erlazionalak (gorputza/kosmosa/espiritualitatea). Azken horiek bestelako praktika politiko eta sozialak proposatzen dituzte jasangarritasunaren alde, eta «zer da bizitza?» galderari materiaren eta ekonomiaren ikuspuntu modernotik haratago erantzuten diote.

Laburbilduz, aztertuko ditugun ikaskuntza horiek funtsezko giza esperientziekin lotutako hiru galdera elkartzen dituzte: zer da ongi egotea?, bizigarritasunari eta ongizate kategoriari dagokionez; nola kontatu

5. «Nongo parte garen pentsatu behar dugu. “Jabetza” ez dugu ulertu behar “gurea den hori” bezala, baizik eta zer inguruneren parte garen gu. Bizilekuari buruzko jakintza behar dugu, ekosofia bat: geurea denaren (*oikos*) jakintza (*sophia*) bat. Eko-sofia, eta ez eko-logia; jakintza, eta ez diskurtsoa. Bizilekuaren jakintza da jakitea ezer ez dela independentea, unibertsoan beste partikula bat garela, armiarma bat edo errinozero bat den bezalaxe, edo landare bat, edo ameba bat. *Oikos*-aren jakintza da gure ustezko garrantzi maila jaitea, bizidunen sare zabalean dagokigun lekua hartzeko» (Maillard, 2018: 68).

4. GATAZKA ETA BIZI-ALTERNATIBAK

zera desberdina?, narratibak osatzeari dagokionez; eta, azkenik, zientzia eta filosofia batzen dituen galdera handia: zer da bizitza?

■ Munduko espazioetan bizitzen

Esan dugun bezala, «Gatazka egoeran dauden lurraldeak» proiektuaren proposamen normatiboak erronkatzat hartzen du erresistentzia eta bizi-aukera bezala ulertzen diren proposamenak eraikitzea, aldaketa sozialari bide baketsuekin aurre egiteko. Bide horretan, lurraldea gatazka-espazio bezala ulertzen da, eta bertan eztabaidatu eta munduan bizitzeko alternatiba bidezko eta jasangarriak sortzen dira.

Alegia, lurraldea bizi-espazioa da, eta paisaia sinbolikoa eta naturala, ekosistema eta talde sozialak hartzen ditu barnean. Ikuskera integrala da, eta dimentsio ugari hartzen ditu kontuan, kapitalismo neoliberalaren eredu desarrollista eta estraktibista jasangaitzetik urruntzen diren proposamenetan sakontzeko asmoz. Eredu estraktibistak merkantilizazioaren eta probetxua ateratzearen paradigmatik heltzen dio lurrari eta lurraldeari. Eredu desarrollistak gorputzak baliabidetzat hartzen ditu, tresnatzat, eta ez helburutzat; eta, gainera, planetako biodibertsitate aberatsenak dituzten lurraldeetan errotutako komunitateak lekualdatzera behartzen ditu. Hau da, deserrotzea eragiten du, gorputz fisikoa bere ingurunetik erauztean: bere lurraldetik isolatzen du sozialki eta fisikoki, espazio natural eta sinbolikotik ateratzen du, eta, ondorioz, bizitza kolektibotik.

Hau da mundu mailan gertatzen ari dena. Eredu horrek martxan jarraitzen du, kontuan hartu gabe gizakien ekintza guztiek ez dutela balio ekonomiko bat, eta albo batera utzita bestelako hurbilketa epistemologikoak eta kapitalaren logikatik at dauden praktika alternatiboak; alegia, bizitzaren kapitala oinarri hartuta eta ekonomia jasangarriak sortzeko asmoarekin, ekoizpen eredu ez kapitalistak eraikitzen dituzten proiektu kolektiboak. Gutxietsi gabe, inola ere, eredu politiko eta ekonomiko batzuek eta besteek sostengatzen dituzten mundu-ikuskera anitzei buruzko eztabaida epistemikoa. Mendebaldeko tradizioaren markoan, eskubideen jabetza subjektuaren askatasunean ardatzen da, eta, beraz, subjektua eta eskubidea lotzen dituen logika bat eraikitzen da.

Baina badira bestelako proposamenak ere: Hegoaldeko epistemologiak, adibidez, bazterreko jakintzetan oinarritzen dira; ekofeminismoak bizitza jartzen du erdigunean eta ekintzaren premisa gisa; ekialdeko filosofoak bizitza «harremanean jartzen dena» bezala definitzen du; eta ekosofiak, berriz, subjektuaren eremua munduarekin duen elkar-ekintzara

zabaltzen du, eta haren erantzukizuna hedatzen du izaki bizidun guztiengana. Ikuspegi horiek aukera ematen digute eskubideei eta haien iris-menari buruz hausnartzeko, azpimarratzeko gizakion betebeharra zein den, eta mundua ulertzeko interdependentziazko errealitate konplexuan.

■ Itxaropenerako narratibak

Gizakiok kontakizunak behar ditugu mundua ulertzeko. Lengoaia-
ren filosofian emandako eraldaketak hitzaren balioa berreskuratzea al-
darrikatu zuen, eta poetikari eman zion munduak sortzeko estatutua;
proiektu honen analisisan, munduak, bizi-aukera posibleak lirateke.

Bizi garen munduan, ordea, ez da nahikoa sortzearekin; eztabaida-
tu egin behar da, eta, aldi berean, zaindu eta sostengatu, eta, azkenik,
amaiera eman. Amaiera eman, bereziki, aurrerapenaren metafora al-
datzeko, zeina, ezinbestean, logika kapitalistaren parametroetan eten-
gabeko eta mugagabeko esku-hartze bezala ulertzen baita. Hau da,
amaierarik gabeko amaiera bezala. Hortaz, jakintzaren eremuan jarri
behar da zalantzan narratiba hegemonikoa, amaiera eta etxera itzule-
raparametroetara itzultzeko, itzuleraren metafora gisa.⁶

Mundua ulertzeko beharrezkoak dira gure sentsazioak, ulertzeko
moduak eta oroitzapenak. Beharrezkoa da horien espazio eta denbo-
razko dimentsioak ulertzea eta hari narratibo bat ematea, amaiera bat
emateko. Bestela, hari gabe, nihilismoan erortzen gara, denborazko zi-
kloen zatiketara eramaten gaitu, eta urrundu egiten gaitu esperientzia
sortzaileen, alegia, egiten, desegiten eta, batzuetan, berregiten gaituz-
ten horien konplexutasunetik. Esperientzia horiek dira pertsonen kon-
tziientzian bizitzaren zentzuaz hausnarketa eragiten dutenak, hau da,
zentzua ematen diotenak.

Mundua ezagutzeko, beharrezkoa dugu inguruko guztiarekin
dugun harremanetan eta munduko espazioetan bizitzeko bitartekari-
tzetan pentsatzea. Garrantzizkoa da bizitzako dependentziazko eta
interdependentziazko harremanak ulertzea, mundua leku justuago eta
bizigarriago bat bihurtzen saiatzeko bai politikoki, bai ekonomikoki
eta ingurune sozialari dagokionez, eta gizarte desberdinen kosmobi-
sioen aniztasuna —edo pluribertso— errespetatuz.

Bizitzan, etorkizunaren gaineko kontrolik ezean, memoria eta
aukerak gurutzatzen dira. Imajinatzeko gaitasunak munduak sortzen

6. «Metafisika postnihilistak, jatorrira itzuliz, etxearen metafora izatetik hasi
behar du: iraupena ez da substantziari eta identitateari esker gertatzen, bai-
zik eta babesaren eta zaintzaren ondorioz» (Esquirol, 2015: 48).

4. GATAZKA ETA BIZI-ALTERNATIBAK

ditu, eta erresistentzia da bizitzari zentzua emango dion narratiba aurkitzeko eta kontakizun berri bat sortzeko prozesua indartzen duen bide poetikoari lagun egiten dion itzaropena.

■ **Bizitza emantzipazio-praktika gisa**

Atalaren hasieran, helburua jakintzaren eremuan kokatu dugu, gatazka bere konplexutasunean ulertzeko, eta bizitza bere aurreikuspen-ezintasunean:

- Konplexutasuna gatazkaren osagai prozesual eta amaitu gabea da, eta hari esker bizitza suntsitzen duten prozesuak eta bizitza eman eta indartzen dutenak desberdinu ditzakegu.
- Aurreikuspen-ezintasunak, berriz, erakusten digu dena ez dagoela esana ez egina, eta arloa mundua ulertzeko beste modu epistemikoei zabaltzeko. Hegoaldeko epistemologiaren kasuan, esaterako, errealtatea espazio ireki gisa ulertzen dute, guri ezusteak eragiteko gaitasuna duena, eta sormenezko jakintza berritzaileak eraikitzen laguntzen digu horrela. Hala da, baita ere, feminismo postkolonialean eta Silvia Rivera Cusicanqui-k azaltzen duen ch'ixi epistemologian.⁷ Proposamen hori mendebaldeko tradizioaren pentsamendu dikotomikotik aldentzen da, ez du baztertzeko ez laburtzeko, eta ch'ixi epistemologiaren ahalmen sortzaileaz baliatzen da, elkarrekikotasun neurgaitzetik abiatuta truke-mota prekapitalistak posible egiten dituen logika binarioa zalantzan jarriz. Edo, Suely Rolnik-ek dioen bezala, gauza bera gertatzen da logozentrismo bati lotutako subjektibotze⁸ bat zalantzan jartzen denean, hau da, kognitibotik haratago mundua

7. «Abiapuntutzat hartuta iparrorratz etiko baten eta adimenen eta botere kognitiboaren berdintasunaren premisak —hizkuntzen eta epistemeen aniztasunak adierazten duen gisan— posible izan liteke planeta-mailako ch'ixi episteme bat ehuntzea. Horrek giza espeziea prestatuko luke zeregin komunitarako, baina, aldi berean, gure komunitateetan, lurraldeetan eta komunitateetan are gehiago errotuko gintuzke zentzuzko sareak eraikitzen lagunduz; adibidez, “lehiaketaren” ordez partekatzea sustatuz» (Rivera Cusicanqui, 2018: 81-82).

8. «Subjektibotze-politikaren subjektu bihurtzeak gure bizidun izaeratik bananduta mantentzea eragiten du: horrek gure afektu eta arauengandik urruntzen gaitu, eta biziaren jakintza kentzen digu [...] inkontziente kolonial eta kapitalistaren mendean» (Rolnik, 2019: 48).

ulertzeko edozein modu balio gutxiagokotzat jotzen denean, adibidez, intuizioa, gorputzaren jakintza.

Horregatik, beharrezkoak ditugu jakintza eta praktika kolektiboak, irekiak eta esperimentalak lortuko dituzten epistemologia eta metodologia onargarriak; laboratoriaoak balira bezala, ahalbidetzeko ekoizpen kritiko, sormenezko eta zaindu bat, helburutzat hartuta mundu bizigarririk bat eraikitzea, inperio kognitibo baten krisiaren eta kapitalismo neoliberal globalizatuaren aurrean. Epistemologekin batera, funtsezkoa da zenbait lekutan jaiotzen ari diren alternatibak erakustea, itxaropenik gabeko garai bat izan litekeenaren aurkako ikaskuntza-iturri diren heinean. emantzipazio-praktika

Labur esanda, bizitza emantzipazio-praktika gisa ulertu behar dugu, egungo proiektu zibilizatuaren dualitate epistemikoaren oinarri den menderakuntza-eredua zalantzan jartzen duena. Zehazki, sistema patriarkal, kolonial eta kapitalistaz ari gara, zuzenean eragiten baitio bakearen eraikuntzaren eta giza eskubideen dimentsio etiko-politikoari. Beharrezkoa da, baita ere, bestelako proposamen epistemikoen berri izatea, hala nola hermeneutika diatopikoa⁹ (Santos, 2002: 76) eta feminista (Cunha eta Casimiro, 2019).

Gure tradizio modernoa ezagutzea ere funtsezkoa da, ulertzeko haren emantzipazio-grina, nahiz eta erradikalitasun susmagarri batetik abiatuta osatu zen, era zalantzarik. Baita ere, ahalmen ilustratua ulertzea gaitasun berritzaile gisa, eta haren funtsa gogoratzea, dogmatismoaren aurka duen funtzio kritikoa.¹⁰

Hori horrela, kritika berriak eta proposamen berriak egin behar ditugu. Baina, oraingoan, zibilizazioa maldan behera doan honetan, ardatz epistemologiko gehiago hartu behar ditugu kontuan, eremua zabaldu, giza eskubideen diskurtsoa biziberritzeko. Eta helburutzat izan behar dugu betebeharretan arreta jartzea eta jakintza demokratizatzea.

9. «Hermeneutika diatopikoak, jakintza desberdin bat eskatzen du, baina ez hori bakarrik; jakintzaren sortze-prozesu desberdina eskatzen du, gainera. Elkartuke kognitibo eta emotiboetan oinarritutako sortze-prozesu kolektibo eta parte-hartzailea eskatzen du; jakintza emantzipazio gisa ulertzen du, eta ez hainbeste erregulatze gisa» (Santos, 2002: 75-76).

10. «Ilustrazio erradikalak eskatzen duena da edozein jakintza eta edozein sinesmen proban jartzeko askatasuna, edozein aldetatik datorrela ere, eta edozeinek defendatuta ere; aurreiritzirik edo autoritate-jarrerarik gabe. Besteen hitza, eta, batez ere, norberarena proban jartzea funtsezkoa da, eta orokorrean kritika deitzen zaio» (Garcés, 2017: 37).

4. GATAZKA ETA BIZI-ALTERNATIBAK

Azken finean, aurrerapen-grina gure tradizio modernoaren ondarearen parte da, eta nekez libratuko gara hartaz, ez da bere kabuz desgertuko. Oinordetza ilustratua arrazionaltasun modernoaren gramatika epistemikoaren parte da, eta zibilizatze-krisi honetan, mundua birpentsatzeko aukera bezala ager liteke, eta erantzukizun eta konponketa sinboliko nahiz materialak bere gain hartu, baina izaera emantzipatzaileari uko egin gabe, baizik alderantziz, hura indartzeko. Eta, hori bai, oraingoan, menderakuntza-bulkadari aurre egingez.

Atalaren hasieran esan bezala, gure borroka handiena zentzurik gabeko bizitza imajinatzearen aurkakoa da. Gure eskuetan dago norabidea aldatzea eta menderakuntzaren, pilaketaren eta desjabetzearen bulkadei uko egitea. Baita gatazka eta bizitza emantzipazio-praktika gisa ulertzea ere.

IKASKUNTZARAKO BALIABIDEAK

■ Bibliografia

ALBERDI, Jokin (2019): «Botere politikoa eraikitzen. Gatazka egoeran dauden lurraldeetako ikasketak», in Jokin ALBERDI, Isabel CASIMIRO, Teresa CUNHA, Alfonso DUBOIS, Gonzalo FERNÁNDEZ, Yolanda JUBETO, Mertxe LARRAÑAGA, María OIANGUREN eta Luísa de Pinho VALLE: *Gatazka egoeran dauden lurraldeak. Bizi-alternatibak eraikitze gakoak*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratuz.

COMINS MINGOL, Irene, eta Francisco A. MUÑOZ (2013): *Filosofías y praxis de la paz*, Bartzelona, Icaria.

CUNHA, Teresa, eta Isabel CASIMIRO (2019): «Hegoaldeko epistemologiak eta bizi-alternatiba feministak. Gure Mozambiqueko Errauskinek hitz egin nahi dute», in Jokin ALBERDI, Isabel CASIMIRO, Teresa CUNHA, Alfonso DUBOIS, Gonzalo FERNÁNDEZ, Yolanda JUBETO, Mertxe LARRAÑAGA, María OIANGUREN eta Luísa de Pinho VALLE: *Gatazka egoeran dauden lurraldeak. Bizi-alternatibak eraikitze gakoak*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratuz.

ESQUIROL, Josep María (2015): *La resistencia íntima. Ensayo de una filosofía de la proximidad*, Bartzelona, Acantilado.

- FERNÁNDEZ, Gonzalo (2019): «Botere korporatiboa lurraldeen erasora. Megaproiektuei aurre egiteko herri-erresistentziarako gakoak», in Jokin ALBERDI, Isabel CASIMIRO, Teresa CUNHA, Alfonso DUBOIS, Gonzalo FERNÁNDEZ, Yolanda JUBETO, Mertxe LARRAÑAGA, María OIANGUREN eta Luísa de Pinho VALLE: *Gatazka egoeran dauden lurraldeak. Bizitza-alternatibak eraikitzeko gakoak*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratu.
- FONTAN, Victoria (2012): «Replanteando la epistemología de la paz: el caso de la descolonización de paz», *Perspectivas Internacionales, Ciencia Política y Relaciones Internacionales*, 8 (1), 41-71. Eskuragarri hemen: <<https://revistas.javerianacali.edu.co/index.php/perspectivasinternacionales/article/view/839/1364>>.
- GALTUNG, Johan (1998): *Tras la violencia, 3R: reconstrucción, reconciliación, resolución. Afrontando los efectos visibles e invisibles de la guerra y la violencia*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratu.
- (2003): *Paz por medios pacíficos. Paz y conflicto, desarrollo y civilización*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratu.
- GARCÉS, Marina (2017): *La ilustración radical*, Bartzelona, Anagrama.
- JAIME-SALAS, Julio Roberto (2018): «Descolonizar los Estudios de Paz, un desafío vigente en el marco de la neoliberalización epistémica», *Revista de Paz y Conflictos*, 12 (I), 133-157. Eskuragarri hemen: <<http://revistaseug.ugr.es/index.php/revpaz/article/view/8307/7951>>.
- JIMÉNEZ ARENAS, Juan Manuel (2011): «Pax homínida. Una aproximación imperfecta a la evolución humana», in Francisco A. MUÑOZ eta Jorge BOLAÑOS CARMINA (argtz.): *Los habitus de la paz. Teorías y prácticas de la paz imperfecta*, Granada, Bakearen eta Gatazken Institutua/Granadako Unibertsitatea, 65-94.
- JUBETO, Yolanda, Mertxe LARRAÑAGA eta Luísa de Pinho VALLE (2019): «Lurraldeen despatriarkalizaziorako eta deskolonizaziorako eta bizitza sarearen aldeko proposamen feministak», in Jokin ALBERDI, Isabel CASIMIRO, Teresa CUNHA, Alfonso DUBOIS, Gonzalo FERNÁNDEZ, Yolanda JUBETO, Mertxe LARRAÑAGA, María OIANGUREN eta Luísa de Pinho VALLE: *Gatazka egoeran dauden*

4. GATAZKA ETA BIZI-ALTERNATIBAK

lurraldeak. Bizi-alternatibak eraikitzeko gakoak, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratu.

LEDERACH, John Paul (1998): *Construyendo la paz. Reconciliación sostenible en sociedades divididas*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratu.

— (2007): *La imaginación moral. El arte y el alma de la construcción de la paz*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratu.

— eta Angela Jill LEDERACH (2014): *Cuando la sangre y los huesos claman. Travesías por el paisaje sonoro de la curación y la reconciliación*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratu.

MAILLARD, Chantal (2018): *¿Es posible un mundo sin violencia?*, Madril, Vaso Roto Cardinales.

MARTÍNEZ GUZMÁN, Vicent (2001): *Filosofía para hacer las paces*, Bartzelona, Icaria.

— (2005): *Podemos hacer las paces. Reflexiones éticas tras el 11-S y el 11-M*, Bilbo, Descleé De Brouwer.

— (2018): «Gobernanza para hacer las paces», Ana BARRERO (koord.): *Ciudades de paz. Foro Mundial sobre las violencias urbanas y la educación para la convivencia y la paz*, Madril, AIPAZ.

MUÑOZ, Francisco A. (2001): *La paz imperfecta*, Granada, Bakearen eta Gatazken Institutua/Granadako Unibertsitatea.

— eta Jorge BOLAÑOS CARMINA (argtz.) (2011): *Los habitus de la paz. Teorías y prácticas de la paz imperfecta*, Granada, Bakearen eta Gatazken Institutua /Granadako Unibertsitatea.

RAMSBOTHAM, Oliver, Tom WOODHOUSE eta Hugh MIALL (2011): *Resolución de conflictos. La prevención, gestión y transformación de conflictos letales*, Bartzelona, Nazioarteko Kataluniako Bakerako Institutua.

RIVERA CUSICANQUI, Silvia (2018): *Un mundo ch'ixi es posible. Ensayos desde un presente en crisis*, Buenos Aires, Tinta Limón.

ROLNIK, Suely (2019): *Esfemas de la insurrección. Apuntes para descolonizar el inconsciente*, Buenos Aires, Tinta Limón.

SANTOS, Boaventura de Sousa (2002): «Hacia una concepción cultural de los derechos humanos», *El Otro Derecho*, 28 (uztaila), 75-76.

- eta Antoni AGUILÓ (2019): *Aprendizajes globales. Descolonizar, desmercantilizar y despatriarcalizar desde las epistemologías del Sur*, Bartzelona, Icaria.

■ Ikus-entzuneko baliabideak

- GALTUNG, Johan (2017): «Teoría y práctica en la construcción de paz. Experiencias de una vida». Madrilgo Complutense Unibertsitateko Zientzia Politiko eta Soziologiaren Fakultatean emandako hitzaldia, 2017ko urtarrilaren 26an. Eskuragarri hemen: <<https://www.youtube.com/watch?v=9XRoyagl6z0>>.
- GARCÉS, Marina, eta Chantal MAILLARD (2017): «Pensar en tiempos difíciles». Antoni Tàpies Fundazioak antolatutako ekitaldi batean izandako elkarrizketa, Bartzelonan, 2017ko urriaren 16an. <<https://www.youtube.com/watch?v=tB5oGTJ77o8>>.
- LEDERACH, John Paul (2014): «Los acuerdos no terminan los conflictos». Cartagenako Unibertsitateko Gizarte Gatazka eta Bakearen Eraikuntza Masterrak antolatutako Bake-elkarrizketei buruzko Jardunaldietan aurkeztutako hitzaldia, 2014ko otsailaren 27an. Eskuragarri hemen: <<https://www.youtube.com/watch?v=4gZKF-Pyiv4>>.
- MARTÍNEZ GUZMÁN, Vicent (2017): «De la seguridad como dominación a la ética y políticas de los cuidados como construcción de una ciudadanía localmente cosmopolita, cuidadora y ecológica». Nazioarteko Kataluniako Bakerako Institutuak antolatutako «La seguridad en el siglo XXI: de lo global a lo local» seminarioan egindako aurkezpena, Bartzelonan, 2017ko urriaren 9an. Eskuragarria bideoaren 30. minututik aurrera: <<https://www.youtube.com/watch?v=ll69qYAmhh0>>.
- MUÑOZ, Francisco A. (2014): «La paz imperfecta», 2014ko urriaren 30ean. Eskuragarri hemen: <<https://www.youtube.com/watch?v=fWMIbC3kxYw>>.
- RIVERA CUSICANQUI, Silvia (2018): Revista de la Universidad «Utopía ch'ixi», 2018ko azaroaren 3an. Eskuragarri hemen:

4. GATAZKA ETA BIZI-ALTERNATIBAK

<<https://tv.unam.mx/portfolio-item/revista-de-la-universidad-utopia-chixi-con-silvia-rivera-cusicanqui/>>.

ROLNIK, Suely, et al. (2019): Suely Rolnik-ekin egindako elkarrizketa bere *Esferas de la insurrección. Apuntes para descolonizar el inconsciente*, izandako liburu berriari *buruz*, Raúl Sánchez Cedillo ekintzaile eta itzultzailearekin, Clara Vázquez psikoanalista feministarekin eta Alberto Azcárate *El Salto* aldizkariko kolaboratzailearekin batera. Madril, 2019ko apirilaren 2an. Eskuragarri hemen: <<https://www.traficantes.net/noticias-editorial/conversaci%C3%B3n-con-suely-rolnik-martes-2-de-abril>>.

■ Web baliabideak

Atal honetan jaso ditugun bi sare hauen bidez bakearen eraikuntzaren eta giza eskubideen arloan lanean dabiltzan hogeita hamar elkarte baino gehiagoren ikerketa, formakuntza eta baliabideen berri izango duzue. Webgune hauetan era askotako informazioa aurkituko duzue: ikastaroak, graduondokoak, masterrak, jardunaldiak eta beste-lako hausnarketa guneak, baita interneteko argitalpenak ere.

AIPAZ (Bakearen Ikerketarako Espainiako Elkarte)

<http://www.aipaz.org>

Elkarte hau 1997an sortu zen bakea eta gatazkak diziplina anitzeko ikuspegitik aztertzeko asmoz, hau da, indarkeria mota desberdinak ezabatzea, justizia sendotzea, giza eskubideak errespetatzea, garapena eta gatazken konponketa baketsua helburu dituen ikuspegitik. Elkarte bakearen kultura eta gizartea eraikitzearen aldeko balio eta praktika sozialekin konprometituta dago.

Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkartearen Foroa

<https://foroderechoshumanos.org/>

Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen elkarte da, 2007an eratuta, eta herritarrengandik hurbil egon eta aniztasuna aintzat hartu nahi du bere lanean, beti ere bakearen kultura sendotzeko eta giza eskubideak sustatzeko asmoz.

5

BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEETAKO IKASKETAK

Jokin Alberdi Bidaguren

Jokin Alberdi Bidaguren Zientzia Politikoetan doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), eta Konstituzio Zuzenbideko eta Europar Batasuneko Zuzenbideko irakaslea da unibertsitate berean. «Gatazka egoeran dauden lurraldeak» nazioarteko ikerketa-proiektuko arduraduna eta Gernika Gogoratzuz elkarteko presidentea da. AIPAZeko (Bakearen Ikerketarako Espainiako Elkarte) eta Hegoa Institutuko (UPV/EHU) Tokiko Giza Garapenari eta Giza Segurtasunari buruzko Ikerketa Taldeko kidea da. Horrez gain, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Afrikar Ikasketen Taldean (GEA/UAM) parte hartzen du. Hainbat lan argitaratu ditu, eta zenbait masterretan eta formakuntzatan parte hartzen du. Horietan guztietan gai hauek lantzen ditu: ekonomia politikoa, demokrazia, giza eskubideak, bakearen eraikuntza, migrazio-politikak, nazioarteko lankidetzeta eta garapena, eta afrikar gaiak.

Kapitalismo globalak, botere korporatiboak eta plan desarrollistek sortutako arazo eta erronkei aurre egiteko, lurralde zehatzetan aldaketarako ekintza eta gaitasun politikoak sustatzeko gakoak proposatzen dira kapitulu honetan. Botere-modu hegemonikoez gain, lurraldeetan garapen-eredu menderatzaileari aurre egiten dieten praktika demokratiko asko daude.

Datozen orrialdeetan azterketarako gakoak landuko dira, Merkatuaren logikaren aurka, bizitza-alternatibak eraikitzeke subjektu politiko indibidualak eta kolektiboak indartzen ari diren praktika demokratikoetatik ikasteko. Interesgarria da aztertzea beldurrari eta agintean dauden eliteek ezarritako mandatuei aurka eginez publikoki jakitera eta arrazoitzera ausartzen diren gizataldeak (Garces, 2019). Ez da ahaztu behar landuko dugun maila horretaz gain (tokikoa edo komunitarioa), oso garrantzitsuak direla beste gobernantza-maila batzuetan hartzen diren erabakiak eta sortzen diren botere-harremanak, goragokoetan (estatu, nazioz gaindikoa, mundua, korporazioa...) zein behegokoetan (familia, etxea, klana...).

Lehenengo atalean ikuspegi kritiko batetik berrikusiko dira botere-harremanekin eta lurraldearekin lotura duten kontuan hartu beharreko hainbat elementu. Nazioartean eta estatu-mailan dauden demokraziari, parte-hartzeari eta gobernantzari buruzko eztabaidak alde batera utzi gabe, tokian tokiko parte-hartzea eta ahalduntzea, gaitasun politiko kolektiboak, baztertutako gizataldeen parte-hartzea eta lurraldeko hainbat eragilek harremanak izateko dituzten modu berriak kontuan hartzearen garrantzia azpimarratuko da atal hauetan.

Bigarren atalean, ekonomia politikoaren eta bakearen eraikuntzaren lurralde-azterketarako esparru aipagarrienen analisi kritiko laburra egin ondoren, sistema politiko-ekonomiko kapitalista-desarrollistaren baitako botere-ezberdintasunak zalantzan jartzen dituzten subjektu politikoen ikasketetatik abiatzeko proposamena

egiten da, hurbilketa metodologiko irekiagoak eraikitzeko, horiek lagungarri izan daitezzen tokiko prozesu kolektiboak eta justizia, elkarbizitza eta ongizate kolektiboan oinarritutako kontaketa berririak bultzatzeko.

BOTERE POLITIKOA ETA LURRALDEA: XXI. MENDEKO DEMOKRAZIA, PARTAIDETZA ETA GOBERNANTZAREN BERRIKUSTE KRITIKOA

XX. mendetik XXI. mendera igarotzeko aldi honetan, nola maila mikroan hala maila makroan asko aldatu dira harreman politikoak eta Estatua, demokrazia eta parte-hartzea ulertzeko moduak.

■ Demokrazia, parte-hartzea eta gai publikoen gaineko interesa ikuspegi makro batetik abiatuta

Ikuspegi makro batetik demokrazia, parte-hartzea eta gai publikoen gaineko interesa atzera egiten ari direla esan dezakegu globalizazio neoliberalaren kontrarreforma ekonomiko, juridiko eta politikoaren garai honetan. Estatuaren pribatizazioa, barne-merkatuen desarautzea, kapital transnazionalari ateak irekitzea eta murrizketa sozialak bultzatu dituzten politikekin lau hamarkada igarota ere, demokraziak kapitalismorik gabe izaterik ez duelako usteak zabaldua darrai eliteetan eta gaur egungo gizarteetan. Harresiaren erorketaren ostean, merkatuaren «esku ikusezinak» gizateria guztiarentzat nahikoa aberastasun sor zezan Estatuaren esku-hartzea errefusatzeko defendatzen zuen «pentsamendu bakarra» alternatiba posible bakarizatzea aurkeztu da. Fukuyamak, 90ko hamarkadan, «historiaren amaiera» eta totalitarismoaren aurka demokrazia liberalaren garapena iragarri zituen; azken batean, klabe neoliberallean oinarritutako kapitalismo «demokratikoa» aukera posible bakarra zela baieztatzeaz ekin zioten Ekialdeko blokea desegin ondoren.

Dahlen «poliarkiaren» ideia nagusitu zen. Ideia horren arabera, nahikoa da demokrazia liberal, pluralista eta lehiakorra; gaitasuna duten elite batzuek alternatiba erakargarri eta funtzionalak aurkeztu dizkiete hautesleei eta demokraziaren ikuskera normatiboagoak ez dira beharrezkotzat jotzen. Zenbait sektore akademikotatik etorri zen demokrazia eta giza eskubideak ulertzeko gailentzen zen ikuspun-

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

tu horri egindako kritika; bakea, justizia eta berdintasuna¹ sustatzeko gaitasunik ez zuela eta agortuta zegoela azpimarratzen zuten eta, horren izenean pertsonak, kulturak, lurraldeak eta bizimoduak suntsitzen ari zirela salatu (Santos, 2014).

Zoritxarrez, nahikoa izan da sistema honen funtzionaltasunaren eta halabeharrezkotasunaren diskurtsoa eta balio neoliberalak diren lehiakortasun, kontsumismo eta indibidualismoarena, politikarekiko apatia eta metaketa kapitalista bermatzeko beharrezkoa den gizarte-sumisioa zabaltzeko. Despolitizazio hau argi geratu zen alderdi politikoen eta sindikalismoaren krisiarekin, eta aktibismo sozial eta politikoaren atzerakadarekin. Horrek erraztu zuen oligarkia liberalek eta korporazio handiek herritarrek «demokratikoki» hautatutako elite politikoak bereganatzea, beren arabera legeak egin eta erabakiak hartzeko.

Aldi berean, botere hegemoniko hauek, merkatuak zabaltzeko grinatsu, merkatu librean oinarritutako akordio eta arau neoliberalak ezarri zituzten. Horien bidez, pobretutako herrialdeak beren ekonomiak besteen menpeko bihurtzera eta atzera ere primario izatera behartzen zituzten. Horrela, herrialde horientzat ezinezkoa zen beren populazioen bizi-baldintzak hobetzeko zerga-sistema eta politika sozialak ezartzea. Nazioarteko finantza-instituzioek, atzerriko inbertsioak errazago ziurtatzeko, neoliberalismo ekonomikoaren eta beren instituzioen hobekuntzaren bidetik jo zezaten gomendatu zieten gobernu horiei, modu horretan beren herrialdeak munduko ekonomian sartuko zirela eta hazkunde ekonomikoa izango zutela argudiatuta.

-
1. Dahlen poliarkiaren kontzeptuan laburbiltzen diren demokrazia prozedimentala, zuzenbide Estatua, gobernuaren eraginkortasuna eta ustelkeriaren aurkako borroka azpimarratzen duten ikuskera horien aurrean, demokraziaren balio hirukoitzaren ideia azpimarratu behar da ikuspuntua gaitasunetan jarrita (Sen, 2009: 77-91; Deneulin, 2009: 191-196). Demokrazia ikusteko modu parte-hartzaileagoa izateaz gain, giza duintasunarekin lotuta dagoen balio gisa ulertzen da, eta beraz, bere horretan da desiragarria; testuinguru eta tradizio kultural desberdinetan bizi diren pertsonen parte-hartze gaitasunak ase ditzake. Horrez gain, beste bi dimentsio nabarmentzen dira. Demokraziaren bigarren balio instrumentala, boteretik eta erabaki politikoetatik baztertutako taldeen inklusioa azpimarratzen duena eta eskubide ekonomiko eta sozialik gabe berdintasun politikoa ezinezkoa den ideiatik abiatzen dena. Hirugarren balioak demokraziaren dimentsio eraikitzailearekin du zerikusia, gizarte eta gizatalde bakoitzaren lehentasun politikoak ezartzeko oinarri diren balio sistema gisa ulertzen da.

Berdintasun sozioekonomikoa eta Estatu Sozialaren oinarriak ukatzen zituen eredu ekonomiko horri ezin hobeto zegokion, bere burua unibertsaltzat zuen demokrazia bat, pobretutako herrialdeei jarraitu beharreko eredu politiko gisa ezartzen zitzaiena. Hauteskundeak aldizka egitea, eskubide zibil eta politikoak minimoki bermatzea, merkatuek zuzen funtziona dezaten gobernuak esparru arautzaileak eratzeko gaitasuna izatea eta ustelkeriaren eta pobreziaren aurkako agenda izan dira Gerra Hotzaren ondorengo garaian jarraitutako arrakastarik gabeko bideak. Instituzioen eta garapen ekonomikoaren arteko harremanaren ikuspegi ortodoxo hau hainbat sektorek kritikatu dute eta zalantzan jarri dute bere balioa eta unibertsaltasuna.² Makillaje demokratikoak ez du kapitalismoaren izaera totalitariora ezkututzerik lortu, izan ere, bere inbertsio eta irabaziak arriskuan ikusi dituenean aise utzi du alde batera bere aurpegi gizatiarrena, eta populismo ultranazionalistak eta eskuin muturra erabili ditu bere helburuak lortzeko.

XXI. mende honetan alienazioa eta politikarekiko interes eta afekzio-falta hazten ari dira, negozioak aurrera doaz eta giza eskubideak eta demokrazia, berriz, atzera. Faxismoranzko joera orokortzen ari da sozialki eta politikoki (Zizek, 2016), Latinoamerikako prozesu eratzzaileek eta gobernu aurrerakoiek, udaberri arabiarrak eta Europan gertatutako herritar suminduen mugimenduek eragindako zenbait kargugabetze eta demokraziaren sakontzea izan ezik (Pisarello, 2014). Autoritarismo txinatar eta errusiarra beren eragina zabaltzen ari dira Afrikako, Asiako eta Europa ekialdeko herrialdeetan. Demokraziaren atzerakada horren adierazgarri dira Estatu Batuetan Trumpek eta Brasilen Bolsonarok

-
2. 90ko hamarkadan azalpen neoinstituzionalistek gizarte baten instituzioen arteko artikulazio desegokiak garapen ekonomikoa oztopatzen zuela zioten. Garapenaren, demokrazia liberalaren eta gobernu egokiaren arteko harremana bihurtu zen politika neoliberalaren helburu. Hori dela eta, nazioartea buru-belarri murgildu zen estatuko instituzioen administrazio- eta gerentzia-gaitasunen eta gaitasun teknikoen eraikuntzan, merkatuen funtzionamendu egokia bermatzeko. Neoinstituzionalismoari kritika egin dioten sektoreek (Ha-Joon, 2006) eta sektore postkolonialak (López Castellano, 2012) behin eta berriz azpimarratu dute eredu ekonometrikoko eta interpretazio-esparru hauek ez dutela balio izan gertatzen ari ziren aldaketa instituzionalak modu egokian azaltzeko. Ildo beretik nabarmendu dute ez dituztela kontuan hartu azalpen-gako garrantzitsuak, esaterako, neokolonialismoa eta ustelkeria, eta indarkeriaren bidez estatu eta gobernu ahulek jasandako instrumentalizazio politikoa. Instituzio ez formalek birbanatzeko duten gaitasunari arreta gutxi eskaini izana ere aipatu dute sektore kritikoek.

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

irabazi izana, *bexitari* buruzko erreferendumaren ondoren britainiarrek Europar Batasunatik ateratzeko hartutako erabakia, Latinoamerikako gobernu aurrerakoien aurkako jazarpen neoinperialista edo Europar Batasunean hazten ari den ultraeskuina.

Merkatuen globalizazio estrategien eta protekzionismo-modutara itzultzearen arteko zalantzezko *impasse* honetan, elite ekonomikoek arinkeriaz hartzen dute demokrazia, beharrezkotzat jo gabe, are alde batera utziz kapitalismoa bultzatzeko. Egitura patriarkal, kapitalista eta kolonialak berregituratzen ari dira, zapalkuntza betiketuz eta berau zalantzan jartzen dutenak deuseztatuz. Horren aurrean, «aurpegi gizatiarra» duen kapitalismo «demokratikoa» eta populismo autoritario *trumptarra*, edo hura ordezkutzen saiatzen ari den *alt right-a* zalantzan jarriz alternatibak eraikitzeko borrokatzea baino ez da geratzen.

■ Botere-harremanak eta parte-hartze prozesuak ikuspegi mikro batetik abiatuta

Ikuspegi mikro batetik abiatuta, garrantzitsua da herri- eta komunitate-mailan eta etxeetan gertatzen diren botere-harremanei eta parte-hartze prozesuei eta erabakiak hartzeari arreta eskaintzea. Zoritxarrez, aurretik aipatu dugun herritarren interes faltak eta Merkatuaren eta Estatuaren arteko harremanek kontrolatutako testuinguru neoliberal honetan interes sozialek bizi duten bazterkeriak maila azpies-tataletan gertatzen diren prozesu hauen azterketa eta analisisa zokoratu dute. Botere-harremanen asimetriak eta tokiko, udal-, komunitate- edo familia-mailetan erabakiak hartzeak leku gutxi hartu dute demokrazia- ren eta parte-hartzearen inguruko eztabaidetan. Alabaina, giltzarriak dira pertsonen eta giza taldeen bizitza zehazten duten eguneroko proze- su horiek ulertzeko.

Pentsamendu neoliberaletik abiatuta indartu egin dira kategorია be- rriak, esaterako, kapital soziala, ahalduntze indibiduala eta gobernantza lokala, eta horrek, tokiko garapen-prozesuen dimentsio parte-hartzai- learen instrumentalizazioa areagotu du. Emakumeen ahalduntzea edo parte-hartze komunitarioa ez dira helburutzat hartu ordez neurri gisa planteatu dira, tokiko agintariak edo nazioarteko lankidetzek bultzatu- tako proiektuek sustatuko neurri politikoei emaitza hobek eta eraginko- rragoak lortzeko. Ahalduntzearen ikuskera neoliberalak zokoratu egiten ditu dimentsio kolektiboak eta eskubideak defendatu eta helburu komu- nen aurrean pertsonak elkartzen dituzten ekimen parte-hartzaileak. Ikuspegi hori oso murrizta da, izan ere, autoestimua berreskuratzera eta

norberaren bizitzan soilik eragina duten erabakietan norbanako bakoitzak duen ekiteko gaitasunera mugatzen da.

Parte-hartzea eta ahalduntzea otzandu egin dira, formalki instituzionalizatu dira, eta botere publikoentzat eta elite ekonomikoentzat mehatxu izateari utzi diote. Izan ere, norbere buruarekin aski izatea eta estatuaren zerbitzuekiko mendekotasuna ahalik eta txikiena izatea dute helburutzat. Austeritate politiken garai hauetan, botere publikoei ezin hobeto datorkie ekimenen kostuen zati bat sektorearen gain geratzea. Baztertuta egon izan diren sektoreen ahalduntzea nominala, formala, burokratikoa eta gerentziala izan ohi da, azken finean, baliorik gabeko informazio- eta kontsulta- truke hutsa. Gehienez ere, balio ekonomiko txikia duten emaitzak lortzera bideratutako neurritzat hartutako prozesuak dira, edo benetako boterea dutenek aurretik hartutako erabakiak legitimatzea beste helbururik ez duten praktikak.³

Nahikoa ez den arren, azken urteetan planteamendu hauek zuzentzeko saiakera egon da. Zenbait tokiko autoritate eta nazioarteko lankidetzako eragile, zerbitzuak modu eraginkorrago batean eskaintzeko eta garapen-agendetako (esaterako, Agenda 2030, pobreziaren aurkako borroka-planak...) helburuak betetzeko ahaleginean, harberago agertu dira nahi komunitarioekin. Beste parte-hartze metodo batzuk ahalbidetu dituzte, adibidez, aurrekontu parte-hartzaileak, eta eragile komunitario hauen gaitasun tekniko, administratibo eta gerentzialak indartu dituzte. Alabaina, tokiko garapen eta laguntza komunitarioarako plan hauen atzean, tokiko populazioen biktimizazioa betikotzen duen parte-hartze eta ahalduntze logika ezkututzen da, nazioarteko komunitari-teari, gobernuetara eta GKEei salbatzaile rola ematen diena.

Lurraldeetan praktika demokratikoagoak landu eta bizitza-alternatibak planteatutako dituzten subjektu politikoak eraiki nahi badira, ezinbestekoa da ahalduntze kolektiboak eta parte-hartze askatzaileak indartzea, eta horiek helburutzat hartzea. Aurrerapenak egin behar dira kudeaketan eta erabakiak hartzean parte-hartzea ordezkarriagoa, deliberatiboagoa, erlazionalagoa eta zuzenagoa izan dadin. Azken ba-

3. Zoritxarrez, parte-hartzea gastu gutxi izango duen emaitza lortzeko bitarteko gisa ulertzen da instrumentalki, eta ordezkaritza-dimentsioa eta dimentsio arauemailea bigarren mailan gelditzen dira. Ez da komeni herritarrek beren interesak adieraztea, eta are gutxiago, parte-hartzea emantzipazioarako helburua izatea (White, 2011). Sektore boteretsuei ez zaie interesatzen herritarren parte-hartze zuzena erabakiak hartu eta kudeatzeko (Alguacil, 2005), ezta autoritate publikoen eta lidergo komunitarioen arteko adostasuna, kogestioa eta koprodukzioa (Colino eta Pino, 2008).

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

tean, erdigunean jarri behar dira parte-hartzearen izaera demokratiko osoa eta eraldatzailea eta baztertu izan diren sektoreen inklusioa delibrazio espazioetan. Espazio horietan pertsona orok maila egokia eduki behar du funtzionamendu politikoari dagokionez, nahikoa trebetasun izan behar ditu bere eskubideak aldarrikatzeko, eta gaitasuna eduki behar du proposamenak egiteko eta aurrera eramateko.

Herri-hezkuntza, alternatiba feministen sare ugariaren lana eta ikerketa ekintza parte-hartzailea dira parte-hartze demokratiko normatiboago bat lortzeko helburua duten prozesuen inspirazio iturri izan daitezkeen zenbait adierazle. Prozesu horiek egungo instituzio politikoaren instrumentalizazioa errotik jarriko dute zalantzan eta lurraldeetako eragileen artean harreman simetrikoago batzuk lortzea izango dute xede. Kapitulu honen helburua joera metodologiko berriak esploratzea da, botereak dakartzan desberdintasun eta konplexutasunak kontuan hartzen dituztenak, hala nahi duten gizataldeek bizitzak erdigunean jartzen ez dituen eredu menderatzaile horren alternatibak eratu ditzaten.

■ **Demokrazia, parte-hartzea eta gobernantza lurraldeetan**

Lurralde batean gertatzen diren botere harremanak, demokrazia eta parte-hartzea ulertu nahi baditugu, ezin dugu mugatu instituzio formalak nahiz estatuko instituzioak ezagutzera. Helburua gizatalde batek nahi duen etorkizun posiblea definitzen parte hartzeko egon daitezkeen indargune eta ahulguneak zein diren jakitea bada, ez da nahikoa parte hartzeko mekanismo formalen eta kargu publiko batzuek ezarritako arauen eta hartutako erabakien azterketa hutsa egitea.

Noski, tokiko gizarte bakoitzaren demokrazia formal edo autoritarismo maila kontuan hartzeko dimentsioa da. Horrez gain, ordea, beharrezkoa da parte-hartze demokratikoa eta gobernantza modu zabalago batean definitzea. Definizio horiek oinarrian izan behar dute pertsona eta gizatalde orok bere ingurunea eta mundua ulertzeko gaitasuna duela, eta horrekin batera, gai dela erabakitzeko ingurune eta mundu horiek, eta bere burua nola gobernatu. Era berean, definizioen oinarri horretan egon behar du ingurunea eraldatzerako nola kokatu erabakitzeko gaitasunak (Casassas, in Garces, 2019).

Laburki, eredu hegemonikoari erresistentzia- eta ekintza kolektibo-prozesuetatik ikasteko jarraibide metodologikoak proposatu baino lehen, eta hainbat lurralde/tokiko testuingurutan gertatu daitezkeen prozesu eraldatzaileak aberasteko asmoz, eztabaidara zenbait hausnar-

keta kritiko ekartzea proposatzen da: a) demokrazia erlazionala eta deliberazio espazio publikoak, b) aniztasuna eta talde baztertuen inklusioa parte-hartze prozesuetan, c) gaitasun politiko kolektiboak, eta d) tokiko-tasunetik globaltasunari begiratuko dioten beste ikuspegi batzuk artikulatzeko gai izango den instituzionalismo erlazional berri bat.

Demokrazia erlazionala eta deliberazio espazio publikoak

Demokraziaren, parte-hartzearen eta gobernatzaren elementu liberal, sozialista, prozedurazko, erakusgarri, deliberazio, herrikoï eta identitario-kulturalez gain, badira azpimarratu beharreko zenbait go-goeta ekintza kolektiboko prozesuei eta kudeaketa publikoari buruz.

Lurraldeetan botere politiko alternatibo bat eraiki nahi bada politikarekiko urruntasunean, joera autoritarioetan eta eliteen interes funtzionaletara bideratutako gobernantzan arreta gehiegi jartzeak prozesu hori geldiaraz dezake. «Gutxienekoen demokrazia» horiek herritarrak, gai publikoetan interesatuta ez daudela iritzita, ez dituzte kontuan hartzen. Demokrazia horiek oztopo dira elite politiko eta ekonomikoek hartzen dituzten erabakiak zalantzan jartzen ari diren beste prozesu kolektiboak ikusteko. Guztion interesen aldi jokatuko zutela zin egin zuten elite demoliberalengan konfiantza izatearen ondorioz, eta herri-sektoreak eta herritarrak publikoa beste modu batzuetara (protagonistak sektore komunitarioak lirakeenak) esploratzeko gaitasuna galtzen ari dira. Inoiz baino garrantzitsuagoa da *'monitoreo' sasi-demokrazietatik birjabetze demokrazietara* igarotzea.

Ekonomiarekin, ingurugiroarekin eta gai sozio-kulturalekin lotutako arazo eta erronkak kasik ez dira eztabaidatzen, eta erabakiak herritarren izenean hartzen dituzte agintariek. Oro har, agintari horiek korporazio handien interesen zerbitzura daude eta ez zaie askorik axola guztien ongizatea. Edozein gizakiren ingurune hurbilean ezin konta ahala dira ekimen komunitario, sozial eta politikoak, estatuaren botere-logikotik kanpo nahiz aurka sortuak, nahikoa zilegitasun lortuz gero, gaitasuna dutenak instituzio formalak beren erabaki edo proposamenak kontua hartzera behartzeko. Proposamen desobeditzaile eta/edo disruptibo hauek dilema izan ohi dute: botere hegemonikoei aurre egin edo adostasun espazioak bilatzen saiatu.

«Gatazka egoeran dauden lurraldeak» izeneko proiektu honetan —eskuartean duzun liburua justifikatzen duena—, tutoretzapeko deliberazio, konfrontazio eta deliberazio espazio publikoaren adibide ego-

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

kiak topa daitezke. Adibide bat izan daiteke, adostasunak porrot egitea, deliberazioa Estatuak inposatu duelako interes ekonomiko handiekin bat eginez, kontsentsu arrazional moduko bat oinarritzat harturik, komunitateari onurak iragarritz. Kasu horien atzean korporazio-interesen defentsa egon ohi da ezkutaturik. Cabo Delgado⁴ zenbait herri birkokatzeke 2015ean egindako herri-galdeketa modu horretako tutorretzapeko deliberazioen adibide izan daiteke.

Bigarren adibideak erakutsi nahi du erauzketa proiektuei aurre egiteko konfrontazio komunitarioak epe labur eta ertainera aldaketa eraldatzailak sortu ohi dituela. Presioa jaistean, ordea, arriskua egoten da kapital handiaren proiektuak berriz ere martxan jartzeko. Cajamarcao inauteri-martxa eta La Colosako urre-meatzeari buruzko herri-galdeketa erakusgarri izan daitezke.⁵

Zailagoa izan ohi da botere publikoen erabakien eta gizartearen aldarrikapen eta erabakiak bat etortzea (Ibarra, 2011; Telleria eta Ahedo, 2015). Gizarte-kolektiboaren dilema aurka egitea edo adostasuna lortzea izaten da. Osera, autoritate publikoen jarrera proposamen kritikoak alde batera uztea edo ez ikusaraztea, kooptazioa, eta ekimen komunitario hauei esanahi berriak ematea; gutxitan erakusten dute elkarlanerako prestutasuna. Zentzu honetan, demokrazia erlazionala formula bat litzateke, zenbait kolektibok botereari egiten dioten presioaz gain, dau den botere-harremanak eraldatzeko beharra proposatzeko. Auzia da, nola gaingitu instituzio formalek zehaztutako deliberazio esparru funtzionalak, *statu quo-a* zalantzan jartzeko eta deliberazio espazio demokratikoagoak sortzeko, eta noski, ez edonola. Azken batean, proposamena estatu-instituzioak ulertzeko modu berriak esploratzea da; agintariak eta agintepean daudenek gai izan behar dute, deliberazio espazio publikoak berdintasunean antolatzeke, ez bakarrik hauteskunde-garaietan nahiz eztabaida mediatikoak eta mobilizazio sozialak daudenean; lurraldeetan herritar orori dagozkien arazoei irtenbidea emateko eta ongizatea zer den kolektiboki erabakitzeko prozesuak antolatzeke.

Erlazionatzeko espazio simetrikoago horiek irekiz gero, aukera gehiago daude, hauteskundeetako gatazken ondoren emaitzak lortzeko, eta emaitza horiek, gobernu formal eta alderdien arteko aliantza onu-

4. Mozambikoko gobernuak eta gas-erauzketa enpresek 2015ean Afungi penintsulako lau herritan bultzatutako galdeketa kasurako, hurrengo bideoa dago ikusgai: <<https://www.youtube.com/watch?v=B5LJJxtG8hE>>

5. La Colosako mehatzeen ustiapena arbuizatzeko galdeketa batean bozkatu zuten Cajamarcao (Tolima) herritarren kasurako, ikusi bideo hau: <<https://www.youtube.com/watch?v=s1BaW2CxBgQ>>

ragarriagoak errazteko. Horretarako, irekitasun nahikoa duten espazio mediatikoak behar dira, lagungarriak izan daitezten eragileen arteko harremanak horizontalagoak izateko. Egoera horiek noizean behin baino ez dira jazotzen, horregatik, garrantzitsua da gizarte-mobilizazioa eta demokrazia parte-hartzailea dauden tokian tokiko espazioetan arreta jartzea. Gizarte-eragile eta eragile kulturalen arteko elkarreaginak, *de facto*, beren gaitasun kolektiboak indartzen laguntzen du. Elkarreragin horiek eta tokiko gobernantza espazioak dira interesatzen zaizkigun deliberazio demokraziaren espazioak, ez derrigor formalak, eragile horien eta gobernu-eragileen arteko elkarrekintza sustatzen dutenak. Horietatik abiatuta eraiki daitezke alternatibak.

Mobilizazio sozialaren lehentasuna aurka egiteko estrategia da, autoritateek komunitatearentzat onuragarriak ez diren proposamenak alde batera utz ditzaten eskatzeko. Mobilizazioak nahikoa zilegitasun lortuz gero, instituzio publikoak mobilizatutako kolektiboekin elkarlanean aritzera eta beren egitasmoak bertan behera uztera behar ditzake. Mobilizazioa arrakastatsua izan dadin, erabateko garrantzia dute gizarte-eragileek eta/edo komunitarioek sustatutako prozesu parte-hartzaileetarako irekitako espazioek. Prozesu horietan, aurretik lankidetzan aritu gabeko eragile askotarikoek elkar ezagutzen dute, balio eta kezka komunak identifikatzen dituzte eta botere publikoen erabakiak zalantzan jartzen dituzten proposamenak egiteko adostasun eta aliantzak sortzen dituzte.

Nekazariak, ingurunearen aldeko mugimenduak eta unibertitateak aldi baterako La Colosa ixtea lortu dute Toliman. Erabakitzeke espazio publikoaren beste adibide bat litzateke Urdaibaiko jantoki osasungarrien Jangurie ekimena.⁶ Familien elkarteak, ikastetxeak, eskualdeko ekoizle eta merkatari txikiak, eta agroekologiaren aldeko ekintzaileak botere publikoak Euskal Herriko saltoki handi eta *catering* enpresa handiei baino mesede egiten ez dien jantoki komunitarioen eredia birplan-teatzea lortu dute.

Aniztasuna eta baztertutako taldeen inklusioa parte-hartze prozesuetan

Ez dago askatasunik, etorkizunaren gainean erabakitzeke gaitasunik ez badago. Nahi dugun etorkizun posiblea definitzen parte-

6. Urdaibaiko eskola-jantokietako ekimenaren kasurako, Jangurie, ikusi <https://www.youtube.com/watch?time_continue=2&v=hmDfUFZOdYs>

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

hartzeko, ezinbestekoa da gaur egungo instituzioen eta sistemaren funtzionamendua ezagutzea, eta aldaketa-prozesuak eta botereguneekin erlazionatzeko modu berriak ulertzea. Pertsonak subjektu aktiboak izateko, balio eta gaitasun kolektibo jakin batzuk berreskuratu behar dira, eta bazterketa ekonomiko, sozial eta kulturalaren ondorioz parte hartzeko dauden oztopoak gainditu behar dira. Berdintasun politikoa, zentzu liberalean ulertuta, bermea baino, oztopoa da pertsona guztien parte-hartzea ziurtatzeko.

Ordezkaritzarako espazio demokratiko formalek eta askatasun indibidual, zibil eta politikoen berme politiko eta jurisdikzionalak ez dute ziurtatzen komunitate bateko pertsona batek taldeko beste pertsona batek dituen parte-hartzeko aukera berdinak izaterik. Praktika demokratikoa ezinezkoa da aukera-berdintasuna sustatzen duen hezkuntza-sistema indartsurik gabe, erabakitze-maila guztietan dimensio deliberatiboa indartu gabe, eta gizatalde babesgabeen inklusiorik gabe. Demokrazia ordezkaritza-prozedura bat eta Legea errespetatzea baino gehiago da, zerikusia du pertsonen duintasunarekin, aniztasunarekin eta antolatutako gizarte baten balioekin (Sen, 2009; Deneulin, 2009).⁷

Deliberazio espazio publiko hauetan parte-hartzea eraldatzaileria, askatzaileria eta guztiz demokratikoa izan dadin, ezinbestekoa da ikusezin eta erabakiak hartzerakoan baztertuta gelditzen diren gizataldeak partaide sentiaraztea. Kolektiboki ahalduntzeko eta subjektu politikoak eraikitzeko ez da nahikoa zalantzan jartzea elite menderatzaileek parte-hartze politikorako espazioekin egiten duten instrumentalizazioa. Beharrezkoa da egunerokoagoak diren beste zapalkuntza-lerroak kontuan hartzea, sexuarekin, arrazarekin, etniarekin, identitate kulturalare-

7. Egile hauen ustez, abiapuntutzat demokraziaren eta parte-hartzearen ikusmolde normatiboago bat hartu behar da; pertsonak beren etorkizunaren gaineko subjektu aktibo dira, eta ez gizarte-ongizatearen instituzioen subjektu pasibo. Demokrazia eta parte-hartzea gizakiek espazio publikoan eragiteko mekanismoak dira. Parte-hartzea eta askatasun politikoa, berez daude lotuta gizakien existentziarekin, eta horretaz gain, tresna gisa funtsezkoak dira ekimen politikoak sortzeko eta gobernuek beren ardurak hartu eta kontuak eman ditzaten. Gainera, oinarritzakoak dira balioetan hezteko eta beharrak, eskubideak eta betebeharrak zein diren jakiteko. Demokrazia ulertzeko modu konplexuago horretan, arrazoketa publikoa da demokraziaren eta justiziaren arteko lotura egiteko garrantzitsua, eta parte-hartze politikoa, elkarrizketa eta elkarrekinza publikoa ere oinarritzako elementuak dira.

kin, erlijioarekin, belaunaldi-desberdintasunarekin edo klase sozialarekin lotutakoak adibidez.

Ezberdindu egin behar da herritarrek erabakiak hartzeko guneetan jasaten duten bazterketa orokorra eta tokiko espazio komunitarioetan eta gobernantza-espazioetan parte hartu nahi duten eta zapalkuntza askotarikoek sustengaturiko sistemaren biktima diren subjektu eta kolektiboak. Oso kontuan hartu behar dira, alde batetik, feministek interseksionalitateari buruz egindako ohartarazpenak, eta bestetik, borrokek zapalkuntza anitzak eta/edo diskriminazio askotarikoak⁸ jasaten dituzten pertsonak barne-hartu eta ordezkatu behar dituztela, beti ere, obsesio geldiarazle bihurtu gabe.

Erakundeen eta parte-hartze eta deliberazio prozesuen testuinguru desberdinetan zapalkuntza eta diskriminazio-jarrerak askotarikoak dira eta elkarrri gainjartzen zaizkio. Zenbait pertsonarentzat zaila da beldur-raren, lotsaren, denbora-faltaren eta, batez ere, generoa, sexua, arraza, klasea, kultura... dela eta jasaten duten zapalkuntzaren ondorioz, hain zuzen ere, justizia soziala helburu duten zenbait prozesu komunitarioetan sartzea. Lehentasuneko da zapalkuntza hauek jasaten dituzten baztertutako pertsonen entzun eta egoera hau aldatzeko estrategiak martxan jartzea. Desiragarria den etorkizun hori imajinatzeko erronka honetan «taldea egiteko» funtsezkoa da bakoitzaren irizpideetako batzuei eta estatus menderatzailea dutenen gehiegizko protagonismoei muzin egitea, eta «ezer lapurtzeko beldurrik ez izateko ia dena galdu duten horien» erresistentzia eta disidentziak kontuan izatea. Horrek berekin dakar sektore pribilegiatu eta baztertuen arteko aliantzak egitea, guztien arazoak zein diren ikusi, lehentasunak definitu eta «bizi» alternatibak proposatzea. Nolanahi ere, paralisian ez erortzeko, ezin dira ahaztu porroterako aukerak, eta porrotak ikasteko eskaintzen dizkigun aukerak.⁹

-
8. Gai honi buruzko eztabaida feministak interesgarriak dira oso. Zenbait erreferentzia dira: Young (2000, 2005), Fraser eta Honneth (2006), Hill Collins (2017) eta Martínez-Palacios (2017). Elkarrekin ikasitakoak eskertu nahi dizkiet Jone Martínez-Palacios irakasleari eta Hegoako (UPV/EHU) Lankidetzeta eta Hezkuntza Askatzailea masterreko ikasleei.
 9. Artista, akademiko eta ekintzaileen artean Marina Garcések gidatu zuen Aula oberta-n egon ziren eztabaidetatik atera dira baztertutako pertsonak entzuteari buruzko ideia, porrotetik ikasteari buruzkoa eta politika ekintza-eremu gisa ulertzeari buruzkoa. Hurrengo argitalpenean dago jaso: *Humanidades en acción* (Garcés, 2019). Zehazki, Eduard Escoffeten «Generosidad», Ingrid Guardiolaen «Negación», Joana Masóren «Valor», kapituluetan gai hauek sakontzen dituzte.

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

Demokrazia parte-hartzailearen espaziotan dauden diskriminazio-aniztasun eta bazterkeriari gehitu behar zaio, botere menderatzailerik beren jakintza balio duen jakintza bakarra balitz bezala dutela, beren nagusitasuna berretsiz, eta autodefinitzeko eta narrazio berrien bidez azaltzeko gaitasuna eskuratzeko saiakeri zilegitasuna kenduz. Hain zuzen ere, beste mundu posible horiek ulertzeko gakoak baztertutako sektoreen eta borroka sozialen erresistentzietan aurkituko ditugu (Santos, 2019). Gure kide Teresa Cunha, Isabel Casimiro, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga eta Luísa de Pinho Vallek liburu honetako kapitulu askotan dioten bezala, jakintza eta interpretazio feminista erreferentziala da gaur egungo eredu kapitalista-erausleak sortzen dituen arrakala ikaragarri horiek gainditzeko. Jakintza eta interpretazio feministak emakumeek hainbat eremutan (eremu publikoan, komunitatean, ekonomikoan, lanarekin lotutakoan eta etxean) jasaten duten bereizkeria salatu eta erabakiak hartzeko beren ahalduntze indibidual eta kolektiboa aldarrikatzen du.

Gaitasun politiko kolektiboak

Bizitza gozatu nahi duten gizakiek, bakarka zein taldeka, beren inguruko gatazka eta egitura bidegabeak *eraldatzeko aukera dute*. Liburu honetan askotan aipatzen dira gizakien gaitasunak. Bizitza luzaro bitzitzea, transakzio ekonomikoak egitea eta jarduera politikoetan parte-hartzea lirateke nagusiak.¹⁰ Kapitulu honen xedea azken horiez hitz egitea da, zehazki, dimentsio kolektiboa kontuan hartuta.

Liburu-proiektu honetan gaitasun *politiko* kolektiboetara hurbilketa proposatzen da, eta Alfonso Duboisek hurrengo hauek azpimarratzen ditu: etorkizun sena eta etorkizuna aztertzeko gaitasuna (erresilien-

10. Gaitasun politiko nagusiak egile honek aipatu zituen: Martha Nussbaum (2002). Gizakien gaitasun nagusiei buruzko bere zerrendan ondokoak aipatzen dira: zentzumenak erabiltzeko gaitasuna, irudimena, pentsatzeko eta arrazoitzeko gaitasuna eta gauzak modu gizatiar batean egitekoa (zentzumenen, irudimenaren eta pentsamenduaren gaitasuna); gure bizitzetara buruz kritikoki hausnartzeko gaitasuna (arrazoiketa praktikoaren gaitasuna); besteekin eta besteei laguntzeko bizitzeko gaitasuna eta arraza, sexu-joera, erlijio, kasta, etnia edo jatorri nazionalagatik / nazio-jatorriaren ondoriozko diskriminazioetatik babestu gaitzeen instituzio politiko komunak sortzeko (kidetza-gaitasuna); eta gure bizitzak gidatzen dituzten erabakietan modu eraginkorrean parte hartzeko gaitasuna (ingurunea politikoki kontrolatzeko gaitasuna).

tzia); konprometitzeko eta erakartzeko gaitasuna (botere-harremanak kritikoki aztertzea, konpromisorako eta eragiteko gaitasuna, eta komunikabideak erabiltzea); erlazionatzeko eta babesa lortzeko gaitasuna; koherentiaren eta aniztasunaren artean oreka lortzeko gaitasuna; egokitze eta berritze gaitasuna (ikasketa, autokritika, erabakiak hartu eta kudeatzeko tokiko ezagutzak kontuan hartzea, naturak ezarritako mugak kontuan hartzea); arazo konplexuen aurrean erabakiak hartzeko gaitasuna; eta zereginak egiteko gaitasuna. Beste kapitulu batean, María Oiangurennek, beste hauek ere aipatzen ditu: gogoratzeko gaitasuna (ezagutza kokatutzat ulertua, norberaren izatea eta ingurartzen gaituenaren izatea ezagutzea, hau da, mundua eta gure lurraldea arrazoiarekin eta bihotzarekin gogoratzeta); irudimenerako gaitasuna (hobeto bizitzen lagunduko diguten gauza berriak denbora eta espazioan imajinatzea); eta birsortzeko eta birziklatzeko gaitasuna (klabe soziologiko eta ekologikoan, botere publikoei eginiko proposamen eta eskakizun normatibo horiek praktika politikora eramatea).

Sarreran atzerakada demokratikoa aipatu zen, eta nola kapitalismo demoliberalaren instituzio ekonomiko eta politikoei jendeak sufritzen dituen diskriminazio eta bereizkeriak areagotzen dituen. Jendea gero eta alienatuago dago eta gero eta gogo gutxiago du eragiten dioten erabaki horietan parte hartzeko. Badirudi agintean dauden eliteak gutxi batzuen interesen zerbitzura dauden errealitate hau aldatzeari uko egin diola. Guztiak hain konplexua dirudi, hobe bakoitzak hobe norbera bere kasa bizitzea, esanekoak izatea eta *statu quo* zalantzan ez jartzea. Hain zuzen ere, «Gatazka egoeran dauden Lurraldeak» liburu eta proiektuak arrazoiketa praktikotik norbera jakiteko, ezagutzeko, irudikatze eta birsortzeko gaitasuna berreskuratu nahi du. «Bestea» ez dadila mehatxua izan, baizik eta elkartasunerako aukera, eta berreskuratu ditzagun harreman demokratikoak espazio eta instituzio publiko berrietan, ikuspegiak, prozesu kolektiboak eta bizitzaren hobekuntzak elkarbanatzeko. Edozein ahalduntze, ordezkaritza politiko eta erabakiak hartzeko sistema ez da zilegi. Hala ere, lurraldean boterea eraikitze ezinbesteko elementuak dira ahalduntze eta lidergo kolektiboa, borondate politiko berria eta norbera jakiteko, ezagutzeko, irudikatze eta birsortzeko elkarrekin egoteko gaitasuna.

Aipatu bezala, ahalduntzeak benetakoa izan behar du, bai pertsonalki, bai kolektiboki. Botere-egituretan parte-hartzea areagotzeko, ezinbestekoa da pertsona orok gizartean zeresana duela ulertzea eta konfiantza izatea bere buruarengan eta, hartutako erabakietan eta egindako ekintzetan. Ahalduntze horretan norbanako horrek aldake-

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

tak egin behar ditu botere-harremanetan, bai etxean, bai komunitatean, baita politikan ere. Ingurunean aldatetak lor ditzake eta lortu behar ditu, eta erabakiak politikoki hartzeko prozesuan eragina izatera iritsi behar du. Bakarkako ahalduntzea, ordea, ez da nahikoa.

Aldaketa egon dadin beharrezkoa da *borondate politikoa* beste modu batera ulertzea, ez identifikatzea elite batzuen borondatearekin. Izan ere, elite horiek herritarrak arau eta erregelen esparru zurrunean kokatzea komeni zaienaren jakitun sentitzen dira. Prozesu politikoe-tan esfortzu kolektiboa egin behar da, eta horrek, «aldaketa egokiak» lortzeko gai den lidergoa eskatzen du. Lidergo hori kolektiboa litzateke, eta askotariko interesak dituzten erakunde, elite eta liderren koalizioek osatua legoke. Gai izango litzateke zurruntasun instituzionala sustengatzen duten ideiak inpugnatu eta ideia horiei zilegitasuna kentzeko, eta proposamen alternatiboak (DLP, 2018) legitimatzeko. Motibatuta dauden liderrak behar dira, balioak, interesak eta ikuspe-gia elkarbanatzen dituztenak, gai direnak prozesu kolektiboak antolatzeko. Prozesu horietan norbanakoak gai izango dira kooperazioaren oztupoak gainditzeko, ideia menderatzaileak zalantzan jar ditzaten elkartzeko eta proposatzen diren alternatibak legitimatzeko. Azken finean, agentzia kolektibo indartsu baten bidez egiturak aldatzeko gai den lidergoa (Fariñas, Peris eta Boni, 2013), egitura sozial eta politikoak zalantzan jarriko dituen aldaketa formal eta informalak eragingo dituena, parte-hartzeko modu berrien bidez eta instituzio-modu berriak eraikiz.

Lurraldeetan botere politikoa eraikitzeko proiektu honetan lantzen ari diren proposamen berrien helburua ez da «gatazka egoeran dagoen lurralde» bakoitzeko konponbide zehatzak eskaintzea, ez bada bertako eragileek bizitza hobe baten alde egiten dituzten borroken errealitateak mahaigaineratzea. Espazio publiko komunak identifikatu, eraiki eta bultzatu behar dira, bertan pentsatzeko gaitasuna duten eragileak batu eta elkarrekin erlazionatzeko, hainbat kolektiboren esfortzuak elkartuko dituzten proiektu komunak sortze aldera, bereziki baztertuenak eta/edo diskriminatuenak dauden kolektiboenak (emakumeak, gazteak, adineko pertsonak, migratzaileak, langabetuak, gutxiengo etniko eta kulturak...). Horretarako, Duboiek bere kapituluan dioen bezala, oinarrizkoak diren hainbat gauza daude, alde batetik, ikuspegi desberdinen arteko topaketa espazio horiek sortzea, talde desberdinen interesak onartzea eta talde horien pentsatzeko eta jokatzeko moduak ulertzea. Bestetik, bertan aritzen diren eragileen eta ingurunearen benetako arazoak zein diren ulertzea, eta azkenik, ulertzea erabakitzeko hainbat gune sortu

daitezkeela eta kontraesanak eragin ditzaketela lehenengoan diagnosti-ko eta helburuei dagokienez.

Instituzionalismo erlazional bat globaltasunari tokikotasunetik begiratzen dioten bestelako ikuspegiak antolatzeke gai dena

Lehenago aipatu da lurraldeetako botere politikoaren artikulazioa ulertzeko kontuan hartu behar direla demokrazia- eta gobernu-maila desberdinak. Ez da nahikoa lurralde bakoitzeko ehundura sozial, politiko eta ekonomikoa nazio- edo mundu-mailako joeren joeretan kokatzea. Lurraldea benetan bizi espazio gisa ulertuz gero, globaltasuna tokikotasunetik ulertzeko modu berri bat beharko da. Instituzioen perfektzioa eta Estatuaren eraginkortasun minimoa ez dira lurraldeetako botere politikoari buruzko hurbilketa egiteko baliagarriak zaizkigun gobernantza ulertzeko moduak.

Baliabideak zerga-sistemaren eta Estatuaren deszentralizazio politiko eta administratiboaren bidez mobilizatzea bilatzen duten ikuspuntuak ere ez dira nahikoa gobernantzaren eta tokiko botere politikoaren arteko harremana gaiari heltzeko. Zoritxarrez, ez deszentralizazio politikoak, ez pobretutako herrialdeetako gobernuen zergen gaineko gaitasunak indartzeak, ez dute lortu ustelkeria, klientelismoa eta enpresa handi transnazioanalak zergetatik libre geratzea eragozterik. Gobernuak eta bere burokraziak, sistema judizialak eta sozio-ekonomikoak, merkatua eta bere interesak sustatzeko garapen-estrategiak eratzen jarraitzen dute, gizarte-politiko aintzat hartu gabe. Ondorioz, analisia egiterakoan gai publikoei buruzko interesean eta politika publikoek herritarrei eskainitako zerbitzuetan jarri behar da arreta (Hyden eta Court, 2002). Gaur egungo sistemetan, ez dago horizontaltasunik, ez simetriarik gobernu eta ekonomia-korporazioek duten boterearen eta gizarte zibil eta politikoen dutenaren artean. Ez nazio-mailan, ezta tokiko mailan ere.

Lurraldeetan botere-harreman horiek aldatu nahi badira, ahalegina gizarte indartsu, demokratiko eta parte-hartzaileak sortzeari eskaini behar zaio, autoritate legitiimoak eratzeko eta eredu sozio-ekonomikoa modu bidezkoago baterantz bideratzeko gai izango direnak. Azken batean, Estatuaren, Gizartearen eta Merkatuaren artean beste elkarre-eragin mota batzuk behar dira, komunitateek eta/edo tokiko gizarteek boterea berreskura dezaten gaur egungo bi aldetako gobernantzaren aurrean. Izan ere, gaur egun enpresa handiek eta estatu-autoritateek

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

erabakitzen dute, eta gizartearen gehiengoa eredu honetan harrapatuta geratzen da, ez duelako hori aldatzeko ez interesik, ez gaitasunik, edo, itxuraz, «pribilegio» batzuen jabe delako.

Neofaxismoaren eta/edo autoritarismo «demokratikoaren» gorakadak sortutako ziurgabetasunak estatu demoliberalen egitura normatibo eta antolatzaileen krisia areagotu du. Agian, egoera hau aukera bat litzateke gizarte-sektoreak eta politiko liberalak konbentzitu eta ikusarazteko azken hamarkadetan sortu dituzten garapenerako politika- eta ekonomia-proposamenek porrot egin dutela, eta beharrezkoak direla pertsonen eta komunitateen interesak erdigunean jartzen dituzten proposamen berri horiek, eta ez kapital handiarenak.

Borrokatetik eta kontrajarritako interesetatik sor daitezkeen instituzionalizazio konplexuak aztertzeko kontzeptu eta logika berrien bilaketa abagunetzat har daitezke lurralde, autoritate eta eskubideak egitura jakin berrietan antolatzeko. Egitura horiek, denborarekin jardun-maila desberdinak eta hobeak lor ditzakete (Sassen, 2006). Globaltasuna tokikotasunetik ikusteko ikuspegi berri hauek eraikitzeko, modu sortzailean eraberritutako kontzeptu eta markoak behar dira, lurralde jakin bateko gizarteek eratutako dituzten proiektu normatiboak aztertzeko, gizakien, norbanakoen eta kolektiboaren ongizatearen alde egiten dutenak. Hurrengo atalean marko berri horretarako gakoak landuko dira.

Lurraldeetako botere-harremanetara hurbiltzeko metodo berriez gain, beste erronka handi bat da nola antolatu gizarte- eta politika-instituzio sendoak antolatutako sektoreak dauden lurralde-testuinguru espezifikoetan. Sektore horiek botere hegemonikoren aurrean alternatibak proposatuz egiten dioten aurka, eta zail zaie beren erresilientzia adieraztea eta gehiengo sozial gatibua erakartzea.

Egoera hori aldatzeko eta etorkizuneko ikuspegiak zehaztuko diren espazioetan gizarte osoak parte har dezan, arreta hiru gaitan jartzea proposatzen da. Lehenenik eta behin, formulak bilatu behar dira herri-tarrek gai politikoetan interes gehiago izan dezaten eta hainbat eztabaida-mailatan parte har dezaten (ez bakarrik gobernu-maila desberdinetako ordezkarien hautaketan, baizik eta protestetan, eta deliberazio espazio publikoetan). Bigarrenik, hainbat lurralde-eragilek deliberaziorako eta hainbat gaitan adostasuna bilatzeko deliberazio espazio formal eta informalak sustatu behar dira. Eta hirugarrenik, beharrezkoa da baztertutako gizataldeak, eta orokorrean, herritarrak, parte-hartze aktiboago, demokratikoago eta ez hain zaintzapeko batera irekiagoak dauden politika publikoak bultzatzea.

Laburbilduz, gobernantza ulertzeko modu politizatu gabeen aurrean, beharrezkoa da sektore baztertuena eta tokiko jakintza demokratikoen funtzionamendu politikoa sustatzea, eta eredu erlazional, horizontal eta simetrikoago bat eraikitzea, herritarrek gainerako botere publiko eta eragileekin eztabaidatu dezaten, eta erabakietan eta kudeaketan parte har dezaten, beharrezkoa dela uste dutenetan.

EKONOMIA POLITIKORAKO ETA BAKEAREN ERAIKUNTZARAKO ANALISI-MARKOEI PROPOSAMEN ALTERNATIBOAK

Proposamenek ezin dute itxiak izan. Lurralde batean eragile eta kultura anitzak baldin badaude, balio, sinesmen eta identitate askotarikoa dituztenak, eta lurralde horretako jendearen arazoak konponetzeko gai diren gizarte- eta politika-instituzioak aztertu nahi baditugu, ezin dugu eduki helburutzat konplexutasun guztia kontuan hartuko duten marko analitikoak eraikitzea, eta are gutxiago, ezin dugu pentsatu horien ezarpena unibertsala izango denik. Era labur eta kritikoa garapenerako ekonomia politikoaren eta bakearen eraikuntzaren lurralde-analisirako marko nagusiak ezaugarritu ondoren, Gough eta Wood-en (2004) ardura instituzionalaren matrizea eta ongizate-erregimenak eta Garapenerako Lidergoaren Programa (DLP, 2018) aurkeztuko dira botere politiko alternatiboaren eraikuntza-prozesuen analisia egiteko proposamen gisa. Amaitzeko, beste marko batzuetan esperimentatzeko gako batzuk proposatuko dira, lurraldeetako prozesuak aztertzeko baino, horietan gertatzen diren esperientzietatik ikastea errazteko.

■ Lurralde-analisirako markoei hurbilketa kritikoa

Garapen, demokrazia, gobernantza eta bakearen emaitzak neurtzeko ahalegin gehienak logika interesatuen baitan kokatzen dira. Logika horiek merkatuen interesei eta/edo atzerriko inbertsioen bermeari erantzuten diete edo Agenda 2030aren begiraletza-eta ebaluazio-logikan eta nazioarteko kooperazioaren garapenaren finantzaketaren logikan daude kokatuta. Merkatuaren ekonomiak behar bezala funtziona dezan, atzerriko inbertitzaileek eta enpresa transnasionalek botere publikoen gaitasunari buruzko neurketa eta ebaluazioak finantzatzen dituzte. Hori dela eta, adierazle nazionalak eta

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

sektorialak dira nagusi, ordea, garapen-prozesuak neurtzen dituzten tresna azpinazionalak ez daude hain garatuta (Bandeira, 2011).

Azpinazional/tokiko mailari dagokionez, agentzia multilateral, gobernu eta GKE gehienek temati jarraitzen dute beren esku-hartzeen emaitza positibo ala negatiboan arabera egiten, marko logikoaren enfokarean bidez. Hala ere, egia da milurteko berria iristearekin, garapen-emaitzak lortzeko esku-hartzeek porrot egin dutenez, eragile askok fokua gizarte hartzaileen borondate politiko eta jarretan jarri dutela. Horrela, arreta gehiago eskaini diete lurralde horietako aldaketa sozio-ekonomiko, politiko eta kulturaletan eragina izan duten kanpoko beste gertaerei eta beste eragile batzuen esku-hartzei. Ekonomia politikoaren eta tokiko bakearen eraikuntzaren esparru hauen baitan, azpimarragarriak suertatzen dira erakunde multilateralek, agentzia bilateralek eta zenbait GKE eta fundazio pribatuk sustatutakoak (ikus bukaerako eranskina).

Ekonomia politikoaren eta bakearen eraikuntzaren analisisen logika honek ezagutza kokatuarekin eta ordezkartzarekin lotutako zenbait dilema metodologiko dakartza. Prozesuetako subjektu politikoaren eta kanpoko eragileen arteko harremanek esku-hartzeak eta garapen-helburuak baldintzatzen dituzte. Izan ere, kanpo-begiradek protagonisten interesak ordezkatzeko, eta neurri batean, interpretatzen dituzte, tutoretza behar bat egongo balitz bezala. Garapenerako ekonomia politikoari eta bakeari buruzko ikerketa hauek tokiko errealitateetara egokitzen saiatzen dira hein batean, nahiz eta ez den argi gelditzen beren neurketak dohaintza-emaile eta beren proiektuentzat diren ala aldaketa-prozesuetako subjektu politikoentzat diren.

Maila azpiestatatalean, mota honetako begirada eta tresna analitikoek gaitasun tekniko, administratibo eta gerentzialetan jartzen dute arreta, garapenaren eta bakearen nazioarteko agenden helburuak bete daitezen, eta ondorioz, ez dituzte nahikoa indartzen tokiko eragileek berentzat nahi duten etorkizunari eta beren lurraldeari buruz erabakitzekeo prozesuak eta gaitasun kolektiboak. Análisiak partzialak dira eta kontraesanak dituzte maila erretorikoan eta maila operatiboan, eta horrek, tokiko populazioak biktimizatu eta eta nazioarteko komunitateari salbatzaile rola esleitzen die (Sanz, 2014). Beste hitz batzuetan, analisi-marko hauek dohaintza-emaileen ekimenen beharretan oinarritzen dira garapenaren eta bakearen arazoetan arreta jartzean, eta alde batera uzten dituzte gizarte bakoitzak dituen zailtasunak (Copestake eta Willians, 2014; Alberdi eta Dubois, 2015).

Erdigunean desiragarria den etorkizuna erabakitzekeo prozesuen neurketa jarritz gero, eta prozesu horiek boterearen egitura, instituzio

eta funtzionamenduak aldatzeko gai badira, ezinbestekoa da ebaluazio-eta neurketa-metodo horiek errotik birplanteatzea. Teknika kualitativo eta kuantitatiboak diagnostiko narratiboekin konbinatu behar dira, eta erreferentzia normatiboak txertatu gaitasun kolektibo, epistemologia alternatibo, ekonomia feminista eta ekologikoari, botere korporatiboaren alternatibo, instituzionalismo erradikalari eta abarri buruz. Beharrezkoa da ideia, kontzeptu eta tresna berriak garatzea boterearen egitura, instituzio eta funtzionamenduak ulertzeko, baita kompetentzian, gatazkan eta ideia, interes, balore eta lehentasunen deliberazioan boterea nola erabiltzen den ulertzeko (Hudson eta Leftwich, 2014).

Helburuak prozesu komplexuen analisi-markoak sortzea izan behar du, batetik, lagungarri izateko boterearekin, kolektiboaren eta sistemaren gaitasunekin lotutako aldaketa-prozesuetan, eta bestetik, beren etorkizuna modu parte-hartzaile batean erabakitzeke oinarrian helburu komunak izango dituzten gizarte kohesionatuak sortzeko. Tokiko botereen eraikuntzak lurraldeko subjektu protagonisten berezko ezagutzatik abiatu behar du, eta, beren esperientzia eta beren buruarekiko hausnarketatik abiatuta, ikasketa-esparruak eraiki daitezke, logika kapitalista, arrazista, hetero-patriarkal eta akademikoen eragina indargabetu dadin (Luxán eta Azpiazu, 2018).


■ **Analisi-marko itxiak ez dira baliagarriak: arduraren instituzionalaren matrizeari eta Garapenerako Lidergo Programari erreferentzia laburra**

Nolanahi ere, gorago aipatutakoak horrela izanik ere, analisi-marko askotan ekarpen eta elementu interesgarriak aurki daitezke, lurraldeetako botere politikoari buruzko analisisetan erabilgarriak direnak. Goraipatzeko asmorik gabe, 1. irudian, urte hauetan hainbat prozesutan izandako ikasketa eta laguntzan «Gatazka egoeran dauden lurraldeak» proiektuko taldearen lanaren inspirazio iturri izan diren zenbait tresna aurkeztuko dira.

Gouh eta Wooden (2004) arduraren instituzionalaren eta ongizate-erregimenen matrizeak zenbait gako alternatibo azpimarragarri eskaintzen dizkigu instituzioen arteko harremanak lurralde desberdinetan aurki ditzakegu testuinguru desberdinetara egokituago dagoen modu batean eta modu holistikoagoan ulertzeko. Lurralde bateko botere-harremanak ulertu nahi direnean garrantzitsua da argi adieraztea testuinguru jakin bakoitzeko estatu-, merkatu-, komunitate- eta

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

1. IRUDIA. ONGIZATE-ERREGIMENEN EREDUA: ARDURA INSTITUZIONALAREN MATRIZEA



Iturria: Wooden (2010) moldatua.

familia-instituzioek dituzten ezaugarriak, eta lurralde horretako hainbat eragilek ongizate indibidual eta kolektiboa sortzean duten funtzioa neurtzea.

Hurbilketa neoinstituzionalistek ez bezala, ardura instituzionalaren matrizearen proposamen honek gizataldeei eragiten dien adostasun instituzional politiko eta praktikoen multzoan jartzen du arreta. Hainbat errealitate bereizten ditu, alde batetik, ongizate-maila handia lortu den errealitateak (ongizate-erregimena), bestetik, ofizialak ez diren eragileek komunitatearen ongizatean duten eragina erabakigarria izan den errealitateak (segurtasun informalaren errealitateak), eta azkenik, ez estatuak, ez merkatuak, ez komunitateak, ez etxeak gutxiengo batzuk bermatzeko gai ez direnak (segurtasunik gabeko erregimena). Ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko eta/edo erosteko gaitasuna, botere publikoek eskaintzen dituzten zerbitzuetara heltzekoa, sexuan oinarritutako lan-banaketaren arabera antolatutako lan ez-ordaindurako sarbidea, berebiziko garrantzia duten gaiak dira maila instituzional desberdinetan parte-hartzean dauden desberdintasunak aztertu nahi badira. Urdaibai, Tolima eta Cabo Delgado lurralde-boterea aztertzeko kontuan izan behar dira mota honetako proposamen metodologikoak, dimentsio instituzionala, ongizate ekonomikoaren errealitatearekin eta eragileek ondasun komunak eskuratzeko duten gaitasuna kontuan hartzen dutenak.

Gaitasun politiko kolektiboen atalean eraldaketa-prozesuetan lidergo kolektiboek duten garrantzia azpimarratu zen. Garapenerako Lidergo Programak (DLP, 2018), Nazioarteko Laguntzarako Agentzia Australiarrak babestuta eta Gobernu britainiarraren Nazioarteko Garapenerako Sailaren (DFID) Drivers of Change plantamenduan inspiratuta, garapen-prozesuetan tokiko lider eta koalizioek duten egitekoan jartzen du arreta, eta «borondate politikoa» sortzeko duten moduan. Aldaketa positiboak sortzeko prozesu estrategiko, politiko eta kolektiboak jarri behar dira martxan. Horietatik sortuko da aldaketarik nahi ez eta, *statu quo*a mantendu eta gainerako gizarte-taldeak ahalduntzea ekidin nahi duten instituzio eta erregela formal eta informalei aurre egiteko gai den borondate politikoa. Hori horrela izan dadin beharrezkoa da: a) aldagaketan eragiteko motibazioa, baloreak, interesak eta aukerak dituzten norbanakoak; b) desberdinak lankidetzan arituko diren prozesu kolektiboak; eta c) gizarteak berregituratzeko koalizioak, eragina, zilegitasuna eta boterea dutenak. Koalizio hauen indarra eta eraginkortasuna ideia alternatiboen multzo bat legitimizatze gaitasunaren eta parte-hartzeko gaitasunaren araberakoa izango da.

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

Lurralde-testuinguru askotan errazagoa da dauden egituretatik baino instituzio ahul eta inprobisatuetatik eragitea aldaketak, helburuak lortzeko ekiteko askatasun gehiago baitute. Aldaketa hauek askotariko krisien, gatazken eta presio sozialen ondorioz soilik gertatzen dira. Gainera, oso garrantzitsua izaten da, aldaketak komunikatzeko era, izan ere, eztabaidagarritzat ez diren gaietara eragiten baitiete, adibidez, balioei, arauetara, hierarkietara edo kultur sinismenetara. Hori dela eta, aldaketarako beharrezkoak dira tokiko espazioetan garatzen diren koalizio eraginkorrak erraztuko dituzten lidergo eraldatzaileak, bertan beste eragileekin egin daitezkeen ekimenak esploratzeko eta eraldaketa-prozesuetan modu positibo batean lagundu daitezkeen ulertzen saiatzeko. Zentzu honetan, erreferentzia dira DLP lanak.

■ Ekintza kolektiborako ikasketa-esparruak eraikitze bidean

Ez dago, eta ez da asmoa, errealitatea eraldatzea lortzen duten prozesu kolektiboen azterketa-esparru itxirik eskaintzea. Proposamen ireki honek subjektu protagonisten agentzia kolektibotik eta ongizate kolektiboa hobetzeko beren asmotik abiatuz, narratiba desarrollista atzean utzi eta, gizartearen funtzionamendua ulertzen lagundu nahi du, justizian, elkarbizitzan eta ongizate kolektiboan oinarritutako beste bat sortzeko.

Lurraldeetan narratiba berri hauek eraikitzeko, arestian aipatu den moduan, ezinbestekoa da tokiko gizarte bakoitzak proiektu integratzaile eta parte-hartzaileak diseinatu eta horietara ekiteko gaitasuna garatzea. Ildo beretik, funtsezkoa da lurraldeetan dauden ikuspegi desberdinek elkar topatzeko espazioak sortzea, bertan talde desberdinen interesak aitortuak izan daitezkeen. Oinarritzakoa da toki bakoitzean dauden pentsatzeko eta jokatzeko moduak ulertzea, bertako eragileen eta ingurunearen benetako arazoak zein diren jakitea, eta kontuan edukitzea denbora- eta espazio-maila desberdinak, erlatiboki autonomoak izan daitezkeen erabakigune askotarikoak, baita aldi berean gertatzen diren prozesu inkoherente eta kontraesankorrak ere. Konplexutasun honetan mugitzen lagunduko diguten ikasketa-esparruak eraikitzea da xedea, eta ekintza-kolektiborako bat egiten duten ikuspegiak sortzea (Dubois, 2014).

Cabo Delgado probintzian eta Maputo hirian (Mozambike), Tolima eta Caquetá departamenduetan (Kolonbia) eta Urdaibaiko eskualdean (Euskal Herria) egin diren honek hainbat prozesu-kolektibotan

ari da laguntzen talde hau. Prozesu-kolektibo horiek erronka eta arazo-en diagnostikoei buruzkoak, identifikazioari buruzkoak eta plan desarrollista eta megaproiektu kapitalisten alternatibei buruzkoak dira, eta xedea kapitalaren, heteropatriarkatuaren, arrazismoaren eta xenofobiaren logikaren aurka borrokan egiten duten subjektu politikoetatik ikas-teko metodologia berriak bilatzea da. Konplexutasuna argitzeko lagun-garriak diren metodologiak, eta maila desberdinetan eta denbora- eta espazio-mailetan, eta testuinguru inkoherente eta kontraesankorretan nola pentsatu eta jokatu behar den ulertzeko lagun-garriak direnak.

Hona hemen ikasketa-esparru horietan kontuan edukitzeko zen-bait gako:

- Tokikoa eta lurraldea ulertzeko moduan bat etorri eta hortik abiatu behar da. Historia, kultura, geografia, baliabide, ezagutza eta instituzioen elkarreragin konplexuak gertatzen diren lurralde edo «tokiko-espazio jakinak» dira. Gizarteek proiektu komunak eraikitzen dituztenak. Gizarte horiek ulertzen dute ez daudela ingurunetik isolatuta, are gehiago, goragoko beste maila batzuekin harremanak izan behar dituztela. Lurraldeak izan behar du globalizazioa beste modu batera nola eraiki pentsatzeko tokia, bidezkoagoa eta giza-tiarragoa izango den globalizazioa. Tokikotasunak lurraldearen eta komunitatearen zentzua berraurkitzeko aukera ematen du.
- Gizakien gaitasunetan konfiantza izan bizi-baldintzak, kolektiboki ezarri eta hobetzeko. Uste osoa izan pertsonengan eta komunitateengan, eta egiten duten bizitzaren transmisio, erreproduktzio eta zaintzan. Ulertu etengabe ari direla askatasuna berreskuratu nahian, eta elkarrekikotasunean oinarriturik, planetaren interdependentzia zaintzen duen emantzipazioaren bila. Ezin da gelditu garai hobeen nostalgian kateaturik, ezta sistema bidegabearen hiperkritikan ere. «Adimen berdintasuna» izango da abiapuntua, hau da, edozeinek duen gaitasuna desikasteko, publikoki jakin eta arrazoitzeko, ikasteko eta ulertzeko, nagusitzen dena zalantzan jartzeko, eta alternatibak eskaintzeko (Garcés, 2019). María Oiangurennek liburu honetan azpimarratzen duen bezala, nihilismoa alde batera utzi eta extraktibismo sinbolikoari aurre egin behar zaio, itxaropenaren epistemologia bate-tik, bizitzak indartu behar dira, gogoratzeko, imajinatzeko eta klabe sozial eta ekologikoan birsortzeko gaitasunaren bidez.
- «Bizitza komunitarioaren egiturak» edo kezka komunak identifikat-zeko beharra ahalegin konpartituek estimuluak izan ditzaten. Leku bateko norbanako eta taldeak instituzio formal eta informalen

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

artean aritzen dira, ondare sozialak sustatzen dituztenak beren bizitzak hobetzeko. Bizitza komunitarioaren egiturak beren helburuetatik desbideratzen direnean, norbere hausnarketaren eta norbere esperientziaren bidez bideratzen saiatu behar da (Deneulin eta Stewart, 2002).

- Beste oinarritzko zeregin bat lurralde bakoitzean dauden interrelazio-esparruak aztertzea da, objektibitate desberdinak ulertzen saiatzeko. Interes menderatzaileek helburu bakartzat aurkezten dituzte bere ekonomia-garapenaren helburu kapitalista/extraktibistak. Alabaina, lurraldeetan badira beste «objektibitate posizional» batzuk (Sen, 2009), beste helburu eta proposamen batzuk egiten dituzten beste eragile batzuen beste jarrera batzuk, haien artean desberdinak izanda ere, balioetan eta gauzak ikusteko moduetan bat egin dezaketenak. Lurralde eta testuinguru sozio-instituzional eta kulturalaren arabera, lurraldeko eragileen arteko interrelazioak oso desberdinak dira. Horregatik, beharrezkoa da toki bakoitzeko gizarte-egitura, instituzioak, joko-arauak, ingurune ekologikoa eta, ideia eta kultura ulertzea.
- Hegoaldeko epistemologiaren premisek eta horien tresnek boterearen logikak ezartzen duen arrakala (sistemaren partaide zein den eta zein ez den bereizten duena) gainditzeko balio dute. Epistemologia horien tresnak absentzien eta larrialdien soziologia, jakintzen ekologia, kulturarteko itzulpena eta praktikaren artisautza dira. Bereizi egin behar dira lurralde bakoitzean isildutako eta/edo ezabatutako eragile eta jakintzak, eta horien pentsatzeko eta ekiteko gaitasuna. Kulturarteko ziurgabetasuna eta ekimen sortzaile eta irudimen handikoak mundu kapitalista, kolonial eta heteropatriarkal horri aurre egiteko balore eta alde positibotzat ulertu behar dira (Santos, 2014; Cunha eta Santos, 2015).
- Kolektiboari eta ahalduntzeari buruzko ideia feministek joko-arauei eta testuinguru desberdinetako botere-harremani modu kritikoa begiratzeko aukera ematen digute. Hermeneutika feminista eta ordezkartzarik ez duten ahotsak jaso behar dira, eta arreta jarri mugimendu eta praktika feministetan, horiek desberdinkeriei aurre egin, eta emakumeak egoera demokratiko eta instituzional berrietan subjektu politiko eta eragile izatea lortzen baitute (Cunha, 2011; Larrañaga eta Jubeto, 2014).
- Batzuetan, Estatuaren kontrola eta presentzia mugatua den testuinguruetan, ohikoak ez diren gerrak sortzen dira lurraldeetan, inbertsio atzerritarrek eta tokiko elite politikoek, epe laburrean

mozkinak lortzeko, herritarren beldurrean eta etsipenean oinarritutako botere-logika berriak ezartzen dituzte. Zeharkako gobernu pribatuek egiten duten indarkeriaren eta gatazkaren instrumentalizazio politikoak eta praktika neokolonialek lurralde hauetan gertatzen ari dena ulertzen laguntzen dute (Mbembe, 2011). Etsipen-egoera horren aurrean, uste osoa izan behar da botere korporatiboen aurreko alternatibak posible direla, eta horren adibide dira lurrak okupatzea, zerbitzu pribatizatuak berreskuratzea, zerga-saihestearen aurkako borroka edo beste hainbat adibide, eredu jasangarriago baterantz bidea egiteko baliagarriak izaten ari direnak (Fernandez, 2017).

- Kapitulu honetan azpimarratu nahi izan dira, alde batetik, baztertutako taldeen motibazioak eta parte-hartzeak duen garrantzia, bestetik, lidergo komunitarioekin egindako aliantza sortzaileak, aldaketa onuragarriak dakartzatenak, eta azkenik, deliberazio espazio publikoen eraikuntza. (Alberdi, 2016).

Ikertu eta/edo elkar laguntzen duten prozesu hauetatik ikasi nahi bada, militanteek eta ikerketa-taldeek eragile protagonistekin duten interakzioa eta bidean egiten diren aurkikuntzak, kanpotik egiten den esku-hartzea bera baino garrantzitsuagoa dela ulertu behar da. Ahalgina egin behar da toki bakoitzean analisiaren eta ekintzaren arteko integrazioa estuagoa izan dadin, elkarrekin lotura duten arazo- eta gatazka-multzoak lantzeko gaitasun handiagoa lortzeko, eta eredu menderatzailearen alternatiba eta erresistentziak identifikatzeko. Hori da Urdai-bai, Tolima eta Cabo Delgado "lurraldeetan" egin diren azterketetan egiten saiatu direna. Prozesuetan lagundu, deliberazio espazio publikoak ireki edo indartu, egin nahi den hurbilpen-motaren arabera. Arazoen mapaketa, datuen bilketa eta interpretazioa, diskurtsoen analisi kritikoa, edukien analisia, produkzio narratiboa; azken batean, botere politiko alternatiboa eraikitzeko eta lurraldeetatik ikasteko metodologia kritikoak.

BOTERE POLITIKOARI ETA LURRALDEARI BURUZKO BALIABIDEAK

■ Bibliografia

ALBERDI BIDAGUREN, Jokin (2016): *The Political Dimension of Local Human Development: Key Points for the Construction of Alternatives and Cohesive*

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

- Societies*, Bilbo, Hegoa (UPV/EHU). Eskuragarri hemen: <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/386>>.
- eta Alfonso DUBOIS (2015): «El proceso de definición colectiva del bienestar, como referencia clave de la dimensión política del desarrollo. Del desarrollismo al desarrollo humano», in M. ENGELKEN-JORGE, M. CORTINA ORIOL eta N. BERGANTIÑOS (argtz.): *Contextos y perspectivas de la democracia. Ensayos en honor a Pedro Ibarra Güell*, Iruña, Pamiela/Universitas, 62-85.
- ALGUACIL, Julio (2005): «Los desafíos del nuevo poder local: la participación como estrategia relacional en el gobierno local», *Polis. Revista Académica de la Universidad Bolivariana*, 12, 1-15. Eskuragarri hemen: <<http://www.dhl.hegoa.ehu.es/recursos/200>>.
- BANDEIRA, Pablo (2011): «El uso de herramientas de medición de calidad de las instituciones públicas en la cooperación internacional», *Revista Globalización, Competitividad y Gobernabilidad (GCG)*, 5 (3), 134-151. Eskuragarri hemen: <<https://gcg.universia.net/article/view/416/uso-herramientas-medicion-la-calidad-las-instituciones-publicas-la-cooperacion-internacional->>.
- COLINO, César, eta Eloísa del PINO (2008): «Democracia participativa en el nivel local. Debates y experiencias en Europa», *Revista Catalana de Dret Públic*, 37, 247-283.
- COPESTAKE, James, eta Richard WILLIAMS (2014): «Political Economy Analysis, Aid Effectiveness and the Art of Development Management», *Development Policy Review*, 32 (1), 133-155.
- COURT, Julius, Goran HYDEN eta Mease KEN (2002): *Assessing Governance: Methodological Challenges*, United Nations University, World Governance Survey (Discussion Paper, 2). Eskuragarri hemen: <<https://www.odi.org/publications/3137-measuring-governance-methodological-challenges>>.
- CUNHA, Teresa (ant.) (2011): *Ensaio pela democracia. Justiça, dignidade e bem-viver*, Porto, Afrontamento.
- eta Boaventura de Sousa SANTOS (ant.) (2015): *Epistemologias do Sul. Aprendizagens globais Sul-Sul, Sul-Norte e Norte-Sul*, Coimbra, Ikerketa Sozialen Zentroa.

- DENEULIN, Séverine (2008): «Beyond Individual Freedom and Agency: Structures of Living Together in Sen's Capability Approach to Development», in S. ALKIRE, F. COMIM eta M. QIZILBASH (argtz.): *The Capability Approach: Concepts, Measures and Application*, Cambridge, Cambridge University.
- (2009): «Democracy and Political Participation», in Séverine DENEULIN eta Lila SHAHANI (argtz.): *An Introduction to the Human Development and Capability Approach. Freedom and Agency*, Ottawa, IDCR, 185-206.
- (2014): *Wellbeing, Justice and Development Ethics*, Londres, Routledge.
- eta Frances STEWART (2002): «Amartya Sen's Contribution to Development Thinking», *Studies in Comparative International Development*, 37 (2), 61-70.
- DLP (GARAPENERAKO LIDERGO PROGRAMA) (2018): *Inside the Black Box of Political Will: 10 Years of Findings from Developmental Leadership Program*, Australian Aid, 2018ko otsaila. Eskuragarri hemen: <<https://www.dlprog.org/publications/research-papers/inside-the-black-box-of-political-will-10-years-of-findings-from-the-developmental-leadership-program>>.
- DUBOIS, Alfonso (2014): *Marco teórico y metodológico del Desarrollo Humano Local*, Bilbo, Hegoa (UPV/EHU). Eskuragarri hemen: <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/260/Marco_teorico_DHL_%28CASTELLANO-EUSKERA%29.pdf?1488539825>.
- FARIÑAS, Sarai, Jordi PERIS eta Alejandra BONI (2013): *El enfoque almanario como catalizador para el desarrollo de las capacidades colectivas y el fortalecimiento de la agencia fuerte. Estudio de caso en el contexto indígena de Sipacapa, Guatemala*. Unibertsitatea eta Garapenerako Lankidetzeta VI. Biltzarrean aurkeztutako komunikazioa, Valentzia, 2013ko apirila.
- FERNÁNDEZ ORTIZ DE ZÁRATE, Gonzalo (2017): *Alternativas al poder corporativo*, Bartzelona, Icaria.
- FRASER, Nancy, y Axel HONNETH (2006): *¿Redistribución o reconocimiento? Un debate político-filosófico*, Coruña, Morata.

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

- GARCÉS, Marina, eta hainbat egile. (2019): *Humanidades en acción. Un proyecto dirigido por Marina Garcés*, Barcelona, El Rayo Verde.
- GOUGH, Ian, eta Geof WOOD (2004): *Welfare Regimes: Linking Social Policy to Social Development*, Centre for Development Studies/ University of Bath. Eskuragarri hemen: <<http://people.bath.ac.uk/hssgdw/wood-gough.pdf>>.
- HA-JOON, Chang (2006): «La relación entre las instituciones y el desarrollo económico. Problemas teóricos claves», *Revista de Economía Internacional*, 8 (14), 125-136. Eskuragarri hemen: <<https://www.economiainstitutional.com/pdf/No14/hchang14.pdf>>.
- HILL COLLINS, Patricia (2017): «The Difference That Power Makes: Intersectionality and Participatory Democracy», *Revista de Investigaciones Feministas*, 8 (1), 19-39.
- HUDSON, David, eta Adrian LEFTWICH (2014): From Political Economy to Political Analysis Developmental Leadership Program (DLP) (Research Paper, 25). Eskuragarri hemen: <<https://www.dlprog.org/publications/research-papers/from-political-economy-to-political-analysis>>.
- HYDEN, Goran, eta Julius COURT (2002): *Governance and Development*, New York, United Nations University (World Governance Survey Discussion Paper, 1).
- IBARRA, Pedro (2011): *Democracia relacional*, Madril, CEPC.
- LARRAÑAGA, Mertxe, eta Yolanda JUBETO (2014): *El desarrollo humano local desde la equidad de género. Un proceso en construcción*, Bilbo, Hegoa (UPV/EHU). Eskuragarri hemen: <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/312>>.
- LÓPEZ CASTELLANO, Fernando (2012): «Economía política del desarrollo, Análisis poscolonial y “malos samaritanos”», *Revista Problemas del Desarrollo*, 169 (43), apirila-uztaila, 27-50. Eskuragarri hemen: <<http://www.revistas.unam.mx/index.php/pde/article/view/30748>>.

- LUXÁN, Marta, eta Jokin ASPIAZU (2018): *Metodologías de Investigación Feminista*, UPV/EHU. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Masterra, III. modulua: Berdintasuna esartzeko metodologia. Eskuragarri hemen: <<https://www.ehu.es/es/web/zuzenbide/gzkj-baliabide-materialak>>.
- MARTÍNEZ-PALACIOS, Jone (2017): «Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad», *Revista de Investigaciones Feministas*, 8 (1), 53-71.
- MBEMBE, Achile (2011): *Necropolítica*, Santa Cruz de Tenerife, Melusina.
- NUSSBAUM, Martha C. (2002): *Mujeres y el Desarrollo Humano. El enfoque de las capacidades*, Bartzelona, Herder.
- PISARELLO, Gerardo (2014): *Procesos constituyentes. Caminos para la ruptura democrática*, Madril, Trotta.
- SANTOS, Boaventura de Sousa (2014): *Epistemologías del Sur (Perspectivas)*, Madril, Akal.
- (2019): *El fin del imperio cognitivo. La afirmación de las epistemologías del Sur*, Madril, Trotta.
- SANZ, Eneko (2014): *Un análisis narrativo de los planes estratégicos para la consolidación de la paz*. Dotoretza tesia, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa (UAB).
- SASSEN, Saskia (2006): «Hacia una proliferación de ensamblajes especializados del territorio, autoridad y derechos», *Cuadernos del Cendes*, 23 (62), 95-112.
- SEN, Amartya (2009): *The Idea of Justice*, Massachusetts, The Belknap Press of Harvard University Press.
- TELLERÍA, Imanol, eta Igor AHEDO (2015): «“Sí se puede”. Modelos de democracia y profundización de los espacios públicos deliberativos», in M. ENGELKEN-JORGE, M. CORTINA ORIOL eta N. BERGANTINOS (argtz.): *Contextos y perspectivas de la democracia. Ensayos en honor a Pedro Ibarra Güell*, Iruña, Pamiela/Universitas, 155-179.

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

- WHITE, Sarah C. (2001): «Despolitizando el desarrollo: los usos y abusos de la participación», in INTERMÓN OXFAM: *Desarrollo, Organizaciones No Gubernamentales y Sociedad Civil*, 158-172.
- WOOD, Geoffrey D. (2010): *Regímenes de bienestar: problemáticas y fortalezas en la búsqueda de la satisfacción vital de las personas*, Bilbo, Hegoa (UPV/EHU) (Cuadernos de Trabajo de Hegoa, 53). Eskuragarri hemen: <<https://www.ehu.es/ojs/index.php/hegoa/article/view/10591>>.
- YOUNG, Iris Marion (2000): *Inclusion and Democracy*, Oxford, Oxford University Press.
- (2005): «Structural Injustice and the Politics of Difference», in Emily GRABHAM et al.: *Intersectionality and Beyond*, Arts and Humanities Research Center for LG&S.
- ZIZEK, Slavoj (2016): *La nueva lucha de clases. Los refugiados y el terror*, Bartzelona, Anagrama.

■ Web baliabideak

- ALBERDI BIDAGUREN, Jokin (2014): *Aspectos socio-políticos del Desarrollo Humano Local: Nuevas claves de análisis para la participación democrática y las interacciones público-privadas*. Bilbo, Hegoa (UPV/EHU). Eskuragarri hemen: <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/313>>.
- DLP (GARAPENERAKO LIDERGO PROGRAMA) (2018): *Inside the Black Box of Political Will: 10 Years of Findings from Developmental Leadership Program*, Australian Aid, 2018ko otsaila. Eskuragarri hemen: <<https://www.dlprog.org/publications/research-papers/inside-the-black-box-of-political-will-10-years-of-findings-from-the-developmental-leadership-program>>.
- ON-LINE PRESTAKUNTZA: 6. modulua. «Claves para la construcción de sociedades cohesionadas». MOOC-Miriadax ikastaroa: «Desarrollo Humano Local: bases para una propuesta alternativa». Eskuragarri hemen: <<https://miriadax.net/web/desarrollo-humano-local-bases-para-una-propuesta-alternativa>>.

ERANSKINA

■ **Garapenerako eta bakearen tokiko eraikuntzarako ekonomia politikoaren marko esanguratsuenak**

Eranskin honetan garapenerako eta bakearen tokiko eraikuntzarako ekonomia politikoaren marko batzuen erreferentziak biltzen dira. Testuan zehar ia denei egiten zaie kritika, beren partzialtasunagatik, eraginkortasun eskasagatik eta, lurraldeetako auzi garrantzitsuenen interesak kontuan hartu gabe, nazioarteko komunitateek sustatutako iniziatiben zerbitzura egotegatik. Hala eta guztiz ere, irakaspenak ere aurki daitezke haictan, lurraldeetako garapen-prozesuen dimentsio politikoari buruzko jakintzei dagokionean, eraikitzaile suerta daitezkeenak.

Nazio Batuen Garapen Programa (NBGP): «Azterketa praktikoa eta etorkizuneko eszenatokien proiektua»

https://www.undp.org/content/dam/undp/library/Democratic%20Governance/OGC/UNDP_Institutional%20and%20Context%20Analysis.pdf

Herialde-programei eta NBGPren bulegoen proiektuei aholkua emateko testuinguru- eta instituzio- azterketak dira. Metodologia honek arreta jartzen du botere harremanen aldaketetan eta sustapen-sistemetan, bezero-harremanetan eta sektore boteretsuenekiko leialtasun-harremanetan, baliabideen kontrolean, interes ezberdinen ugaritasun eta kontraesanetan, eta gizarte jakinetako erakundeetako formaltasun eta informaltasunari dagozkion mugetan.

Munduko Bankua (MB): « Pobreziaren eta inpaktu sozialaren azterketa»

<http://www.worldbank.org/en/topic/poverty/brief/poverty-and-social-impact-analysis-psia>

Erreforma politikoez populazioaren talde ezberdinen, bereziki sektore pobreenen eta zaugarrienen, ongizatean dituzten eragin bantatzaile eta sozialak ebaluatzen dituen ikuspegia da.

Herbehereetako Kanpo Arazoetako Ministerioa:

«Gobernantza estrategikoaren eta ustelkeriaren azterketa»

<https://europa.eu/capacity4dev/governance/document/framework-strategic-governance-and-corruption-analysis-sgaca-designing-strategic-responses->

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

Gobernantzaren eta ustelkeriaren azterketarako estrategia honek (SGACA) gida praktikoa dakar, herrialde-bazkide bakoitzean elementu horien azterketa egiteko. Tresna batzuk ditu (Track Record metodoa eta Hainbat Urtetarako Plan Estrategiko bat) eta haien bidez testuinguru jakinetako gobernantzaren aspektu formal eta informalen eskaner azkar bat egin daiteke

NBGP: «Ikuspegi integratu bat gizarte inklusiboak eratzeko eta bakea mantentzeko, gobernantza demokratikoaren eta gatazken saihaspenaren bidez»

https://www.undp.org/content/dam/undp/library/Democratic%20Governance/UNDP-GOVERNANCE%20AND%20PEACEBUILDING_final.pdf

Bake-operazioen eta 2030 Agendaren ebaluazioek NBGP bideratu dute gobernagarritasun demokratikoari, gatazken prebentzioari eta bakea bermatzeko bitartekotzari buruzko plan estrategikoak egitera. Ikuspegi honek oinarrian ditu Zuzenbide Estatu demokratikoaren, prozesu politiko-instituzionalen eta gatazken prebentzioaren azterketa. Helburua jendearen itxaropena islatuko duten kontratu sozialen bermakuntzan eragitea da, eta baita estatuko eta estatuz gaindiko instituzioen gaitasunak indartzen laguntzea ere.

Nazio Batuen Erakundea (NBE) eta Munduko Bankua: «Bakerako bideak: gatazka bortitzak ekiditeko ikuspegi inklusiboak»

<https://openknowledge.worldbank.org/handle/10986/28337>

Nazio Batuek eta Munduko Bankuak garapen prozesuetako gatazkek saihesteko azterketa bateratuak egiten ari dira, indarkeria ekiditeko diplomazia, bitartekaritza, segurtasuna eta bestelako tresnak hobeto koordinatuz. Praktika on batzuen esperientzia baliatuz, erakundeak eta bakea ekar dezaketen elementuak berrikusten dituzte. Erantzukizun nagusia duen Estatuaz gain, ikuspegi honek gizarte zibilaren, sektore pribatuaren eta eskualdeko eta nazioarteko erakundeen inplikazioa sustatzen du. Bere ahaleginak emakumeak eta gazteak erabakiak hartzera eta haien nahiak betetzen dituzten politika publikoetan parte hartzera bideratzen ditu.

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea (ELGA): «Jarraibideak bake prozesuei ematen zaien nazioarteko babesa hobetzeko»

https://www.oecd-ilibrary.org/development/international-support-to-peace-processes_9789264179844-en

Gomendioak biltzen ditu Nazioarteko Komunitateak bake-prozesuei emandako babesaren kalitatea hobetzeko. Gatazka biolentoen azterketa sakon bat proposatzen du: gatazken ezaugarriena, bake-prozesuen arrakasta edo porrota baldintzatzen duten faktoreena, kooperazioaren indargune eta ahulgunea.

Bakearen bermakuntzarako eta Estatuaren eraikuntzarako nazioarteko elkarrizketa (IDPS): «Konpromisorako akordio berria Estatu ahuletan»

<https://www.pbsdialogue.org/en/new-deal/about-new-deal/>

Busanen (Koreako Errepublikak) egin zen 2011ko Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Goi Mailako 4. Foroan Akordio bat sinatu zen gatazka egoeran zeuden Estatu ahulen eta sozietate zibilen artean. G-7a osatzen duten gobernuak Estatuaren eraikuntzaren eta bake-prozesuen alde egiteko konpromisoa hartu zuten; legitimazio politikoaren, justiziaren, segurtasunaren, onarpenaren, zerbitzuen eta oinarri ekonomikoen bidez.

Gatazkei Irtenbide Konstruktiboa emateko Zentro Afrikarra (ACCORD): «Politika eta praktikaren laburpenak»

<https://www.accord.org.za/publications/ppb/>

ACCORDen «Policy & Brief» izeneko sail honek gomendio labur, zehatz eta ulergarriak ematen dizkie politikari eta profesionalei. Helburua gatazkei irtenbide baketsua ematea da eta horretarako tresna elkarrizketa da. Argitalpen bakoitza ikerketa eta metodologia zehatzen jardunaldi tematikoetan edota landa-ikerketan oinarrituta dago.

Gobernu Britainiarraren Nazioarteko Garapenerako Saila (DFID): «Aldaketaren sustatzaileak»

<https://www.odi.org/publications/5399-mapping-political-context-drivers-change>

Drivers of Change DFIDek garaturiko ikuspegi bat da herrialdeen marko politikoen eta garapenerako erakundeen operazioen arteko zubi-lan faltari aurre egiteko. Faktore ekonomiko, sozial eta politikoen elkarrekintzan jartzen du fokua, izan ere, faktore hauek zaildu edo erraztu egin dezakete pobrezia murrizteko prozesua. Horretarako arreta jartzen du kasu partikular bakoitzaren ezaugarri berezietan, testu-guru historiko-politikoan eta borondate politikoan.

5. BOTERE POLITIKOA ERAIKITZEN

DFID: «Gizarte eta Estatu baketsuen eraikuntzaren ikuspegia»

<https://www.gov.uk/government/publications/building-peaceful-states-and-societies-a-dfid-practice-paper>

Ikuspegi integratu berri bat da: Estatuaren eraikuntza eta bakea bermatzea jartzen ditu gobernuko garapenerako agentzien lanaren erdigunean. Gatazken kausa eta ondorioak aztertzen ditu eta baita ahultasunak ere. Horrez gain, akordio eta prozesu politiko inklusiboen alde egiten du, estatuaren oinarritzko funtzioak bete daitezen egiten du lan, eta jendearen itxaropenari erantzuna ematen saiatzen du.

Garapenerako Nazioarteko Kooperazioaren Suediako Agentzia (SIDA): «Boterearen azterketa»

https://www.sida.se/contentassets/83f0232c5404440082c9762ba3107d55/power-analysis-a-practical-guide_3704.pdf

Gida honek botereari buruzko jakintza-akademikoak eta agentzia suediar honek dituen ekintza onak bateratzen ditu. 2030 Agendaren pobrezia murrizteko helburua betetzeko, ekonomia politikoaren eta botere-harreman asimetrikoen azterketen konbinazio bat proposatzen du. Horrez, botere informaldaren, haren arauen eta egituren mapa egiten du, populazio protagonistek ongizaterako duten sarbidea birbanatzeko ikuspegitik.

6

BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA MEGAPROIEKTUEI AURRE EGITEKO HERRI- ERRESISTENTZIARAKO GAKOAK

Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate

Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate Ekonomian lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Gaur egun Euskadiko Bakea eta Duintasuna elkarteko koordinatzailea eta Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiko (OMAL) ikertzailea da. Hainbat argitalpenen egilea da, hala nola *Alternativas al poder corporativo*.

20 propuestas para una agenda de transición en disputa con las empresas transnacionales eta Mercado o democracia.

Parte-hartzaile aktiboa da Elkartasuna Eraldatuz nazioarteko elkartasunaren aldeko euskal plataforman eta Parte Hartuz Amerika Latina UPV/EHUko ikerketa-taldean. Hegoa Institutuko koordinatzaile orokorra izan zen. Ikasketa Aurreratuen diploma du Doktorego Programa honetan: Aldaketak Egungo Ekonomia Egoeran eta horren Ondorioak Ipar-Hego Garapenaren Arazoan (UPV/EHU).

Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen enpresa transnazionalak metatu duten boterea; izan ere, botere ekonomikoaz gain, botere kulturala, politikoa eta juridikoa ere badituzte. Horrela, multinazionalak sare baten muin bihurtu dira, eta tokiko, estatuko eta alderdi anitzeko erakunde askorekin batera, *botere korporatibo* bat osatzen dute. Botere hori, hain zuzen ere, indarrean dagoen sistemaren protagonista nagusia da, eta sistema hori defendatu eta bultzatzen du alderdi guztietan. Sistema, berriz, une kritikoak bizitzen ari da, arrazoi hauek medio: datozen hamarkadetan ekonomia-hazkundera izateko espektatibak urriak dira, klima-aldaketaren arazoa dago, eta zenbait material eta energia-iturri fosil estrategikoak agortzen ari dira. Hori dela eta, honako hau da sistemaren erronka handia eta paradoxa nagusia: Nola bultzatu metaketa-ziklo berri bat, eta nola egin hori oinarri fisiko askoz txikiago batekin eta gero eta klima- eta finantza-ahultasun handiagoko testuinguru batean?

Paradoxa horri aurre egiteko, botere korporatiboak bere agenda berri du, kapitalaren erreprodukzioa historian inoiz izan ez diren baldintza horietara egokitzeko ahalegin etsi-etsian. Hala, enpresa transnazionalak *XXI. mendeko kapitalismoaren proiektua* bultzatzen dute, eskala globaleko erasoaldi merkantilizatzaile bortitz batean islatzen dena. Kapitalak ez baditu metaketarako bide egonkorrak eta gorakorrek aurkitzen, nazioarteko merkataritzarako eta inbertsiorako indarreko traba oro desagerrarazi beharko da, kapitalaren mesederako autoerregulatutako eta ultraerregulatutako merkatu bat blindatuz. Berdin dio erasoaldi horrek –eta hori gero eta agerikoagoa da– desgobernantza, gizarte-hondamena eta kolapso ekologikoa ekartzen baditu eta planetako bizia arrisku larrian jartzen bada.

Biziaren eta kapitalaren arteko lehia horren larriagotze esponenzialaren testuinguru horretan, *lurreldeak* borroka politikorako eremu estrategikoak dira, gero eta gehiago. Ondasun naturalak, energia, hirigintza, elikadura, zerbitzuak, erosketak publikoak, eta abar (tokiko eremuan oso sustraituta dauden sektoreak) oso merkatu-hobi gutiziatuak

dira XXI. mendeko kapitalismoaren agendan. Enpresa handiek era guztietako *megaproiektuak* garatzen eta planifikatzen dituzte eremu horietan; izan ere, lurraldeen aurkako eraso korporatiboaren funtsezko tresna bihurtu dira megaproiektuak. Hala, tokiko esparrua gure bizi-estrategiak eguneroko bizitzan garatzeko lekua da, alde batetik, eta kapitalaren egungo agenda lehentasunez ezartzeko eremua, bestetik.

Premisa horretatik abiatuta, artikulua honen xedea da zenbait gako politikori lehentasuna ematea, *megaproiektuen* aurkako herri-erresistentziak indartzeko, biziaren defentsan. Gako/erresistentzia horien abiapuntua zenbait *ahalmen kolektibori* lehentasuna ematen dien erreferentzia-marko bat da, ahalmen kolektibo horien bidez erantzuteko, bai gaur egungo testuinguru globalari, bai herriek, komunitateek eta gizarte-mugimenduek enpresa handien aurka egiteko borrokaren ibilbideari. Alde horretatik, honako ahalmen hauek azpimarratzen ditugu: egunerokotasuna eta aldaketa erradikaleko etorkizuna eta narratiba uztartzen dituen *transizio-ikuspegi* bat ezartzeko ahalmena; *begirada inklusiboak* posionatzeko ahalmena, proposamen teoriko-politikoan, eragileen eta eskalen intersekzioetan; eta herri-mugimenduaren *erresilientzia* indartzeko ahalmena, maila guztietan eta epe ertain eta luzera egin beharko den lehian.

Gure erreferentzia-markoan, hiru ahalmen horiek *hegoaldeko epistemologiek* zeharkatzen dituzte, ahots gabeei ahotsa eman nahi baitzaie —ausentzien soziologia—; proposamenean ahalmena eta dinamismoa haien izaera partzial edo larbariotik harago aztertzen baita —emergentzien soziologia—; eta esperientzien trukea sustatu nahi baita, testuinguru eta subjektu anitzen artean, agenda komunak eraikitzeo —jakintzen ekologia—.

Finean, artikulua hasteko gaur egungo testuinguru globalaren ezaguarri batzuk azalduko ditugu. Bigarren atalean gure erreferentzia-markoa azalduko dugu, eta hurrengoan, berriz, erreferentzia-marko horretatik eratorritako gako politikoak adieraziko ditugu. Gure ustez, gako horiek estrategikoak dira, gaur egun megaproiektuen aurkako herri-erresistentziak jorratzeko.

XXI. MENDEKO KAPITALISMOA: TRANSNAZIONALAK, LURRALDEAK, MEGAPROIEKTUAK

Gaur egun enpresa transnationalek inoiz baino botere handiagoa dute. Globalizazio neoliberalak enpresa horien nagusitasun ekonomikoa ahalbidetu du, ekoizpen-, erauzketa-, teknologia-, finantza-, merkataritza- eta

6. BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA


banaketa-kate global nagusien buruan kokatu baititu. Horrela, merkatuaren gainean duten kontrola eztabaida ezina da. Hala, enpresen urteko diru-sarrerak herrialdeen barne-produktu gordinekin alderatzen baditugu —ariketa hori, akademikoki, ez da zorrotz-zorrotza, baina oso pedagogikoa da—, ikusten da munduko 100 erakunde handienetakik, 69 enpresak direla. Estatuak, berriz, 31 baino ez dira (Global Justice Now, 2016).

Nagusitasun ekonomiko hori, gainera, kulturaren ere proiektatzen da, eta multinazionalen balioekin eta ikuspegiekin bat datorren kontakizun *mainstreama* bermatzen da horrela. Enpresek gero eta gehiago baliatzen dituzte informazioa, komunikazioa eta jakintza, eta horrek imajinarioak posizionatzeko lana errazten die. Imajinario horien bidez, hain zuzen ere, honako hauek lortzen dituzte: enpresa handien garrantzi estrategikoa eta haien jardunaren eragin positiboak nabarmentzea —inbertsioa, enplegua sortzea, transferentzia teknologikoa, etab.—; bestalde, enpresen jardueren eragin kaltegarri sistematikoak ezkutatzen dituzte, eta kasu isolatutat aurkezten dituzte, kaltearen ebidentzia ukalezina denean; enpresen interesekin bat datorren gizarte-eredua sustatzen dute —indibidualista, kontsumista, politikoki axolagabea—; eta, azkenik, ustez adeitsuak diren gizarte-erreferente berriak sartzen dituzte —ekintzailletza, lankidetzazko ekonomia, etab.—, gatazkak desaktibatzen eta desberdintasunak eta bidegabekeriak mozorrotzen laguntzeko.

Zirkulua ixteko, enpresen neurrirako blindaje politiko-juridikoa dago. Batetik, mundu-eskalako gobernantza moldatzen da, eta hor, erabaki-hartzeko eremu gisa, lehenetsuna ematen zaie eskualde-esparruei eta alderdi anitzekoei. Esparru horiek, hain zuzen ere, urrunago daude herritarrengandik, eta errazagoa da enpresa handientzat hor eragina izatea. Bestetik, estatuen rola mugatzen da, eta haiek interes orokorra defendatzeko duten autonomiak presio korporatibo handia jasaten du (*lobbyak*, ate birakariak, ustelkeria, etab.). Bestalde, zigorgabetasunaren arkitektura eratzen da multinazionalen mesedetan, *lex mercatoriak* giza eskubideen eta herri-subiranotasunaren gainetik duen nagusitasuna agerian jartzen duena —merkataritza-akordioak, inbertsio-itunak, doikuntza-planak, nazioarteko kontratuak, etab.— (Hernández eta Ramiro, 2015).

Finan, enpresa transnazionalak, haien agenda berean lankidetzan jarduten duten era guztietako erakundeen sarearekin batera, *botere korporatiboa* eratzen dute. Indarreko sistemaren protagonista da botere hori, eta gure bizitzen eremu guztiak hartzen ditu (ikus 1, irudia).

Baina sistema hori krisian dago, krisi sakon batean. Milioidunen zerrenda gero eta handiagoa da, eta korporazio nagusiek jakinarazten dituzten mozkinak oso handiak dira, baina hala ere, korporazio

1. IRUDIA. **BOTERE KORPORATIBOA**

Iturria: **Lanketa propioa.**

horiek, gaur egun, ez dituzte ultrafinantziarizazio-fasean sortutako kapital-soberakina erreproduzitzeko modu egonkorrak eta egokiak aurkitzen. Alde horretatik, irabaziak eta hazkunde ekonomikoa izateko espektatibak ez dira oso itxaropentsuak, gutxienez datozen lau hamarkadetarako (ELGA, 2014). Bestalde, egoera hori alderantzikatzeko erronkari aurre egiteko testuingurua oso kritikoa da: lehenik eta behin, 2008ko krisialdia leherrarazi zuen ezegonkortasun finantzarioa ez da konpondu. Aldiz, zorraren, kredituen, deribatuen eta finantza-gerokoen burbuilak gero eta handiagoak dira (haiei aurre egiteko inolako araudirik gabe, nahiz eta duela hamarkada bat horrelakorik sortu zitekeela antzematzen zen), eta etorkizun laburrean beste *crack* batzuk gertatzeko oinarriak jartzen dituzte. Bigarrenik, sistemaren jardun-oinarri fisikoa txikitu egingo da ezinbestean: energiaren arloan, petrolioaren gorenera iritsi gara, eta hurrengo bosturtekoetan ikatzaren eta gasaren gorenera ere iritsiko gara. Dinamika kapitalistaren barruan, hazkunderaren eta materialen eta energiaren kontsumoren arteko korrelazioa positiboa izan da beti; beraz, baliabide gutxiagorekin beste hedatze-uhin bat lortzea ez dirudi oso probalea. Azkenik, hirugarrenik, aurre egin behar diogu kalteberatasun klimatiko larriko errealitateari —2018an, atmosferara isuritako karbonoaren errekorra izan zen, Parisko itunak sinatu arren—, eta kalteberatasun hori da, Nazio Batuen arabera, munduan gaur egun dauden gatazken %70en baino gehiagoren epizentroa.

Hazkunderako espektatiba sendorik gabe, oinarri fisikoa gero eta txikiagoa dela, eta zaurgarritasun klimatikoko eta finantzarioko testuinguru batean garelara, gaur egungo soberakin ekonomikoa erreproduzi-

6. BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA


tzeko eremuak aurkitzea da enpresa transnazionalak gidatutako botere korporatiboak aurrean duen bidegurutzea.

■ XXI. mendeko kapitalismoaren proiektua

Alde horretatik, elite globalek agenda hegemoniko berri bat bultzatzen dute, eta hor, apustu merkantil eta korporatiboari eutsita, edo are nabarmenduta ere, helburu hau dute: nazioarteko merkataritzaren fluxu *naturalerako* eta atzerriko inbertsiorako traba guztiak desagerraraztea. Dena aldatzea, ezer ez aldatzeko. Honako hau da helburua: auto-ultraerregulatutako merkatu bat lortzeko amets zahar globalizatzailea parametro berriekin gauzatea eta, horrela, Bigarren Mundu Gerraren ostean bultzatutako kapitalismoaren ereduaren arrastoak desagerraraztea —munduko iparraldean, batez ere aplikatu zen eredu hori—, esku hartzeko eta arautzeko nolabaiteko ahalmena zuten estatu-nazioetan oinarrituta. Hala, *XXI. mendeko kapitalismoaren proiektua* (Fernández, 2018a) prestatu dute, arlo ekonomikoan, politikoan eta kulturalen apustu zehatzak eta osagarriak eginda (ikus 2. irudia).

Ekonomiaren arloan, mundu-eskalako merkantilizazio-erasoaldia martxan jarri da, eta jada ez da ezer geratzen enpresa transnazionalen ekintza-eremuetatik kanpo. Alde batetik, laugarren industria-iraultza bultzatzen da¹ (digitalizazioa, adimen artifiziala, *big data*, gauzen Internet, etab.), eta horren bidez, produktibitatearen, inbertsioaren,

2. IRUDIA. XXI. MENDEKO KAPITALISMOA



Iturria: **Lanketa propioa.**

1. Prozesu hori ez da prozesu teknologiko soil bat, fenomeno politikoa ere bada-eta, indarreko markoaren barruan. Horregatik, *kapitalismo kognitiboa* ere esan dakioke, datuak eta jakintza metaketarako lehengai nagusietako bihurtzen baitira. Testuan izendapen hegemonikoa erabiltzen jarraituko dugu, hobeto identifikatzeko.

enpleguaren eta kontsumoaren hedatze-uhin berri bat sortzea espero da. Proiektu horren bideragarritasuna oso zalantzarikoa da, baina honako hauek baieztatzeko modukoak dira: proiektu horrek matrize ekonomiko globala eraldatuko du, logika teknologiko berrietan oinarrituta; izugarriko megaenpresak sorrarazi ditu jada, eta enpresa horiek historian inoiz izandako tamaina eta hedadura handiena lortu dute (Google-Alphabet, Amazon, Facebook, Alibaba, etab.); eta merkataritza-muga kapitalistak handitu ditu, bai eguneroko bizitzaren arloan (Uber, Airbnb, Blablacar, etab.), bai zerbitzu berri-berrien garapenaren arloan (segurtasuna, osasun-prebentzioa, mugikortasuna, eta oraindik garatzeke dauden beste asko eta asko). Beste batetik, irabazi-iturri klasikoak azken tantara arte zuketzen dira —langileen *uberizazioa*, alde batetik, merkatu finantzario desarautuaren blindajea, beste batetik—, eta merkataritza-logika globalean sartu nahi dira zuzenean oraindik kanpo geratzen ziren arlo guztiak ia: hezkuntza, osasungintza, ura, energia, lurra, erosketak publikoak, inbertsioa, merkataritza digitala, berrikuntza, etab., itu estrategiko bihurtzen dira.

Politikari dagokionez, erasoaldi ekonomikoarekin batera, oraindik indarrean dauden minimo demokratikoak suntsitu nahi dira, ezinbestean. Globalizazio neoliberalaren garaian, erakunde publikoen boterea mugatu zen —estatuaren boterea, batez ere—, une kritiko berri honetan, berriz, nolabaiteko konstituzio global bat inposatzea sustatzen da enpresa transnazionalen mesedetan —*de facto* gobernu bihurtu dira, merkataritza-itun berriei esker—, munduan *lex mercatoriaren* nagusitasuna behin betiko ezartzeko. Estatuak, berriz, beren ahalmen legegileak, betearazleak eta judizialak murriztuta izango litzukete, eta haien jarduna eskubideak desarautzera eta ordena publikoa kontrolatzera mugatuko litzateke. Hala, lehentasuna ematen zaio logika sekuritarioari interes orokorraren gainetik.

Eta korolario gisa, kulturalki, proiektu hori faxismo sozialez jantzita dator (Santos, 2014), eta, zoritxarrez, faxismo politikoz ere bai. Mezu unibertsalisten ondoren, bazterkeriazko etorkizuna ageri da apurka-apurka, eta, zeharka, balio hauek sartzen dira: pribatua dena, merkatua, korporatiboa dena. Beldurra eta errelatu erreakzionarioak sustatzen dira, eta pobreen arteko gerra bat bultzatzen da, haiek ez antolatzeke eta nagusitasun koloniala zein klase- eta genero-nagusitasuna areagotzeko. Horrela, indarkeria gure gizarte globaleko egiturazko elementu bihurtzen da, bai diziplinatze- eta beldurtze-bide gisa, bai pilatze-tresna gisa, lehia basatiko testuinguru batean, bai etekinak lortzeko berezko helburu gisa (gerrak, segurtasuna, etab.).

6. BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA

Finan, XXI. mendeko kapitalismoa proiektu erasokorra da, basatia. Kapitalaren erreprodukzioa bermatzeko ahalegin itsuan, era guztietako desberdintasun gero eta handiagoak sortzen ditu, eta gero eta gizarte-sektore gehiago uzten ditu kanpoan; gobernantza korporatiboa inposatzen du, demokrazia inoiz baino beharrezkoagoa den garai honetan, demokrazia behar baita munduak dituen arazo global larriei aurre egiteko (klima-aldaketa, pobrezia, etab.); gainera, azkenik, sistema zoro baten jasanezintasuna areagotzen du. Kapitalismoa eta bizia, beraz, kontzeptu eta errealitate bateraezinak dira, gero eta gehiago. Hori dela eta, bizia defendatzea kapitalismoa eta kapitalismoak martxan duen proiektua desegitea esan nahi du.

■ Lurraldea salgai gisa: megaproiektuak

Lurraldeak eremu estrategiko bihurtu dira kapitalaren eta biziaren arteko lehian. Eskala guztietan —tokian-tokian, estatuetan, eskualdeetan eta mundu osoan— ezinbestean gertatzen den gatazkaren ebidentziari uko egin gabe, lurralde-esparrua garrantzi bereziko lekutzat nabarmentzen da lehia politikorako, bi arazoirengatik. Batetik, lurraldea, leku fisikoa izateaz gain, pertsonen, eragileen eta komunitateen arteko interakziorako, lankidetzarako eta gatazketako subjektu politiko nagusia da. Gure bizitzako funtsezko arloak garatzeko eremua da; eremu horretan, gure premiak asetzea espero dugu, hor jartzen ditugu gure itxaropenak, hor probatzen ditugu gure aldaketa-proposamenak eta -alternatibak. Hala, lurraldea, mundu globalizatu honetan, emantzipazio-aukera orotarako ezinbesteko baldintza bihurtzen da, berez nahikoa ez den arren.

Baina, gainera, esan dugun moduan, XXI. mendeko kapitalismoaren helburu asko tokiko esparruan kokatzen dira. Besteak beste, garrantzi bereziko hiru arlo nabarmenduko ditugu: *hirigintza eta eraikuntza*, bai etxebizitzak, bai merkataritza- eta inbertsio-fluxuak bermatzeko azpiegitura handiak; *nekazaritza eta elikadura*, giza biziaren sostengurako ardatza; eta, bereziki, *ondasun naturalak* —ura, lurra, energia, lur arraroak, etab.—, gaur egungo lehia ekonomiko eta geopolitikoaren giltzarrietako bat (Fernández, 2018b). Sektore horiek, beste batzuekin batera (hala nola zerbitzuak eta erosketak publikoak), lurraldea balio handiko salgai bihurtzen dute, bai eta lehia-eremu bat ere, behar-beharrezko esparruak baititu, bai bizirako —alde horretatik, hipotetikoki, etekin-iturri agortezina da— bai sistema kapitalistaren kapital-metaketarako, oinari fisikoa eta materiala txikitzen ari den une kritiko honetan.

Desjabetze bidezko metaketa da (Harvey, 2005), eta prozesu horretan, lurraldea logika komunitario, sozial eta/edo publikotik kendu nahi da, kapital transnazionalaren zerbitzura behin betiko jartzeko *megaproiektuen* bidez. Megaproiektuok, hain zuzen ere, eraso-tresna korporatibo nagusi bihurtu dira tokiko esparruan: monolabore agroindustrialak, basamortu berdeak, atari zabaleko meatzaritza, lur-pilaketa, portuak, kanalak, *frackinga*, petrolio eta gasa eskuratzeko lizitazioak, kapitalismo berdea, banaketa- eta logistika-azpiegiturak, etab., dira enpresek lurraldeak beren mesederako merkantilizatzeko egiten dituzten jarduketan adibide nagusiak.

Alde horretatik, XXI. mendeko kapitalismoaren proiektuaren intentsitate osoa hedatzen dute: bere burua gizarte-gehiengoan eta naturaren ongizatearen gainetik jartzen duen kapital transnazionala, demokrazia desegiten ari den eta gizarte-kontrolako eta indarkeriako formula berriak saiatzeko ari diren marko batean. Aterki horren babespean, megaproiektuek, era askotakoak diren arren, patroï komun batzuk izaten dituzte, eta horiek aztertzea funtsezkoa da erresistentzia-estrategiak proposatu ahal izateko.

Lehenik eta behin, *sekretismoa eta opakotasuna* megaproiektuak ezartzean, bai zehazterakoan nork hartzen duen parte eta nork duen megaproiektuaren gaineko ardura, bai komunitateei eta herritarrei ematen zaien informazioan. Horrela, korporazioek hidra sozietario oso konplexu baten gisako egituraren inguruan antolatzen dira, forma juridiko eta izen desberdin ugari erabiliz: sukurtsalak, azpikontratak, filialak, etab. Hidra horrek ezkutatu eta/edo lausotu egiten du erabakiak benetan hartzen dituen zentro operatibo globalaren jarraipena egiteko aukera (oro har, megaproiektua egiten den herrialdetik kanpo egon ohi da zentro hori) bai eta *megaproiektuaren katean* parte hartzen duten erakundeen jarraipena ere, finantzaketatik hasita amaierako ezarpenera arte. Gardentasunik ezak, beraz, eragotzi egiten du jakitea nor den ekimen bakoitzaren benetako jabea eta nori dagokion horren kudeaketa; horrenbestez, zaila izaten da megaproiektuen ondorioen erantzukizunak egozteak. Bestalde, proiektu horiek herritarrek jakin gabe ere jartzen dira martxan. Izan ere, baliteke herritarrek proiektuaren berri izatea lagapena jada onartuta dagoenean, edo obrak jada hasita daudenean, erakundeek botere korporatiboaren kontzeptu zabalaren barruan duten konplizitatea dela eta (alkatetzak, Estatuko organismoak, probintziak, sailak, etab.).

Bigarrenik, enpresa handiek *estrategia-sorta zabala* baliatzen dute. Estrategia horiek forma ekonomiko, politiko, kultural eta juridikoak

6. BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA

dituzte, eta, kasuan kasu, gizarte-legitimazioa lortzeko ahalegina eta legezko zein legez kanpoko errepresioa uztartzen dituzte. Horrela, lehenik eta behin, transnazionaleri buruzko errelatu hegemoniko positiboa baliatzen saiatzen da, eta, horretarako, gizarte-, politika- eta/edo erlijio-lidergoen kooptazioa azpimarratzen da, bai eta era guztietako ekimen asistentzialen sustapena ere —ikastetxeak, azpiegitura txikiak, ikuskizunak, etab.—, gizarte-erantzukizun korporatiboan eta aliantza publiko-pribatueta oinarrituta, batzuetan nazioarteko lankidetzaren eskutik. Behar izanez gero, komunitatearen zatiketaren dinamika martxan jartzen da, aurretik dauden gatazkak areagotuz —esate baterako, kultura- edo erlijio-identitateak—, edo liskar berriak bultzatuz, dibertsitatea desberdintasun bihurtzen saiatzen direnak. Megaproiektuen aurkako gaitzespenak eta erresistentziak irauten badute, errepresioaren logika aplikatzen da, legezko bideak eta protesten kriminalizazioa uztartuta —zigorgabetasun korporatiboaren arkitektura aprobetxatuz—, eta baldintzak egokiak badira, zuzeneko indarkeria erabiltzen da, indarkeria hori egiturazko eta sistemiko bihurtzen den marko batean² (Front Line Defenders erakundearen arabera, 2018an eraildako giza eskubideen aldeko 321 aktibista, %77 militante ekologistak ziren).

Azkenik, hirugarren, estrategia korporatiboen ezaugarria da *epe luzerako proiektzioa* izatea, espero dituzten mozkinen eta egindako inbertsioaren arabera. Hala, enpresa handiek, askotariko formula osagarriak garatzeaz gain, denbora-tarte handi batean erabiltzen dituzte. Era horretan, multinazionalen eta komunitateen arteko botere-asimetria izugarria baliatzen dute, eta herri-erresistentziak higatzearen alde egiten dute, apurka-apurka akituko dela itxaronda. Aldi berean, izan ditzaketen oztopo politiko eta/edo juridikoei —esate baterako, obrak epailearen aginduz geldiaraztea, aurretiko kontsultaren ondoren komunitatearen baimena ez izateagatik; hala eskatzen du Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 169. hitzarmenak lurralde indigenetan egiten diren megaproiektuetarako— epe luzerako ikuspegiak egiten dizkiete aurre, etorkizunean beren presio nekaezinak indar-korrelazioak, borondateak eta testuinguruak aldaraziko dituelakoan.

-
2. Siriako, Irakeko, Kurdistango, Mexikoko egoera, eta Honduraseko *ereduzko hiriena* —horietan gobernantza korporatiboak soilik agintzen du, autoritate edo legezketasun publiko oro desagertuta—, edo Kolonbiako komunitate-liderren erailketa etengabeak (2018an, 120 erailketa Bake Itunak indarrean egon arren), ez dira kasu isolatuak, baizik eta gora egiten ari den eta gero eta hedatuago dagoen fenomeno bat, eta, askotan, zuzenean lotuta dago irentsi-behar korporatibo asezinarekin.

3. IRUDIA. JARDUN-EREDU KORPORATIBOAK



Iturria: Lanketa propioa.

Sekretismoa, opakotasuna, aniztasun estrategikoa, legitimazioa, hertsidura, indarkeria eta epe luzerako ikuspegia izaten dira, horrela, multinazionalen jardun-ereduak, komunitateak desjabetzearen eta kontrol sozialaren logika ezartzeko, megaproiektuen bidez (ikus 3. irudia). Megaproiektuek, merkatu globalerako irabaziak maximizatzearen helburu bakarra izaki, oso ondorio kaltegarriak eragin ohi dituzte: ondorio ekologiko, sozial, laboral, politiko eta ekonomikoak, lekualdatzeak, indarkeria, osasun-arloko ondorioak, etab. Eta, behin eta berriz esaten ari garen moduan, ondorio sistemikoak dira, ez unean-uneakoak edo zirkunstantzialak, eta hala dago dokumentatuta duela hamarkada batzuetatik. Beraz, bateraezinak dirudite lurraldeei buruzko ikuspegi eman-tzipatzaile batekin.

HERRI-ERRESISTENTZIAK MEGAPROIEKTUEN AURKA: ERREFERENTZIA-MARKOA

Kapitalaren eta biziaren arteko gatazkan megaproiektuak erasoaldi korporatiboaren toki-esparruko adierazpen nagusietako bat badira, gure markoko lehenbiziko erreferentziak megaproiektuak araugintza orotatik kanporatzea izan behar du, zalantzarik gabe, behintzat gaur

6. BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA

egun duten rol hegemoniko eta sistemikoarekin.³ Hala, biziaren erreproduktzio zabalduaren aldeko apustu nabariak (Jubeto, Larrañaga eta Valle, 2019) berekin dakar megaproiektuak, XXI. mendeko kapitalismoa eta enpresa transnazionalak estu lotzen dituen sekuentzia erdigunetik ateratzea, batetik; eta defendatu eta iraunarazi nahi dugun biziaren ezaugarri besterezinetan proiektatzen diren balioen, egituren, dinamikien eta ekimenen posizionamenduetan aurrera egitea, bestetik. Gure ikuspegitik fenomeno ekodependentea, interdependentea eta anitza den bizi hori.

Horrela, lurraldearen defentsarako megaproiektuen aurkako erresistentziek eta alternatibek, gure ustez, ezaugarri horiek bere egin behar dituzte beren erreferentzia-markoaren identitate-bereizgarri gisa. Horrela, bizia kaltebera bada eta ekodependentzian gartzan bada, gure planetaren eta ekosistemen muga fisikoak edozein aldaketa-prozesutarako premisa bihurtzen dira, eta ezinbestean proiektatu behar dira klima-aldaketaren aurka eta kapitalismo jasanezinen matrize ekonomikoaren eraldaketa erradikalaren alde. Bizia interdependentea bada, denon ongiak lehentasuna izan behar du pribatua denaren aurrean. Orduan, benetako demokrazia ezinbesteko baldintza bihurtzen da etorkizun kolektibo horren aldeko erabaki-hartzea bermatzeko, herri-subiranotasunaren birdefinizio berrietan oinarrituta tokiko esparrutik esparru globalera. Azkenik, bizia anitza bada, aldaketa-prozesu orok hori aitortu behar du, argi eta garbi adierazi behar du eta protagonismoa eman behar dio; eta aldi berean, bizia egituratzeko erronkari aurre egin beharko dio, unibertsaltasuna eta berezitasunak bermatuta (Pérez Orozco, 2014) berdintasuna eta klasean, generoan, arrazan/etnien, sexuan eta abarrean oinarritutako izate-, botere- eta jakintza-asimetria ageri-agerikoak alderantzikatzea-rekin uztartzen dituen logikan.

-
3. Alde horretatik, megaproiekturik gabeko emantzipazio-ikusmuga definitzen dugu, ez behintzat sistema ekonomiko globalean rol hegemonikoa duten megaproiektuak —horrela, kontuan hartzen dugu zenbait ekimen ekonomikorik tamaina handiagoa izan ditzaketela, eskala-arrazoengatik—. Nolanahi ere, ikusmuga horretara heltzeko trantsizioei buruzko analisiak konplexuagoa izan behar du, eta hor, honako hauen balorazio kritikoa egin beharko dugu: egoera eta posizio geopolitiko eta ekonomiko bakoitza, ekimenaren izaera pribatu edo publikoa eta haren gizarte-funtzioa, eta jasangarritasunarekin, demokraziarekin, justiziarekin eta abarrekin dituen loturak. Beraz, planteatzen dugun helmugan, megaproiektuak ez dira tresna hegemonikoak izango. Hara heltzeko trantsizioa, berriz, konplexuagoa izango da, aldagai ugari kontuan hartuta.

Horrela, *jasangarritasuna, guztien ongia, demokrazia, aniztasuna* eta *berdintasuna* megaproiektuen aurkako gure markoaren lehen kategoriak bihurtzen dira. Ikusmuga normatibo horretan aurrera egiteko, lurraldeko erresistentzia-subjektu nagusiek —herriak, komunitateak eta gizarte-mugimenduak— zenbait *ahalmen kolektibo* garatzen dituzte lehentasunez (Dubois, 2019), eta horiek osatzen dute proposatutako erreferentzia-markoaren muina.

Ahalmen horiek gaur egun testuinguru globalean protagonista diren eragile, agenda eta tresna protagonistekiko —botere korporatiboa, XXI. mendeko kapitalismoa, megaproiektuak— lehian sortzen diren beharren azterketatik sortzen dira, baina, zeharka, badute zerikusia *hegoaldeko epistemologietako* funtsezko kontzeptuekin (Cunha eta Casimiro, 2019): herri-gehiengoaren ahots eta protagonismotik sortzen dira, gehiengo horien barruan izaera subalterno eta minorizatua dutenen ahotsetatik (emakumeak, indigenak, nekazariak, etab.), haien borrokan eta errebeldien sistematizazioa oinarri hartuta⁴ (*ausentzien soziologia*); haiek bultzatutako jakintzak, ekimenak eta prozesuak balioesten dituzte, etorkizuneko joerak —oraindik ez dena— identifikatzeko aukera ematen duen ikuspegi dinamiko batetik; horrela, itxaropen-probabilitateetarako baldintzak aztertzen dituzte (Santos, 2014), bai eta baldintza horiek gauzatzea sustatzen duten ekintza-printzipioak ere (*emergentzien soziologia*); eta, azken buruan, zenbait testuinguru, ikuspegi, agenda eta subjektuaren arteko elkarriketa sustatzen dute, eta horiek guztiak era guztietako ikaskuntzen metaketa kolektibo bihurtzen dituzte, herri-ikaskuntzak batez ere (*jakintzen ekologia*).

Oinarri horiek abiapuntu hartuta, jarraian, gure erreferentzia-markoaren muina planteatuko dugu.

■ Biziaren eta lurraldearen defentsan: trantsizioa, inklusibitatea, erresilientzia

Megaproiektuen aurkako herri-erresistentzietarako gure markoa hiru ahalmen kolektiboen hautapenarekin osatzen da. Noski, beste asko ere garrantzitsuak dira. Nolanahi ere, gaur egun lurraldeetan erasoaldi korporatiboaren aurkako lehia planteatzeko estrategikoak iruditzen zaizkigunak nabarmendu nahi ditugu: trantsizio-ikuspegiak garatzeko ahalmena; ikuspegi inklusiboak bultzatzeko ahalmena, eta herri-mugimenduaren erresilientzia sendotzeko ahalmena.

4. Botere korporatiboaren aurkako borrokarako agenda, European eta Latinoamerikan izandako 30 esperientzia zehaztuta oinarrituta, aurkitu daiteke hemen: Fernández (2016a).

6. BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA

Gaur egun, edozein aldaketa-estrategiarako, ezinbestekoa da *trantsizio-ikuspegi* bat onartzea, gaur egun indarrean dauden gizarte-antolaketakako formen kontra egin eta beste forma batzuk lortzen saiatzeko. Bizia ezagutu dugun moduan arriskuan jartzen duen une kritiko hau gainditu nahi badugu, posible denaren marko estetik harago joan behar dugu, indarreko *statu quotik* harago, merkatu kapitalistak eta enpresa handiak erdigunetik apurka-apurka kenduko dituzten alternatibak aurrez irudikatuz eta ezarriz. Trantsizio-ikuspegi bat onartzearen erronka nagusia, beraz, herri-gehiengoen berehalako premia urgenteei erantzutea da, eta, aldi berean, eguneroko bizitzan, jardunbide, errelatu eta zentzu alternatiboak posizionatzea, gaur egun hegemonikoa denarekiko ikusmuga normatibo alternatibo baten babespean. Beraz, erretorika hutsean oinarritutako posibilismoetatik ihes egitera bultzatzen gaitu, alde batetik, bai eta herri-errotzerik gabeko abangoardismoetatik ere, beste aldetik.

Lehentasun hori gure erreferentzia-markoan onartzearen inplikazioak ugariak dira. Lehenik eta behin, honako hauek abiapuntutzat hartzeko premia planteatzen du: *egunerokotasuna*, megaproiektuek komunitateko bizitzetan dituzten ondorioak, eta komunitateak bultzatzen dituen erantzunak eta alternatibak. Desjabetzearen aurka erantzuten duten erresistentziak soilik dira sirenen kantuen eta enpresa transnazionalen boterearen aurrean irauteko gai. Bigarrenik, trantsizio-erresistentzia hori *errelatuekin* osatu behar da. Errelatu horiek, enpresa-ekimenak izan ditzakeen ondorioak argi eta garbi azaltzeaz gain, bide alternatibo, zehatz eta errealak adierazi behar dituzte, trantsizio-energetikorako, ekonomikorako, politikorako, kulturalerako eta abarrerako estrategiak bultzatzeko, gako emantzipatzaileetatik. Jardunbideek eta errelatuak, erresistentziak eta proposamenek, eskutik joan behar dute, ahal den neurrian, eta herriaren eta kolektibitatearen erritmoan, beti. Hirugarren eta azkenik, gaur egungo testuinguru kritikoan, trantsizioei dagokienez, ez dago aurrerapenik *konfrontaziorik* izan gabe. Botere korporatiboaren intentsitateak eta haren proiektuaren —XXI. mendeko kapitalismoa— epe luzerako ikuspegiak ekuazioan ekimen eta proposamen erradikalak, desobeditzaileak eta disruptiboak sartzera behartzen gaituzte, enpresa handiekin zuzeneko —eta baketsua— gatazka izatetik ihes egiten ez dutenak. Baina kontzertazio-eremuak alde batera utzi gabe, horretarako baldintzak daudenean.

Gure erreferentzia-markoan aurrera egingo dugu, trantsizio-ikuspegiari *agenden, eragileen eta eskalen inklusioaren* ahalmen kolektiboa gehi-

tuta. Lehenago azaldu dugu erasoaldi kapitalistaren sorreran logika indibidualistak, atomizatzaileak, baztertzailak eta borondategabeak daudela, eta enpresen jardun-ereduak sekretismoan eta opakutasunean oinarritzen direla. Erasoaldi horri aniztasuna antolatzen duten agenda komun bidez aurre egitea lehentasun estrategikoa da, modu horretan sendotu egiten baitira megaproiektuei aurre egiteko proposamenak eta babes-oinarri soziopolitikoa.

Inklusibitatea aipatu dugu kapitala-bizia gatazkaren markoan. Inklusibitate horrek, nolana ere, kontuan hartzen du posizio antagoinoak dituzten pertsonak, egiturak eta dinamikak daudela, eta horiei aurre egin behar zaiela. Premisa horretatik abiatuta, gure markoak proposatzen du ahalik eta borondate gehien gehitu behar direla, biziaren eta lurraldearen defentsarako agenda komunak lortzeko.⁵

Agenda inklusibo horiek, lehen aipatu bezala, ikuspegi hirukoitz batean ulertzen ditugu. Lehenbiziko ikuspegia *proposamen teoriko-politikoak* dira. Dimentsio bakarreko ikuspegiaren eta ikuspegi sektorialen aurrean, gaur egungo uneak benetako ahalegina egitea eskatzen digu, marko teoriko-politikoak interseksionatzeko ikusmuga normatibo zabal baten babespean —esate baterako, artikulua honetan proposatzen dena—, menderatze-sistema nagusiei aurre egiteko —kapitalismoa, heteropatriarkatua, kolonialtasuna—, eta mendeko sektoreek ahotsa eta protagonismoa izateko. Inklusibitateak, horrela, megaproiektuen aurkako gatazka zenbait ikuspegiaren interseksiotik egitea proposatzen du; hain zuzen ere, antikapitalismoaren, ekofeminismoaren, dekolonialtasunaren, demokraziaren, elikadura-burujabetzaren eta abarren ikuspegiatik. Ez terminoen batuketa huts edo kontzeptu-nahasketa moduan, baizik eta itsaskortasunaren, porositatearen, lotura komun baten eta osagarritasunaren bilaketaren premisaren babespean. Bigarren ikuspegia *lurraldean zenbait eragile* aglutinatzeko ahalmenarekin lotuta dago. Baldintza ego-

5. Kapitala-bizia gatazka ezin da gatazka dikotomikotzat soilik interpretatu, ez da zenbait enpresa handi eta etereoaren eta gizarte osoaren arteko gatazka. Aldiz, agenda hegemonikoaren zein biziaren defentsarako alternatiba guztien atzean, pertsonak daude, izen-abizenekin. Kapitalaren aurkako borrokan ere, planteamendu desberdinak daude, eta, horien barruan, neurri batean edo bestean onartzen dira ekodependentzia, interdependentzia, eta bizi-aniztasuna. Alde horretatik, kapitala-bizia gatazkan subjektu politikoak zehaztea ez da batere erraza. Nolanahi ere, agenda hegemonikoaren alde argi eta garbi posizionatzen direnei aurre egiteko, gure erreferentzia-markoaren erronka da ahalik agenda eta eragile gehien bereganatzea, toki-ko esparrutik esparru globalera.


6. BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA

kiak izanez gero, herri-sektoreen antolaketa izateaz gain, erakundee-tako, komunikazioen esparruko eta/edo esparru akademikoko *beste era-gile* batzuek bat egingo balute, agenda eta estrategia indartuko lirateke, nork bere identitatearen eta ahalmenen araberrako ekarpenak eginda. Hirugarren eta azken ikuspegia *eskalen inklusioa* da, tokiko esparrutik esparru globalera. Megaproiektuaren kateak logika globala duen heinean —zentro operatiboa, finantzaketa, exekuzioa, etab.—, garrantzitsua da kate horren ardura duten enpresen egoitza-herrialdeetan zenbait eratako eragileak dituzten proposamenak sortzea, mundu-eskalan eragina izateko. Horrela, borroka askoz eraginkorragoa da erantzukizun-katea esplizituki adierazten bada eta puntu askotatik presioa egiten bada.

Gure erreferentzia-markoa megaproiektuari aurre egiten dion *herri-mugimendu osoaren erresilientziari* eustearen eta hura sendotzearen aldeko apustuarekin itxiko dugu. Enpresa handiek beren boterea baliatzen dutela esan dugu, ez soilik intentsitatean eta multidimentsionalitatean, baizik eta denboran ere. Erresilientzia, hau da, erresistentzia egiteko eta testuinguru berrietara egokitzeko gaitasuna, funtsezkoa da askotan epe luzerako proiektzioa duen borroka batean. Are gehiago, borroka hori indar askoz handiagoa duten arerioen aurka bada.

Herri-erresilientziak, lehenik eta behin, megaproiektuen aurkako gizarte-oinarria handitzea eta esplizituki adieraztea dakar berekin. Agenda inklusiboekin bat etorritz, martxan jarriko diren estrategiek oso *demokratikoak* izan beharko dute, eta parte-hartze anitza eta kalitatezkoa prozesu osoaren balioztat hartu beharko dute. Era horretan zuzeneko demokraziako esperientziak garatzeak eta planak, agendak eta proposamenak modu kolektiboan prestatzeak babes-oinarriak eta barne-kohesioa sendotzen eta indartzen dute. Bigarrenik, erresilientzia lotuta dago, halaber, *estrategia dibertsifikatuari*, multidimentsionalari, eusteko ahalmenarekin. Horrela, garrantzitsua da tokiko esparruko ekintzak nazioarteko esparrukoekin uztartzea; barne-ekintzak kanpo-ekintzeekin uztartzea —hedabideetan, erakundeetan—; ekintza disruptiboak —hartzeak, mobilizazioak, etab.— kontzertazio-eremuekin uztartzea; eta elementu politiko eta kulturalak, berriz, elementu teknikoagoekin eta juridikoagoekin uztartzea —azterketak, ikerketak, salaketak—. Azkenik, borroka *epe luzerako ikuspegiz* planteatu behar da, norberaren higitzea saihestuta eta arerioaren mugimenduei aurrea hartzen saiatuta. Alde horretatik, mugimenduaren barne-kohesioari eustea funtsezkoa da, bai eta presio sozial, politiko eta mediatikoari eustea ere.

4. IRUDIA. ERREFERENTZIA-ESPARRUA



Iturria: Lanketa propioa.

Finean, gure erreferentzia-markoaren ikusmugako helburuak iraunkortasuna, denon ongia, demokrazia, aniztasuna eta berdintasuna dira. Halaber, megaproiektuekin lotuta, markoan aurrera egiteko aukera emango diguten ahalmen batzuk posizionatuko ditugu: trantsizioa, inklusibitatea eta erresilientzia, hegoaldeko epistemologiak zeharka ere izanda, balio erantsi gisa (ikus 4. irudia). Hala, honako ikuspegi hauek dituzten herri-erresistentzien alde egiten dugu: egunerokotasunetik abiatutako ikuspegia duten herri-erresistentziak, baina bizia antolatzeko proposamen alternatiboetarantz ausardiaz proiektatzen direnak, ezinbesteko konfrontaziotik ihes egin gabe; tokiko-herrialdeko-eskualdeko-globaleko eskalan agendak eta subjektuak integratu eta intersektionatzen dituztenak; eta epe luzerako ikuspegiko estrategia multidimentsionalak garatzen dituztenak, herriaren parte-hartze aktiboa eta kalitatezkoa izanda, beti.

HERRI-ERRESISTENTZIAK MEGAPROIEKTUEN AURKAGAKO POLITIKOAK

Gure erreferentzia-markoa dela-eta, zenbait gako sortzen dira berez, modu naturalean. Gure ustez, gako horiek estrategikoak dira mega-

6. BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA

proiektuen aurkako erresistentzia planteatzerakoan. Kasuistika ugari daude, testuinguruak era askotakoak dira, eta ekimen korporatiboak, berriz, mota askotakoak. Edozein kasutan, gure ustez, biziaren eta lurraldearen aldeko defentsarako lehia politikoa zenbait zutabe komunetan —dogmak batere ez— oinarritu behar da, eta zutabe horiek lagungarriak izan behar dute borrokak aztertzeko, bideratzeko, iraunarazteko eta zabaltzeko. Erreferentzia horiek, funtsean, bizi garen unearen analisi kritikotik eta herri-erresistentziaz betetako historiari sortzen dira, baina, zalantzarik gabe, kasu zehatz bakoitzean moldatu, egokitu eta testuinguruan jarri beharko ditugu.

Horrela, aurreko atalean aipatu ditugun trantsizioaren, inklusibitatearen eta erresilientziaren adieretatik, gure proposamena osatzen duten 10 gako politikoa sortzen dira. Xede pedagogikoetarako, gako horiek bi esparru osagarritan berrantolatuko ditugu: agenda, batetik, eta estrategia, bestetik. *Agenda* deritzogu megaproiektuaren aurkako erresistentziari eusteko errelatuari. Agendak, hala, egoeraren diagnostikoaz gain —testuinguruaren erradiografia egitea, eragileen mapa zehaztea, eraginak eta erantzukizunak markatzea—, bere baitan hartzen du herri-sektoreek ekimen korporatiboari aurre egiteko bide alternatibotzat proposatutako narratiba. *Estrategia*, berriz, gizarte-mugimenduak bere agendan aurrera egiteko bultzatzen dituen mugarren, prozesuen eta ekintzen sekuentzia politikoa da. Hau da, erresistentziaren garapena praxian eta denboran.

Agenda (*zer*) eta estrategia (*nola* eta *nork*) bereizten ditugu bi kategoria horien garrantzia ikusarazteko errelatua eta praktika, ikusmuga eta oraina, proposamena eta subjektua uztartzen dituen logika komun baten barruan. Horrela, ezin ditugu bakarka aztertu, baina ezin dugu bata bestea gabe subsumitu ere. Hala, ez dago zutabe teoriko-politiko-kultural-komunikatibo batzuetan sostengatzen ez den estrategiarik. Eta, aldiz, agenda batek aurrera egiteko prozesu, eragile eta ekimen kateatu ugari beharko ditu.

Premisa horretatik abiatuta, lehenetsitako 10 gako politikoa azalduko ditugu. Oin-oharretan, korporazio handien aurkako erresistentziaren esperientzia arrakastatsuen adibideak jaso ditugu.⁶

Agendari dagokionez, gako hauek nabarmenduko ditugu:

6. Adibide labur bat soilik emango dugu gako bakoitzeko. Izan ere, hurrengo ataleko baliabideen eta tresnen kutxan esperientzien eta prozesuen analisi sistemikoagoa egin dugula uste dugu, aukeratu ditugun gakoek berme izateko modukoa.

1. *Egunerokotasunetik abiatzea.*⁷ Komunitatean errotutako agendek, megaproiektua herri-gehiengoan eguneroko bizitzarekin lotzen dutenek, oinarri sendoagoak dituzte. Proposamen politikoa moldatzean, beraz, gauza zehatzak hartu beharko lirateke kontuan, lurraldean eta lurraldean bizi direnen gorputz zaurgarrietan aurreikusitako ondorioak, komunitatea osatzen dutenen bizitzan oinarri material eta kulturalen izan daitezkeen eraginak. Proposamen hori eratzten duen errelatuak, berriz, koherentziari dagokionez, sinplea, ulergarria eta pedagogikoa izan beharko luke, eta bere gain hartu beharko luke tokiko esparrutik harago doazen fenomenoak lurralde-prisma batetik azaltzeko erronka.
2. *Narratiba propio bat posizionatzea, logika positibo batean.*⁸ Bultzatzen den errelatuak, hura egunerokotasunetik abiatzeaz gain, aukera handiagoak izango ditu herri-legitimitatea lortzeko, klabe negatiboan eraikitzeaz gain —megaproiektua desegitea—, klabe positiboan ere eraikitzen bada —proposamen alternatiboa—. Garrantzitsua da aurrera egiteko bide bat izatea, ikusmuga emantzipatzaile eta bideragarri bat, nonahikotasun korporatiboari eta haren logikari (alternatibarik ez dagoela, alegia) aurre egiteko bidea irekitzeko aukera izateko.
3. *Proposamen interseksional bat prestatzea.*⁹ Ikuspegi interseksionaltasunean oinarrituta sortzen diren agendek herri-proposamenaren edukia

-
7. Betchtel enpresak ura pribatizatzeako egindako ahaleginaren aurkako *uraren gerra* (Cochabamba, 2006) izeneko herri-erreboltaren arrakastaren gakoetako bat prozesu horrek eragin zezakeen ondorioen inguruan antolatutako agenda bat sortzeko gaitasuna izan zen. Ondorioen artean ez ziren prezio-igoera neurrigabeak soilik kontuan hartu, ureztatzaileek jasan zitzaizketen ondorioak eta, oro har, eremu komun (putzuak, ibaiak...) erabileraren eta usufruktuaren gaineko ondorioak ere sartu zituzten agenda horretan.
 8. Nantesen aireportu berri bat egiteko proiektua 2018an geldiarazi zuten behin betiko, gizarte-mugimendu ugari hamarkada batez egindako borrokari esker. Mugimendu horiek nekazaritza ekologikoan eta eremu komunitarioetan oinarritutako proposamen komunitario bat egin zuten megaproiekturako desjabetutako 1650 hektaretarako.
 9. Elikadura-burujabetzaren agendak proposamen alternatibo gisa, indar politiko handia hartu zuen Malin 2007an antolatutako Nyeleniko Foro Globaleko adierazpenaren ostean. Hori ahalegin kolektiboa izan zen, Via Campesinaren inguruan antolatutako nekazariez gain, mugimendu feministak (Emakumeen Mundu Martxa) eta ekologistak (Lurraren Lagunak) ere parte hartu baitzuten.

6. BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA

aberasten dute eta, aldi berean, proposamen horren babes-oinarria handitzeko aukera ematen dute. Alde horretatik, egoeraren eta megaproiektuak eragin ditzakeen ondorioen diagnostikoa, eta megaproiektuaren alternatibarako errelatua erreferentzia-marko inklusiboetatik abiatu beharko liriateke, aniztasunaren batasuna antolatzea errazteko, subjektu eta sektore anitzen arteko asimetriak esplizituki adierazteari utzi gabe.

4. *Alternatiba erradikal bat defendatzea.*¹⁰ Erasoaldi merkantilizatzailaren agresibitateak posible denaren marko estutik ateratzeko erronka onartzera behartzen gaitu, agenda erradikaletatik abiatuta, merkatuak eta enpresa handiak erdigunetik ateratzeko. Kapitalaren eta biziaren arteko gatazka areagotzen bada, biziaren defentsaren aldeko apustuak irmoa izan behar du, indarrean dauden balio, egitura eta dinamiken antagonikoak diren dinamiketan oinarritutako ikusmuga aurrez irudikatuz.

Estrategiari dagokionez, lehentasuna emango diegu gako hauei:

5. *Žuzeneko demokrazia parte-hartzailea bultzatzea.*¹¹ Demokrazia balio sendotzat duen estrategia da herri-mugimenduan errotutako agenda prestatzeko, babes-oinarriari eusteko eta hura zabaltzeko, eta eragin politiko eta mediatikoa izateko berme bakarra. Horrela, parte-hartze aktiboak, anitzak eta kalitatezkoak, eta informazio eta komunikazio gardenak eta etengabeak izan beharko lukete borroka-prozesuko jardunbiderako gakoak. Halaber, megaproieik-

10. Andaluziako Langileen Sindikatuak (SAT) egindako lur publikoen eta korporatiboen hartzeen oihartzuna (esaterako, Jódar udalerrian egin zena, BBVAren lur-pilatzearen aurka) izugarri areagotzen da ekintza horrekin batera proposamen alternatibo bat egitean (Andaluziako Nekazaritza Ondarea). Proposamen horrek urteko aurrekontu publikoaren %4 lurren erosketa publikoak egiteko erabiltzea sustatzen du, herri-kooperatibei eta ekonomia solidarioko erakundeei usufuktuan emateko. Kooperatiba eta erakunde horiek, berriz, Ondare hori elikatuko lukete Andaluziako Funtz Antilatfundistaren bidez.

11. Sipakapa herrian (Guatemala, 2005) lur gaineko meatzaritzako megaproiektuari (Marlin meategia, Goldcorp enpresakoa) aurre egiteko egindako herri-konsultak megaproiektua geldiaraztea lortu zuen, megaproiektuaren egoera juridiko-legalerako lege-hutsunea sortuta. Proiektuak aurrera jarraitzen du ondoko udalerrietan, eta botere korporatiboa presioa egiten ari da kontsultei buruzko lege bat onesteko, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 169. hitzarmena indargabetzeko asmoz.

tuari buruzko kontsulten, kabildoen, erreferendumen eta abarren aldeko apustua —lehenespenez, erakundeen babesaz eta babespean, baina horrelakorik ez badago ere bai— komunitatea kohesio-natzeko eta aktibatzeke mugarri estrategiko bihurtzen da eta, aldi berean, erresistentziaren strategiaren ahalmena areagotzen du.

6. *Erresistentzia multisektorialeko prozesu bat garatzea.*¹² Herri- eta komunitate-mugimendua indartu egiten da lehia politikoari bere magnitude osoan heltzen dion borroka integraleko prozesu bat planteatzen denean. Bizia eta biziaren aniztasuna, ekodependentzia eta interdependentzia defendatzeko; gizarte-antolaketaren espektro osoa hartzen duen botere korporatibo bati aurre egiteko; oso jardun-eredu zabalak dituzten enpresa boteretsuen enbatari eusteko, horretarako guztirako, oso erantzun multisektorial irmoa behar da. Hala, errelatu komun baten eraikuntza, informazio argia eta gardena, komunikazioa, gizarte-mobilizazioa, eragina, herrialdeko eta nazioarteko aliantzak, erakundeen presioa, auzibidea eta abar erresistentzia-prozesu antolatuetan ahal den neurrian ezarri beharko lirakeen ildoak dira.
7. *Epe luzerako borroka egiteko baldintzak bermatzea.*¹³ Borroka denboran proiektatzen denean —batez ere, borroka hori oso asimetrikoa bada botereari dagokionez—, helburuen eta ahalmenen arteko orekaren analisi iraunkorra egin beharko litzateke, gatazka modu baketsuan tentsionatzeko estrategia azken helburutzat izanda,

12. Tehuantepec-eko istmoan, enpresa asko —besteak beste, Iberdrola— haize-energiako megaproiektu bat garatzen ari dira zenbait fasetan. Megaproiektuari dagokionez, dokumentatuta dago gehiegikeriak gertatu direla nekazariei lurak erostean, LANEren 169. hitzarmena ez dela betetzen, etab. Istmoan sortutako gizarte-antolaketa estrategia anitza erabiltzen ari da, eta sendotu egin da honako hauek uztartzeari esker: bide juridikoa (engainatutako nekazarien defentsa, aurretiko kontsulta egin behar dela eskatzea), logika autokudeatzaileen aldeko apustua (lurraldearen defentsa, komunitateen autonomia sendotzea) eta nazioarteko eraginak ekimenean parte hartzen duten enpresekiko.

13. Aipatutako esperientzia arrakastatsuetako askok erresistentziari eustea eta erresiliente izatea lortu dute barne-kohesioa izateari eta agendaren foku mediatiko eta politikoa zabaltzeari esker. Hala gertatu da Nanteseko aireportuaren aurkako borrokan, edo COPINHeK (Honduraseko Herri- eta Indigena Erakundeen Kontseilu Zibikoa) DESA enpresako Agua Zarca proiektu hidroelektrikoaren aurkako borrokan (Honduras). Azken proiektu horren aurkako presioari eutsi egin diote urtez urte —5 militante erail arren—, eta proiektua geldiaraztea lortu dute.

6. BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA

herri-agendaren eremua zabalduz eta haren babes-oinarria handituz. Horren osagarri, herri-estrategiak aurrera egiten du eredu korporatiboei aurrea hartzen dienean; izan ere, eredu korporatiboek epe luzerako ikuspegia, adostasuna bilatzea, protestaren kriminalizazioa eta zuzeneko indarkeria ere uztartzen dituzte. Horrenbestez, honako hauek funtsezko bihurtzen dira: batetik, aurreko atalean azaldutako logika multisektorialean prozesuak aktibatzen ahalmen proaktiboa izatea, eta, bestetik, borrokari denboran eusteko baldintza optimoak ahal den neurrian bermatzea (erresistentzia-kutzak, estaldura juridikoa, barne-kohesiorako esparru demokratikoak, aliantza-sare zabala, etab.).

8. *Kontzertazioa jardunbide disruptibo eta desobeditzaileekin uztartzea.*¹⁴ Posible denaren markoa zabaltzen duten agenda erradikalek lotura estua dute eragin-fokua handiagotzen duten estrategia disruptibo eta desobeditzaileekin. Horrela, mobilizazio handiak, legez kanpoko obrak eta/edo obra ilegitimoak eragozten dituzten etengabeko kontzentrazio baketsu eta iraunkorrak, eremu publiko eta korporatiboak hartzea, kontsulta komunitarioak eta/edo gizarte-kontsultak egitea, etab., oso positiboak izan litezke megaproiektuaren aurkako erresistentziarako ausardiaz egiten badira beste elkarriketa- eta kontzertazio-ekimen batzuekin batera.
9. *Zenbait eragile elkartzeta.*¹⁵ Enpresa boteretsu eta opakuen aurkako borrokaren dimentsioa eta intentsitatea direla eta, herri-mugimendu anitza aglutinatzeaz gain, nahitaezkoa da beste eragile batzuek ere bat egitea, ekarpenak egin ditzaten agenda eta estrategia komunera beren identitatearen arabera. Alde horretatik, honako hauen parte-hartze estrategikoa nabarmendu nahi dugu: mundu akademikoaren eta/edo gizarte-ikerikuntzaren parte-hartzea

14. Aipatutako Agua Zarca proiektuaren inguruko kasu mediatikoan —Berta Cáceres erail zuten borroka horretan—, kontzertazio- eta elkarriketa-ekintzak beste ekintza disruptiboagoekin uztartu zituzten. Esate baterako, etengabeko kontzentrazioa egin zuten obraren ateetan, korporazioak negoziatzeko borondate gutxi zuela egiaztatu zenean. Horrek aukera eman zuen borroka politikoa herrialdeko eta nazioarteko esparruetara hedatzeko.

15. Lehen aipatutako *uraren gerran*, uraren pribatizazioaren aurka zeuden biztanleria-sektore oso desberdinek bat egin zuten gizarte-mobilizazioan eta -agendan. Herritarrez, ureztatzaileez, nekazariez, maisu eta maistrez gain, unibertsitateak ere parte hartu zuen —funtsezkoa eragin-azterketak egiteko—, bai eta tokiko eta herrialdeko hedabideek ere, oihartzun mediatikoa eman baitzioten herri-erreboltari.

—herri-narratiba sendotuz eta enpresen narratibari aurre eginez—; hedabideen parte-hartzea —foku mediatikoa handiagotuz—; kargu publikoen parte-hartzea —erakunde-estrategiari laguntzeko—; eta legegileen parte-hartzea —borrokarako eta defentsa komunitario-rako legezko bideak garatzeko—.

- 10.** *Aliantza- eta eragin-logika tokiko-globaleko esparrurako zabaltzea.*¹⁶ Gizarte-eraginak eta -erantzunak bere ahotsa zabaltzen du eta erresistentzia-esparrua handiagotzen du, erresistentzia megaproiektua ezartzeko lekura mugatzen ez bada eta megaproiektuaren hidra korporatiboa osatzen duten lurraldeetan ere antolatzen bada. Alde horretatik, megaproiektuaren finantzaketatik ezarpenera bitarteko arloetan parte hartzen duten enpresen egoitza-lurraldeetako eragile sozial, politiko eta mediatikoekin aliantzak egitea lagungarria da kontestazioa, agenda eta estrategia indartzeko, eta korporazioen pitzadurak handitzeko.

Zehaztu berri ditugun lehenetsitako gako politikoak 5. irudian laburbiltzen dira.

Azken finean, komunitatean errotutako erresistentzia-agendak prestatzearen alde egiten dugu, elementu herrikoietan oinarritutako agendak, alegia, baina, aldi berean, narratiba alternatibo, inklusibo eta erradikal bat planteatzeko gaitasuna dutenak, megaproiektuak desegiteko aukera emateaz gain, gizartea antolatzeko modu bidezkoagoetaranzko, ekitatiboagoetaranzko eta bizigarriagoetaranzko trantsizioa egiteko aukera emango dutenak ere. Koherentziaz, estrategia politiko multisektorialak, erresilienteak eta guztiz demokrati-koak bultzatzea defendatzen dugu, non eragile anitzekiko aliantzen pisua ardatz estrategiko bihurtzen den, tokiko-globaleko esparruen logikan.

16. VALE Brasilgo enpresa transnazionalak 33 herrialdetan jarduten du eta, haren aurka, enpresak kaltetutakoen nazioarteko aliantza bat eratu zen. Horrek mugimenduaren nazioarteko eraginaren oihartzuna areagotzen du, aniztasunaren logika baliatuta, bat egin baitzuten Kanadako sindikatuen, Brasilgo elkarte sozialen eta ekologisten, eta Mozambikeko komunitateen ahaleginek. COPIHN kontseilu zibikoak lehen aipatu dugun Agua Zarca proiektuaren aurka egindako borroka, berriz, arrakasta izan du eragina proiektua finantzatzen zutenei iritsi denean. Europako kasuan, Garapenerako Herbehereetako Bankuak (FMO) eta Industria Lankidetzarako Finlandiako Funtsak (FINNFUND) finantzaketa eten egin zuten eraiketen eskandaluaren ondorioz.

5. IRUDIA. **GAKO POLITIKOAK**

1. Egunerokotasunetik abiatzea
2. Narratiba propio bat posizionatzea logika positibo batean
3. Proposamen interseksional bat prestatzea
4. Alternatiba erradikal bat defendatzea
5. Zuzeneko demokrazia parte-hartzailea bultzatzea
6. Erresistentzia multisektorialeko prozesu bat garatzea
7. Epe luzerako borroka egiteko baldintzak bermatzea
8. Kontzertazioa jardunbide disruptibo eta desobeditzaileekin uztartzea
9. Zenbait eragile elkartzea
10. Aliantza- eta eragin-logika tokiko-globaleko mailarako zabaltzea

Iturria: Lanketa propioa.

Ikusmuga hori izanik, megaproiektuen aurkako herri-erresistentziarako proposamen honen korolariora *ausardiaren* aldeko apustua da. Honako hauetarako aukera emango duen ausardia, hain zuzen ere: une eta testuinguru bakoitzean gako horiek eta beste batzuk uztartzeko, borroka politikoaren nondik norakoen arabera; borroka asimetrico eta konplexu batean plangintza, aldaketak, atzerakadak eta aurrerapenak egiteko aukera emango duen ausardia, biziaren eta lurraldearen aldeko defentsan amore eman gabe.

BIBLIOGRAFIA

CUNHA, Teresa, eta Isabel CASIMIRO (2019): «Hegoaldeko epistemologiak eta bizi-alternatiba feministak. Gure Mozambikeko Errauskinek hitz egin nahi dute», in Jokin ALBERDI, Isabel CASIMIRO, Teresa CUNHA, Alfonso DUBOIS, Gonzalo FERNÁNDEZ, Yolanda JUBETO, Mertxe LARRAÑAGA, María OIANGUREN eta Luísa de Pinho VALLE: *Gatazka egoeran dauden lurraldeak. Bizi-alternatibak eraikitzeke gakoak*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratu.

DUBOIS, Alfonso (2019): «Proposamen alternatiboa gaitasunen ikuspegitik abiatuta. Kontzeptuak eta analisi-markoa», in Jokin ALBERDI, Isabel CASIMIRO, Teresa CUNHA, Alfonso DUBOIS, Gonzalo FERNÁNDEZ, Yolanda JUBETO, Mertxe LARRAÑAGA, María OIANGUREN eta Luísa de Pinho VALLE: *Gatazka egoeran dauden lurraldeak. Biziz-alternatibak eraitzitzeko gakoak*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratuz.

ELGA (EKONOMIA LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO ANTOLAKUNDEA) (2014): *Policy Challenges for the Next 50 Years* (OECD Economic Policy Papers, 9).

FERNÁNDEZ, Gonzalo (2016a): *Alternativas al poder corporativo. 20 propuestas para una agenda de transición en disputa con las empresas transnacionales*, Bartzelona, Icaria. Eskuragarri hemen: <<http://omal.info/spip.php?article8131>>.

— (2016b): *Alternativas para dismantelar el poder corporativo. Recomendaciones para gobiernos, movimientos y ciudadanía*, Bilbo, Hegoa (UPV/EHU). Eskuragarri hemen: <<http://omal.info/spip.php?article8246>>.

— (2018a): *Mercado o democracia. Los tratados comerciales en el capitalismo del siglo XXI*, Bartzelona, Icaria.

— (2018b): «De la guerra comercial a la guerra económica global», *El Salto*, 2018/11/23. Eskuragarri hemen: <<https://www.elsaltodiario.com/una-de-las-nuestras/guerra-economica-global>>.

GLOBAL JUSTICE NOW (2016): «Archivo de datos sobre pueblos frente a corporaciones». Eskuragarri hemen: <https://www.globaljustice.org.uk/sites/default/files/files/resources/corporations_vs_governments_final.pdf>.

HARVEY, David (2005): *El nuevo imperialismo, acumulación por desposesión*, Buenos Aires, CLACSO. Eskuragarri hemen: <<http://biblioteca.clacso.edu.ar/clacso/se/20130702120830/harvey.pdf>>.

HERNÁNDEZ, Juan, eta Pedro RAMIRO (2015): *Contra la 'lex mercatoria'. Propuestas y alternativas para dismantelar el poder de las empresas transnacionales*, Bartzelona, Icaria.

JUBETO, Yolanda, Mertxe LARRAÑAGA eta Luísa de Pinho VALLE (2019): «Lurraldeen despatriarkalizaziorako eta deskolonizaziorako eta bizitza sarearen aldeko proposamen feministak», in Jokin

6. BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA

ALBERDI, Isabel CASIMIRO, Teresa CUNHA, Alfonso DUBOIS, Gonzalo FERNÁNDEZ, Yolanda JUBETO, Mertxe LARRANAGA, María OIANGUREN eta Luísa de Pinho VALLE: *Gatazka egoeran dauden lurraldeak. Bizi-alternatibak eraikitzeko gakoak*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratu.

PÉREZ OROZCO, Amaia (2014): *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*, Madril, Traficantes de Sueños.

SANTOS, Boaventura de Sousa (2014): «Más allá del pensamiento abismal: de las líneas globales a una ecología de saberes», in Boaventura de Sousa SANTOS eta María Paula MENESES: *Epistemologías del Sur (Perspectivas)*, Madril, Akal.

TRESNAK ETA BALIABIDEAK

Jarraian, gure erreferentzia-markoa eta proposamen politikoa indartzen duten tresna eta baliabide batzuk azalduko ditugu. Kapituluaren hariaren arabera aipatuko ditugu. Lehenik eta behin, botere korporatiboarekin eta haren XXI. mendeko kapitalismoaren proiektuarekin lotura dutenak, gero, megaproiektuek lurraldeetan eragiten dituzten ondorioak azpimarratzen dituztenak eta, azkenik, botere korporatiboari aurre egiteko erresistentzia- eta eraikuntza-markoak, -proposamenak eta -esperientziak azaltzen dituztenak.

■ Botere korporatiboaren eta haren XXI. mendeko kapitalismoaren proiektuaren analisiari dagokionez, bi liburu hauek azpimarratu nahi ditugu zehazki:

FERNÁNDEZ, Gonzalo (2018): *Mercado o democracia. Los tratados comerciales en el capitalismo del siglo XXI*, Bartzelona, Icaria.

HERNÁNDEZ, Juan, eta Pedro RAMIRO (2015): *Contra la 'lex mercatoria'. Propuestas y alternativas para dismantelar el poder de las empresas transnacionales*, Bartzelona, Icaria.

Bi liburu horien irakurketa osatzeko, bi bideo aipatu nahi ditugu, enpresa handien inguruan antolatutako botere integrala eta enpresa

horiek gizarte-gehiengoetan duten eragina aztertzeko aukera ematen digutenak. Hona hemen:

OMAL (LATINOAMERIKAKO MULTINAZIONALEN BEHATOKIA) (2017a):

¿Adónde va el *capitalismo español?* (1.ª parte): *Las empresas transnacionales en el capitalismo global*, OMAL eta Intermedia Producciones. Eskuragarri hemen: <<http://omal.info/spip.php?article8591>>.

— (2017b): ¿Adónde va el *capitalismo español?* (2.ª parte): *La arquitectura jurídica de la impunidad*, OMAL eta Intermedia Producciones. Eskuragarri hemen: <<http://omal.info/spip.php?article8594>>.

■ Korporazioek megaproiektuak lurraldeaz jabetzeko tresna gisa erabiltzeari buruzko azterketei dagokienez, txosten ugari ditugu. Hain zuzen ere, enpresa horien gizarte-, ingurumen- eta kultura-eraginak mapatzeko ekimenak jarri dituzte martxan erakunde hauek: Latinoamerikako Geopolitikaren Behatokia (OLAG), ETC Taldea, GRAIN edo Globalizazioan Zorraren Behatokia (ODG), besteak beste. Horrez gain, herrialdeei, enpresei eta ekonomia-sektoreei buruzko ikerketa espezifikoak egin dituzte honako hauek: Arropa Garbia Kanpaina, Mugarik Gabeko Ingeniaritza, JM Delàs Bake Ikasketen Zentroa, Ekologistak Martxan elkarteak eta Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia (OMAL)-Bakea ta Duintasuna Elkarteak. Nolanahi ere, honako hauek nabarmenduko ditugu:

CECEÑA, Ana Esther, eta Raúl ORNELAS (koord.) (2017): *Chevron, paradigma de la catástrofe civilizatoria*, Madril, Siglo XXI.

RAMIRO, Pedro, eta Erika GONZÁLEZ (2016): *Empresas energéticas y vulneración de los derechos humanos*, GUE/NGL (Europako Ezker Batua / Ezker Berde Nordikoa), Europako Parlamentuko Taldea. Eskuragarri hemen: <<http://omal.info/spip.php?article8181>>.

UHARTE, Luis Miguel (2012): *Las multinacionales en el siglo XXI: impactos múltiples. El caso de Iberdrola en México y en Brasil*, Madril, 2015 y más.

Ikuspegi bisualago batetik, dokumental hau gomendatzen dugu:

6. BOTERE KORPORATIBOA LURRALDEEN ERASORA

BAKEA TA DUINTASUNA ELKARTEA-OMAL (LATINOAMERIKAKO MULTINAZIOALEN BEHATOKIA) (2010): *Defensora*. Eskuragarri hemen: <<http://www.pazcondignidad.org/blog/defensora-documental/>>.

■ Azkenik, botere korporatiborako alternatibei dagokienez, liburu eta txosten hauek nabarmendu nahi ditugu zehazki:

FERNÁNDEZ, Gonzalo (2016a): *Alternativas al poder corporativo. 20 propuestas para una agenda de transición en disputa con las empresas transnacionales*, Bartzelona, Icaria. Eskuragarri hemen: <<http://omal.info/spip.php?article8131>>.

— (2016b): *Alternativas para dismantelar el poder corporativo. Recomendaciones para gobiernos, movimientos y ciudadanía*, Bilbo, Hegoa (UPV/EHU). Eskuragarri hemen: <<http://omal.info/spip.php?article8246>>.

PÉREZ, Zaloa (2016): *Transformando los territorios desde la economía solidaria. Herramientas para el impulso de políticas públicas locales*, Bilbo, REAS Euskadi. Eskuragarri hemen: <http://www.socioeco.org/bdf_fiche-document-5279_es.html>.

PIRIS, Silvia (2015): *Sembrando soberanías para otros modelos de vida en Euskal Herria. Algunas propuestas para la construcción de políticas públicas locales desde la soberanía alimentaria*, EHNE Bizkaia eta Bizilur. Eskuragarri hemen: <https://issuu.com/elikaherriaelikaduraburujabetza/docs/politicas_p_blicas/3>.

RAMIRO, Pedro, eta Gonzalo FERNÁNDEZ (argtz.) (2015): «Propuestas y resistencias al poder de las empresas transnacionales», *Lan Harremanak*, 33. Eskuragarri hemen: <<https://dialnet.unirioja.es/ejemplar/423384>>.

Eta bideo hau:

OMAL (2017): *¿Adónde va el capitalismo español? Alternativas al poder corporativo*. Eskuragarri hemen: <<http://omal.info/spip.php?article8642>>.

Gernika Sarea

**Berradiskidetzearen aldeko prozesuetan
laguntzeko nazioarteko sarea**

Gernika Gogoratuz aztertegiak oso argi du adiskidetzea ezinbesteko elementu gidaria dela bake askatzaile eta iraunkorra lortzeko prozesuetan, horren bidez egiturak eraldatu eta bidezkoagoak egiten baitira, egia historikoa lortzen baita eta biktimak ohoratzen baitira. **Gernika Sarea** 1997an sortu zen, eta batzarra egiten du urtero, Gernikako Kultura eta Bakearen Nazioarteko Jardunaldietan.

Artekalea, 1-1. solairua •

E-48300 Gernika-Lumo • Bizkaia (Spain)

Tel.: +34 94 6253558

Posta elektronikoa: info@gernikagogoratuz.org

<http://www.gernikagogoratuz.org>

Argitalpen hau «**Gatazka egoeran dauden lurraldeak: gaitasunak sendotzeko eta bizi-alternatibak eraikitzeko ikerketa, formakuntza eta ekintza**» proiektuaren esparrukoa da, eta bertan, proposatzen da aztertzea zer inpaktu duten faktore transnazionalak lurraldeetan, kanpoko eragileek lurralde horien etorkizuna erabakitzeko ahalmen autonomoa mehatxatzen dutenean. Hala, gatazka-esparru bat sortzen da herriaren aldarrikapenen eta kanpoko interesen asmoen artean, zenbait modutan adierazita. Era berean, lurralde horiek dituzten gaitasunak nola indartu planteatzen da argitalpenean, hala beren alternatibak definitu eta eraiki ahal izan ditzaten.

Argitalpeneko orrialdeetan zehar, helburu horiek lortzeko bidean egokitzen jotzen diren planteamendu teorikoak azaltzen dira: alde batetik, tokiko gizarte bakoitzaren proiektu propioak eraikitzeko prozesuetan faktore transnazionalak —batez ere enpresek— zer-nolako eragina duten jakitea; bestetik, jasangarritasunean eta justizia sozialean oinarrituta lurralderako irtenbide alternatiboak proposatzen dituzten prozesu kritiko kolektiboak deskribatzea eta ebaluatzea.

ISBN: 978-84-09-17636-6



9 788409 176366